



Iturria: *Testamen Çaharreko eta Berrico Historia (Lehenbicio liburua)*.  
Bernard Larreguy. Fauver-Duharte, 1775.  
*Testamen Çaharreko eta Berrico Historia (Bi-garren liburua)*.  
Bernard Larreguy. Fauver-Duharte, 1777..

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarregiZaharreko.htm>

## TESTAMEN ZAHARREKO HISTORIA

**Bernard Larregi**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **TESTAMEN ZAHARREKO ETA BERRIKO HISTORIAO**

M. de Royaumontek egin izan duenetik  
berriro eskararat itzulia;

*Etsenplu eta erreflexione sainduekin;  
bi Liburutan ezarria.*

LEHENBIZIKO LIBURUA:  
Testamen Zaharra

BAIONAN,  
Fauvet-Duharten Inprimerian egina.

M. DCC. LXXV.  
Permisionearekin



## LIBURU HUNEN ETSAMINATZAILLEEN LEHKUKOTASUNA ESKARAZ ETA FRANZESEZ

Irakurri dut atenezione handi batekin *Testamen zaharreko eta Berriko Istorioa, M. de Royaumontek egin izan duenetik, berriro B. Larregi, Basusarriko Jaun Erretorak, eskararat itzulia, etsenplu eta erreflexione sainduekin; bi liburuetan ezarria. Lehenbiziko liburua: Testamen zaharra.* Obra hunek atsegin egin darot. Esparantza dut Eskaldun guzien gogarakoa izanen dela, lehiarekin irakurriren dutela, eta on handi bat eginen duela gure diozesan. Uzte dut oraino bat bederak nik baino hobeki laudatuko duela liburu maite hunen merezimendua, eta prezatuko duela hunen moldatzaileak bere herritarren fagoretan hartu nahi izan duen pena luzea eta laugarria.

Eskaldunek hemen ikhusiren dituzten bere erdararen garbitasun guzian, arrimurik ederrenean eta nahikarazko argitasunean, zertarainokoa gure Jainkoak egundainotik seinalarazi dituen bere bothere guzizkoa gaixtaginen kontra, eta bere miserikordia infinita haren manu errespektagarriak leihalki bethetzen dituztenen alderat. Zenbat fruitu gozo eta salbagarri ez du gure eskal herriak igurikitzeke hulako hazi saindu batetarik? Zer ontasun preziatu ez dute bilduren liburu huntan ezarriak diren gauza miragarriez, eta sentimendu Jainkozkoen baliatzeko zuhurtzia izanen dutenek!

Getarian, otsaillaren hogoi eta hirurean milla eta zazpi ehun eta hirur-hogoi eta hamabortzean.

Salvat Etxart, Getariako Erretorea

Ezin hemendik harat erranen da eskal herria gabetua dela bere erdarako liburuez. Lehia eta bozkariarik handienarekin bakotxak irakurtuko du *M. Larregi Donibandarrak, Basusarriko Jaun Erretorak, esakararat eman duen Testamen Zaharreko Historioa, &c* Obra huntaz laudoriorik konpliena egitea da, nortaz egina izatu den erratea. Behinere ez dira ahantziko Jaun hark eman dituen kantiko gozo eta xarmagarriak; bihotza badaramate Jainkoaren maitatzerat. Liburu huntan ediren da gantzadura bera. Yakinek bezala eskolarik ez dutenek ere hemen aurkhituko dute hitzkuntzarik garbiena eta eskararik phuruena. Erran behar da lan idor eta nekhagarri huni lothzeak ematen duen ageriki erakusterat obra hunen, moldatzailearen amodioa

bere eskal herritarren alderat; zuzen da guziok bihur diotzagun gure eskerak. Atenezione handirekin irakurri izan dut liburu hau. Bazait guretzat probetxos bezain ohore egitekoa dela moldatu duenarentzat.

Donibanen emana, otsaillaren hogoi eta seiean milla zazpi ehun eta hirur-hogoi eta hamabortzean.

Saint Martin, Donibaneko Apeha

La piete & les talents du fleur Larreguy Nous étoient trop connus, pour ne pas bien, angurer d'un ouvrage qui porteroit son nom. Les certificats avantageux qu'en ont donné les fleurs Etchart & Saint-Martin, par Nous nommes pour l'examiner, ont changé nos conjectures en conviction. Un Peuple qui a toujours ignoré tout autre idiôme que le basque, lira, pour la première fois, avec admiration l'histoire de la création de l'homme, avec douleur celle de sa chûze, avec reconnaissance celle de sa rédemption, & avec une utile confusion (c'est notre espoir) celle de son ingratitude. Non-seulement donc Nous permettons au fleur Larreguy de faire passer entre les mains des fideles de ce diocese, le livre en langue basque intitulé: *Testamen Çaharreko eta Berriko Historioa, M. de Royaumontek egin izan duenetik, berriro eskararat itzulia, exemplu eta erreflexione sainduequin; bi liburuetan ezarria. Lehenbiziko liburua: Testamen Çaharra:* mais même Nous l'exhortons à se rendre le plutôt possible aux empressements qu'ils lui temoignent, pour repaître leur pieufe curiosité sur un article aussrinrèfessant pour eux.

Doné a Bayonne, le huit mars mil sept cent soixante-&-quinze.

De Hureaux, Vicaire-general & Official



## ABISUA IRAKURTZAILLEARI

Edireten dire iskritura sainduen Jainkoak berak egin izan dituen mirakuilluez landan, patriarkek eta lehenagoko saindurik handienek egin izan dituzten gauza eder eta miragarriak. Ala gaiak baidire izpirituari atsegin probetxos bat egiteko, eta bihotza errelijionean finkatzeko! Damu gaixtorik beraz Jainkoaren hitz sakratuek eta sainduen mirakuillu unkigarriek egon beharko zuten ilhunbetan bezala gizonaren izpirituaz gorago direlaketzat. Liburu huntan ekharriak diren etsenplu edifikagarri, eta plazer egingarriek suntsi arazten ditu ilhunbe lodienak, eta hedatzen dute argi nahikarazkoena.

Liburu huntako etsenplutan aurkitzen da gisa guzietarik. Badire on direnak erregentzat, burasoentzat, eliza-gizonentzat, zahar eta gaztentzat. Badire oraino etsenplu beretan on direnak munduan sainduki bizi nahi direnentzat, garbitasuna Jainkoari konsekratu diotentzat; hitz batez estatu, adin, kondizione guzientzat. Izkritura saindua irakurtzen duten guziak ez dire gai behar bezala progotxatketzat han ezarriak diren hitz eta historio ederrez; ordean hemen ekharriak diren explikazione eta argitasunek bethetzen dute eskas guzia, eta, irakhatsten dio bat-bederari nola behar den hartu gizon mirragarri hei yarraikitzeke, eta heien gollardo bederat heltzeko.

Liburu huntan ikhusten eta ekagutzen da gure errelijione sainduaren asentu guzia. Hemen edireten dire gizonik herbalenak eta aphalenak, bortitzuak eta altxatuak; berriz, haskarrenak eta ohoratuenak flakezia handienetan eroriak, eta mundu guziaz arbiuatuak. Kapitulu bakoitzean zenbeit mirakuillu berri edo Jaunaren graziaren zenbeit obra miragarri heldu ohi da irakurtzaillearen begietarat.

Ala nahi izateko baitzen liburu bat hain salbagarria, eta atsegin egitekoa izan zadin gure eskararat itzulia! Urtheak ditu erakharri nahi izan nindutela obra huni lothzerat; ordean ordu hartan banuen ene denbora guziaren beharra ene ministerioko eginbideen bethetzekotzat. Arrazoin hunek, ez errateko erakutsten-zitzaitan fidanzia sobraniazkoari, aski ungi ez ihardetstekoa beldur zuhurrak gibelatzen ninduen lan luze eta enetzat gaitza den huntarik. Yartzekotzat eginbide huntan, etzen deusere gutiago behar gure Jaun-apehzipiku zenaren nahi seinlatu, eta gomendio zorrotza baino. Egin ditut ene egin ahal aphurrak obra hau artha eta arrimurenkin moldatzekotzat. Ez da errana, hitzez hitz, yarraiki natzaiola ene auto-

rari. Ezarri ditut kapitulu gehienetan Jainkozko erreflexione laburrak: molde huntan, bi irabazi heldu zaizko irakurtzailleari: bata da izpirituari atsegin egitea ikhasiz gauza ederrak, eta bertzea, bihotza laguntzea Jainkoaganat altxatzen.

Utzi behar izan ditut batzutan frantzes liburutako aphaindurak eta edergailluak. Ene artharik handiena izan da klarki mintzatzea, eskal-herri guzian adituren nauten bezala. Arrazoin hunek berak erakharri nau, ene bortxa, eta ahalik gutiena bada ere, lerratzerat frantzes-kara diren hitz bakhar batzutarat. Alabainan gure eskarak ez ditu hitz guziak bere esku-ko: ez da haren oldea, ez du hortan hobenik, aski aberatsa da bere baitarik, ez izatekotzat hitzkuntza atzean beharrik; erran ere badezaket, herriko amodioaz batere izan gabe itsutua, nekhez gerta daitekeiela munduaren lau basterretan, lehenbiziko lau erdarez landan, bertze bakhar bat gure eskarari eramanen dioenik dela zahartasunean, dela edertasunean; ordean eskaldunen ez antsiasun ezin hurren barkhatuzko batez, utzi dire hainitz hitz galtzerat, bederen erdi ahantzterat. Horra beraz zergatik, nahiz ene burua hobeki adiarazi, baliatu behar izan-naizen zenbait hitz bakoitzez nahiko nuen bezain eskara garbian ez direnez.

Oxala liburu hau balitz onhetsia eskaldun guziez, emenda baleza Jainkoaren loria, eta erakhar baletza hau irakurriko eta irakurtzen entzuen dutenak, ihes egiterat munduko solas, arin eta kaltekorrei yarraikitze-kotzat, egia zuhur eta salbagarrie! Ala ordutik gaindiz saristatua bailiteke heien fagoretan hartu dudak nekhea! O, ene herritar maiteak! eskaldun zaretan guziak, gomendio bat dut zuei egiteko; zor diot zuen alderat dudak amodioari: beira zaitezte utztetik zuen izpirituak eta zuen bihotzak mende dohakabe huntan libertirikeriak eta zoramenduak asmatzen dituen, eta gure errelijione sainduari nahi dioten berritasun ondikozkotarat. Zaudete fermu Jaunaren miserikordiak, ezarri zaituzten salbameduzko bide zelhai eta dohatsuan. Begira zazue maiteki gure arbasotarik, eskutik eskura bezala, gureganat den fedea. Preza zazue zeruko dohain preziatu hura, nihon ez bezaia leihalki, eta oso-oso dadukaguna eskal herri guzian.

*Testamen Zaharreko eta Berriko Historia* batean ematerat liburuak hedadura handi bat beharko zuen: uzte izan dut plazer egin populuari, partitzeaz obra hau bi liburutarat. Bigarrena, Jainkoaren graziarekin, agertuko da heldu den urthean, eta mintzatuko da Testamendu Berriaz.



## I. KAPITULUA

### Munduaren kreazionea

Genes. 1 cap.

Jainkoak nahi izan du ez deuserarik athera mundua eta han direnak. Hortakotzat; hasi zen egitetik molderik gabeko leze ilhun bat bezala. Ondoan; eman izan zitzaizkon arrimu eta edertasun dakhartzkienak. Iskribu sainduak deklaritzen du Jainkoak obra handi hura egin izan duela sei egunik barnean. Lehenean, zerua eta lurra kreatu eta, mezutu izan zuen egin zadin argia. Bigarrenean, egin izan zuen firmamenta, zeina deit-hu baitueri *zerua*. Hirugarrenean, berezi izan zuen lur idorra hartan baltsatuak ziren uretarik, zeinaz bildu izan baitzituen guziak baterat, ematen ziotelarik izentzat *itsasoa*. Gero, mezutu izan zuen lurra ekhar zezan behar eta fruitu guzietarik, zein bere haziarekin, emenda zitentzat, bakotxa bere motaren arabera. Laugarren egunean, Jainkoak egin izan zituen zeruko argizagi handi horiek, iguzkia egunarentzat, eta ilhargia gauarentzat, erregelatzekotzat, bere mobimenduaz eta kortsuaz, denborak, urtheak, ilhabeteak eta egunak. Egin izan zituen halaber izarrak; baita ezarri zeruan, gaua distia dezatentzat. Bortzgarren egunean, Jainkoa iragan zen kreatura sentimendu gabekotarik kreatura bizietarat. Hasi zen egiten uretarik aliamalia bizia eta mobimendua dunak. Kreatu zuen elementia bat arrain, mota eta handitasun guzietakoak, eta manatu zioten sumantza zitezela. Jainkoak, egun berean, arrainak bezala, orobat hegaztinak kreatu zituen: athera izan zituen itsasotik, eta manatu zaroen airetan ibiltzeaz. Seigarren egunean, Jainkoak manatu zion lurrari ekhartzetaz, ez beharirik, ez eta arbolarik; orduraino gisa; bainan bai aliamalia bizi, eta mota guzietarik. Egun hartan berean, nahi izan zuen kreatu Gizona, bere obretarik azkena, ordean konpliena, harentzat egin zituenaz geroz gainerako guziak, gizona delakotz, berze kreatura perfet guzien artean, bakarra bere kreatzaillea ezagutzeko eta maitatzeko gai dena. Zazpigarren egunean, Jainkoa gelditu zen lanetik; hargatik ere konsekratu eta berezi zuen egun hura behin bethikotzat.

Ez da aingeruez aiphainenik Moisek munduaren kreazioneaz dionetan. Ordean elizako aiten sentimendua da izpiritu hek ere izan zirela kreatuak, Jainkoak hitz hauk erratearekin batean: *Egin bedi argia*. Horra zergatik S. Augustinek aditzen duen Jainkoak argia ilhunbetarik berexete hartaz; aingeru on eta gaixtoen arteko berexete hura bera.

Jainkoak nahi izan du ikhus zadin munduaren hastapenetik, eta hori, kreatura konplienen beretan, ez daitekeiela dohatsutasunik harenganik urrutzerat. Handitasunaren eta loriaren gradurik gorenerat altxa dezan kreatura, aditzen duela guziarekin haren azpiko gueldi dadin; eta, egiaz, herrunka altxatuenetik, eskatu aphaenerat eror-arazten ditu haren alderat esker-gabe direnak, eta haren ontasun phurutik ardietsiak, bere mereziei iratxekitzen diotenak. Haren majestate adoragarriari zor diogun, eta bethi ekharri behar diogun leihaltasunaren eskola konsolagarri bat ematen darokute aingeru onek arditetsi izan duten zorion ezin erranezkoan; ordean, hala-hala, Jainkoak nahi izan du aingeru gaixtoei egorri dioten gaztigu lazgarria, balia dakigun, boz zuhur bat bezala erraten daukuna, Jainkoak punitzen dituela supherrak, eta graziez bethetzen humilak.



## II. KAPITULUA

### Gizona ezarria da lurreko Parabisuan.

#### Emaztea kreatzen da

Genes. 1.

Jainkoak athera zituenean ez deusetarik zerua, lurra eta itsasoa, eta egin zuenean gizona, bere iduriko, ematekotzat nausi bat munduari, ezarri zuen nahikara eta delizio guzien parabisuan: hartan kausitzen ziren begiari eta gostuari atsegin egin ziozoketen guziak: Parabisu haren erdian zatzan arbola bat, biziaren arbola zaritzona; berriz bertze bat, ungiaren eta gaitzkiaren yakintasunaren arbola deithua zena.

Jainkoak, dio iskribu sailduak, nahi zuen gizona okupa zadin parabisu hartan, eta izan zezan hartaz artha; hortik beretik ematen zaroen bidea seinaltzekotz bere leihaltasuna, eta erakutstekotz bere biziaren autorari, atsegin zuela haren azpiko izatea, eta haren ezagutzea bere yabe soberanotzat. Jainkoak nahi zuen beraz gizonak aithor zezan zituen guziak, harenganik zaduzkala. Horra ere zergatik egin zioen manu bat, guzia zuzena, bere funtsean, eta hainitz errexki bethe zitekena: Yan ezazu, erran zioen, parabisu huntako arbola guzietako fruitutarik; begira ordean uki ungiaren eta gaitzkiaren ezagutzaren arbolan, ezen hillen zara ukituko duzun ordu beretik. Ondoan. erakharri zituen Adamen aitzinerat kreatu zituen aliamalia guztiak, zeini bere izena emateko. Adamek deithu zituen, bat bederari zagokon izenaz.

Nola Adame oraino bakharra kausitzen baitzen, bere araberako lagunik gabe, Jainkoak egorri zioen lo bat, zeina iskritura sailduak deithzen baidu extasia; eta lo hartan zatzala, athera zuen haren hezur bat, eta bethe haragiz hark zadukan lekhua. Jainkoak egin zuenean emaztea Adameri atherarikako hezur hartaz, erakharri zuen haren begierarat. Adamek ikusi zuenean Eba, erran zuen haren hezurren hezurra, eta haragiaren haragia zela; eta ethorkizunerat gizonak utzi beharko zituela bethi bere aita eta bere ama yosia izatekotzat bere emaztearekin, eta etzirela biak izanen haragi bera baizik.

Jainkoak eman du ageriki ezagutzerat lehenbiziko gizonean gerorat Jesu-Kristo baitan gerthaturen zena; ezen, elizako aiteen arabera., Adameren lo hark ematen daroku begietarat salbatzaillea gurutzean guregatik ezarria: Haren sahets idekitik athera ziren urean eta odolean hartzen dute sakramenduek bere ethorkia. Erran daite Jesu-Kristoz, utzi izan zuela,

nolazbait ere, bere Aita zeruan, yautstekotzat lurraren gainerat menderen mende bat izatekotz eliza bere espos sailduarekin, batasun salbagarri haren ariaz gara ohoratuak Jainkoaren ume izateko titulu ederraz. Egia guziarekin erraten du Jesu-Kristok bere elizaz, Adamek Ebaz erran zuzena: Horra ene haragiaren haragia; eta ene hezurren hezurra.



### III. KAPITULUA

#### Adamen erorikoa

Genes. 3.

Adame eta Eba etziren hain lauster abiatu gozaten parabisuko atsegin eta nahikarez, no etsaiak nahi izan baitzaroen bi kreatura haien leihaltasunari: bekhaxtu zitzaion heien inozentziari. Nola urgilleriak eror- arazi baitzuen bera, natura izpiritual batetakoa zelarik, ezin onhets-zeza- keien Adame eta Eba, lurretik eginak ziren denboran, izan zitezten sume- tituagoak Jainkoaren alderat bera zeruan izan zen baino. Horra zergatik hartu zuen xedea hei gudu emateko, eta gal-arazteko lehenbiziko bi bura- sotan, heien ondorio guzia. Hortakotzat baliatu zen sugeaz, aliamaliatarik sotilenaz. Yokatu zen, lehenik emazteaganat, errexago zitzaion haren ira- baztea. Zergatik, erran zaroen, Jainkoak ez darotzue eman eskua yateko baratze huntako fruitu guzietarik? Ebak arbuiatu behar bidean galde pho- zoatu hau, entzun ere behar etzuen denboran, Jainkoari erakutstekotzat haren alderako leihaltasuna, ihardetsi zioen enganatzaille gaixto hari, eta erran: Zilhegi zaiku yatea baratze huntako fruitu guzietarik, Jainkoak bak- harrik debekatu darokuna da, ez yatea halako arbolako fruiturik hil ez gai- tezentzat. Etsaia sartu zenean gisa huntan Ebaren izpirituan, izan zuen atrebenzia haren seguratzekotzat Jainkoaren hitzaren kontra, etzuela zeren izan halako beldurrik. Etzen oraino hortan baratu: aski atrebitua izan zen iratxekitzekotzat, Jaunaren debeku hura, yelosia fuerte bati, zio- elarik: badaki Jainkoak fruitu hartarik yanen duzen egun beretik zuen begiak idekiko direla; eta Jainko batzuen pare izanen zaretela. Eba flakoa utzi izan zen garaitzerat gezurrezko agintza halakoez: ordudanik, hasi zen erortzen bihotzez; eta lauster galdu zen arras, sobera behatuz fruitu debe- katuari; hartarik urrundu behar zituen begiak gauza debekatua zitzaion batetarik bezala, ordean bozkarioekin ikhusten zuen fruitu hura atsegin egitekoa zela begirat, eta orobat edirenen zuelakoan gosturat, hedatu zioen eskua, hartu eta yan izan zuen. Ondikozko planta huntan, dio iskri- tura sainduak, sar-arazi du emazteki batek bekhata munduan.

Ebak yan zueneko fruitu debekatutik, eman zioen hartarik bere sen- harrari: Etsaiaren agintzeek etzuten Adame lilluratu; hargatik, konplazen- zia errexege batek etzuen gutiago eror-arazi. Urrun da izan baitzuen lurre- ko parabisuan, Jobek geroztik ongariaren gainean agertu duen tiesoka- suna: Adamek nahiago izan zuen hautsi Jaunaren legea; ezen-ez bere

emaztea damuztatu haren nahitarat ez eroririk. Ordukua da sainduak ezin erranezkoa deitzen duten bekhata, hanbat desmasia egin izan duena, eta hanbat ondikozko ondore, menderen mende, ekharriko dituen, bekh- hatu bat, umei, bere aitaren baitan, heriotzea ematen diotena, bai ordukua da bekhatu hura, zeinagatik, sortu ere baino lehen, herioaren eta etsai gaixtoaren meneko aurkitzen baigara. Nola bada hori? Huna: etsaiak sar- arazi duenean Adame bere gathetan, ardietsi izan baidu haren ondorio guziaren gainean zuzen ondikozko bat. Ordean ala gure zauri tristeak irakhasen baidarauku ederretsten, haren sendatzerat ethorri denaren gra- zia! Gure gaitzak bethi emanen darokun doloreak erakharri behar gaitu khentzerat ernetasun guziarekin, eta igintza saindu batekin etsaiaren asal- dura eta tentamendu guziak. Satan gaixtoa orhoitzen da burupherekin gure lehenbiziko burasoaren gainean eraman izan duen garaitziaz; etzaio ordean aski egin duela; egun oroz, eta milla moldez, nahi daroku sinhets- arazi egin dezakegula, zaurthu gabe konzientzia, Jainkoak berak debeka- tzen darokuna.

Ebak ezaguzu zuen bezala Jaunaren ditxiduak zin-zinezkoak zirela, eta etsaiaren aginduak gezurrezkoak, guk ere ezagutu behar dugu Jainko- ak orai ere egiten dautzkigun ditxiduak orobat direla zin-zinezkoak, eta heien gure alde explikatzeke, edo hei ihes egin nahiz, bilhatzen ditugun itzuliak eta atzekiak direla hanbat tronperia heldu zaizkigunak etsai gaix- toarenganik; heien bidez nahi lituzke atzeman umeak, aita egin izan duen bezala.





## IV. KAPITULUA

### Adamen punimendua

Genes. 3.

Adame eta Eba hasi izan ziren ezagutzen bere eroriko kaltiarra, ikhustetik bulhuziak zirela. Etzuten aitzinagoko bere bulhustasuna ikhusten: orduraino inozentzian zirelakotzat. Aingeruen garbitasun bera zakharketen. Heien gorphutzak izpirituaren meneko ezarriak ziren. Horra zergatik ahalkatu ziren erori orduso, eta estali zituzten bere gorphutzak phiko hoztoz. Handik berehala, Adamek eta Ebak entzun izan zuten, parabisuko baratzean, Jainkoaren boza; ordean hortaz bozkariatzetik urrun, aitzinago gisa, ihes egin izan zioten, eta gordetzerat egin izan zuten. Jainkoak deithu zuen Adame, eta galdetu zioen non zen. Ihardetsi zioen etzela menturatzen agertzerat bulhuzia zelakotzat. Jainkoak erreportxatu zioen bere desobedientzia, zeinak berak ezagut-arazten baitzion bere bulhustasuna. Adamek nahi izan kuen garbitu bere burua, bere hobena emaztearen gain emanik, zioelarik, harenganik izan zuela fruitu hura, Orduan Jainkoak galdegin zion emazteari, zertako bada hola egin zuen? Emaztea orobat nahi izan zen garbitu hutsa sugearen gainerat ego-rririk; urrun da ordean Jainkoa antolatzen baitzen halako exkusa eta estakuruez, hain ageriki hautsi zuten ondoan haren lege saindua. Lehenik, madarikatu zuen sugea, desobedientzia haren lehenbiziko ithurburua bezala; kondenmatu zuen ibiltzerat herrestan, bere sabelaren gainean, eta lurra yaterat; erran zioen oraino sugeari: hark emaztea enganatu zuen bezala, emazteak hari ere noiz bat leherturen zioela burua. Ondoa ekharrri zuen bere sententzia bi hobendun heien kontra; kondenmatu zituen, bata nola bertzea, asko atsekabetarat, zeinek ondiko! Baidiraute orai ere gure baitan. Erran zioen beraz emazteari, emendaturen ziotzala nahika-beak, nekharekin erdiko zela, eta gizonaren meneko beharko zela. Ondoa, erran zioen Adameri: Jainkoaren bozari baino emaztearenari hobeki yarraiki zitzaioenez geroz, madarikatua izanen zela lurra, elhorriak eta laharrak ekharriko ziotzala, eta bere ogia, kopetako izerdiarekin yanen zuela, atheratzen lur berean sarthu artean. Jainkoak eman ziotzaten Adameri eta Ebari soinekoak, azienden larruz, eginak; eta gaztigu justu haukiei iratxekirik idoia eta trufa, mintzatu zen hitz hautaz: *Azkenekotz, Adame gutarik bat bezala bilhakatu da; badaki orai ezagutzen ungia eta gaizkia: ez bekio beraz izan zilhegi yatea biziaren fruitutik: ez bedi bizi eternitate guzian.*

Jainkoak ordudanik khendu zituen Adame eta Eba parabisutik, eta eman zuen hango athean kerubin bat susko ezpata batekin begiratzekotzat biziaren arbola. Horra beraz nola athera ziren bata eta bertzea nahikara eta delirio guzien lekhu hartarik, isurtzekotzat bertze nonbait nigarrrik kharatsenak bere bekhatuaren eta bere dohakabetasun lastimagarriaren gainerat. Handik-harat lurra etzuen elhorririk baizen hekientzat; aurkhitzen zituzten, alde guzietan, bere bekhatuaren seinale doloragarriak eta gaztigu garratsak. Orhoitzen ziren hastean dastatu zituzten ontasun ezin erranezko, eta heien fagoretan, kreatuak izan ziren hetaz: ikhusten eta frogatzen zituzten bere leihaltasun eskasak erakharri ziotzoten gaitz humiliagarriak. Batzuen eta bertzen arteko diferentzia fuerte hura nihork baino hobeki ezagutzen zuten bere esperientzia tristeaz, eta heien izpirituak hartako zuen argiaz; eta horra zerk zaramatzen damurik minenerat. Ikhusten zuten zenbat ume ziren hetarik sorthu beharrak guziei heriotzea berek erran izan ziotela. Gogoeta hunek zaurtzen zituen lehenbiziko bi burasoen bihotzak; hargatik ere, hetaz erran daite, baldin lehenik erori badire gaitskian, hala-hala, penitentzia ere lehenik hek egin izan dutela. Ordean zer penitentzia? Guk ezin konpreni dezakeguna. Egia da, nihor guti mintzo dela penitentzia hartaz; naski uzte izan dadin beldurrez salbamendua ere, bekhatua ethorri den ithurburu beretik heldu dela.

Ala gizon guziek eskerrak, millaka, bihurtzeko baidiotzate salbatzaileari, nahi izateaz gure burasoen hutsa erreparatu! Hartu izan da, hortakotzat molde guretzat hain probetxagarrian, non elizak deith baidezake Adamen erorikoa, eroriko baitezpadako bat, eta haren hutsa, hutz dohatsu bat, hutz salbagarri bat: denborarekin ethortzeko zen erreparazione hunen orhoitzapen ezta ahal zen Adamen eta Ebaren konsolamendu bakharra bere dolore handian.





## V. KAPITULUA

### Abelen heriotzea

Gen. 4.

Adamen bekhatuaren ondore ondikozkoena izan zen Abel, bere semearen heriotzea. Etsaiari etzizaion asgi egin zuela gizonaren arima gal-araztea, oraino nahi izoen yasari haren gorphutzari. Ikhusirik Abelen leihaltasuna Jainkoaren alderat, biztu izan zuen haren anaiaren bihotzean haren kontrako inbidia izigarri bat. Abel zen arthaldeen artzain bat. Jainkoari ematen ziotzan sakrifiziotzat, bere heietako bildotsik hobereak eta gizenenak. Kain berriz laborantzan hari zen, eta ofrendatzen ziotzan Jainkoari bere fruitutarik. Jainkoak ezagutzen zuelakotzat Kainen bihotzezo phozadura bere anaiaren alderat, gaitzezten zuen haren sakrifizioa, onhesten zuen denboran Abelena. Ordean zenbatenaz Abel agradagarri baitzizaion Jainkoari, hanbatenaz emendatzen zen Kainen herra bere anaiaren alderat. Ikhusi zen ordutik, gero ere ikhusi behar zena: erran nahi da, premia baitezpadako bat onak eta gaixtoak baltsan bizitzea, eta yasateko herra eta injustizia fuerte guziak.

Jainkoak nahi izan zuen sendatu, bere hitz sainduaz, inbidiak eritua zaukan bihotz hura. Galdetu zion Kaini: Zertako bada utzten zion bere burua bihotza ihartzen zioen min bati? Erran zion oraino saristatua izanen zela ungi egiten balin bazuen; eta gaizki egiten balin bazuen, berak yasanen zuela gaizkiaren pena. Etzuela beraz zeren sarthu bertzeren ungiang ede gaizkian; ordean ala arrazoin handirekin baidio S. Gregoriok, Jainkoa beraren hitza ere alfer dela inbidiaz erituak diren arimentzat! Zenbat ere erremedio salbagarri hark sendatzen baiditu bertze gaitzak, ez du gehiago baizik mintzen eta tarritatzen inbidia eritasuna.

Kainek etzuen unirik baizen ikhusten bere anaia baitan, halarik ere haren alderat zuen inbidia tristea emendatuz zohan. Harekin airea hartzerat goateko itxuran, erran zion athera gaiten hemendik kanpo horietarat. Abel nola ezta eta bakhietarra baitzen bera, yarraiki zitzaion bere anaia; guti igurikitzen zuen halako sumindura zororik haren partetik: landa baterat zirenean, Kain altxatu zen bere haurridearen kontra eta eraman zioen bizia. Hulako bekhatu izigarriak etziotzan idekarazi begiak, ezen Jainkoak galdetu zioenean non zen Abel, ihardetsi zuen, bekhokirekin, hark etzakiela non zen, ala hark behar zuen hura begiratu? Ordu hartan izan zen odola, lehen aldiko eta injustuki isuria. Jainkoa, etsenplu har-

taz, baliatu izan da irakhastekotz mende guziei, hobenik gabeko presunak persekutatzen dituztenen punitzaille agerturen zela. Erreportxatu zioen bortitzki Kaini bere gaizkia, erraten zioelarik haren anaiaren odolaren boza altxatzen zela haren kontra zerurainokoan. Deklaratu zion oraino, izanen zela madarikatua Abelen odolaz berak lohitu zuen lurraren gainean, eta bere bizi guzian, egoitzarik gabe izanen zela, eta iheska ibilhi beharko zela.

Elizako aitek, bethidanik, behatu izan diote Abelen heriotzeari Jesu-Kristo berak eta kristau persekutatuek bere anaien partetik yasan izan duten heriotzearen iduri edo figura bati bezala. Gauza miragarri batentzat hartu dute Kain, Adameren lehen umearen krudelitatea, balia dakioten gaixtaginei eskola zuhur batentzat, zeinetan ikhasten baidute ihes egiten lehiarekin bere lagunaren alderako herra eta inbidia fuerte guziei. Kanpotik bezala, barnetik ere, begiratu behar dugu arthoski amodio giriztinozko bat proximoaren alderat. Herratsuak eta inbidiosak, apostoluaren erranen arabera, hiltzen du, bihotzez bere anaia, ez bustirik ere bere eskuak haren odolean. J. Kristoren egiazko dizipulu direnek ez dire izituko ikhustez bere buruak persekuzione eta injustizia guzien erdian munduaren partetik. San Gregoriok erraten daroku Kainen herra eta zoramendua yasan nahi ez duenak ez duela izan nahi Abelen idurikoa.



## VI. KAPITULUA

### Noen arka.

Gen. 6.

Kain, bere anaia hiltzerat erakharri zuen izpiritu berak, lauster bethe eta lohitu izan zuen lurra gaitz fuerte guziez. Gizonak emendatzen zirenen eredura, gaixtakeria ere orobat zohan emendatuz. Adame hil zeneko, haren umeen malezia hain gora higan zen non Jainkoak ezin yasan baitzezakeien. Damu min batekin ikhusten zuen, iskritura sainduaren arabera, gizon guziak emanak zirela gaizkirat. Etzuen aurkhitzen hetan bere obraren arrastorik eta seinalerik. Urrikitu zitzaion zeren egin zuen gizona, desohoratzen eta laidoztatzen zuelakotzat lurra, haren loria eta berregintza egin behar bidean. Hartu zuen beraz xedea funditzeko gizona, eta harekin batean lurreko aliamalia guziak, nolazpait ere kutsatuak zirelakoan haren bekhatuan; ordean hobenezko uholde hartan, gerthatu zen bakhar bat inozentzian begiratu zena: hura zen Noe: hunek ardietsi zuen grazia Jainkoaren aitzinean; eta noiz ere baitzen gure kreatzaillea gehienik tarritatua munduaren kontra, ordu hartan berean, Noe agertu zen, iskritura sainduak dioen bezala, munduaren fagoratzaille. Haren arartekotasunaz eta haren bidez izan zen mundua begiratu arras galdua izatetik.

Jainkoak beraz erran zioen Noeri lurra punitzeko xedea zaramala uholde guzietarat hedatuko zen batez. Ordean zeren ezagutu zuen justutzat, eta etzelakotzat partaler bertze gizonen gaixtakerian, aditzen zuela haren hastantzea eta berextea bertze guzietarik, izan etzadintzat bertzeen balsan punitua, eta zigorrada beraz zaurthua. Hortakotzat Jainkoak manatu zioen Noeri egiteaz arka, edo dorre bat, eta erran zioen nola, eta zer konpasutakoa izan behar zuen. Nahi zuen dorre hura Noeri eta haren familiari, gainerako aliamaliekkin batean, balia zakioten ihes-lekhutzat uholdea heldu zenean.

Noek egin zuen Jainkoak manatu guzia. Eman zituen ehun urthe dorre hura osatzen. Orduko gizonen ikhusten zuten obra handi hura; bazakiten zer erran nahi zuen; zer xederarat zen egina; halarik ere phulunpatuak zauden bere itsumenduan. Hulako ez antsiasun batek heien aldetik, aditzerat ematen zuen Jesus Kristoren arabera, gure mendeko giriztinoen sorraiotasuna; eta, egiaz, badakite Jainkoak zer mehatxu ikhagarri egiten dioten: orduko yendeak uholdeak atzeman zituen bezala, hek ere, izan daitezkelako herioaz atzemanak, ez badire lehiatzen atheratze-

rat bere deserregela mendutarik. Gure Jainkoak, nekhez, eta ezin bertzez, punitzen du bekhatorea. Ematen du, bere aserradura handiaren berean, bere ontasunaren zenbait seinale amultsu, hala-nola uholdeaz aitzinago, gizonak urrundani yakintsun egitean heientzat zagoen zorigaitzaz; eta hori, nahiz hek bere baitan sar-arazi. Gauza bera egiten du, orai ere, gure alderat, mehatxatzen gaituenean bere yuiamenduaren garratzasunaz: senti-arazten daroku arbuiatzen baditugu haren abisu zuhurrak, lehena-gokoek arbuiatu zituzten bezala, orobat izanen dela gutaz. Bekhatoreen oatea gertha baledi ere ezin kondatuzkoa, ez balitz ere lurraren gainean gaixtaginik baizen, ez laitezke gutiago Jainkoaz punituak. Uholdean gertatu izan dena ahal da egia hunen frogarik konpliena. Aitarik hoberena, ordean denbora berean, yuierik zuzenena den hark ematen daroku adiarazterat haren miseriak baliatzen ez dena, noiz edo hoiz, eroriko dela haren justiziaren menerat eta eskutarat.



## VII. KAPITULUA

### Uholdea. Arkan sartzea

Gen. 7.

Ethorri zenean denbora lurra gal-arazteko, eta haren garbitzeko bere hobenetik, Jainkoak manatu zioen Noeri bethetzeaz arka yanari eta bazka ziren guzietarik, dela beretzat, dela haren mezuz han sar-arazi behar zituen aliamalia guzientzat. Manatu zioen, bertze alde, emateaz arkan bestia garbi ziren guzietarik zazpi pare, eta lohiak zirenetarik bortz pare, harrak eta urritxak. Manu hauk konplitu zirenean, sarthu zen Noe bera ere arkan, bere hirur seme, Sem, Kam eta Jafetekin, bere emaztearekin eta bere hirur semeen emazteekin. Sarthu zireneko arkan, Jainkoak, iskritura sailduaren arabera, hertsi zuen kanpotik, hango athea. Ordu berean, zeruko ur guziek gaindi egin zuten, eta hedatu ziren, soperna batzuen pare, lurraren gainean. Jainkoak jauts-arazi zuen uria, gelditu gabe, berrogoi egunez eta berrogoi gaez. Zerutik erortzen ziren halako uri-pesiak eta elementak banatu ziren baster guzietarat: estali zuten lur guzia: goititu ziren gauzarik altxatuenez oraino gorago, eta xitu zituzten hamabortz besoz mendi gorenak. Gizon guziak, lurreko aliamalia guziak, zeruko hegastin guziak, hitz batez errateko, kreatura guziak galduak eta fundituak izan ziren uholde laztimagarri hartan. Guziak horrela galtzen hari ziren denboran, arkak begiratu izan zituen bere barnean zaduzkanak. Zer bihotz-min arkaz hirri egiten zuten gizon zoroentzat, ikhusleaz bere buruak nihorat ihes ezin egiteko heraturan, eta urpean sekulakotzat galduak? Eta hori bere bekhatuena punimendutan.

Kreatzaille adoragarriak hunen bertze haserradura erakutsi dezan bere kreatura alderat! Aitarik hoberenak utzi detzan bere ume maitiak, uholdean funditzerat! Nonbait, bekhatu gauza higungarria behar da Jainkoaren begietan! Zer ez dugu beraz egin behar bekhaturik urruntzeko, eta berthuteari lothzeko? Gaixtaginak Jaunaren justizia tarritatzen balin badu, hala-hala, sailduki bizi denak zer gollardo ez du igurikitze haren miseriak?

Erran daite gure eliza sailduaz, egiasko arka dela. Arkak begiratu zituen galduak izatetik bere barnean zituenak: gure elizak gauza bera egiten du: begiratzen ditu bethikotz galduak izatetik, aitzitik zeruratzen ditu bere golkhoan daduzkan arima leihal eta Jainkotiarak. Ala zorion handia baida beraz elizaren ume izatea, eta ama maite haren lege sailduen azpian

bizitzea! Hulako fagore seinalatu batek merezi ahal ditu eskerrik hedatuenak. Zenbat populua eta erresuma oso, elizaz kanpoan! Idolatriaren eta heresien ilhunbe damnagarritan ehortziak direnak! Nola ordean baliatzen gara eliza sailduaren ume izateko dugun dohatsutasunaz? Zenbatak ez dire titulu lorios hau desbistatzen eta laidoztatzen dutenak bere bizitze gaixtoaz!



## VIII. KAPITULUA

### Arkatik ilkitzea. Hortz adarra

Gen. 19.

Lurra egon zen uholdeaz hondatua, ehun eta berrogoi eta hamar egunez. Jainkoa orhoitu zen Noez eta arkan zirenez, altxarazi zuen haize handi bat, emeki emeki bazter guziak xukatu zituena. Lehenik mendi gainak ikhusi ziren berrogoi egunen buruan, Noek ideki zuen arkan eragin zuen leiho bat, eta largatu zuen belhea zeina ez baitzen arkarat bihurtu. Zazpi egun iragan zirenean, Noek atherarazi zuen usoa, eta nola lurra oraino estalia baitzen urez, sarthu zen berriz arkan. Bertze zazpi egun iragan eta, largatu zuen bigarreanean usoa. Aldi hartan ekharri zion mokoan, Noeri azitun edo olib-ondo hosto ferde bat. Noek ezagutu zuen seinale hartarik urak iraganak zirela. Iguriki ondoan oraino bertze zazpi egun, largatu zuen hirugarren aldikotzat, usoa, zeina ez baitzen gehiago hurbildu arkarat. Ilki ziren Jainkoaren manuz, arkatik Noe, haren emaztea, haren humeak, eta barne hartan ziren guziak, arkan sarthu zirenetik urthe baten buruan: iraun zuen haren bertze uholdeaz.

Arkatik lehora, Noek egin zuen lehen gauza izan zen aldare bat, ofrendatzekotzat Jainkoari arkan ziren azienda eta hegaztin garbienetarik, eskerren bihurtzeko egin zioen fagoreaz, bizia utztean bertze guziak galdu ziren denbora berean. Jainkoak onhetsi zuen sakrifizio hura, hitz ere eman zuen etzuela gehiago madarikaturen lurra gizonen bekhatuengatik. Benedikatu zituen Noe eta haren umeak, eta manatu zioen publatzeaz mundua: erran zuen oraino: *Lurreko aziendak eta aireko hegastinak bizi beitez zuen beldurrean: bertze alde ematen darozkitzuet itsasoko arrainak: haz zaitzte horiez guziez, fruituz eta belharrez bezala; ordean begira zaitzte yatetik haragirik bere odolarekin baltsatutik, eta nihor hiltzetik.*

Jainkoak erran zion oraino Noeri egin nahi zuela harekin eta haren umeekin allientzia edo batasun bat, eta hobeki orhoitzekotzat eman zuen hitzaz ez egortzeko uholderik gehiago, nahi izan zuen hortz-adarra balia zadin batasun haren seinaleztat. Hartarakotz erran zioen: *Noiz eta eztaliren baidut hedoies zerua, orduan agerturen da hortz-adarra, eta hura ikhustean, gogorturen zait zuekin egin dudan batasuna, eta ez dut egorriren bertze uholderik munduaren gal-arazteko.*

Jainkoa bethi leihal da bere hitzetan; bakarrik behin egorri du uholdea: orduan ere haren xede guzia zen guri ezagut-araztea noiz nahi den

egin dezakeiela gauza bera. Ez luke ere uholde beharrik gizon eta emazteki guzien fundi-araztekoztat: haren hitz bakhar, edo nahiki bat franko laite milla mundu suntsi arastekotzat. Bizi behar gara beraz beldurtasun saindu batean, ez da deusere iragaten gure bihotz barnetan Jaunaren begi zorrotzak ikhusten ez duenik. Oi! zer izanen da gutaz, ageri diren bekhatuez bezala, gordeenez ere kontu eman beharko dugunean!



## IX. KAPITULUA

### Kam bere aitaz madarikatua

Gen. 9.

Jainkoak mundua publatzeko zaduzkan Noeren hirur semeen artean, izan zen bat bere aitaren eta Jainkoa beraren maledikzioa bereganatu zuena. Leinu saindu baten buruzagi izan behar zen; bizkitartean Jainkoak bere fulia sainduan behatu zioen haren ondorioari. Emagun gauza argitarat.

Noe athera zenean arkatik, errana da eman zitzaioela laborantzari, eta landatu zuela mahatsti bat. Gizon justu hark etzuen ezagutzen arnoaren indarra: horditu zen eta lokhartu. Kausitu zen, uztekaberik, erdi age-ria, eta honestasunari ez dagokon bezala. Kam, haren semetarik bigarrenak, ikhusi zuen lehenik bere aita estatu hartan. Lehiatu behar bidean haren estaltzerat, utzi zuen zen bezala, eta erakharri zituen bere haurrideak hirri egin nahi izan balu bezala bere aita hala ikhustez. Kamen anaiak zuhurrago agertu ziren: gibelaz zohazela estali zuten kapa batez bere burasoa.

Noek, atzarri zenean, yakin zuen zer iragan zen. Madarikatu zuen Kam bere serea, eta benedikatu Sem eta Jafet; erran ere zuen Kam bethi bere haurrideen azkeneko gathibutarik izanen zela. Hala gerthatu zen.

Aiphaturik heldu garen gauzetan direten dugu eskola zuhur bat, zinetan umeek ikhasten baidute bere burasoa ohoratzen, Jainkoaren manuaren arabera, bai eta gerizatzen hek dituzketen eskasak eta baik, hetaz burlatu gabe. Errelijioneak ez lukelarik manatzen burasoen alderako amodioa eta errespetua, odolak, arrazoinak berak nahi ahal dute onhets eta ohora detzagun guretzat hanbat egiten dutenak. Eizia zor diotegunak eta hanbat artha eta amultsutasun erakutsten darokutenak! Aziendek berek manatzen tuzte bereak, yartzen dire heien alde, atakatuak direnean: zer bihotz gogortasun beraz ume baten baitan eskasik egin baleza bere burasoen alderat!

## X. KAPITULUA

### Babelen dorrea

Genes. 11.

Noeren umeak emendatuz zohazen; aurkhitu ziren, urthe gutirik barnean, hain multzo eta nonbre handian non haztandu behar izan baitziren elkharganik, lur berex eta diferentetan bizitzekotzat. Ordean, hartarat gabe, hartu zuten xede bat heien erhokeria bezala, heien banitate ere ezagutzerat ematen zuena. Zatozte, zioten elkhari; dezagun egin hiri bat, eta dorre bat zeruraino helduko dena. Xede zoro hunek bazituen bi ithurburu, orobat funts gabeak. Bata zen bere izenaren aiphamena utzte sekulakotzat obra guziz eder baten bidez; eta bertzea, bere buruak begiratzea Jainkoaren eskutarik, heldu bazen berriz ere punitzerat mundua bertze uholde batez, zainaren gerizean uzte baitziren eman dorre hura akhabatzen zenean. Ordean Jainkoak nahi izan zuen ordutik, eman ezagutzerat, gizona ezin altxa daitekeiela humiltasunaz baizen, eta gehi-ago behar zela lehiatu Jaunaren aserraduraren aphazegatzerat bere penitentzia, ezen-ez bortxa egin nahi izaterat haren mendeka justuei, bere egin-ahal alferrez. Iskritura sainduak erraten daroku Jainkoa jautsi zela lurrerat ikhustekotzat gizoneen umeak egiten hari ziren dorre hura. Ikhus zuenean, trufatu zen gogoeta hirrigarri hartaz, eta erran zuen: *Populu hunek hitzkuntza bera daduka, eta diren guziek hain iduri dute thematuak egin nahi dituzten lanetan, non ez baidire hetarik gibelaturen. Dezagun beraz nahas heien hitzkuntza elkhar ezin adituko duten bezala.* Ordu berean, eman zuen heien mihitan eta hitzetan halako nahasdura eta konfusione bat, non ezin konpreni baitzezaketan, batak bertzeari erraten zioena. Molde huntan, utzi behar izan zuten, akhabatu gabe, bere orgilleriaren lan hura, eta yoan behar izan zuten harat eta hunat. Horra zerentzat dorre hura izan zen deithua *Babelen dorrea*, erran nahi da, nahasmenduzkoa. Banitatearen lan hark, dio S. Bernatek, ezagut-arazten zuen munduak gerorat agerturen zuen zoramendua; ezen iduri du mundutiarrek ez dutela bertze gogoetarik, baizik nola altxaturen duten dorre bat Jaunaren justiziatik beiratuko dituen, eta haren botherea alfer eraginen ditena. Eta, egiaz, hanitzak gehiago lehiatzen dire bere izenaren orhoitzapen bethiko bat lurrean utzterat, ezen-ez egiaz handi zeruan izaterat.

Denbora hartan, Jainkoak nahi izan zuen punitu gizoneen khea eta orgilleria, non ere gehienik seinatzen baida eta han berean, erran nahi



da, mihian, hartaz baliatzen ohi delakotzat gizona bere banitatearen agertzeko, eta suferki manatzeko. Hitzkuntzen nahasdura, eta batzuk, ber-tzeak ez bezala mintzatze hura hedatu izan da mundu herri guzirat. Badi-rau orai ere: boza bat bezala da bazter guzietan entzuten dena. Hitzkun-tzeen nahasdura hark irakhatsten diote populu guziei, San Augustinen arabera, zerurat heltzeko biderik laburrena eta segurena ez datzala gauza espantagarri eta obra handi fuerte batzutan, ez eta bihotz sufer baten xede hedatzetan; bainan nork bere burua aphaltzean, Jaunaren aitzinean, eta ihes egitean haren haserradurari, aphazegatzen duelarik haren majes-tate saildua bere nigarrez, uzte izan gabe eman daitekela haren gerizean, bortxa eginik bere yabe soberanoaren nahiari eta bothere infinituari.

## XI. KAPITULUA

### Abrahamen bokazioneaz, edo deithua izateaz

Genes. 12.

Gizonek hanbat egiten zuten denboran altxatzekotzat Babilonia hiri, Jaunaren kontra emana zen hura, Jainkoak nahi izan zituen, bere partetik, ezarri hiri saildu baten asentuak, erran nahi da, bere elizarenak: manatu zuen Abrahamen leinua izanen zela leinu berezi, leihal eta bethiko baten ethorkia. Gizon saildu hau zen Tharen semea; bizi zen bere aitarekin Ur zaritzon hirian kaldeendarren alderdian. Hura zen lekhu bat idolatrian ehortzia, Jainkoa ezagutzen etzuen. Han eman zion Jainkoak Abrahami manu hau: *Athera zaitte zure lurretik, zure herritik, eta zure aitaren etxetik, eta zato nik erakutsiren darotzudan lurrerat. Egingen zaitut populu handi baten buruzagj eta aitatzat; eta hulako gisaz hartuko naiz non zure izena ospe handitakoa izanen baida. Benedikatuko ditut zu benedikatuko zaituzten guziak, eta lurreko populu guzia izanen da zure baitan benedikatua.*

Abrahamek sinhetsi zuen, batere trikatu gabe, Jaunaren hitza, zeinetan kausitzen baitzituen bi abantail handi; bata, izatea leinu handi baten ethorkia; eta bertzea, lur guzia benedikatua izatea haren odoletik atherako zenaren baitan. Molde huntan, utzi zuen Abrahamek, bere aitarekin batean Thare, bere herria heltzekotzat Mesopotamiako hiri, Haram zaritzonerat. Aita hil zitzaionean, iragan zen Haramdik Kanaango lurrerat bere emaztearekin; eta Lot bere illobarekin. Harat zenean, Jainkoak, berriz ere agindu ziotzan, herri zeinetan aurkhitzen baitzen, eta hek guziak, adoratzekotan erresuma guziak bere eskuko zituena, khentzen eta ematen zituena, berari zitzaion arabera. Gizon saildu hark egin zuen lekhu hartan aldare bat Jainkoa othoitzteko eta adoratzeko.

Abraham egon zen denboratsu bat Kanaango herrian. Arte hartan izan zen, bazter hetan gosete handi bat iragan-arazi zuena Ejiptorat harturik berekin Sara. Nola ikhusten baitzuen, aitzinetik, Sara bere emaztearen edertasunak ekhar ziozokela bidegabe, eta ejiptiarrek Saraen alderako pasionez, izan zezaketela gogoia eta gutizia hiltzekotzat senharra, ondoan eskuratzekotzat emaztea debekurik gabe, baliatu zen zuhurtzia inozenta zen batez: othoitztu zuen Sara errateaz haren arreba zela: erran ere ahal zezakeien, gezurrik gabe; molde huntan Abrahamek bere bizia galtzetik urrun, gauza hartarat zohan bezala, Sara ezagutua izaterat haren emazte-





tzat, igurikitzen zuen, aitzitik, arraiki ekharriren zutela Sararen anaia zela-koan.

Abrahamek uzte bezala gerthatu zen. Ejiptiarrek ederretsi zuten Sara; hartaz mintzatu zitzaizkon Faraoni, zeinak erakharri baitzuen bere palaziorat, eta Abraham ungi tratatu zuten, haren anaia izan balitz bezala. Jainkoak begiratu zuen Saraen garbitasuna; zaurthu zuen printze hura hunenbat zauriz, non ibilhi baitzen heien ithurburuaren ondoan, eta yakintsun egin baitzen Sara Abrahamen emaztea zela. Ordu beretik, bihurtu zioen Abrahami bere emaztea. Faraonen errenkura guzia zen etziotela gauza erran, haztetik, zen bezala. Printze hura, zenbat ere baitzen idolatrea, abhorritzen zuen, dio S. Anbrosiok, adulterioa, beldur ere zen kolpa arrotz bat, goseteak haren lurrerat zakharkena.

Horrela hasi izan zen Jainkoa beregana deitzen fidel guzien aitatatzat hautatu zuena. Tratatu zuen Abraham bere fermutasunaren eredura. Utzarazi zion bere herria zeinetan ontasun handiak baitzuten, iragan-arazte-kotzat bertze lur batetarat zeinetan ediren baitzuen berehala hiltzeko gosete bat, erakharri zuena milla hirriskutarat; ezen kausitu zen populu atze batzuen artean. Haren konsolamendu bakharra zen yakitea hek guziak, Jaunaren manuz eta haren nahitarat zituela. Ala ordean Jainkoak erakutsi baitzioen Abrahami, libratzean hirrisku hek guzietarik, ez dela behinere deuseren beldurrik behar hari yarraikitzean; eta haren hitzaren alderat leihal izanez heldu balinbazaiku zenbait atsekabe, bera dela ordu, hartan gure sustengua, eta berak atheratzen gaituela, irabaziarekin, inguratzaren gaituzten gaitz guzietarik!

## XII. KAPITULUA

### Lot hatsantzen da Abrahamganik

Genes. 13.

Abraham bihurtu zenean Sara bere emaztearekin eta Lot bere illobarekin, ilki ziren lekhurat, erran nahi da Bethelerat, frogatu izan zuen aberatstasunei bethi yarraiki behar zitzaien zorigaitza. Biak hainitz aberatsak ziren heien arthaldetako artzainen artean izan ziren guduak erakutsiten zuten, iskritura sainduaren arabera, etzirela on elkharrekin egoteko, eta lekhu bera etzela gisa heientzat. Abraham damuztatua izan zen gudu hetaz. Ikhusten zuen urrundani sehien arteko elkhar ez aditzeak erakhar zetzakeien ondore kaltekorak, iraganik azpikotarik nausirarat. Emantzen beraz, zen guzia, gudu hei bidea pikatzerat, hastandurik bere illobaganik: goantzen Lotganat, eta erran zioen ez bedi, othoi izan gudurik, zu eta ene artean, ez eta zure eta ene artzainetan; ezen anaiak gara, diot, ahaide hurbillak. Lur guzia zure hautuko duzu: egiten darotzudan othoitz bakharra da eneganik urrun zaitezen: ezker balin bazohazi, nik itxikiren diot eskuinari: zuk eskuin aldea hartzen baduzu, nik harturen dut ezker aldea. Lotek, egiten zitzaion eskaintza hartan, etzuen erakutsi Abrahamen zuhurtzia bera: begiratu gabe heldu zitzaion bidegabeari hantantzean halako gizon batenganik, eta ikhusi behar bidean lehenago egin behar zuela, zer nahi gauza, ezen-ez bere osaba utzi, erori zen bortxa handirik gabe, Abrahamen erranerat, eta ezarri zuen hortik heretik, eta prudentzia guti baten eskasean, bere burua milla hirriskuren ithurburu batean. Emantzen haurtzen beretzat nahi zuen alderdia; eta nola, hautu hartan, ez baitzuen bilhatzen bere begien atsegina baizik, berezi zuen herririk ederren eta agradagarriena, eta hartu zuen Sodoma bere egoitza lekhutat. Ordu hartan lurraren gainean zen gizonik sainduenaganik lekhorat, erori zen gizon guzietarik gaixtagineen arterat: yo zuen hiri baterat zeinari Jainkoak bere fulia sainduan behatzen baitzioen, eta zeinaren gaixtakeriak ezin yasan baitzetzakeien gehiago.

Historio huntan ikhasten dire, S. Anbrosiok dakusan bezala, bi gauza. Batak eta bertzeak hainitz dakharkete. Abrahamen egiteko molde-tik, ikhusten dugu gudurik ttipienentzat izan behar dugun higintza, eta ez dela zeren fidatu sehietan, gauza hunen gainean: ezen hek dire, asko aldiz guduen ithurburuak; eta lakhet ohi dute gudu heien biztean eta iraun-araztean: berriz Loten maneratarik ikhusten dugu zein gauza premiazkoa





den nor nahirentzat, eta beregainki gasteago direnentzat, errekiegi ez utztea, berek ez dakitela, heien zoriona egiten duten presunak. Edo zein kompanietarik lausterregi hastantzen denak urrikitzeko denbora guzia izaten ohi du. Lot, Jaun-doni Petriren arabera gizon yustu bat zen, bizkitartean ikharatzeko da ikhustez zer hirriskutan emantzen, utzi zuenean bere laguna; Abrahamen karitateak urrun zetzakeien harengatik hirrisku hek guziak, berak ere bidea pikatuko zioten egoterat Abraham bezain gizon saildu batekin.

## XIII. KAPITULUA

### Abrahamek libratzen du Lot

Gen. 14.

Lot Abrahamganik hasandu zenetik lauster, agertu zen Abrahamek etzuela hastartze hura aipatu amodio eskasez; berriz, Lot, zuhurtzia gutiegiekin eman zela hartan. Lau erregeek bat eginik, gogorki tratatu izan zituzten Sodomezen ingurutako herriak. Beraz, Sodomeko eta bertze lau hiri hurbileko erregeak orobat elkharrekin eman ziren, printze hei buru egireko, eta heien desegiteko. Ordean borts erregeak izan ziren zehatuak bertze lau hetaz, eta Sodomeko erregea eman zitzaion ihesari bere bertze lau laguneekin batean. Lau erregeek ikhusi zutenean garaitiar zirela sarthu ziren Sodoman; eraman zituzten hango ontasunak, eta bertze gathibuen baltsan, hartu izan zuten Lot zituen guziekin. Gudu hartarik itzuri zen gizon bat hedatu zen berri horiekin Abrahamganat. Osaba hau ukitua izan zen, bihotzaren zolaraino, bere illobaren zorigaitzaz. Etzen ordean trikatu nigarretan; ordu beretik, gogoan zarabillan nola libra zezakeien Lot etsaien eskutarik. Hartu zituen hirur ehun eta hemezortzi zituen zerbitzari animotsuenetarik, eta yarraiki zitzaion lau errege hei. Jainkoak benedikatu zuen karitateaz berak bitz-arazten zuen gudua Patriarka saildu haren baitan, zeinak ematen baitzuen erakusterat bere tropeen indarretan baino. Jainkoa baitan gehiago kondatzen zuela. Hain mundu gutirekin, baratu zuen lau errege garaitiarren abiadura, eta egin zuen berak, borts erregeek, elkharrekin emanik, ezin egin izan zutena. Erorizen zituen bakharrekin heien gainerat; desegin zituen, eman zathitan, eta yarraiki zitzaion hainitz urrun, bere bizia begiratu nahiz, ihes zohazenei. Hunela Abrahamek athera zuen Lot etsaien eskutarik, hartu ziotzoten gauza guziekin. Sodomeko erregea yakintsun egin zenean halako akzione lorioz batez, yoan zitzaion Abrahami bere atsegina erakutsterat. Ordu hartan, agertu zen Melkisedek, gizon bain ospe handitakoa, iskritura sailduak guziz Goraen apheza deithzen duena, zeinak ordu berean, ofrendatu baitzituen ogia eta arnoa, figuratzen, edo erran nahi zutenak, elizako aita guzien arabera, elizaren sakrifizioa, ez Aaronen, bainan Melkisedeken ordenaren araberako egiazko aphezak fundatu behar zuena mendeen akhabantzarinokoan. Ondoan, Melkisedek benedikatu zuen Abraham, eta eman ziotzan eskerrak Jainkoari zeren libratu ziotzan haren etsaiak eskularat. Iduri zuen Abrahamek etzuela bertze deuse-



ren eskasik ohorearen eta loriaren partetik. Erregek nahi izan zuen borxatu Abraham hartzerat beretzat, handik athera gabe, etsaiei harturikako ontasun guziak, zuzenez harenak zirelakotzat. Etzen ordean hartan erran Abraham jenerosa; egin ere zuen yuramentu etzuela deusik harturen etsaien gauzatarik. Nihork lurraren gainean erran etzezan Abraham aberratstu zuela.

San Anbrosiok erraten du Abrahamek ohore oraino gehiago izan zuela bere garaitziaz baliatzeko moldeaz, ezen-ez garaitziaz beraz. Irakhatsi diote Kristau guziei karitate bakharrak erakharri behar dituela gudukatzerat; bertzen atsekabetan sarthu behar dela bere bizia hirriskatzerainokoan bere anaieena begiratzekotzat. Abrahamek irakhatsten daroku oraino Jainkoa baliatzen balin bada gutaz gauzarik handienetan, eta manerarik miragarrienean, bertzeak libratzekotzat gathetarik, ez dugula orduan ere, buruphez iguriki behar, mundu huntan bertze gollardorik, baizen Jainkoaren aldera leihal izatetik heldu zaikun ohore bakharra, gutaz baliatu nahi denean bere xede sailnduen bethetzekotzat.

## XIV. KAPITULUA

### Agaren ihesa

Gen. 16.

Abrahamek garaitu zituenean lau erregeak, eta izan-arazi zioenean Loti bere lehenbiziko libertatea, bizi zen bere egokian edo familian, deskantsu guzietan; ordean etzuen bere ontasun handien primurik, haurrik gabe kausitzen zen, eta hortan zatzan haren eskas guzia. Jainkoak, parte huntarik ere, bethe nahi izan zituen gizon sailndu haren nahiak, eta saristatu bere emaztearen agorrasunean erakutsi zuen sumisione humila. Agindu zioen ume bat, iduri guzien kontra, Abrahamek ezagutzen zuen agintza hura erraten zioenaren botherea; batere trikatu gabe, sinhetsi zuen gauza; nahiago izan zuen ukho egin bere arrazoin naturalari, ezen-ez izan dudarik batere mintzo zitzaioenaren hitzaz. Sarak pena zuen ikhusleaz Abraham umerik gabe othoitztu zuen hartzeaz Agar, bere azpiko zuena, bere emaztetzat bezala, aurkhi zezantzat agortasun haren konsolamendua agor izanen etzen bere sehiaren baitan.

Abrahamek, diote elizako aitek, konprenitu zuen Jainkoak berak erakharri zuela Sara proposizione haren egiterat, eta erori zen bere emaztearen nahirat; ordean denborak erakutsi zioen bere konsolamenduarentzat egin zuen gauzak, erran zioela aitzitik atsekabe berri bat. Agarek, ikhusi zuenean bere burua bere nausiasz hala ohoratua, eta zelakotz guzia bozkariatua ume bat izateaz Abrahamenganik, arbuiatu zuen Sara zeren zen agorra, eta etzion gehiago behatzen buruzagi baten oinean. Sarak egin ziotzan berehala bere errenkurak Abrahami: senhar sailndu hunek eman zuen ezagutzarat etzela behintzat kutsatzen Agaren insolenzian, eta bakharrak, Saraen othoitzetarat, zadukala Agar bere emaztea balu bezala; libratu zuen sehi hau Saraen eskutarat, permetitu ere zioen trata zezan, berari zitzaion gisa.

Sara baliatu zen bere nausiasun guziaz, eta gaztigatu zuen Agar, hulako moldez, non ezin gehiago yasanez dorphegi zitzaizkon tratamenduak, ilkhi baitzen etxetik, eta eman baitzizaion ihesari. Mortuan, ithurri baten hegian zelarik, agertu zitzaion aingeru bat; galdetu zioen nondik heldu zen, eta norat zohan Agarek ihardetsi zioen lanoki, bere nausiaren haserradurari ihes zabilhala. Horren gainean aingeruak manatu zioen bihurtzeaz Saraganat, humilia zadin haren aitzinean, eta ezagut zezan Sarak haren gainean zuen nausiasun zuzenbidezkoa.



Horra nola Jainkoa baliatu zen aingeru batez, gauzak sar-arazteko-tzat bere estatu naturalean, zeinetarik desarrimua eta pasioneak athera baitzitu. Ikhusi zuen, elizako aiten arabera. Agar ihes abiatzea etzela heldu Saraen garratzasunetik, bainan bai, Agarek berak zuen penatik Saraen azpiko ikateaz. Jainkoak etzuen kausitu erratekorik Saraen kon-portamenduan bazakien Agaren alderat agertzen zuen bortiztasun hura karitatetik heldu zela; kontentatu zen errateaz ihes zabilhan sehi hari, humilia zadiela Saraen begietan, eta ardiets zezala nausi haren arraitasuna bere sumisioneaz, eta haren alderako atenzione bereziez. Jainkoak ez du behinere desegiten justiziaren arrimua; eta horra zergatik, behartzen dituen bertzen azpiko direnak, bere buruzagien meneko izaterat, zer nahi grazia extraordinario ardietsi duketen harenganik. Amatasunak Agari eman zaroen suphertasunari yarraikitsetik urrun. Jainkoak aitzitik nahi du hanbatenaz emenda dadin gure humiltasuna, zenbatenaz baigara altxatuak; ezen nihor ez da haren aitzinean handi, humil zen eredura baizen.

## XV. KAPITULUA

### Sarak konzebitzen du Isaak

Gen. 18.

Agarek, Abrahamen etxerat bihurtu zenetik lauster, izan zuen seme bat, Ismael deithua izan zena. Hamahirur urtheen buruan, Jainkoa agertu zitzaion Abrahami egitekotzat harekin allientzia eta batasun hertsia go bat; eta erreberritu ziotzan aitzinago egin ziotzan agintzak. Ganbiatu zuen haren izena, orduraino Abram zaritzon, eta handik harat Abraham izan behar zen deithua; haren emaztea ere han artean Sarai zaritzona, deithua izan behar zen Sara. Jainkoak manatu zion Abrahami zirkonzisionea elk-harrekin egiten zuten allientziaren seinale bat bezala; hitz eman zioen Sarak izanen zuela seme bat, bere benedikzione guziez betheko zuena, eta seme harenganik atherako zela hainitz errege eta hainitz populu. Gauza horien entzutean, Abraham eman zen ahuspez lurtean, hirritz zatzala, eta erraten zuela bere bihotzean: baduke bada seme bat ehun urthetako gizon batek? Eta ekhar dezake bada oraino umerik Sara, lauetan hogoi eta hamar urthetan denak? Ordean Jainkoak seguratu zuen Abraham gauza hortaz, eta utzi zuen horrekin batean.

Handik fite, Abrahamek, yarrria zatzala, egun bero batez, bere tenta, eda kabanaren aitzinean, ikhusi zituen, aski hurbil bereganik, hirur presu-na: hek ziren hirur aingeru. Haren karitateak nola ez baitzuen utzten nihor iragaterat, hospitalitatea, edo erretiramendua eskaini gabe, athera zitzaion aitzinerat; egin zioten agur errespeduzko bat, othoitztu zituen pausatzeaz, eta permetitzeaz garbi ziotzaten oinak, zerbitza ere zetzan mahainean. Abrahamek ardietsi zituenean, bere othoitz minez hirur pre-suna hetarik galdetu ziotzaten gauza hauk guziak, yoantzen lehiaz bere kabanarat, eta erran zion Sarari aphain zetzala hirur ogi hauts azpian erreka; hartu zuen berak, bere arthaldean, xahal bat gizena eta utztarra; erre-arazi zuen berehala, eta zerbitzatu zioten bere arrotzei. Yan izan zutenean, galdetu zioten Abrahami zeina baitzatzan arbola baten azpian, hek yan zuten lekhitik hurbil, non zen Sara haren emaztea; Abrahamek ihardetsi zioten bere kabanen zela; oduan, ingeruek seguratu zuten den-bora laburrik artean, hek berriz ethorriko zireneko, Sarak konzebituren zuela seme bat. Sarak entzuten zuen hek ziotena, eta ezin debekatu zen hirri egitetik. Aingeruak galdegin zion Abrahami, zertako hirri egiten zuen Sarak, seme bat agintzeaz? Bazen ez bada deusere gaitzik Jainkoa-



rentzat? Orduan Sara lastu zen guzia, eta erran izan zuen etzuela egin hirririk. Aingeruek eman zioten Sarari begien aitzinerat egin zuen gaizkia, gezurra errateaz: yoan ziren gero handik, eta Abraham yarraiki zitzaien. Jainkoak erran zion Abrahami sodomiarren bekhatuek gaindi egin zutela, ezin yasan zetzakeiela, eta bazohala heien punitzerat. Abrahamek galdetu zioen Jainkoari, etzinez bada barkhaturen hiri hari edireten balin baziren haren barnean berrogoi eta hamar justu. Jainkoak ihardetsi zuen: baldin edireten badire berrogoi, eta hamar justu, heiengatik, barkhaturen diot hiri guziari. Abrahamek erran zuen horren gainean: Jauna, badakit hauts eta herrauts naizela zure aitzinean, guziarekin zilhegi bekit egitea bertze galde bat. Zer egin zinezake, Jauna, ez edireterat berrogoi eta bortz justu baizik? Jainkoak ihardetsi zuen: ez nezake gal-araz hiria. Abraham etzen hortan gelditu, erran zuen oraino: Eta, Jauna, ez balire hamar justu baizik Sodoman, zer laite hiri hartaz? Jainkoak orduan ere ihardetsi zuen: baldin hamar justu aurkhitzen badire, ez, ez dut gal-araziren hiri hura. Solas huntarik lekhora, Abraham bihurtu zen bere etxerat.

Hemen ageri ahal da zein urrun hedatzen den Jainkoaren ontasuna, eta ezin bertzeak daramala bekhatoreen punitzerat. Baiki, bekhatu mortal bat aski ifernuan erretzeko! Sodomiarrak bizi dire phulunpatuak hanbat gaixtakerietan, halarik ere, Jainkoa ekharria da guziei barkhatzerat, edireten balin baziren populu guzian, bakharrik hamar justu!

Etsenplu berak irakhasten daroku Jainkoak arraitasun eta konplazentzia handienarekin behatzen diotela arima justuei, eta indar guzizko bat dutela haren begietan. Milletan dohatsu herria arima Jainkotiarrek daduzkana! Zenbat zorigaitz ez dezakete urrun, eta benedikzione erakhar prestuen othoitz khartsuek? Zenbar bekhatore erretzen hari litezkenak, arima justuen arartekotasunak ez balu aphazegatzen Jaunaren haserradura saildua, eta ez balu nolaz-pait ere bortxatzen haren justizia amor ematerat haren miserikordiari!

## XVI. KAPITULUA

### Sodoma errea

Gen. 19.

Lot bethi Sodoman zagon. Hiri hartako eta ingurutan ziren bertze lau hiritako populuak largatuak ziren gaixtakeria izigarrienerat. Urrun da ordean Lot kutzatzen baitzen bekhatutan: garbi zaduzkan bere begiak, bere beharriak, eta guziz bere bihotza.

Bi aingeru, gizonak ziruritenak sarthu ziren Sodoman, Jainkoak hiri hura gal-arazterat zohala Abrahami erran zioen egun haren arrats-aphalerat. Ordu hartan Lot yarra zatzen hiriko athean. Ikhusi zituenean bi aingeruak, altxatu zen bere yar lekhtuk, hurbildu zitzaien, eman zen ahuzpez heien oinetan, eta othoitztu zituen sartzeaz haren etxean. Aingeruak etziren berehala erori Loten othoitzetarat; ordean gizon saildu hark eskuratu zituen, emeki-emeki. Bere etxerat zituenean, emanarazi zioten yaterat. Hurbildu zenean etzateko muga, hiri hartako yende guziek inguratu zuten etxe hura, eta erran zioten mehatxurekin Loti, ilki-arazteaz barnean zaduzkan bi arrotzak. Gizon saildu hura agertu zitzaieen bera, eta egin zituen bere egin ahal guziak yende hek urruntzekotzat bere xede gaixtotarik; ordean zoratu hek, sarthu behar bidean bere baithan, lothu zitzaizkon muthiriki berari, eta nahi izan ziren haren bortxa, sarthu haren etxean. Hori ikhusirik, bi aingeruek hartu zuten Lot eskutik, eraman zuten barnat, eta hertsu zuten athea. Gehiago egin zuten: itsu-arazi zituzten kanpotik ziren yende hek guziak. Halarik ere, heien errabia etzen baratu; bere itsutasunean berean, etxearen ingurutan zabilzan, asmurat, han nondik sar ezin edirenez.

Ordu berean, aingeruek erran zioten Loti: balin baduzu ahaiderek Sodoman, lehia zaite hek handik ilki-arazterat, ezen gaitzerat daramagu hiri hau. Hemengo populuaren bekhatuek tarritatu dute zerua, eta Jainkoak mezutu daroku fundi-arazteaz hiri huntan diren guziak. Lotek etzuen galdu denborarik, berehala mintzatu zitzaieen bere bi alhabeen senar gaiei, eta erran zioten: lauster, egizue, ilki zaitezte hiritik; ezen Jainkoak suntsi-arazterat darama. Yarraikitsetik urrun Loten erran zuhurrari, hirri egin zuten haren izialduraz.

Argia urratzerat, bi aingeru hek nahi izan zuten ilki-arazi Sodomatik Lot bere emaztearekin eta bere bi alabeekin (*Jainkoa orhoitzen zen Abrahamez, eta beiratu nahi zuen Lot galdua izatetik bertzeekin batean.*) Nola nagai bai-



tzen hiritik atheratzerat, aingeruek hartu zuten eskutik, eta eraman kanporat; erran zioten: begira zazu zure bizia, hortarakotzat, ez beha gibela, ez trika alderdi hautan, zohazi lehen-bailehen menditarat, bertzela galdua zara bertze guzien baltsan. Lotek galdetu zuen izan zakion zilhegi helteaz Segor zaritzon hiri xume baterat. Jainkoak onhetsi zuen haren galdea. Etzen hain lauster sarthu hiri hartan, non Jainkoak yautsarazi baitzuen sufrezko eta susko uri bat Sodomaren, Gomorheen eta alde hetako herrien gainerat. Bortz hiri oso bere ingurutako lurrekin izan ziren herrautsetan emanak. Loten emazteari gerthatu zitzaion huts bat, gosta zitzaiona; hautsirik Jainkoaren debekua, behatu zuen gibelat: ordu berean izan zen gatzezko figura baterat ganbiatua. Biharamunean, Abrahamek ikhushi zituen, Jainkoa mintzatu zitzaion lekhitik, Sodomatik, Gomorhetik eta inguru hetatik, hedoiak bezala, altxatzen ziren khe beltza eta herrauts bihotz erdiragarriak.

Aithor agun pasioneak su handia ematen duela, eta gizonaren bihotza, phozoatzen duen bezala, haren izpiritua ere, ondikoz! itsutzen duela. Non zen bada sodomiarren adimendua bortxa egin nahi izateaz Lot presuari bere etxean, eta idoiztatu nahi izateaz gizon saildu hark bereganatu zituen bi arrotzak! Ordean zer dire gizonen egin-ahal guziak, Jainkoaren arabekoak ez direnean? Ala ungi begiratuak baidire Jainkoak bere art-haen azpian daduzkanak! Eta ala urrikaltzeko baidire Jaunaren lege sailduari ukho eginik, bere zoramendurat utzi nahi direnak! Etsenplu ikhargarri bat edireten dugu Sodomaren eta haren hiri laguneen gaztigu dorphean. Guri dagoku ihes egitea Jaunaren haserradura sailduari, aitzitik gureganatzea haren laguntza guziz salbagarria: deus ere herrexagorik hori baino. Gaiten gibela gaizki egitetik, gakizkon yarraik ungiari: hortan datza guzia. Horra bide segura urruntzekotzat gureganik zeruko gaztiguak, eta yauts-araztekotzat gure arimatarat hango laguntza eta grazia berezienak.

## XVII. KAPITULUA

### Jainkoak punitzen du Abimelek

Gen. 20.

Sodoma sutan eman izan zenetik lauster, Abrahamek utzi behar izan zuen zagoen lekhu heldzekotzat Jerarat. Harat zenean, erran zuen Sara bere emazteaz mintzo zela, arreba zuela. Abimelek, herri hetako erregek altxarazi zuen Sara, eta erakharri bere palaziorat; ordean Jainkoa agertu zitzaion gauaz ametsetan, eta erran zioen: Galduko duzu bizia, emazte hori altxarazte sari, ezen senhardun da. Abimelekek ihardetsi zuen: Zer, Jauna! gabeturen duzu bada biziaz fede onean, eta yakin gabean dohan inozenta? Gizon hark berak erran darot arreba zuela Sara, eta Sarak ere erran darot anaia zuela Abraham: ikhusten duzu beraz ez nuela gaizki egiteko xederik. Jainkoak erran zion errege hari: Badakit zure fede onaren berri, hargatik ere begiratu zaitut bekhatutik. Bihur diozozu senharrari bere emaztea; ezen profeta bat da: eginen dio Jainkoari othoitz zuretat, eta biziko gara: bertzela, yakin zazu, zu eta zure etxeko guziak, hillak izanen zaretela.

Abimelek lastua izan zen Jainkoaren mehatxuez: erakharri zuen Abraham beregana, eta erran zion: Zerentzat iharduki duzu molde hortan gure alderat? Zer gaizki handi egin ginduen bada yauts-araztekotzat bekhatu bain izigarri bat ene buruaren eta ene erresumaren gainerat? Zer xede ahal zindukeien? Abrahamek ihardetsi zuen: Beldur nintzen etzela Jainkoaren beldurtasunik bazter hautan, eta hil nintzaten yabetzekotzat ene emazteaz, hargatik erran dut ene arreba dela: hala ere da, ezen aita beraren ume gerthatzen gara, ez dugun arren ama bera: bertze alde, zioztan Abrahamek: Jainkoaren mezuz, ene etxetik athera geroz, othoitztu izan dut Sara errateaz orotan haren anaia naizela. Abimelekek egin zion Abrahami emaitza haintz; eta Saraganik urruntzean, erran zioen emazte huni hirri aire batekin: eman diotzat zure anaia delakoari milla peza diru. Erosiren duzu hetaz oihal edo tela bat, hartaz estaltzeko zure burua, munduak yakin dezantzat ezkondua zarela. Abimelekek gomendatu zioen oraino Sarari ez erakhartzeaz nihori bidegaberik.

Jainkoak, lege zaharrea berean, zorrozki manutzen zuen ezkontzaren alderako leihaltasuna, eta dorpheki punitzen manu hura hautzten zutenak. Bertzelako leihaltasun eta errespektu galdetzen du orai girstinoren arteko ezkontzak: altxatua da sakramendu bat izateko ohorerat; nolako leihaltasuna ez dagoko beraz batasun saildu hari? Zer punimendu ikharagarri ez dute igurikitzeo Jaunaren justiziatik sakramendu handi haren saildutasuna zaurthzeko atrebentzia luketenek, gogoz ere?



## XVIII. KAPITULUA

**Isaak sortzen da.**

**Ismael khendua da**

Gen. 21.

Jainkoak konplitu zuen Sarari eman zioen hitza, hark erran bezala, eta hark seinalatu mugan: izan zuen bere zahartasunean ume bat. Orduko Abrahamek bazituen ehun urthe: eman zion izentzat Isaak, eta zir-konzisatu zuen zortzigarren egunean. Sarak nahi izan zuen berak hazi ume hura. Ethorri zenean bulharra utzteko denbora, Abrahamek eman zuen othuruntza handi bat erakutstekotzat bere bozkarioa. Sarak ikhusirik Agaren semeak zehatzen zuela Isaak, dostetan hari zirela, erran zioen Abrahami: Khenzazu gathibu hori bere umearekin: ezen-ez da izanen errana gathibu baten umeak partituren duela primuza Isaak ene semearekin. Saraen othoitzak damuztatu zuen Abraham; ordean Jainkoak erran zion: Egizu Sarak erran darotzun guzia; ezen Isaakganik ilkiren da zure izena ekharriko duen ethorkia. Abraham yeiki zen goizik; hartu zituen ogi bat eta ur untzi bat; ezarri zituen Agaren sorbaldeen gainean; eman zioen Ismael bere semea, eta khendu zuen bere etxetik.

Agar, khendua izan zenean Abraham baitarik, iragan zen Bersabeko morturat. Urak eskas eginik, eman zuen bere haurra arbola baten azpian, eta urrundu zen aphur hat harenganik, ez nahiz ikhusi hiltzen bere umea. Auhen eta nigarretan zatzala, aingeru batek deithu zuen zerutik, eta altxatu zion bihotza: manatu zion artha izateaz Ismaelez, zeren leinu handi baten aita izan behar baitzen. Aingeruak erakutsi zioen ordu berean, urezko ithurri bat: laguntza hunek etzuen guti konsolatu Agar. Ur hark hazkartu zuen Ismael, eta bizi izan zen mortuan.

Saraen etsenpluak irakhasten diote ama guziei bere umeen haztean behar dituztela beregainki bilhatu bere ohorea eta atsegina. Erran daite ez direla ama, erdizka baizik, hortan huts egiten dutenak; eta egiaz zerk hobeki sor-araz eta atxik-araz dezake umeen eta ameen arteko amodio odolak berak errekeritzen duena, umeen hazteko eginbide zuzenak baino? Elizako aitek hagitz gomendatzen diote ama giriztino guziei bere haurrei berek emateaz bulharra, egin ahal bezanbatean. Zenbat, bizkitartean ama lako ez antsiatasunaz, guritasunez edo nekhe guti baten guphidetstekotzat, bere umeak largatzen dituztenak unhide atzetarat, eta bere buruak deskantsu daduzkatenak gauza hunen gainean! Zer ahalkeria hala-

ko ama lazoentzat ikhustez bestiek berek, ezin bertzez, utzten dituztela bere umeak bulhar atzetarat?

Odolak bezala, erreljioneak ere erakharri behar lituzke amak bere umeak berek hazterat, Herbaltasunak, edo bertze arrazoin onek gibelatzen badituzte eginbide hunen bethetzetik, artha zorrotz hat hartu behar dute, unhide osasuna onetakoan, humore ezitakoan eta bizitze ona daramateneen bilhatzeko: ezen, mirikuen arabera, haurrek hartzen ohi tuzte unhideen yaidura berak, onak eta gaixtoak.





## XIX. KAPITULUA

### Abrahamen sakrifizioa

Gen. 22.

Ismael Abrahamen etxetik khendua izan zenean, Isaak bakean bizi zen, bere aitaren ontasun guzien primu bezala. Ordean hogoi eta hamazazpi urthe bethe zituenean, hebreudarrek diotenaren arabera, Jainkoak, nahiz Abraham frogatu, manatu zioen har zezan Isaak bere seme maitea, eta imola ziozon mendi gain batean. Abrahamek bazakien Jainkoaganik zuela seme hura: ekharria izan zen haren berehala berari bihurtzerat. Haren fede handiak ithotzen zituen ethor ahal zakizkon gogoeta guziak, orhoitzean Jainkoaganik askotan izan zituen agintzeez, zeinen arabera, izan behar baitzuen Isaaken bidez, ondorio bat emendaturen zena, izarrak zeruan bezala. Abraham yeiki zen hainitz goiz, eta deusere nihori aipatu gabe bere xedeaz, hartu zituen berekin Isaak, eta bi sehi. Pikatu zuen bere holokaustaren erre-arazteko egurra, eta igan zen Jainkoak erakutsi zioen lekhurtat. Egon zen bi egun oso, bere xede fermuan; bere semearen ikhusteak etzuen hautsten haren bihotza. Hirurgarren egunean, altxatzearekin begiak, ikhusi zuen urrundarik sakrifizio handi hartako behartzen lekhu: orduan manatu zioten bere sehiei egoteaz mendiaren behean, bera yoanen zen artean bere semearekin Jainkoa adoratzerat: hartu eta ezarri zuen Isaaken bizkarrean holokaustarentzat egina zen egurra: horrela Isaak higan zen mendirat, bere burua erretzeko egurra berekin zaramala; hortan ezagut-arazten zuen Isaak egiazkoa geroztik Kalberioiko mendirat higan dena haren sakrifiziotzat behar zen zuraz kargatua. Abrahamek mendirakoan eskutan zaduzkan espata eta sua: Isaak yarraikitzen zitzaion alegeraki: seme hunek galdetu zion bidean, bere aitari, non zen hil-arazi behar zuen biktima. Abrahamek, ahantzi balitzaio gisa, buraso zela, ihardetsi zuen fermuki, Jainkoak behar zen guziez kontu eginen zuela. Seinalatu zitzaien tokirat zirenean, Abrahamek egin zuen aldare bat, eta han ezarri zuen bere semeak ekharri egurra; estakatu zuen Isaak bere ume maitea, eta eman zuen susko aldare hartan; hartu zuen espata eta altxatu zuen besoa hiltzekotzat Isaak.

Jainkoa ukitua izan zen burasoaren fermutasunaz eta umearen sumetimenduaz. Etzuen nahi ya konplutua bezala ikhusten zuen sakrifizio handi hura izan zadin buztia bibimaren odolaz. Marka zezantzat gure aldaretako, odol isuri gabeko sakrifizio saildua. Geldi-arazi zuen aingeru

batez, Abrahamen besoa, zeren ezagutu baitzuen haren beldurrean bizi zela, etzuenaz geroz guphidetsi bere seme bakharra ere. Lekhu hartarik hurbil gerthatu zen akher bat, sasitan adarretarik hartua zena; Abrahamek ofrendatu zioen Jainkoari azienda hura, bere semearen orde, eta bihurtu zen etxerat.

Yadan, erran dugu historio huntako gauza ederrek ematen zutela adi-arazterat, zer beharko zitzaion egun hatez gerthatu, Jesu-Kristo gure salbatzailleari. Historio berean burasoek edireten dute, elizako airen arabera, eskola zuhur bat zeinetan ikhas baidezakete behar diotzatela lehia-ekin imolatu bere umeak Jainkoari. San Krisostomek minki auhendatzen ditu giristino direlako aita, amak, imolatzen diotzotenak bere umeak, ez Jainkoari, Abrahamek bezala, bainan bai Satan gaixtoari, hek erakharriz munduko banitatetarat, eta gal-araziz heien bihotzak bere ondikozko etsenpluez.

Abraham bakharra da, dio oraino San Krisostomek, bere semea Jainkoari ofrendatzen dioena; ordean zenbat buraso ez da bere umeak etsaiari sakrifikatzen diotzotenak! Bozten gara ikhusteaz zenbeit buraso bakhar, bere umeak altxatzen dituztenak artha saildu batekin. Ordean ala lauster ahantzia baida gure bozkarioa, ikhusteaz buraso gehienak bere umeen galtzen hari direla! Hulako buraso lazo eta mundutiarrek hobeki ahal dute merezi bere umeen hiltzailleen izena, ezen-ez heien airen eta ameenal!





## XX. KAPITULUA

### Saraen heriotzea

Gen. 23.

Abrahamek eta Sarak izan zuten beraz Isaak, umeen izateko adinaz kanpoan zirelarik. Jainkoak ume prestu hura begiratu nahi izan zuen, eta bihurtu zaroen bere burasoei. Geroztik Isaak izan zen bere amaren kon-solamendua zahartzean. Sara hil izan zen ehun eta hogoi eta zazpi urthe-tan, Isaak mundurat eman zuenetik hogoi eta zazpi urtheen buruan. Abrahamek auhendatu zuen bere emaztea, eta bere nigarren ondoan, egin zuen hobi bat bilhatzerat haren ehortztekotzat. Hedatu zen hortakotzat Jethko populuarenganat; erran zion nola zen arrotz bat heien herrian gerthatzen zena; galdegin zioten emateaz, othoi, hobi bat herri hartan, izateko zuzen ahartan ehortztekotzat bere emazte zenaren gorphutza. Jethko yendek tratatu izan zuten Abraham honestasun den handienare-kin, deithzen zutelarik Jainkoaren printzea. Eman zioten hautatzerat hiri hartan berari gehienik zitzaion lekhua. Abraham, gizon saildua bezain jenerosak, etzuen nahi zordun izan nihoren alderat; etzuen nahi deusere urririk. Erakutsi zioten yende arrai hei heien alderat zuen ezagutza, eta othoitztu zituen erakhartzeaz, beren artean lehenbizikotarik zen gizon bat, Efron zaritzona, saltzerat landa bat zeinetan baitziren bi zilhoka, nahiz Sara izan zadin ehortzia hetarik batean. Efronek eman nahi izan zioen bere landa, diru gabe; ordean Abrahamek etzuen nihilere hala adi-tzen; eta erakhari zuen azkenean Efron erraterat landa hark balio zitue-la lau ehun sikla diru: alferretan Efronek har-arazi nahi izan zioen lur hura, pagu gabe, Abrahamek pisarazi zuen, guzien aitzinean, lur peza haren balioaren dirua; molde huntan, eta lekhukoen begietan, yabetu izan zen Abraham Efronen landaz, eta han ehortzi zuen Sara bere emaztea.

Gauza ezin aski admiratuzkoa! Jainkoak hanbatetan seguratu zuen Abraham hura zagoen lur hura, egun batez, harena izanen zela; bizkitar-tean haren gogo eta anbizione guzia izan zen yabetzea, ontasun bakhar-tzat, sepultura bata beretzat eta bere umeentzat. Bere begiak zerurat zaduzkan altxatuak; arbuiatzen zuen osoki lurra; bizi zen bethi hiltzen hari izan balitz bezala. Jainkoak gogoan zakharken denboran ematea Abrahami ondorio luze bat, eta ondorio hari lur podoros bat; Abraham, bere aldetik, orhoitzen zen bakharrik bere heriotzeaz, bere hobiaz eta utz-teaz bere umei primuza guzizat, berak bere bizian, hiltzeaz orhoiturik

beretzat zadukan primuza, erran nahi da, Jainkoarenganako amodio zinezkoa.

Abraham, gizon saildu hark, ematen du erakutsterat ungi dagokola J. Doni Paulek hartaz bihurtzen duen lekhukotasuna, dioenean Kananea-ko lurra, zenbat ere baitzen mundu guzian zen lurrik ederrena, deusere etzitzaiola, edo gehienerat, behatzen zioela mirail bati bezala, zeinetan ikhusten baitzuen bertze lur bat bethi gogoan zarabillana. Abrahamek erran zezakeien, J. D. Paulorekin, lureko ontasun guziak ongariaren eta zikhinkerien pare zaduzkala.



## XXI. KAPITULUA

### Isaak ezkontzen da

Gen. 24.

Abrahamek, zahartu zenean, nahi izan zuen Isaak ezkon-arazi; etzuen ordean nahi bere odola baltsatu Kanaan herriko neskatxekin. Manatu zuen Eliezer, haren ontasunaren artha zadukana, goateaz Mesopotamiarat bilhatzekotz haren semearentzat emazteki bat Jaunaren haseradura haren gainerat erakharriko etzuen: Eliezer, alde hetarat zenean, eta hurbildu zenean Nakor hiritik, othoitztu zuen Jainkoa, ezagut-araz ziozan Isaaki bere emaztetzat eman gogo zioena. Errekeritu ere zuen, hiri hartako neskatxak atherako zirenean urketarat, erakutz ziozan haina hura, molde huntan: Ur guti bat edateko galdeginen zioela, eta orduan neskatxa hark emanen zioela edaterat, ez bakharrik berari, bainan eskainiko zioela oraino edatekoa bere kameluentzat. Eliezerek othoitz hau egitearekin batean, Rebeka ilki zen hiritik urketarat. Rebeka zen presuna eder bat, Bathuel Melkaren semearen alaba, eta Nakor Abrahamen anaiaren emaztea. Rebeka etxerat bihurtzen zela, Eliezer athera zitzaion biderat, galdegin zioen ur guti bat edateko; Rebekak eman zioen gogotik, eskaini ere zioen ura bere kameluentzat. Zerbitzari leihal hark ezagutu zuen, Rebekaren egiteko maneratik, hura zela Jainkoak haren nausi gaztearen emaztetzat zadukana; eman ziotzan beharritakoak, edo petentak, eta esku-muturretakoak, edo brazeletak, egin zion laguntzaren alderat. Galdegin zion nor zen, eta bazenez harentzat lekhurik haren aitaren etxean. Rebekak seguratu zuen gauza hortaz, eta lehiatu zen etxerat, nahiz bere yendeak egin yakintsun ikhusirik heldu zenaz, Laban, haren anaia, ikhusi orduko petenta hek, yoantzen Eliezerenganat, eta othoitztu zuen sartzeaz haren etxean. Eliezerek, harat zenean, seguratu zituen etxe hartakoak etzuela yanen ez edanen, non etzuen zarratzen, lehenik, hura harat zaraman egitekoa: erran zioten beraz Abrahamen zerbitzaria zela, Jainkoak ontasun handiak eman ziotzala haren nausiari, eta bere semea nahiz ezkondu, hartaz egorria zela heien herrirat; othoitztu zuela Jainkoa ezagutaraz ziozon, explikatzen ziotzoten seinaletarik, Isaakentzat zadukan emaztea, eta Jainkoak yakintsun egin zuela Rebeka zela haina hura, beraz haren galdetzerat heldu zitzaiea.

Bathuelek eta Labanek, ezagaturik gauza hori Jainko beraren obra zela, eman zuten bere laudamendua; orduan Eliezerek eskaini izan zio-

tzoten dela alabari, dela haren ahaidei emaitza handiak, hala nola, urrezko yarroak, eta nahi izan zuen partitu biharamun beretik. Rebekaren yenden atsegina izanen zen Eliezerez gehiago gozatzea: erakharri zuten Rebeka zeinaren ezkontza egin baitzuten haren gogoaren berririk yakin gabe. Galdetu zioten ungi zitzaionez bada Eliezer hain laster urrun zadin heenganik. Rebekak etzuen hortaz damurik agertu; gehiago dena, bera ere yarraiki zitzaion Eliezeri zeina bihurtu baitzen lehiarekin Abrahamganat. Etxerat hurbiltzean, bathu zuen Isaak. Rebekak yakin zuenekotz Eliezerenganik presuna hura Isaak zela, haren senhar beharra, Jainkoak hala manatu zuelakotzat, estali zuen oihalaz bere burua. Eliezerek egin zuen Isaak yakintsun bere hurratseen eta galdearen efetu dohatsuez. Orduetik, Isaakek hartu zuen Rebeka bere emaztetzat; eta ekharri zioen amodioak konsolatu zuen, dio iskritura sainduak, oraino bihotzean zakharkeien damuaz, Sara bere amaren heriotzeaz, hirur urthe aitzinago gerthatuaz.

Erranik heldu garenetan ikhusten da ezkontza saindu baten etsenplu miragarri bat. Ikhusen da ez dela hurren aiphamenik ere behar egin ontasunez; bainan guzien gainetik, bilhatu behar direla, ezkontzetan, presuna Jainkotiarrak, Jainkoari agradagarri zaizkonak: hortakotzat artha eta othoitz hainitz behar dela, eta ararteko zuhur eta prestuak hartu behar direla. S. Anbrosiok nahi du neskatxa gazteek ikhas dezaten Rebeka, Isaak ikhustean estaltzen denaganik, zer modestia iduki behar duten Jainkoak senhartzat eman nahi diotzoten bereen alderat, eta ez direla eman behar penetan irabazteko heien hihotzak bere edertasunaz, ez eta bere kanpoko edergailluz, Rebekak egin zezakeien bezala, bainan bai bere modestiaz eta bere konportamendu sainduaz.



## XXII. KAPITULUA

### Jakob eta Esau

Genes. 2 5.

Iragan ziren oraino zenbait urthe Isaaken eta Rebekaren arteko ezkontza dohatsutik, Abrahamen heriotzeraino. Azkenean, Jainkoak deit-hu zuen beregana gizon saildu hura; nahi zuen goza zadin hain fede bizi-rekin bilhatu zituen ontasun bethikoez. Begiratu zuen Jainkoaren alderako leihaltasuna azken hatseraino atsegirik baizen etzuen behatzeaz bere buruari gizon desterratu baten oinean, eta arrotz bat izan balitz bezala Kananeako herrian: ez zitzaion ere behinere gogoratzen bihurtu behar zela Kaldearat: bere arrazoina bethi sumetitua zadukan bere fedeari; era Jainkoarenganako haren amodio khartsuak garaitzen zituen bethi haren yaidura eta afekziona bizienak. Jainkoari arthoski yarraikitzen zitzaion gerthakari guzietan. Sara, bere emaztearen edertasunak, eta Lot bere illo-barenganako amudioak; ezarri zuten Abraham herstura handitan; ordean bere zuhurtziak eta bere animoak athera zuten egitekotarik. Patriarka saildu hura hil izan zen ehun eta hirur hogoi eta hamabortz urthetan, *zahartze doatsu batean bere egun guziak betherik, eta haren arima ezarria izan zen hura baino lehen mundutik athera ziren arima justuen baltsan*. Isaakek eta Ismaelek ehortzi zuten Abrahamen gorphutza berak Efronen erosi zuen zilho-kan.

Jainkoak, iskritura sailduaren arabera, hil zenean aita, benedikatu zuen Isaak haren semea. Isaakek eta Rebekak etzuten dohatsutasun guzian bizitzeko deuseren eskasik, lekhat, ume batena. Egon ziren elkharrekin hogoi urthe haurrik izan gabe. Azkenean, Jainkoak entzun zuen Isaaken othoitzza Rebeka gerthatu zen bi seme biritxiz izorra. Amaren sabelean berean, bi haur hek yarri ziren elkharren kontra guduan. Gauza hunek laztu zuen Rebeka, eta hurren urrikitan zen ez gelditzeaz bere agortasunean. Konsultatu zuen Jainkoa, nahiz yakin zer erran nahi zuen gudu fuerte hark. Jainkoak ihardetsi zioen, sabelean zakharzkeien haur hek, bata bertzearen kontra izanen ziren bi populuen buruzagi gerthatu- ren zirela, eta *zaharrena gazteenaren azpiko beharko zela*.

Ethorri zenean erditzeko muga, Rebekak eman zituen bi haur mundurat. Lehenbizirik sorthua zen gorrikara, eta illetsua. Esau izan zen haren izena: laster yarraiki zitzaion bertzea, oinetarik zadukala bere anaia: Jakob izan zen bigarren hunen izena. Bata eta bertzea handitu zirenean,

Esau eman zitzaion osoki ihiztatzeari, eta bethi landaz landa, zabillan. Jakobek etzuen gustu bera; aitzitik etxean deskantsu egotea zuen lakhet. Isaakek bazuen amudio berezi bat Esauentzat, zeren yan-arazten zioela-kotzat bere ihizkitatik. Rebeka, berriz, ekharriagoa zen Jakobentzat.

Egun batez, Jakobek aphaindu zuen ilhar guti bat yatekotzat; Esauk, etxerat zenean ihizitik, guzia nekhatua eta gosez hurrendua, othoitztu zuen bere anaia hari ematez ilhar hek. Jakobek ihardetsi zion: Bai, emanen darozkitzut, utzi nahi badauzkidatzu lehenbizirik sortzeari darraizkon zuzenak. Gizonaren flakezia ahalkagarria! Esau erori zen berehala hartarat.

Errateko hainitz edireten dugu Esauen gainean: kondenatzen dugu arrazoinekin haren zoramendua saltzeaz, momento bateko atseginatik, bere zuzen eta ontasun guziak. Ordean Esau baino zuhurragoak othe gara ethorkizunaz orhoitu gabe, arte lahurretako atsegin eta nahikaren ondoan gabiltzanean! Zenbatak, gure artean, zeruko primuza, ontasun eternalak arbuiatzen, sakrifikatzen dituztenak ez deuzkeria batentzat!



## XXIII. KAPITULUA

### Isaakek benedikatzen du Jakob

Genes. 17.

Esauk saldu zioen beraz Jakobi bere primuza: Rebeka, bi anaia hauien ama, ekharriago zen, erran dugun bezala, Jakobentzat. Finkatu zuen ume maite hunen buruaren gainean primuza haren gozamina. Balia-tu zen hortakotzat antze saindu eta misterioso batez. Isaakez ikhusten zuen zahartu zela, eta hill baino lehen, nahi zituen benedikatu bere umeak, Deithu zuen beraz Esau, bere seme maitea, eta mintzatu zen hunela: Har ezatzu zure armak; zohazi ihizatzerat, eta ekhar diezadazu edirenen duzuna, hartarik yan ondoan, eman zaitzadan ene benedikzio-nea. Rebekak entzun zituenean hitz hauk, hedatu zituen berehala Jakobek beharritarat, eta manatu zuen hartzeaz arthaldean bi pitika, hobereneta-rik, eta erran zioen: Nik aphainduren ditut pitika hek zure aitarentzat, eta zuk eramanen diotzatzu benedika zaitzantzat hetarik yan eta. Jakobek ihardetsi zion bere amari: Badakizu ene anaia illetsua dela, eta ez naizela ni hala. Beraz heldu banaiz ukitua izaterat ene aitaz, eta ezagutua izaterat, beldur naiz uzte izan dezan enganatu nahi izan dudala, eta yauts-araz dezadan ene gainerat, ez benedikzio-nea, bainan bai maledikzio-nea. Ene semea, erran zioen Rebekak, ene gain hartzen dut maledikzio-nea hura: egizu, zuk, nik erran bezala. Zohaz, ekhar ezatzu pitika hek. Semeak ekharri zituen, eta amak aphaindu aitarentzat. Rebekak gehiago egin zuen. Yauts-arazi ziotzan Jakobi Esaturen soinekorik ederrenak, estali ziotzan eskuak eta lephoa pitika larruz, eta erran ziotzan aphaindu zituen yanariak. Jakobek eraman ziotzan bere aitari, zioelarik, aita. Entzuten zaitut, ihardetsi zioen Isaakek: nor zaitut ene semea? Jakobek ihardetsi zuen: Ni naiz Esau zure seme zaharrena: egin dut zuk errana; altxa eta yar zaitte: yan zazu ene ihizkitarik, ematekotzat gero zure benedikzio-nea. Ordean, ene semea, erran kon Isaakek, nola atzeman dukezu ihizkitarik hain arte laburrez? Jakobek ihardetsi zuen: Jainkoak hala nahi izan du. Orduan Isaakek erran zuen: Hurbil zaitte, ene semea, uki zaitzadantzat, eta ezagut dezadantzat ea zu zaren Esau, ene semea. Jakob hurbildu zen, Isaakek ukitu zituenean haren eskuak, erran zuen: Boza hau Jakoberena da; bai-nan esku hauk Esaturenak dire. Berriz ere galdegin zioen: Esau, ene semea zara? Hura naiz, ihardetsi zuen Jakobek. Horren gainean Isaakek erran zuen: Ene semea, indazu zure ihizkitarik yaterat, zure benedikatzekotzat.

Yan zuenean, erran zioen: Hurbil zakizkit, eta besarka nazazu. Besarkatze hartan Isaakek sentitu zuen Jakobek jaunsturen urrin ona; eman zion bere benedikzio-nea, eta desiratu zioen zeruko ihintza, eta lurreko frankia. Ezarri zuen bere anaia guzien nausitzat, eta akhabatu zuen bere benedikzio-nea hitz hautaz, zeinak baidire, San Bernaten arabera, guziz konsola-garriak egiazko giriztinoentzat; Zu madarikaturen zaituena, bedi bera madarikatua; eta zu benedikaturen zaituena, izan bedi gaindi-egina benedikzioez.

Isaakek akhabatzean hitz hauk, Esau agertu zen ekhartzen zuela yaterat ihizian hartu zuenetarik, eta igurikitzen zuen aitak, yan ondoan, benedikaturen zuela. Patriarka saindu hau izan zen ezin erran bezanbat espantitua, ezagutu zuenean zer iragan zen. Ordean borrazetik urrun egini heldu zena, aitzitik erreberitu zuen gauza bera. Ikhusten baitzuen klarki Jaunaren erria zabillala itzuli hartan. Esau, dio iskritura sainduak, emantzen marrasketan, eta minki errenkuratu zen anaiak egin zioen tron-periaz: galdetu zion bere aitari, ea etzuen bada benedikzio-nea bakhar bat baizik? Esau agertu zen, ordu hartan, presuna batzu bezala zeinek nahi bailukete konpuntu Jainkoa munduarekin, gozatzekotzat betan, zeruko eta lurreko konsolamenduez. Esauen marraskek hautsi zioten Isaaki bihotza; azkenean aita hunek benedikatu zuen seme hura, ordean bere anaia-ren azpiko utzten zuelarik: eta horra, zerk eman zion Esauri higitza pho-zoatu bat Jakob bere anaia-ren alderat, huntarainokoan zohana, non bere aitaren heriotzearen beira baitzagon hiltzekotzat bere haurridea.

Aiphaturik heldu garen, eta hanbat misterioz bethea den historio huntan, ikhusten dugu yuduen erreprobazionearen seinale ageri bat ezen heien bihotzak bakharririk munduko ontasunetarat ziren emanak. Historio berak orhoitarazten gaitu elizaren saindutasunaz. Espos dibino hunek, Dabitek bezala, gauza bakhar bat galdetzen dio Jainkoari; ez du nahi benedikzio-nea bat baizik. Begira gaiten, erraten du J. D. Paulok, yarraiki-tzetik Esauri; saldu ondoan anaia-ri bere lehenik sortzearen zuzenak, nahi izan zuen gero, primu bezala, bere aitaren benedikzio-nea. Etzuen ordean ardietsi nahi zuen guzia; ezin erakharri zuen bere aita urratzerat Jakobek fagoretan egin zuena: alferretan egin zituen hortakotz, munduan egin ahal guziak. Berak Jainkoa arbuia-ri zuen bezala, orobat Jainkoak ere etzuen konturik egin haren auhen eta nigar guziez; ikhusten zuen, alabainan ez zirela heldu urriki zinezko hatetarik, ez eta bihotzaren ganbiamendu fun-tsezko batetarik.



## XXIV. KAPITULUA

### Jakoben zurubia

Gen. 28.

Esauen haserradura Jakobena kontra, zeren arrapatu zion bere aita-  
ren benedikzioa, sobera zen ageria Rebekak ez ikhuslekotz; berriz ama  
hura sobera zen bihotz onetako, ondore guziei bidea ebakitzera ez egi-  
tekotzat. Hargatik ere uzte izan zuen on zela Jakobek, zenbait denboraz,  
amor eman ziozan bere anaiari, eta ezti zezan haren kolera, urrunduz  
harenganik. Nahiago izan zioen khendu bere buruari seme maite haren  
ikhusleko atsegina, eta bilhatu haren seguramendua. Rebekak hartu zuen  
Jakoben ezkontzaren estakurua izatekotzat Isaakganik, ume hari eman  
zioen abisuaren laudamena: erran zioen beraz bere senharrari, ezin  
onhets zezakeiela Jakobek hartzea emazte bat Kanaango alderdi hetan,  
eta egin zezan Esau bezala, zeinak hartu izan baitzituen bia herri bere-  
koak, haren burasok hortaz zuten damuan batere sarthu gabe. Rebekak  
othoiztu zuen Isaak egortzeaz Jakob Mesopotamiarat, Bathuel baitarat,  
ezkon zadintzat alde hetan. Isaak erori zen hortarat, eta egortzean bere  
semea alde hetarat, errereberitu ziotzon benedikzioa lehen eman zioz-  
kon guziak. Jakobek utzi zuen ordu beretik bere herria, haren kontra  
mindua zen anaiaren haserradurari ihes egitekotzat. Ez zohan emazte  
baten bilha, presuna aberats bat bezala, mundutiarrek nahi ohi-tuzten  
edergaillu eta berregintzan. Agertzen zuen pobrezia erakutsten zuen  
miragarriki pobrezia giriztinozkoa. Bere bidean zohala, baratu izan zen,  
iguzkia sartu zen ondoan, herrizka batean; eman zuen barri bat bere  
buruaren azpian, eta lokhartu izan zen. Ordean izan zuen lotan bisione  
bat, edo gauzen ikhusleko dohain bat, ezagut-arazten zioena presuna  
pobreek, eta zuzen kontra persekutatuak edireten zutela Jainkoa, eta hala-  
koak zaduzkala beregainki bere artharen azpian; eta, egiaz, Jakobek ikhu-  
si zuen lo hartan zurubi bat, zangoa lurraren gainean zuena, eta heltzen  
zena zerurainokoa: zurubi hura zen, guzia bethea aingeruez, goiti-behei-  
ti zabiltzanez, eta Jainkoa zatzen zurubi haren gaineko buruan, hari  
zatxeikola, eta erraten zioela Jakobi: *Ni naiz Abrahamen Jainkoa eta Isaakena  
Jainkoa. Emanen darotzut lo zauden lur hori. Zure umeak lurreko herrautsa beza-  
la emendaturen dire, eta munduko populu guziak izanen dire benedikatuak zure lei-  
nutik atherako denaren baitan.* Agindu zioen yarraikiko zitzaioela helduko zen  
alde guzietarat, eta gero, bihur-araziko zuela utzten zuen lur bererat, eta

han konplituren zituela bere agintza guziak. Jakob atzari izan zen lo pisu  
batetarik bezala, eta guzia lastua ikhusirik heldu zen gauzez, abiatu zen  
erraten oihuz; lekhu hura ikharagarria zela han aurkitzen zenaz geroz  
Jainkoa bera.

Bisone hark eta zurubi misterios hark erran nahi zuen, Jaunaren  
probidentziak bethi artha handi bat izanen zuela haren alderat leihal ego-  
nen ziren guziez; heiekin edirenen zela hekien atsekabetan, eta desterra-  
tuak izanen ziren lekhotan; aingeruak ere bere aitzinean izanen zituztela  
ofritzekotzat Jainkoari heien beharrak eta othoitzak; eta ekharriren zio-  
tzatela zerutik Jaunaren graziak eta konsolazioneak. Erran nahi da beraz,  
Jainkotiarrek ez dutela zeren izan beldurrik gizoneen aserraduraz, ez eta  
bere anaien aiherkundeaz. Hau guziak ez dire baliatzen, baizik hobeki  
erakartzeko Jainkoa heien laguntzerat. Jakobek, atzarzearekin, erran  
zituen hitz hauk: *Ala lekhu hau ikharagarria baida! Hau da Jainkoaren etxea,  
eta zera beraren athea.* Hitz hauk diot, izan dire geroztik zuzenki iratxeikiak  
eta aplikatuak gure elizeen saildutasunari, zeren hetan edireten baida,  
bertze orduz, Jakob lagundu zuen Jainko hura bera. Oxala! sartzean eli-  
zetan, Jakobena hitz berak bagintu ahoan, eta sentimendu berak bihotzean!  
Ala nahi izateko baida aurki gaiten ikhara saildu batez betheak, gizon  
miragarri hura bezala, fedeak gure aldaretan dela irakhatsten darokun  
majestate adoragarriaren begietan!



## XXV. KAPITULUA

### Rakel eta Lia

Gen. 19.

Jakob seguraturua izan zenean bisione misterios haren bidez, Jainkoaren laguntzaz, yarraiki zitzaion bere bideari, deuseren beldurrik etzuela. Hedatu zen Haran zaritzon lelhurat: kausitu zituen han zenbeit artzain: galdetu zioten ezagutzen zutenez Laban; Nakoren illobasoa. Artzain hek erakutsi zioten Rakel, Labanen alaba, heldu zena bere arthaldei edaraterat putzu batean, zeinaren sartzea hertsten baitzen bethi harri handi batez. Jakobek ikhusi zueneko Rakel, khendu zuen harri hura, haren arthaldeek edan zezatenzat, eta ezagut-arazi zion bere burua. Rakelek erran ziotzan berehala hauk guziak Laban, bere aitari, zeina goan baitzen lehia handian, Jakobek beskarkatzerat, eta erakharri ere zuen bere etxerat. Orduan Jakobek erran zion Labani, zer xedez zen harat ethorria, nolakoa zen haren anaiaren sumindura, eta nola eman behar izan zitzaion ihesari. Labanek atsegin zuen egon zadin haren etxean; etzuen hargatik nahi hartaz urririk izan zerbitzatua. Horren gainean, Jakobek ihardetsi zion zerbitzaturen zuela zazpi urthez, ezkontzekotan Rakel, haren bigarren alabarekin. Irragan ziren zazpi urthe hek, eta Jakobek etzadukan deuserentzat bere nekhe, maite zuelakotzat Rakel; ordean ungi enganaturua kausitu izan zen bere esparantzetan. Nola Labanek ezin onets baitzezakeien haren bigarren alaba ezkon zadin zaharrena baino lehen, egorri zioen Jakobi, arratsean, Lia, Rakelen orde, eta egin zuen hain ungi, non Jakobek hartu baitzuen, yakin gabea, Lia bere emaztetzat. Biharamunean, Jakob errenkuratu zen gauza hartaz. Labanek, haren aphazegatzekotzat, othoitztu zuen uzteaz, zazpi egun iragaterat lehenbiziko estei heien egiteko, eta agindu zion emanen zioela, hekien buruan, Rakel, bertze zazpi urthez zerbitzatu zuelakotan. Zazpi urthe hetan, Jakobek izan zituen sei seme Liaganik. Rakel agor egon zen denbora luzez, eta hortaz zuen damua erakutsi zion bere senharrari. Azkenean, Jainkoak entzun zituen Rakelen othoitzak: izan zuen seme bat deithua izan zena, Josef. Haur hau sortu zenean, Jakobek othoitztu zuen Laban arren ungi aurkhi zezan bihur zadin bere aita-ganat. Erran zion bethe zituela hamalau urtheak, zaindu zuela haren ontasuna ahalik hobekiena, ordu zela beraz hari zadin beretzat, eta eman ziozon buru bere etxearen gobernuari. Egundaino bezala, Labanek erre-

keritu zuen Jakob egoteaz oraino harekin. Elkhar aditu zuten soldatez. Molde huntan, erakharri zuen bertze sei urthe han ematerat.

Elizako aiteek ikhustean Jakobek bizia, ederretsi izan dute Jaunaren konduita Patriarka saindu haren alderat: utzi zuen gizon miragarri hura, hogoi urthez, bertzeen azpiko agindu zioen ondoan beretzat Kanaango lur guzia. Haren umeak populu handi baten printze behar ziren, eta heien aita bertzeen azpiko eta nekheen erdian datza! Jainkoak, diote Elizako aiteek, nahi zaraukun irakhatsi etsenplu huntaz printzeen eta elizako artzainen ohorea nekhean datzala, eta gehiago bilhatzean bertzeren nahia, berea baino; populuaren bozkarioak egin behar du hekiena; bozik behar diotzate sakrifikatu bere nekheak eta bere biziak berak, ezen heien ambizione eta gogo guzia izan behar da egun batez, erran ahal izatea Jainkoari, Jakobek Labani erran ziotzotan hitz eder hauk: *Yasan dut hotza eta beroa zure arthaldea gidatzeko; ez diot sosegurik eman ene buruari, ez gauaz, ez egunaz: zaindu dut zure arthaldea artha handirekin; ez dut galdu bakhar bat zure ardiatarik; eta bethi bihurtzerat lehiatu naizen zerbitzu guzien saritzat, ez dut ikhusi eskergabetasunik eta ihardukitze gaixtorik baizen.*





## XXVI. KAPITULUA

### Jakob bihurtzen da

Gen 31.

Laban bekaxtu zitzaion Jakobi zeren Jainkoak hedatu zituen haren buruaren eta haren ontasunen gainerat bere benedikzioeak, hargatik ere Patriarka saildu hark uzte izan zuen prudentziaren arabera zela utz zezan Mesopotamia, bertze orduz, Kananeako lurra utzi zuen xede beraz. Gogoeta hau zarabillan, bainan etzen menturatzen obretan ematerat, bel-durrez deusere egin bere burutarik; ordean Jainkoak berak manatu zioen bihurtzeaz bere sor-lekhurat, eta agindu zioen beiraturen zuela Esau, bere anaia ganik. Jakob eman zen eginbidetan mezu hunen, ixil-ixila, konplitzeko, eta atheratzekotzat Mesopotamiatik harat hedatu zen planta berean; erran nahi da, iheska zabillan bat bezala. Deithu zituen, Rakel eta Lia, bere bi emazteak, yakintsun egin zituen bere xedeaz: laudatu izan zuten, eta nahi ere zitzaizkon yarraiki. Jakob athera zen etxetik, Laban han etzela, eta hari deusere adiarazi gabe, eta eraman zituen berekin zituen guziak. Labanek entzun zuen, bet-betan, nola hustu zuen Jakobek etxea, eta yakin zuenean eraman zitzaizkola bere idolak, yarraiki zitzaion, suminduran, zazpi egunez, Jakobi. Atzeman zuen Galaadeko mendiaren hegian; ordean haren hurrenerat zenean, agertu zitzaion, gauaz, Jainkoa, eta debekatu zioen egitetik gaizkirik batere Jakobi. Labanek ikhusi zueneko, urrundaniak Jakob, egin zituen bere errenkurak, boza altxaturik, zeren, horrela zaramatzen haren bi alabak, etsaieen gainean hartu lituzken bi gathibu izan balire bezala. Erran zion oraino gaizki egin zuela bere xedea hari gordetzeaz; berak segituren zituela ohorezki, eta izanen zuela konsolamendua egiteko bere alabei azken adioak: etzuela gaitzezten nahi zadin bihurtu bere Jainkoeen herrirat; ordean etziotzala ebatsi behar harenak. Hits huntan, Jakob abiatu zen mintzatzen: bere burua garbitu zuen etxetik ixillik ilkitze hartarik: erran zioen etzela ebaskoz hobendun; etzuela hartu Jainkorik, eraman eta hil-araz zezala, nahi balin bazuen, heien hartzaillea. Jakobi guti gogoratu zitzaion zer iragaten zen; urrun da baitzakien Rakel yabetu zela idola hetaz.

Laban abiatu zen artha handirekin idol heien ondoan, eta sartu zen Rakelen egoitzan nahiz hek kausitu. Emazte hunek gorde zituen berehala ongarriaren azpian, eta eman zen bera haren gainean; othoitztu zuen Laban ez gaitzezteaz baldin ez balin bazen altxatzen hari agur egiteko,

zioelarik aldi gaitz zuela. Labanen bilhatzeak alfer izan zirenean, Jakob, hasi zen, bere aldian, errenkuratzen haren alderako ihardukitze hain zuzen kontrakoaz. Azkenekotz hek bien izpirituak eztitu ziren: egin zituzten bakeak; eta urruntzean elkharganik agindu zioten, yuramentuaren azpian, batak bertzeari, bethiereko adizkidetasuna.

Hemen S. Anbrosiok admiratzen du Jakob prestua, munduarekin ihardukitzean izan behar den zuzentasunaren eta zuhurtziaren etsenplu eder bat bezala. Jakobek etzuen deus ere bererik, baizen berekin hartu zituenak bertzeen beharrean ez izateko. Ez du, egia da, deusik galtzen beretarik; hala-hala, ez du deusere idukitzen bertzerenik. Ontasunak bildu zituen egin gabe arima bati bidegaberik, aitzitik, zeini bere probetxua izan-arazirik. Zenbat ere Labanek gathibutasunean baitzadukan Jakob, eta ez baitzion on handirik nahi, ezin debekatu zuen ontasun hainitz biltzetik eta berekin eramatetik, harenganik urrundu behar izan zenean. Labanen moldegaitzkeriak amor eman behar izan zion Jakobem emetasunari. Gizon miragarri hau, zuzen, zuhur eta Jainkoaren izpirituaz gidatua agertzen zen gauza guzietan.

Ala milletan dohatsu baida, dio San Anbrosio berak, etsaiari eta munduari erran ahal diozoketena, Jakobek bezala: ikhus ezazue baden ene baitan, deusere zuenatarik; eta, balin bada, har ezazue! Ala Rakel ere orobat baida dohatsu utzteaz familia idolatre bat, ihes egiteaz Jainko faltsoen adoratzaille bati, eta ostikatzeaz bere aitaren idolak! Rakelek irakhasten diote alaba giriztinoei ez dutela egin behar burasoen nahia, sakrifikatu nahi dituztenean munduari eta banaloriari. Halako ordutan behar dituzte utzi bere burasoak yarraikitzeotzat salbamenduari. Bertzela, erakutsiren daroe bere aita, amei Jainkoarentzat baino amudio gehiago; eta hortik beretik bereganaturen dute zeruko haserradura saildua.





## XXVII. KAPITULUA

### Esau baketzen da Jakobekin

Labanek besarkatu eta benedikatu zituen ondoan bere alabak, hartu zuen etxerako bidea. Bathu zuen aingeruzko oste bat, eta hori bera zen Jainkoak laguntzen zuelako seinale berri bat. Jakobek ikhushi zituenean aigeru hek guziak, erran izan zuen: *hemen datza Jainkoa*. Egorri zituen mandatariak bere anaia Esauganat, haren partez hari agur egitekotzat. Mandataria hek bihurtu zirenean, erran zioten Jakobi Esau abiatua zela harenganat lau ehun gizonekin. Berri hunek lastu zuen Jakob: partitu zituen bere yendeak bi multzotan, zioelarik: baldin Esauk yazartzen bada-roe batzuei, bertzeak itzuriren dire haren eskutarik. Egin zioen gero Jainkoari othoitz hau: Ene aita Abrahamen Jainkoa, ene aita Isaaken Jainkoa; a! zu, ene Jauna, erran darotazuna: bihur zaite zure herrirat, eta benedikaturen zaitut. Badakit ez ditudala merezi zure miserikordiak, ez eta leihal ager zaiten zure hitzean: iragan izan dut arribera hau ez nuelarik makilla bat baizik eskuan: othoi, hel zakizkigu niri, eta nerekin direnei: arren begira nazazu ene anaia Esauen eskutarik: beldur naiz pasa detzan ezpataren puntatik, dela amak, dela umeak.

Othoitz huntarik lekhora, Jakobek egorri ziotzon Esauri eman gogo ziotzon arthaldeak, eta erran zaroen heien gidariei: zohaste bethi aitzinat, eta izan bedi konpasu guti hat arthalde baten eta bertzearen artean: bathzen balin baduzue Esau, ene anaia, eta galdetzen badarotzue nor zaretan, eta norenak diren daramatzuen arthaldeak, ihardetsiren duzue: Jauna, Jakob zure zerbitzariarenak dire: present egiten dio buru hauk guziez Esau gure nausiar, eta hor heldu da bera ere. Jakobek igurikitzen zuen Esauk, ikhustean ontasan hek guziak beretzat, etzioela egimen gaizkirik.

Biharamun goiz alderat, Jakob bakharrrik zatzala, aingeru bat, gizonaren iduria zuena lothu zitzaion gorphutzetik, eta egin zuen haren bere azpirat ematerat. Aingeruak ikhushi zuenean ezin garai zezakeiela Jakob, zapatu zion izterreko zain bat, ordu berean ihartu zena; erran zion gero Jakobi: Utz nazazu, bihur nadin, argi zabala da. Jakobek ihardetsi zuen: Ez, etzaitut utziren non ez nauzun benedikatzen. Aingeruak galdetu zioen, nola duzu izena? Bertzeak ihardetsi zuen: Jakob da ene izena. Aingeruak erran zuen horren gainean: Hemendik harat, Israel izanen da zure izena. Eman zioen bere benedikzioa, erraten zioelarik: Hain tieso izan

zarenaz geroz Jainkoa beraren kontra, ez duzu zeren izan beldurrik, zure anaiaz.

Handik lasler, Jakobek ikhushi zuen Esau harenganat heldu zela lau ehun gizonen buruan. Geldi-arazi zituen gibelat bere emazteak, eta bere haurrak, eta bera hedatu zen Esauen aitzinerat. Egin ziotzon, zazpi aliz, zazpi agur handi. Humiltasun hunek ematu zuen Esauen muthiritasuna. Hurbildu zen, lehiarekin Jakobenganat, eta besarkatu zuen, tink-tinka. Atseginekin ikhushi zituen Jainkoak Jakob haren anaiari eman ziotzan umeak eta emazteak, eta nekhez hartu zituen haren presentak. Esauk nahiko zuen egin bere anaiarekin oraino iragateko zen bidea: ondean Jakobek erran zioen, emeki ibilhi behar zuela yarraikitzekotzat bere hurren hurratsei, eta bere arthaldearen flakotasunari. Othoitztu zuen Esau hel zadin, hura baino lehen, feirat, eta hitz eman zion bera ere harako zela, eta han elkhar ikhusingen zutela.

Horra nola Jakob itzuri zitzaion haren biziari nahi zion anaia baten sumindurari. Ezagutzen zuen bere inozentzia, eta bazakien Esau zela hobenduna; guziarekin, khendu zituen bihotzetik bere anaiaren alderat ahal zituzken aiherkunde guziak. Bere asaldurez zukeien damua hobeki heldu zen, dio S. Ambrosiok, bere haurrideari ekhartzen zioen urrikal-mendutik, ezen-ez, bere buruagatik. Jakobek ederki konpuntzen zituen, elkharrekin, indarra eta emetasuna: zenbat baitzuen ere beldurtzeko halako anaia ondikoeko baten aldetik, erran daite haren fedea guziez gorago altxatzen zela: bakezko izpiritu bat zakharkeien armeen, eta gerletako yendeen erdian: etzuen deusere galdu bere fermutasunetik eta tiesotasunetik bere bizia galtzeko hirriskurik handianean berean.

Jakobek garaitu zuen bere anaiaren muthiritasuna, beheratuz bere burua: erakutsterat eman zuen berthuteak eskuratzen dituela gauza guziak, lehenik, berak amor emanik bortxari. Aithortu behar dugu hemen, Jainkoak bere maitei egortzen diotzatenean gaitzak eta atseka-beak, hauien iraupena, zuhurtzia miragarri batekin, erregelatzen duela; eta heien alde itzul-arazten dituela, berari hala zaiocenean, etsai agerienak berak. Ez, ez da bihotz gogorrik Jaunaren graziak guritzen eta hautsten ez duenik.



## XXVIII. KAPITULUA

**Dina**  
Genes. 34.

Jakob bihurtu zenean Mesopotamiatik, deskantsuan bizi zen Salem deitzen zen sikimiten hiri batean, zeinetan eros baitzuen lur bat. Izan zuen ordean atsekabe bat hagitz damuztatu zuena. Haren alaba, Dina zaritzona, ilkhi zen alde hetako emaztekien ikhusterat, bera ere ikhusia izan zen hango erregeaz. Printze hunek bortxaz har eta altzarazi zuen, eta nola baitzohakon, emendatuz, haren alderako pasionea, erran zioen Hemor bere aitari, neskaxa harekin nahi zela ezkondu. Gauza hunek damu min bat egin zion Jakobi. Hunen umeak othoitztuak izan ziren Hemortaz eta hunen seme Sikemez, arren onhets zezaten ezkontza hura, eta ematea elkharri bere seme alabak. Jakoben umeek, gorderik bere aiherkundera, hobeki mendekatzekotzat, ihardetsi zioten aita seme hei, hek galdetzen zutena ezin zitekera zela, etzirelakotzat zirkonzisuak; baina zirkonzisu nahi baziren, ordutik heien arteko eskontzek izan zezaketeiela lekhu. Hemorrek eta Sikemek parte eman zioten populuari egiten zuten galdeaz, eta izan zuten haren laudamendua. Hirurgarren egunean, noiz eta ere bere borthitzenean baitziren zirkonzisionearen oinhazeak, Simeon eta Lebi, Dinaren anaiak (Lia heien amaren alaba zen) Jakobi fitsik erran gabe, sarthu ziren, ezpatak eskuan, Sikemego hirian, eta hil zituzten ordots guziak, guphidetsi gabe errege bera, hain guti, haren semea zeinaren pasioneagatik egiten baitziren heriotze hek guziak. Odolezko desmasia hartarik lekhora, Jakoben bertze umeak sartu ziren hirian, hartu eta eraman zituzten hango ontasun guziak. Hauk guziek mindu izan zuten Jakoben bihotza; errenkuratu zen haltoki Simonez eta Lebiasez, zeren higun-arazten zuten herri hetan bere traidorekeria beltzaz, eta zeren eman zuten hiltzeko menean, bere etxeko guziekin, zirkonzisionearen itxuran, eta hori, mendeku xoilez. Jakob beldurtu zen haren kontra altxa zitezen ingurutako populuak; baina Jainkoak manatu zion zohala Bethelerat, zeinetan agertu baitzitzaion, bertze orduz, anaiaren ihesi zabillanean bezala. Iskritura sainduak erraten du Jainkoak ikhara hedatzen zuela Jakob iragaten zen hiri guzietarat, etzadintzat nihor atrebi hari ondolik yarraikitzerat. Jakob Bethelerat, zenetik laster, Rakel haren emaztea hil izan zen Benjaminez erditzetik. Denboratsu hartan hil izan zen Isaak haren aita ere, ehun eta lauetan hogoi urthetan; bere bi semeek, Esauk eta

Jakobek, ehortzi zuten buraso hura, eta handik berehala, hastandu izan ziren, bata bertzeaganik, aberatsegiak zirelakotzat baltsan bizitzeko.

Elizako aiteen arabera, Dinari gerthatu zaiotena da etsenplu ukhigarrri bat, irakhatsten darokuna ihes egiten kuriostasunari, eta begirutzen baltsatzetik edozein yende atzeekin. S. Anbrosiok dio oraino, Dinak ematen diotela abisu zuhur bat guziei, eta beregainki neskaxa giriztinoei, bertzek baino premia gehiago dutenaz geroz probetxatzekotzat emazte haren kuriostasun sobraniazkoaz. Eta egiaz, bakhartasuna izan behar da neskaxa berthutedunen zortea eta partaia: ihes egin behar diote mundutiarren ikhusteari, eta hetaz ikhusiak izateari; ez dute ariarik batere behar heiekin, eta ez dute deusere behar maitatu munduan, munduari daronsanetarik. Beiratu behar dire erortzetik Dinaren kuriostasun berean. Ez dituzte, hark bezala, hedatu behar begiak emazteki arrotzetarat, erran nahi da, emazteki arin eta mundutiarren gainerat. Halakoak bizi dire giriztinotasunaren erdian, paganoak bezala. Berthutea maite duten emaztekiek ikharatzeko dute ikhustez nolakoak gerthatu diren hamasei urthetako neskaxa baten kuriostasunaren ondore dohakabeak. Behatze hartaz, Dinak galdu zuen bere garbitasuna, eta erakharri bere anaiak heriotzetarat: behatze beraz gal-arazi zuen hiri oso bat: behatze harengatik oraino ihes egin behar izan zuen Dinaren aitak; akhabo izanen zen hartaz, eta haren familia guziaz ez balite izan fagoratuak Jainkoaren laguntza mirakuilluzko batez.



## XXIX. KAPITULUA

### Josef saldua

Gen. 37.

Jakobek egin zuen bereganik urrunterat atzeekin izan zetzakeien gerlak; ordean yasan behar izan zuen bat, min egingarria, heldu zitzaioena bere etxe bihotzetik bere umetarik. Josef, Rakelen semeak, eta Jakobek Mesopotamian izan zuen umetarik azkenak, akusatu zituen bere anaiak, bere aitaren aitzinean, iskribu sailduak izendatzen ez duen gaixtakeria izigarri batez. Hulako akusu arin batek bere anaia gaztearenganik, eta haren aitak ekhartzen zion amodio bereziak, sorarazi zuten haren haurridetan inbidia ezin erranezko bat. Etzioten ematen hitz bakhar bat ere, esker onez. Inbidia hura oraino gehiago baizik etzen emendatu entzun zutenean Josefenganik bi amets egin zituela: batean, iduritu zitzaioela elkharrekin estakatzen zituztela landan ogi kharbak; anaieen kharbek inguratzen zutela harena, ordean altxatuagoa zela, eta adoratzeko ere zutela bertze kharbek. Iduritu zitzaioela, bigarren ametsen, ikhusten zituela iguzkia, ilhargia eta hameka izar nola hari ziren haren adoratzeko. Bi amets horiek erakutsten zuten Josef goratasuna, eta eman-arazi zituzten haurride hek sumindura handitan; ordean hortaz beraz baliatu izan zen Jainkoa altxatze korzatek gaitze zutena. Denbora aphur bat iragan eta, Jakobek egorri zioten Josef Sikemgo hirirat; anaiek ikhusi zuteneko haurride hura, hartu zuten xedea haren hiltzeko: dohatsuki Ruben, guzietarik zaharrenak, ezin laudatu zuen halako gauza izigarri bat. Gordea zadukan bere baitan anaia hura bere aitari bihur-arazteko nahia; eman zioten abisu ez buzitzeaz bere eskuak Josef odolean, bainan kontentatzeaz haren artikitzeaz urik gabeko putzu batetarat: abisu hura ematen zuen zeren esparantza baitzuen, handik atherako zuela bere anaia, eta egorriko bere aitaganat. Haurrideek, abisu hunen arabera, yautsi zuten Josef putzu zahar batean barna; ordean laster khendu zuten handik saltzekotzat Ismaelgo tratulari batzuei, zeinak (hala beharra) iragaten baitziren hek ziren bidetik. Buzti zuten haren arropa pitika baten odolez, eta egorri Jakobi ikhustekotzat etzenez Josefena; Jakobek laster ezagutu zuen arropa hura Josefena zela: hautsi zituen bere soinekoak, eta auhendatu zuen, nigarretan, Josef bere seme maitea, etzuen ere nahi nihondik konsolamendurik. Molde huntan, Josefek ikhusi zuen ametsetan bere goratasuna, eta ez bere gathibutasuna, eta Jainkoak ezagut-araztean gauzarik altxatue-

nak, etziotzan eman ezagutzarat haren gainerat erortzeko ziren zorigaitzak.

Josefek amor eman zioen, denbora bateraino, bere anaieen bekaxteari: hortan berean Jesu-Kristori yarraikitzen zitzaion, eta arima yustuen konsolazionea egiten zuen. Ezen Jainkotiarrek, menderen mende, gaixtagin bekaxtien eta bere anaieen herraren meneko izanen dire. Burasoguziek badute, dio S. Ambrosiok, zertaz probetxa ikhustez nahikabetan Jakob bezalako gizon yustu bat. Aita hura nigarrez datza seme maite baten heriotzeaz, eta nigar hek ume hari ekhartzen zioen amodio sobraniazkotik heldu ziren; bazakien hortaz beraz mindu zituela Josefek kontra haren haurrideak. Haurrak, saildu bera mintzo da, behar dire maitatu; zuzen ere da izatea amodio gehiago berthute gehiago duteneen alderat; ordean kaltiar ohi da agertzea kanporat amodio hautetsi hura; maitatuagoa denak askotan baduke hortarik bidegabe, ezen halako ordutan, bertzeak errexki yartzen dire haren kontrako haserraduran.

Ez ahal da deusere hoberik haur batentzat nola maitatzea bere haurrideak! Ordean hala-hala, ez da, dio S. Ambrosiok, batere miresteko, ume bati ematen zaioenean, fagore berezi batez, eta zeren den maitatuagoa, lur bat, edo bertze zenbait ontasun, baldin, ordu hartan, bere haurrideak bekaxten bazaizko. Eta, funtsean, zerk erakharri zituen Josefek anaiek haren hiltzerat? Eta nondik heldu zen, heien artean urrikalmendurik gehien agertu zuenak ere laudatu baitzuen Josefek gal zezan bere libertatea, beldurrez huren haurrideek eraman ziozoten bizia? Huna gauza horren hastapena. Jakobek eman zion Josefi arropa bat bertzerena baino ederragoa. Hortan zatzen ihardukitze bortitz haren arrazoin guzia.



## XXX. KAPITULUA

### Josefen garbitasuna

Gen. 39.

Bere anaiek saldu izan zutenean Josef, eramana izan zen Ejiptorat, eta han berriz saldua Putifar, Faraonen eunukari zeinak kargu eder bat baitzadukan. Ordean Jainkoak ez ditu behinere abandonatzen inozentak, bere persekuzionetan ere aurkhi-arazi zioen Josefi, lekhu atze batean, bere herrian eta bere haurrideen artean baino bihotz ontasun gehiago. Irabazi zuen bere prudentziaz, modestiaz eta leihaltasunaz bere nausiaren amodioa, zeinak ikhusirik gathibu gazte hark etzuela bere bizitzeko moldean deus sehikarakorik, fidatu baitzioen bere etxe guziaren artha. Dohatsutasun hunen erdian zatzan Josef Putifaren emazteak asaldatu artean haren sosegua pasione izigarri batez. Emazte hark, husuegi artikiz bere begiak Josefen gainerat, hartu zuen bere baitan, haren alderako amodio likhits bat, eta etzuen luzero iduki bere bihotzean gordea: iragan zen laster hitzetar, hertzatze handitarat, eta azkenean bortxa guzietarat. Emazte hark ikhusten zuen Josefen baitan bethi ezin garaituzko fermutasun bera, zeren beldur handi bat baitzuen Jainkoarentzat, eta denbora berean, errespektu guzia bere nausiarentzat, halarik, ere, ezin zebatu zuen bere pasione itsua; eta etzen nahi izan probetxatu gathibu haren modestiaz. Emazte zoro hark ediren zuen, aldi batez, Josef bakhar bakharra etxean, eta harturik bere soinekotarik nahi izan zuen erakharri, bortxaz, gathibu gazte hura, amarez ezin harenganik ardietsi izan zuen gaizkirat. Herstura hartan, Josefek utzi zuen bere kapa, emazte dohakabe haren eskutan, eta eman zitzaion ihesari. Kreatura ondikozko hura guzia mindua izan zen bere nahia ez konplitezaz, eta ordu beretik, haren amodioa itzulia izan zen errabiazko herra batetarat; abiatu zen egiten harrabots hainitz etxean, Josefek erakharri nahi izan balu bezala, gaizkirat; bere lohikeria errepor-txatzen zioen, eta ahalkarazi behar zuen kapa eskutan zadukana bera baliarazi zuen bere senharraren alderako leihaltasunaren seinale bat izan balitz bezala. Sinhesteko errextasun handiegiak eragin zuen Putifar injustu eta kruek: sumindu zen Josefen kontra, sar-arazi zuen erregeren pre-sondegian, eta hertsiki begirarazi zuen barne hartan.

Horra, dio S. Ambrosiok, nola beharria hedatzen zaion kalumniari, eta nola ixil-arazten den egia. Emazteki bat mintzo da, eta lekhukorik gabe mintzo da: ikhusten du Josefen berthuteak kondemnatzen duela

haren libertinkeria: guziarekin yazarri nahi dio Josef garbiari, eta sakrifiku nahi du gizon gazte berthutetsu hura: erran nahi da, haren baitan punitzen duela berak ostikatu duen kastitatea. Gauza bera gerthatu zen, dio saindu berak, arienak deithzen ziren heretikoen denboran; orduan ere, Jainkoaren alderako fermutasuna ezin kordoka zezaketeienean, preso altzarazten eta burdinetan ezartzen zituzten Jaunaren legea leihalki begiraten zutenak. Ordean, yustuak ez beidez, saindu bera mintzo da, izi eta asalda. Jainkoa yautsten da zepoetarat bere maiteekin batean, Josefez errana den bezala, eta etzaizko ahantzten bere gathetan ere. Nola, denbora hetan, Jainkoak bere botherea seinelatzen baitzuen yuiamendu age-riez, baliatu zen orduan emazte haren herraz beraz, ematekotzat Josefi nausitasun oso bat Ejipto guziaren gainean; ordean lege berriko denboran, Jesu-Kristoren eta Martireen etsenpluen ondoan, Josef saindua gisa tratatuak direnek, haren pairakortasuna dute maite bakharrik, eta ez yarraiki zitzaion handitasuna: Jainkoaren eta gizoneen aldetik, betan heldu zaien atsekabeetan, bakharrik Jainkoari behatzen diote, eta ez gizonei. Ez izanagatik hobendun iratxekitzen zaien gaizkiez, badakite, Jaunaren begietan, asko bekhatuz direla kargatuak, eta benedikatzen dute sendatzen dituen eskua, direnean hartaz zehatuak.

Urrun da, baidute arima justuek batere herrakunderik gaitz nahi diotenean eta gaitzki egin dioketenean alderat; uzte dute, aitzitik, hobeki behar dituztela halakoak maitatu. Damu eta atsekabetako egunak zaizkote bere biziko egunik doatsuenak: nola seguratuak baidire ez dutela zeren iguriki bere libertate osoa behere huntan, erraten dute Jobekin batean: zerua da bihotzaren lekhukoa eta yuiea; handik igurikitzen dut bakharrik ene inozentziaren yustificazionea eta ene pairakortasunaren golardoa.



## XXXI. KAPITULUA

### Josef altxatua handitasunerat

Gen. 41.

Josefek presondegian izan zituen grazietarik ezagun da, Jaunaren miserikordiak hedatzen direla gizonak batzutan ezin sar daitezken lekhan ere, eta bere ontasunaren seinaleak erakusten dituela haren alderako leihaltasunaz hurriskatzen garen eredura. Hunenbat berthute eta zuhurtzia ikhusi zuen Josef baitan, non lekhu hartako aitzindariak eman baitzion nausitasuna preso zaudeen bertze guzien gainean, eta ez baitzuen berak ere deusere egiten Josefek manaturik baizen. Gauzak horrela zohazelarik, errege Faraon izan zen damustatua bere bi aitzindarietz: hetarik bata zen haren exanson handia, erran nahi da edaterat emallea; bertzea zen panetier handia, erran nahi da ogjaren artha zadukana. Biak preso altxatuak izan ziren, eta emanak Josefen karguaren azpian: egin izan zuten amets bat, zer gerthatu behar zitzairen ezagut-arazten ziotena. Iduritu zitzaion exansonari ikhusten zuela mahasti bat, lehenik lorean, gero fruituekin, eta lehertu zituela hango mahatsak Faraonen kopan, edo edateko tokian eskaintzeko edaterat errege hari. Panetier handiak, berriz, egin zuen amets bere buruaren gainean zakharzkela hirur otharre irin, eta xoriak heldu zirela hetarik gorenik zenaren gainerat haren pikokatzerat, zeren hartan edireten baitzen orrez egin ahal obra guzietarik.

Biharamunean, Josefek ikhusririk bi gizon hek tristeziari emanak, galdegan zioten, zer zuten bada: ihardetsi zuten, egin zutela amets bana, eta, etzutela nihor amets heien explikazionea emailerik. Orduan, Josefek deklaratu zioen panetierari, haren ametsak erran nahi zuela urkhaturen zela, hirur egunen buruko; eta deklaratu zion exansonari, haren ametsak erran nahi zuela Faraonek ezarriren zuela, hirur egunik barnean, aitzinagoko oin berean; othoitztu ere zuen arren orhoit zadin harraz. Ordean ahantzi zitzaion osoki exansonari, bere zorionean Josefen othoitzza, Faraonek, handik bi urtheren buruan, amets bat izan zuen arteraino. Orduan exansona orhoitu zen bere behialako ametsaz, eta Josefez, amets haren explikazionea erran zioenaz: huna zer zen Faraonen ametsa. Ikhusi zituen lotan zazpi behi gizen-gizenak ilkhitzen Nilko uretik, eta bazkan zaundenak ur toki batzutan; ikhusi zituen gero atheratzen arribera beretik bertze zazpi behi meheak, halarik iretsi zituztenak lehenbiziko zazpiak. Berriz lokhartu eta, oraino ikhusi zituen zazpi bihi-buru guziz ederrak,

zeinak izan baitziren orobat iretsiak bertze zazpi bihi-buru txarrez. Etzakien nihork zein aldetarat har amets hura: exansona mintzatu zitzaion Josefez erregeri, zeinak erakharri baitzuen berehala beregana. Josefek entzun zituenean amets hek, erran zioen erregeri, aditzerat ematen zutela heldu zirela zazpi urthe podoros eta abustu handitakoak, eta heien ondoan, ethorriko zela gosete ikharagarri bat, eta hari pharatzeko eman zioen konseillu eragiteaz bihitegi nasaiak eta handiak, ematekotzat hetan lehetabiziko urtheetan bilduko ziren bihiak, balia zitezentzat goseteko urthetan. Faraonek ederretsi zuen gizon gazte haren zuhurtzia, eta etzadukan nihor Josef bezain gaiik, haren berarengan heldu zen xedea esututan emateko. Eman zioen beraz bothere oso bat Ejipto guziaren gainean, sar-arazi zuen karroza batean, eta manatu zuen heraut, edo oihegille bat, ibil zadin haren aitzinean, mundu guzia belhaurika zadintzat ikhustean Josef, zeina deitzen baitzuen munduaren salbatzailea.

Horra beraz, nola gizon saindu hura izan zen altxatua ohore handitarat, eta nola atherazen haren goratasunaren asentutzat Jainkoak eman zioen aphaltasunetik. Etzen behin ere izan batere lilluratua batetik bertzerako mudantza espantagarri hartaz: haren bihotza etzen beheratu humiliacionetan, ez halaber altxatu loria eta ohore guzien erdian. Berdinki hartzen zituen Jaunaren eskutik onak eta gaitzak. Bethi eztitasun bera zadukan bere bihotzean: horra zergatik ez zitzairen mendekatu hura gezurrez, eta erran gaixtoz inyustuki desohoratu zutenei. Aski punituak zirela uzte zuen bere gaizkiaren orhoitzapenez beraz, iratxeki gabe bertze punimendurik heien damuari eta urrikiari.

Ikhusten ziren, bertze orduz, batzuetan sentitzeko manera batean, aiphaturik heldu garen bezalako ganbiamendu miragarriak. Gerthatzen dire, orai ere, guk ez ikhusiagatik, gauza gutiago miretsteko ez direnak, eta hori, mirakuillu oraino handiagoa denaren bidez: eta egiaz, zer gauza espantigarriagorik nola ikhustea presuna oinen azpian ezarriak, laidoz eta kalumniaz beltztuak direnak iragaten, bet-betan, iraupen laburretako atsekabetarik, bere sofrikariez merezitzen duren bethiereko loriarat!





## XXXII. KAPITULUA

### Josefen anaiak

Gen. 42.

Josefek izan zuenean Faraonganik hanbat bothere, eta eman zitzaizkonean eskutarat errege hark zuen indar eta nausitasun guzia, erakutsi zioen printze hari zein dohatsu den errege hat ministre zuhur baten yabe denean, eta ez dela halako tresorik, nola konseillu on bat. Haren lehenbiziko artha izan zen populua dohatsu egitea; hartarako erakharri zuen frankia behar orduko: frankia hartan nihork eskasik izanen etzuen bezala. Bildu zuen artha handirekin lehenbiziko zazpi urthetako bihia. Gose-tea abiatu zenean, eta ya hasi zenean mundua parte hartarik pairatzen, populuak izan zuen errekortsu, bere hersturan, Faraonganat, bere beharreen estaltzaillearenganat bezala. Printze hark bidali ziotzan guziak Josefi, zeinak arraiki entzun baitzituen; ezen etzuen nihor dorpheki hartzen. Kanaengo lurra etzen guphidetsia izan agorte handi hartan. Jakobek, entzunik Ejiptoan saltzen zela bihia, egorri zituen bere umeak harat bihi erosterat: Josefek ezagutu zituen berehala, ordean etzuen bere burua salatu. Nola beldur baitzen haurride hek tratatu zuketeiela Benjamin ttipia, bera egin izan zuten bezala, nahiz yakintsun izan gauza hartaz, tratatu izan zituen espionak izan balire gisa. Anaia hek, akusu hartarik bere buruak garbitzekotzat, erran zioten Josefi, guziak aita baten semeak zirela, zeina baitatzan Kanaenen heien haurride gazteenaekin. Horren gainean, Josefek ihardetsi zioten, eta erran utz ziozatela, gauza haren segurantzak yakin artean, bahikundetzat bere artetik bat, eta erakhar ziozatela aiphatzen zuten anaia gazte hura. Hertsura hartan, orhoitu izan ziren Josefen alderat egin zuten gaixtakeriaz, eta mintzatu ziren, bere herriko hitzkuntzaz, egin izan zuten gaizki handiaz. Josef, ordu hartan, izan zen ukitua bihotzaren zolaraino, eta urrunduxe zen nigar egiteko; agertu zen gero; kontentatu zen atxikitzeaz bahitzat Simon zaritzona, eta bidali zituen bertze haurrideak bethe-arazi ondoan bihez heien zakhuak, eta bihur-arazi zioten bere dirua. Bere aitaganat zirenean, eraman ziotzaten berriek damustatu izan zuten buraso hura: ezin kotsola ziteken haren umeek eman zuten hitzaz eramateko berekin Benjamin xumea. Orhoitzen zen lehenago izan zuen atsekabeaz Josef galtzeaz; erran ere bazioten etzuela utziko goaterat bere umetarik gazteena, eta gehienik maite zuena.

Elizako aitak bethi daude admirazionean ikhustez historio hunen segida guzian nolako probidentziarekin Jainkoak erregelatzen dituen gauza guziak, eta nihor ezin enferra dakiokela haren nahi sainduari. Josefen anaiei gerthatu zitzairen, berak beldur ziren guzia. Saldu izan zuten bere haurridea nahiz debekatu ametsek ezagut-arazten zuten haren handitasuna; eta zeren saldu izan zuten, hortik beretik izan zen handi egin; bere haurrideek humiliatu behar izan zuten Josef, altxatua izatekotzat, eta haren goratasunak izan zuen anaieen higuntzaren beharra. Jainkoak nahi izan du historio hau izan zadin ezarria iskritura sainduan, sinhets gogorrenek berek yakin dezatentzat hark berak darabillala mundu guzia; ez dela bat bortxa egin ahal diozokenik haren nahiari: eskuratzen dituela yakintsuenak ere, bere antze eta yakintasun guzien erdian. Errege guzie-tarik zuhurrenak irakhasten daroku ez dela ez zuhurtziarik, ez prudentziarik, ez eta konseillurik Jaunaren borondateari buru egin diozakenik; aitzitik gizoneen erresistantzia edo enferratze hartaz beraz baliatzen dela bere xedeen bethetzeko, eta errextasun botheretsu batekin egiten duela, berak nahi duen guzia.



## XXXIII. KAPITULUA

### Josef bere anaieez ezagutua

Gen. 45.

Gosetea nola baitzohan egun oroz emendatuz, Jakobek laster utzi behar izan zuen Ejiptoan barna goaterat Benjamin, bere semea; beldur zen bizia gal hastanduz geroz harenganik; ordean hala-hala, etzuen nahi goseak hil zezan ume maite hura. Juda hagitx lagundu zen ardiestekotzat Jakobenganik utz zezan Benjamin goaterat: eman zioen bere aitari segurantz guzia, izanen zuela behar zen artha anaia hartaz, eta erakharriko zioela berekin batean: abiatu ziren beraz, eta hartu zituzten emaitzak Josefentzat. Anaia hunek ikhusi orduko bere haurrideak eta Benjamin xumea, manatu zuen heien sar-arazteaz etxean, eta aphain-arazi zuen othuruntza bat hekientzat. Urrun da gogoratzen baitzitzaien haurride hei begitarte arrai haren arrazoina: aitzitik, eman zitzaizkon berehala ikharari zeren ediren zuten bere zakhutan, lehenbizirik eraman zuten bihiaren dirua; beldur ere ziren izan zitezen preso altxatuak: beldur harekin erran zioten Josefentz intendantari, berekin zakharketela diru hura. Intendant hura heien konsolatzerat hari zela, eta erakutsten zioten denboran Simeon, heien anaia, agertu zen Josef yartzeko mahainean; bere haurrideak adoratu bezala zuten, eta eskaini ziotzoten bere presentak: Josefek hartu zituen atseginekin mintzatu zitzaizen ezteki, eta galdegin ziotzoten bere aitaren berriak. Ikhusi zuenean bere anaia gaztea, haren bihotzak gaindi egin zuen bozkarioz, eta desiraru ziotzoten zeruko benedikzioak. Ezin gorde zuen bere bihotzaren samurtasuna; urrundu ere behar izan zen, aphur bat, libertate gehiago utzteko bere nigar gogoei: ethorri zen laster aire arrai batekin, eta yarri zen mahainean bere anaiekin batean: etzen bozkarioz baizen egun hartan guzian. Haurride hek etxerat abian zirenean, Josefek bethe-arazi zituen bihiz, heien zakhuz, eta bihur-arazi zuen heien dirua, lehen aldian bezala; ordean manatu zien eman zadin haren kopa, edo edateko tokia Benjaminen zakhuan. Abiatu ziren bezain laster, egorri zuen heien ondolan bere etxeko intendantsa, zeinak egin baitzituen errenkurak ungia gaizkiaz pagatzeaz, eraman zutenaz geroz haren nausiaren kopa. Eman ziren guziak bere buruen garbitzen halako akusuaz, laudatu ere zuten izan zadin preso emana ebasko hartaz hobendun edirenen zena. Miratu ziren zakhu guziak eta azkenean Benjaminen zakhuan izan zen atzema kopa hura: gauza horrek harritu eta desolatu zituen guziak, eta hetarik baxotxa

nahi izan zen yarri preso, Benjamin ttipiaren orde. Juda zaritzonak bertze guziek baino errekerimendu oraino gehiago egin izan zuen: erran zion ausarki Josefi hitz eman zioela bere aitari berekin erakhartzeko Benjamin, eta seguratu zuen haren aitak gal zezakeiela bere bizia, baldin entzuten bazuen hain maite zuen ume bat gathibu zatzala. Orduan ezin egon zen gehiago Josef; gaindi zohakon bihotza; manatu zituen han ziren guziak ilkhitzerat, eta ikhusi zuenean bere burua bakhar-bakharra bere anaiekin, egin zuen oihi handi bat erratearekin Josef zela. Hitz hunek harritu eta lastu zituen haurride guziak; ordean Josef bera, izan zen heien konsolatzaillea. Erran zioten Jainkoaren nahi berezi batez izan zela hetaz hala tratatua, eta herri hetan gerthatzen zela hek libratzeko gosetetik. Guziak besarkatu zituen amultsuki, eta erran zaroen arren lehia zitezen eramaterat bere aitari halako berri handi bat; nahi zuen buraso hura ethor zakion bere etxeko guziekin. Faraonek etzuen plazerik baizen iragaten zen gauzaz; erran-arazi ere ziotzoten karrosak harat heltzekotzat. Ordu hartan errege hura agertu izan zen printze bati dagokon edertasun guzian, eta eman zuen ezagutzerat Josef bere ministro zuhurraren alderat zuen amodioa eta bihurkhundea.

Historio hunek, diote elizako aiteek, ematen du bere baitarik erakusterat Josefentz ezintasuna, eta giriztinoek nola yakin behar duten idoiaren ahanztzen. Patriarka saindu hura, bera hari da garbitzen eta exkusatzen haren gaizki tratatzailleak, etzaie errenkuratzen; aitzitik, urrundu nahi du gaizkiaren ezagutzak heien baitan sor-arazten duen ikhara. Josefek bere eskutan daduka indar guzia haren gaizki-egilleen punitzekotzat, eta ez da baliatzen bere bothereaz, baizik hei ungi egiteko: ez dute edireten haren baitan begitarte garratz eta dorphe bat, aitzitik amodiozko seinale handiak ikhusten dituzte. Josefentz karitateak ezagutarazten daroku Jesu-Kristoren ontasun infinitua. Salbatzaillea izan zenean bere anaia berez saldua, etzioten xoilki barkhatu pairarazi zioten heriotze kruela; gehiago egin zuen; nahi izan zuen isur-arazi zuten odol preziatu hura bera izan zadin heien erospenaren balio dohatsua, eta heien zaurien sendatzeko erremedio guziz miragarria.





## XXXIV. KAPITULUA

### Jakob doha Ejiptorat

Genes. 46.

Josefen anaiak bihurtu zirenean Ejiptotik, eta eman ziotenean Jakobi berria Josef haren semea bizi zela, eta bothere handi bat zadukala erre-suma hartan, gizon saindu hura yarri zen asupimenduan. Hartarik altxatu zenean, eta yakin zuenean xehekiago Jainkoak zer egin zuen haren semearen alderat, hartu zuen xedea heltzeko harenganat, eta eramateko berekin batean bere egokia, edo familia guzia. Ilki gabe bere herritik, ofrendatu ziotzan Jainkoari sakrifizioak. Lotan zatzala, Jainkoak erran zion Jakobi: *Ni naiz zure aitaren Jainko botheretsua; ez izan deuseren beldurrik: zohazi deskantsuki Ejiptorat, yarraikiren natzaitzu nahiz haratekoan, nahiz hunatekoan.* Orduan Jakob eman zitzaion alegeraki bideari, ikhustekotzat munduan gehien maite zuena. Josefek entzun zueneko bere anaia batenganik, Jakob hurbiltzen zela, athera zitzaion berehala biderat Jesengo bazterretaraino; ikhusi zueneko bere aitaren xarriota, edo karrosa iduria hurbiltzen zela, yautsi izan zen beretik besarkatzekotzat bere burasoa. Bozkarioak mututu zituen bata nola bertzea: egon ziren, aphur handi bat, elkharri lothuak hitzik erran gabe. Bozkariozko seinale hauien ondoan, eta uztekabeko elkhar ikhuste hark isur-arazi ziotzotenean plazerezko nigarrak dela aitari, dela semeari, Josefek eraman zuen Jakob Faraon erregeganat bere salutantzia egin ziozantzat. Haren nahia zen guziak elkharrekin bizitzea Ejiptoko herri zenbaitetan, ejiptoarretarik berex: bere handitasun guziaren erdian, erakharri zitzen, ahalkarik gabe, bere aita eta bere anaiak erraterat erregeren aitzinean, ejiptoarrek higin zuten ofizio batetakoak aurkhitzen zirela, erran nahi da, artzainak zirela; ardietsi zuten Faraonganik bere egoitzat Jesengo lurra, eta etzuten eskasiarik ikhusi gosetearen partetik. Molde huntan, probidentziari eta Josefen bihotz ontasunari esker, izan zen begiratua Israelgo populu handia, ordu hartan, hirur hogoi eta hamar presunetan zatzana. Horra, dio San Krisostomek, Jainkoak nola erregekatzen dituen gauza guziak bere maiteen fagoretan. Aldizkatzen ditu miragarriki heien onak eta gaitzak: batean, egortzen diotzate atseka-beak beldurrez sobera altxa daiten bethi nahikaretan izanez; bertzean, egortzen diotzate konsolazioneak arintzekotzat nahikabeen karga pisua. Probetxos gerthatu zen Jakobentzat aphur batetako galtzea Josef, bere semea, eta orobat izan zen probetxos Josefentzat bere aitaganik hastan-

tzea. Ala elkhar bathzean izan zuten atseginaren gaididurak laster borra-tu baitzituen bataren eta bertzearen penak! Aithor-agun hemen baldin ejiptoarrek ungi ekharri balin bazituzten, arte laburrez, Jakobean umeak, hala-hala gerorat yazarri izan ziotela dorphetasun handirekin. Populu infidel hark agertu zuen heien alderat barbarotasunak asma ahal zezakeien errabia guzia.

Elizako aiteek diote Ejiptoia, erran nahi da, mundua, beldurtzeko dela egiazko Israeldarrentzat. Zer nahi itxura eder eta lausengu handi duketeien mundutiarretarik, ez dute zeren behin ere hetan fidatu: goiz edo berant, bethi ezaguturen dute kaltiar dela mundupean ibiltzea, ezin bertzez ere. Frogaturen dute bethi beldur izan behar dela Ejiptorat daraman goseteaz.



## XXXV. KAPITULUA

### Ejiptoko emaginak

Exod. 1.

Jakob bizi izan zen deskantsuan hama-zazpi urthez Ejiptoan: ikhusi zuenean hurbiltzen zitzaiola hiltzeko muga, erakharri zuen Josef, bere semea, eta othoitztu zuen, hiltzen zenean, eraman-araz zezan haren gorputza bere burasoen hobirat. Benedikatu zuen bere umea, eta hil izan zen ehun eta berrogoi eta zazpi urthetan. Iskribu sainduak erraten daroku, Josefek artiki zuela bere burua, nigarretan, bere burasoaren gainerat, eta urrindarazi zuela haren gorputza. Auhendatu izan zuen ondoan zenbait egunez, grazia galde-arazi zion Faraoni, printze hari gehienik hurbiltzen zitzaien arartekotasunaz altxarazteko bere aitaren gorputza Kanaango lurrerat. Ejiptoan ziren lehenbiziko presunak yarraiki zitzaizkon ahukuari. Josefek ezar-arazi zuenean Jakobena gorputza Abrahamenaren eta Isaakaren batean, bihurtu zen Ejiptorat, eta bizi izan zen egundainoko nausitasun beraekin. Hunenbat prudentzia, ontasun eta desintresamendu aurkhitzen zen haren baitan, non uzte baitzuen etzela izan altxatua, baizik bertzeei ungi egitekotzat. Ezagutu zuenean laster hiltzekoa zela, galdegin zioten bere anaiei, Jakobe, bere aitak hari berari galdeturikako grazia bera: erran nahi da, othoitztu zituela hel-arazteaz haren hezurak Kanaango lurrerat. Hala agindu zioten. Hil izan zen handik laster, ehun eta hama zazpi urthetan, Ejiptoko nausi izan zen ondoan, lauetan hogoi urthez. Urrindatu zuten haren gorputza, eta eman, denbora bateraino, Ejiptoko hobi batean.

Josef hiltzenetik zenbait urtheen buruan, ganbiamendu handi bat gerthatu zen alderdi hetako egitekotan. Errege berri batek, hebreuarren etsaia zenak, orobat Faraon zaritzonak (izen hau zakharketen Ejiptoko erregek), izatetik urrun populuentzat haren aitzinagokoen arraitasun eta konsiderazione bera, aitzitik, bekaxtu zitzaien zeren hagitz emendatzen hari ziren. Bere buruari eman zioen behar ziruela gal-arazi. Hartakotzat yokatu zen zuhurtzia handirekin. Lehenbizian erakharri zituen yende hek adrilluzko, eta lurrezko bertze lan nekhagarritarat. Ordean haren hartze-ko moldeak gehiago baizik etzuen emendarazten populua: hortik beretik ageri zen munduko penak eta lazeriak, eliza oraino gehiago hedarazteko beharko zirela baliatu. Faraonek, nahiz bere xederat heldu, hartu zuen bertze bide bat, zeina baitzen hil-araztea ume ordots guziak. Beraz mana-

tu zituen emaginak, Israelgo emazteak lagunduko zituztenean erditzetan, bizia eramateaz heien ume ordotsei, sabeletik lekhora. Hulako manu barbaro batek lastu zituen emaginak, Jainkoaren beldur zirelakotzat. Etzuten obediencia ekharri, nahiz guphidetsi hobenik gabeko haur gaixo batzu; desobediencia hark eman-arazi zuen Faraon fulian bezala. Manatu zioten bere yendei hartzeaz ume ordotsak, eta artikitzeaz Nileko urerat; eta egin ziotzaten errenkura minenak emaginei, ez bethetzeaz haren manuak.

Faraonek gaitzetsi balin bazituen emagin hek, Jainkoak, hala-hala, saristatu izan zuen, iskritura sainduaren arabera, heien desobediencia merezimenduzkoa, altxatuz heien etxeak. Egia da bada gaizki hartu zuela erran zuten gezurra bere buruen garbitzeko ez obeditze hartaz; halarik ere benedikatu zuen alhargun hek agertu zuten urrikalmendua, hestura inyustu hartan. Iduri du naturalesaren sentimendu guziak bilduak aurkhitzen zirela emazte bakhar hetan. Populu oso bat eta erresuma guzia eroriak ziren denboran, printze kruel baten manu zein nahitarat, alhargun hek ziren bakharrik Jainkoari hobeki behatzen ziotenak ezen-ez gizonei, eta agertzen zutenak Faraonez baino beldurtiago zirela Jainkoaz. Oxala, dio S. Augustinek, iratxeki baliote urrikalmendu laudagarri hari, egia alderako amudio gehiago, eta eman izan balire alegeraki sakrifikatuak izateko menean, gezurrik erran baino lehen haur heien bizia begiratu nahizko xede! Bai, milletan hobe izanen zen emazteki heientzat hil ere izan balire, bere nahitarat, bere buruak ezarri zituzten hurrisku hartan, handik atheratzerat egin gabe egiaeren goztuz. Molde hartan, saindu bera mintzo da, ikhus zetzaketeien bere etxeak deseginak lurraren gainean, ordean aurkhituko zuten zeruan bertzelako etxe bat, bethi iraunen zuena.



## XXXVI. KAPITULUA

### Moise uretik itzuria

Israelgo populua inyustuki persekutatua kausitzen zen Ejiptoan; errege esker gabe batek nahi zuen gal-arazi leinu hura, zeinari bizkitartean zor baitziotzon bere erresuma eta bere bizia bera. Lebiren tribuko gizon batek, Amram zaritzonak, izan zuen Jokabel bere emazteaganik seme eder bat. Ama hura guzia hartua nola baitzen edertasun handi hartaz, egin zuen hain ungi non gorde baitzuen bere umea hirur ilhabetez; ordean Faraonen manuak, zorrozki konplitu beharrak ziren; beraz Jokabelek utzi hehar izan zuen bere umea, bere menturarat, beldurrez berak gal bizia. Egin zuen ezpartuzko saski bat, ohe orde, eta ezarri zuen hartan bere haurra; gero largatu zuen saski hura Nilgo arriberean hegian, gomendatu ondoan bere alaba han egoteaz ur haren bazterean, yakitekotzat zer bilhakaturen zen haren anaia. Hala beharra: Faraonen alaba goantzen dohatsuki, ordu berean, bere neskatxa zerbitzariekin, ur hartan freskatzerat. Laster begiztatu zuen ezpartuzko saski hura: nahi izan zuen yakin zer othe zen; hortakotzat bidali zuen neskatxa hetarik bat haren bilha. Ikhusi zuenean haur hura, bere ohatze hartan hirriz zatzala urrikaldu zitzaion, eta haur haren edertasunak etzuen, urrun da, gutitu haren bihotz ontasuna. Ordutik nahi izan zioen begirarazi bizia. Haur harren arrebak, ikhustean zer iragaten zen, hurbildu zitzaion printzesa hari; othoitztu zuen arren onhets zezan zohan emazte hebreutar baten bilha, bulharra emateko haur hari. Erakharri zuen berehala bere ama, zeinari Faraonen alabak manatu baitzioen haur haren hazteaz; agindu ere zioen sari ona. Haur hura handitu zenean, bere amak eraman zion Faraonen alabari, zeinak adoptatu, edo bere ume kontuan hartu izan baitzuen: behatu zioen bethi bere seme bati bezala, eta eman zioen izentzat Moise, (Moisek, Ejiptoko hitzkuntzan, ura erran nahi da) uretik beiratu zeren zuen.

Elizako aiteek admirazioneekin ikhusten dute, gizon saildu hura, lege zaharreko ministro zena, Jesu-Kristo lege berriko den bezala, nola edireten zen sortzetik beretik, salbatzailearen iduriko, mirakuilluz itzuri zenaz geroztik hanbat haurreen heriotzea zakharkeien desmasia izigarri batetarik. Ala ordudanik Jainkoak ematen baitzuen ageriki ezagutzerat gizon guzien eta hetarik phurueneen beren nausia dela, eta heien nahi guziak alferretan direla haren xedeen arabekoak ez balin badire! Iduri ere du indar eta bothere oraino gehiago erazutsten duela gudu ageri bat

egiten dioteneneen kontra. Ezin aski mirets daite Jaunaren zuhurtzia Faraonez trufatzean. Errege hunek nahi ditu gal-arazi hebreuarren haur guziak. Zer itsumendu! Ordean zer gerthatzen da? Berak nola ez dakiela, altxatzen eta lausengatzen du bere palazioan, illobaso bat izan balu bezala, haur mirakuilluzko bat, ejiptoarren eskutarik libratu behar zena Faraonek persekutatzen zuen populu hura bera. Beldurrak erakharri zuen Jokabel Moisez gabetzerat; eta ama hau bera da kargatua bere ume maitearen arthaz: pagatzen zaizko haur hazte saria eta bertze zerbitzuak ama bati zeinak, bozik, erosiren baitzituen berak munduko urre guzien goztuz. Haur haren handitasunaren hastapena gerthatu zen utzia izatetik bere menturarat. Jainkoak begiratu zuen Moise galdua izatetik arribera batetako urean, eta hondarazi zuen itsasoaren erdian, Moise beraren manuz, gizon saildu hura itsasopean gal-arazi nahi izan zuen printze baten semea gal-arazi zituen oraino, printze haren semearekin batean, haren azpiko aitzindari oste bat, zeren izan zuten flakezia konplitezkotzat bere erregearen manu barbaroak.

Fede eta adimendu guti behar ginduke baldin erran ditugun gauza miragarriak ez balaraukute ezagut-arazten Jainkoa dela guzia, deusere ez direla gizonik botheretsuenak berak. Gaitz ahal da yakitea zer den gehien miretsi behar dugun gauza; ala Jainkoa beraren kontra altxatzen diren atrebentzia itsua, ala heien erhokeria auhendagarria!



## XXXVII. KAPITULUA

### Kharrezko sasia

#### Exod. 3.

Moise beraz, mirakuilluz bezala, izan zen uretik libratua, eta altxatua Faraonen etxean. Adinarekin ezagutzarat eman zuen, Jainkoak lurreko handitasunak ez bezalakotarat deitzen zuela. Ikhustez israeldarrak atsekabe handitan, eta bere burua, nahikara guzien erdian, hori bera zen gauza bat haren fede onak ezin onhets zezakeiena: nahiago zuen, Jaun Doni Paulo arabera, izan doloratua Jainkoaren populuarekin batean, ezen-ez dohatsu populu haren etsai agertzen zirenean artean. Moisek eman zion beraz bere buruari behar zuela utzi erregeren palazioa, heltzekotzat bere anaietarat. Gerthatu zitzaion ikhustea ejiptiar bat hari zena hebreudar baten laidoztatzen; etzen gehiagorik behar haren animarazteko Jainkoaren izpirituz, hil zuen ejiptiar hura, eta gorde zuen hare-pean: uzte zuen hortarik haren anaiek konprenituko zutela, hura izanen zela heien libratzaillea. Etzuten ordean gauza hala hartu. Biharamunean ikhusi zituen orobat bi hebreutar bere artean liskarrean; nahi izan zituen bakteu, erraten ziotelarik anaiak zirela; hetarik batek ihardetsetik urrun haren xede laudagarriari, galdegin zioen biphilki haren hiltzerat heldu zenez, aitzinagoko egunean ejiptiar bat hil zuen bezala: hitz hunek erakharri zuen Moise ihes egiterat: hedatu zen Madiango lurrerat. Han, ithurri baten aldean zatzala, Ragel, ezperen Jethro zaritzon, hango aphezaren, zazpi alabek yo zuten lekhu bererat bere arthaldeei edaraterat; nola zenbait artzainek khendu nahi baitzituzten dorpheki, Moise yarri zen neskatxa heien alde, eta laguntza handia egin zioten. Aitak yakin zuenean gauzaren berri, nahi izan zuen ikhusi haren alabak hala lagundu zituen ejiptiarra. Moisek ezagutu zuen buraso haren bihotz ontasuna, eta nahiz harekin egon, hartu zuen bere emaztetzat gizon haren alaba, Sefora. Berrogoi urthe iragan zituen bazkatzen mortuan bere aitaginarrabaren ardiak: arte hartan gerthatu zitzaion gauza espantagarri bat. Egun batez eraman zuen bere arthaldea horeben mendiaren lekhurik apartatuenerat, eta han agertu zitzaion Jainkoa, kharra zarion, ordean arras erretzen etzen sasi baten erdian. Nahi izan zen hurbildu hobeki ikhusteko haren begietan zen mirakuillu hura; ordean Jainkoak baratu zuen, eta debekatu zion hurbiltzetik: erran zion gero entzun zituela hebreudarren oihuak, eta azkenean, libratu gogo zituela ejiptoarren gathetarik, eta hartaz beraz

baliaturen zela obra handi hartan. Moise nekhez yarri nahi zen halako eginbidetan: ezin ordean gibela zitekeien; ezen Jainkoak egin zioen bigarrenean, manu bera, eta haren errexkiago erakhartzekotzat obedientziarat, eragin ziotzan ordu berean, bi mirakuillu hauk: ganbiatu zuen bere zigorra sugetarat, berriz, suge izatetik, zigor izaterat; egin zuen bertze alde, Moisen eskua lepradun golkhoan sartzean, eta berari sendarazi zion esku hura. Hauk guzien erdian, Moisek herabetesun handi bat agertzen zuen Jainkoak manutzen zioenerat, haren haserradura saildua bereganatzerainokoa: azkenean, amor eman behar izan zioen Jaunaren nahiari: adios erran zioen Jethro bere aita-ginarrabari; iragan zen Ejiptorat, bere populuaganat, eta haren kontsolatzerat.

Elizako aiteek behatu diote, behinere errea izan gabe, sutan zatan sasiaren mirakuilluari, egun batez, egiazko hautetsiei gerthatu behar zaienaren seinaleari eta etsenplu bati bezala. Denbora hartan, israeldarrak penatuak ziren gisa Faraonen manuz, gauza bera gerthutzen da orai Jainkotiarretan; inguratuak dire, alde guzietarik, munduko su ondikoekoaren khar bizienez; urrun da ordean erretzen eta ezdeustatzen baidire. Horren arrazoina da, Jainkoa bere bihotzetan baidadukate; eta debekatzen baiditu munduko su hartaz urmariatuak izatetik. Aitzitik, Jaunaren graziak su hura bera baliarazten du oraino gehiago garbitzeko eta distiarazteko atsekabetan diren hautetsieen arimak.

San Gregoriok behatu dio Moisen deithua izateari, edo bokazioneari, egiazko arimetako artzaineen iduri eta seinale bati bezala; Moisek (zozan) etsenplu handi bat eman diote ez nahi izateaz kargatu Jainkoaren populuaren gobernuaz, Jainkoak berak manaturik ere, eta preparatu zelarik kargu gaitz hartarat, berrogoi urtheen erretiramenduaz eta penitentziatziaz: hortik ikhusi bezate, dio saildu berak, arimeen artzainek zertarainokoa diren hobendun atrebitzen direnean bertzeen gidatzerat beldurrik batere gabe, eta guziz berak nahi direnean yarri bertzeen gidari. Zer? Saindurik handienak ikharatu dire Jaunaren populua behar izateaz gidatu! Eta gizon herbal, berthute, gutitako batzu ibilhiko dire bada halako kargu minbera baten ondoan! Zer itsumendu! Ezin ihardets dezakete bere arima bakharrez ere, eta nahi dire bada yarri populu oso batez, hanbat arimez ihardetsi behar izateko egin bidetan! Zer atrebentzia!



## XXXVIII. KAPITULUA

### Moise Faraonen aitzinean

Moisek, Jaunaren partez, Faraoni galdegin zion lehen gauza, izan zen bere populua morturat eramateko libertatea, ofrendatzekotz sakrifizioak haren majestate adoragarriari. Errege hura doztatu zen galde hartaz, erraten zuelarik hark etzuela Jainkorik ezagutzen. Gehiago dena: Jainkoaganik heldu zitzaioen manu hertsu hari, behatu zioen haren kontra egiten zen errebolta bati bezala, eta erakutsi zioen Moisi galde fuerte hura gaitzitzen zitzaioela: tratatu ere zuen gizon saindu hura haren kontra altxatu ziteken presuna bat bezala. Faraonek oraino manatu zuen doblatzeaz populuen alderako gogortasunak, eta ekhar-araz ziozaten egun oroz, lehen bezanbat adrillu, edo brika; eta etzuen nahi eman zakioten, ohi bezala, lastorik. Populuek ikhusi zutenean gaitzak egundaino bezala berritzen hari zirela, bere errenkurak egin ziotzaten Moiseri eta Aaroni, persekuzione berri haren ithurburuak izan balire gisa: ala ordu hartako errenkurek miragarriki ezagutzarat eman baitzituzten, gerorat elizan izanen ziren erratekoak, eta eraunsiak arimen artzain egiazkoen kontra, nahiko dituztenean itzul-arazi populua Jainkoagana, arherarazirik Ejiptotik, erran nahi da, bekhatutik. Jainkoa ukitatua izan zen bere populua alde-rako ihardukitze dorpheaz. Atsekabea bera boz ukigarri bat da Jaunaren tronurat heltzen dena; berriz ere egorri zuen Moise Faraonganat hari manatzekotzat arren utz zezan bere populua goaterat. Moisek egin zuen Jainkoaren mezuaren arabera, eta ematekotzat erakusterat printze hari Jainkoaz egorria zela, ganbiatu zuen haren begietan Aaronen zigorra sugetarat. Ordean Faraonek bazituen xarmatzaileak, zeinek, nahiz gal-arazi Jainkoaren mirakuillu egiazkoen ospea, egin izan baitzituzten, heiek ere, halakotsuak; ezen ganbiatu zituzten orobat Faraonen aitzinean, bere zigorrak sugetarat, bere majiaren edo sorginkoaren ariaz: horra zergatik Moisek egin zuen mirakuilluak etzuen Faraon eskuratu. Jainkoa etzen hortan gelditu; mezutu zuen Moise zohala oraino, haren partez, errege harengana, eta mana ziozala utzteaz bere populua ilkhitzerat. Moise athera zitzaion Faraoni biderat Nilgo hegian, kontu guti eginik errege haren mehatxuez. Mintzatu zitzaion libertate saindu batekin, deus ere galdu gabe bere leheneko eztitasunetik eta humiltasunetik: othoitztu zuen, egundaino bezala, permeti ziozan eramatea Jainkoaren populua morturat, hari sakrifizio bat ofrendatzekotzat. Ordean Faraonek etzuen entzun egi-

ten zitzaioen othoitz humila. Orduan Moisek eman zioen Aaroni manua hedatzeko bere zigorra Nilen gainean, zeinaren bazterrean aurkhitzen baitziren. Jainkoaren botherearen handia! memento beretik, arribera handi hartako ura, hala nola Ejiptoko bertze ur guziak izan ziren itzuliak odoletarat, eta hil izan ziren hetako arrain guziak.

Hulakoa gerthatu zen Ejiptoak izan zuen lehenbiziko zauria. Ematen zuen erakusterat, Jainkoak bethi zehaturen zituela haren hitz sainduen alderat sinhets gogor agertuko zirenak; zeren halakoek, haren egia-uren ur garbien orde, ez baidute edireten odolik baizen, erran nahi da, lurrezko eta haragiaren araberako sentimendurik baizen. Ezin aski mirets daite Faraonen sorraiotasuna, mirakuillu batek berak etzuenaz geroz hautsi haren bihotza: egia da, haren majizianoek finkatzen zutela haren ostrinamendua, eskarniatzean Jainkoak, Moisen bidez, obratu zuen mirakuillua, eta hortan, arintzen bezala zuten errege haren gaizkia, bere burua itsutzerat hari zenaz geroz. Ordean majiziano hek ezin behinere garbi zezaketeien bere hobenetik; nahi dut egin zezaketela, bere sorginkoaz, gaixtakeria hainitz; ordean etzuten behinere eskurik gaizkiaren borratzekotzat. Badaite bihur-araz zezaketen, Moisek bezala, ura odoletarat; ez ordean ganbia, gizon saindu hark bezala, odola uretarat.

Faraonek Moisesenganik izan zituen zigorradak eta atsekabeak, aski behar ahal ziren printze harentzat idekitzekotz begiak egia! Bertzealde, zenbat arrazoin etzuen egia ezagutzekotzat, ikhustean bere atsekabe guziak baratuak, norenganik ere heldu baitzitzaizkon, eta haren beraren othoitzetarat! Ordean guziak ondikoz! Alferretan dire behin itsutzerat utzten den izpiritu batentzat: ez, deus ere ez ahal da lurraren gainean, guri dezakenik bihotz bat, zerutik heldu zaizkon kolpek berek, burdina bezala, gogortzen dutena, eta bere gaixtakeriarat Jainkoak, yuiamendu zuhur batez, largatzen duena!





## XXXIX. KAPITULUA

### Ejiptoko zauriak

Exod. 8.

Moisen erran guziak etziren beraz aski izan, Faraon erakhartzekotz utzterat Israelgo populua. Jainkoak zaurthu behar izan zuen Ejiptoa asko zauriz edo atsekabez; lehenbiziko zauria zeina baitzen ura odoletarat gantziatzea alfer gerthatu zelakotzat, Jainkoak egorri zituen orai hemen aipatzerat goazen hauk.

Bigarren zauria zen igelezko elementia bat; Jainkoak ilki-arazi zituen arriberatik: sartzen ziren etxe guzietan, eta hetaz penatuak kausitzen ziren Faraon eta ejiptoarrak bere ohetan beretan. Zauri hark ezagut-arazten zuen san Augustinen arabera, Jainkoak yauts-arazten duen punimendua, hitzez eta itxuraz baizik prestu ez direnen gainerat.

Hirugarren zauria zen ulitxeen, edo aliamalia xehe batzuen. Faraonen aztiak edo majizianoek egin zituzten huntaraino bere yakite gaixtoaz, Moisek bezalako mirakuilluak. Ezin ordean egundaino ager-arazi zuten ulitxarrik, eta erran behar izan zioten Faraoni: hemen Jainkoaren erria seinalatzen da; etzen hargatik errege hura izan ekharriagoa Moisen erranen egiterat. Hirugarren zauri hunek aditzerat ematen zuen yende batzuk atsegin izanen zutela elizaren bakea asaldatzeaz, eta arimeen khexarazteaz bere liskarrez eta bere elkhar ez-aditzez.

Laurgarren zauria zen uli handi batzuen: bethetzen zituzten bazter guziak, lekhat israeldarren lekhuak; ezen etzen uli hetarik batere sartzen yende heien etxetan. Zauri gisa hunek erran nahi zuen gizonak asko khexadura yasaten dutela utzten dituztenean bere buruak errekkiegi munduko penetarat, eta khexadura hark berak eramaten diotela bake maitagarri baten gozotasuna.

Bortzgarren zauria zen izurri ikharagarri bat: funditu zituen ejiptoarren abere guziak, batere minik egin gabe israeldarrenei. Zauri hunek erran nahi zuen arrazoinik ez duten aliamalien pare biziko zirenak elizaren golkhoan, izanen zirela zaurthuak, ageriko etzen izurri ondikozko batez, eta hil-araziren zituenez heien arimak, guphidetsi arren heien gorputzak.

Seigarren zauria hau zen: bestiak bezala, presunak ere handitsuz maldatuak izatea. Zauri hark erran nahi zuen arimako gaitza gorputze-

ko zornearen idurikoa dela, eta eritasun izigarri batez zaurthuak direla Jainkoak orgilleriari eta sumindurari utzten dituenak.

Zazpigarren zauria zen harritea. Xehakatu zituen bathzen zituen gauza guziak. Israeldarren herriaz izan ziren bakharrrik hartarik libro. Zauri hunek ematen zituen begietarat, yende batzuen inyustiziak eta makhurkeriak alfer eragiten dituztenean, bere inbidiaz, bertzeen nekhe izerdiak. Halakoek galtzen-tuzte bere buruak, bertzei egiten daroen gaizkiaz beraz, hala nola, harria urtzen baida lurrean bazterrak xahutu dituen ondoan.

Zortzi garren zauria zen xartalak edo larrepittak deitzen diren bestia ttipi batzuesko elementia bat, zeinek iretsi baitzituzten harriteak galazari etzituen belhar eta lurreko yanari guziak. Zauri huntaz aditu behar ditugu gezurrek dakharzketen bidegabeak giriztinoen artean: gezurtiak egiten duelakotzat, larrepittak bezala, bere ahoz, asko bidegabe.

Bederatzigarren zauria zatan ilhunbe lodi batzutan. Iraun zuen hirur egun. Zauri hunek erran nahi zuen gaixtagineen arimak ilhunbetan zaudela, yustuak, hala nola baitziren israeldarrak, gozatzen diren denboran argirik garbienaz. Hemen eman daite begi kolpe bat zuhurtziaren liburuan ezarria den gauza bati. Han edirenen dugu, Jainkoak ez duela, bet-betan, punitzen Faraonen gogortasuna, baina bai aldizka. Hortan erakutsten du bere eztitasuna, bere haserraduraren erdian ere, eta haren nahia dela punimendu arinek gibel-araz detzaten borthitzagoak.

Jainkoak, Jainko bezala, nahi duenean punitu, ez da uliz eta igelez baliatzen. Orobat zitzaion errex, zuhurraren erranaren arabera, egortzea berehala lehoinak ejiptoarren funditzekotzat, hei adi-arazi gabe, ulhien bidez, orhoitzeaz bere buruez; ordean ezagutzen du gizonaren flakitatea, eta kontentatzen da gaitz eztiagoez. Nahi du bat bederak yakin dezan zenbat izanen duen ikharatzeko seinalaraziko duenean, hedadura guzian, bere haserradura saindua, egortzen dituen gatzigu ttipiak hain lastimagarriak direnaz geroz. Bai, Jaunaren nahia da bizi gaitezen haren beldurrean. Kausitzen dituen Faraonak, erran nahi da, bihotz arras sorraioak, hedatzen du bere besoa heien gainerat, eta ezin amora detzakenean eztitasunaz, bortxatua bezala da, azkenean, dorphetasunekin agertzerat arima ezin konbertituzko heien alderat, eta izaterat hain fermu bere yustizian, nola hek, bere ostrinamenduan.





## XL. KAPITULUA

### Bazkoko bildotsa

Ex. 12.

Jainkoak zehatu baino lehen Ejiptoaz azken zauriaz, egorri zituen israeldarretarat Moise eta Aaron hei egiteko, haren partez, manu hau: Har zazue familia baktarentzat urtheiko bildotz bana, ordotsa eta notharik gabea. Imolaruren duzue, hil hunen hamalagarren egunean, arrats apha-lerat: harturen duzue haren odoletik, eta hartaz buztiren-tutzue zuen atheen ainak eta sahetsak; gau hartan berean, yanen duzue, etxe berean, suan errea izanen den bildotsaren haragitik, hartarik deusik utzi gabe, eta kanporat eraman gabe, eta hautsi gabe haren hezurrik: bildotz haren yatean, egonen zarete xutik, makilla bat eskuan, eta bethi goateko abian izanen zarete bideranteak bezala.

Israelgo umeek egin zuten Jainkoak manatu ziotena, eta gauerditsuan, Jaunaren aingeruak hil izan zituen Ejiptoko lehenbizirik sorthu guziak, hasirik Faraonen lehenbiziko semetik, zeina yarria baitzatzen bere tronua gainean, eta azken gathibuen lehenbiziko umetarainokoa hil zituen orobat aberetan lehenbizirik sorthu ziren guziak: desmasia hau hedatzen zen etxe guzietarat, berex utzten zirela bildotsaren odolaz atheak seinalatuak ziren etxeak. Faraon eta ejiptiar guziak altxatu ziren, gau hartan, ohetarik. Etzen, alde guzietarik, oihurik eta nigarririk baizen. Etzen etxe bakhar bat non etzen edireten hil bat. Faraonek erakharri zituen, gau berean, Moise eta Aaron, eta erran zioten atherarazteaz lehen bai lehen, israeldarrak lekhu hartarik.

Ala klarki ikhusi baitzen ordu hartan, Jainkoak gizonez egiten duela, berari zaion guzia, eta erakhartzen dituela azkenean, hark nahi duen guzietarat! Faraon bat, orduraino Jainkoaren eta Moisen manuak arbiuatu zituena, bera izan zen lehenik israeldarrak othoiztu zituena goateaz. Etzuen deusetan mugarriztatu ematen zioten libertatea: utzi ziotzoten eramaterat berekin bere umeak eta arthalde guziak: galdetzen zioten grazia bakharra zen arren lehia zitezen ilkhitzerat: ejiptiar guziek othoitz bera egiten zioten.

Israeldarrak athera ziren beraz Ejiptotik bazko biharamunean: hel-tzen ziren sei ehun milla gerla-gizonetarainokoa; emaztekiak eta haurrak berex utzirik; ordean abiatu baino lehen, egin zuten Jainkoak manatu ziotena; galdetu ziotzoten, prestamuz, ejiptoarrei urrezko eta zilharrezko

yarroak, eta Jaunaren probidentzia ixilari esker, ejiptoarrek eman izan ziotzoten herabe gabe.

Horra nola libratu ziren israeldarrak gathibutasunetik, herrehun eta hamabortz urtheen buruan. Gauza miragarria! Etzen eri bakhar bat ere hanbat yendeen artean. Israeldarrek atheratzean Ejiptotik, hartu izan zuten hango ontasunetarik har ahal guzia, nahiz saristatu bere buruak yasan zituzten nekhe handiez ejiptoarren hiria egitean. Israeldarrek berekin eraman zituzten ontasun baliosek ematen zuten ordutik, ezagutzerat elizan zerbitzatuko zirela gauzarik ederrenak eta distiosenak, lekhu saindu haren ohoretan.

Ejiptotik libratze hark erran nahi zuen bekhatoreak ere libraturen zirela egiazko Ejiptotik, erran nahi da, mundutik eta hango gathibutasunetik; ordean bere auhen guziekin, eta libertatearen hirrit handienaren erdian, bethi gatheetan, erran nahi da, bere estatu ondikoakoan geldi litezke, baldin Jesu-Kristo, biktima garbiaren odol preziatuak, ez balitu laguntzen. Salbatzaille amultsuarengatik behar dute ardietsi bere libertatearen zoriona; eta hori da grazia seinalatu bat zeinetaz Jainkoak nahi baidu haren umeak orhoit daiten, urthe guziez, Elizak duen besta-bururik handienean: egun oroz, ematen daroku, begien aitzinean, grazia beraren orhoitzapena alderako sakrifizio sainduan. Nahi du gogoan atxik dezagun nor den erosi gaituena gathibutasunetik, eta nor zen bere gathetan idukitzen gintuen etsai gaixtoa. Jaunaren nahia da orhoitzapen hunek erakhar detzan gure bihotzak ezagutzarik handienerat bataren alderat, eta higitza oso baterat, bertzearen alderat. Yarraiki behar gaizko leihalki gure salbatzailleari: hura da libertatea ematen darokuna, eta bakharra hartan begira gaitzakena. Bertze alde, ez erortzekotz egundaino bezala, munduaren gathetan, artha handienarekin ihes egin behar diotegu etsai gaixtoaren itzuli enganakhor guziei.



## XLI. KAPITULUA

### Itsaso gorria

Exod. 14.

Faraonek ikhusi zuenean yuduen populua itzuri zitzaiola eskutarik, eta sakrifikatzekotzat galdegin ziotzan hirur egunak iraganak zirela, bihurtu gabe bere lekhurat, ahantzi zitzaizkon izan zituen zauri mirakuilluzko hek guziak, eta ohiko bihotz gogortasunak abiarazi zuen israeldarren ondotik. Bildu zituen bere azpikoak zeinak, bere baitarik ere, ekharriak baitziren hartarat, nahiz eskuratu bere yarroak. Israeldarrek ikhusi zituztenean bere buruak hirrisku handitan; ezen itsasoa zuten alde batetarik, eta Faraonen armada bertzetik, etziren gehiago orhoitu mirakuillu batez athera zirela Ejiptotik, ez eta Jaunaren probidentzia berak gidatu zituela mortu hartarat, baliatzen zelarik egunaz hedoiezko bilduna batez, eta gauaz, susko batez: eman ere zitzaizkon erasiari, galdetzerainokoa Moisi, idoiez gisa, etzen bada izanen heientzat Ejiptoan hobirik, mortu hartarat ethorri behar zuten ez bada herio bilha? Moisek konsolatu zituen heslura hartan: hitz eman zioten Jainkoaz lagunduak izanen zirela. Hala gerthatu zen: Faraon hurbildu zeneko heienganat, Moisek hedatu zuen eskua itsasoaren gainerat, eta ordu berean partitu zen hango ura bi aldetarat, bide bat egiteko israeldarrei. Eman ziren beraz bide berri hartan: urak altxatu ziren bi bazterretarik hainitz gora, iduri zuten murru handi bat, guziek iragan zuten itsasoa oinik buzti gabe. Ejiptoarrak etziren espantitu mirakuillu hartaz, uzte ere zuten hartaz baliaturen zirela bertzeak bezala: sinhetste zoro hartan, sarthu ziren bide berean, beldurrik batere gabe itsasoaz. Ordean laster Jainkoak ezagutzarat eman zioten hei ez bezala behatzen zioela bere populuari. Artiki zituen, zerutik bere lantzak eta ospinak ejiptiar heien gainerat. Hori ikhusirik, yende hek elkhar gonbidatu zuten ihes egiterat; ezagutu zuten Jainkoa heien kontra, eta israeldarren alde agertzen zela. Ejiptoarrak eman zitzaizkonean ihesari, Jainkoak manatu zion Moisi hedatzeaz bere eskua itsasoaren gainean. Momento berean, partituak ziren ur hek bat egin ziren, eta yautsi ziren, ibaiak hezala, ejiptoarren gainerat. Ordu berean, ikhusi izan zen urak nola zarabiltzan bere gainean yende heien gorphutz ithoak, bakhar bat utzi gabe bizirik.

Erran behar da hulako mirakuilluek ungi erakutsten dutela Jainkoaren handitasuna! Jainkoa berak dio egin nahi izan dituela gizonei ezagutaraztekotzat bere bothere guzizkoa. Elizako aitak gehienik ukitzen ditue-

na, hau da: giriztinoek ez duketen begirik mirakuillu fuerte hauien ikhustekotzat baizen, eta hori, zeren ageri diren kanpotik, eta ez detzaten ikhustertzte mirakuillu batzu, aiphaturik heldu garenak baino hanbatenaz handiagoak, zenbatenaz baidire izpiritualak, edo ezin ikhusiak. Admiratzen dugu (san Bernard mintzo da) nola yuduen populua itzuri zen Ejiptotik, eta ez diogu admirazione berarekin behaturen, konbersione egiazko baten bidez, munduan galdua izatetik begiratzen den arima bati! Bada, lehenbiziko kasuan, bakharrrik Faraon da garaitua, eta bigarren kasuan, etsaia bera garaitzen da. Itsasoko mirakuillu hartan, xarriotak edo orga-kara batzu izan ziren hondatuak; ordean arima bat Jainkoaganat bihurtzen denean, sentsuen nahi muthiriak eta haragiaren su guzia dire iraungituak eta suntsituak. Israeldarrak etziren behar gudukatu haragizko eta odolezko gizonen kontra baizik; ordean konbertitzen den arimak gudukatze du airetako puxantza eta ilhunbetako printzeen kontra. Lorios balin bazen, ordu hartan, Jainkoarentzat Faraonek erran zezan: goazen ihes Israeldik; ezen Jainkoa haren alde gudukatzen hari da; are loriosoago da orai Jainkoarentzat etsai gaixtoek erran diozoten elkharri: utz dezagun arima hau, diozogun ihes egin, ezen Jainkoa hunen alde agertzen da, eta gure kontra gudukatzen hari da.



## XLII. KAPITULUA

### Mana

Ex. 16.

Yuduen artean, gutien sentikorrek berak admirazionez eta bihurkudez betheak kausitu ziren atheratzeaz itsasotik, erran dugun molde mirakuilluzkoan. Kantatu zioten Moisekin batean Jainkoari esker onezko kantika eder bat: horrek irakhatsien daroku behar zaizkola eskerrak Jainkoari bihurtu egiten darozkigun ungiez; Maria, Moisen arrebak ere bildu zituen emaztekiak kantatzekotzat bozkariozko himnoak, maniureta eta gathanbore soinuaz. Israeldarrak bere etsaieen eskutarik itzuri zirenetik laster, eman zitzaizkon erauntsiari Moisen kontra, ziotelarik ezen haren-gatik zituztela heldu zitzaien atsekabe guziak. Jaunaren ministro leihal hark senti-arazi zioen populuari errenkura hek guziak Jainkoa beraren gainerat erortzen zirela halarik ere agindu zion Jainkoak emanen zioela bere populuari behar zen yatekoa. Hala gerthatu zen; arrats aphalerat, Jainkoak egorri zuen kaillazko elementia bat yuduak ziren lekhurat, eta biharamunean, yaust-arazi zuen mana lurraren gainerat; geroztik ere, egorri zioten mana hartarik, mortuan egon ziren herrogoi urthetan. Yuduak etziren guti miretsiak izan ikhustez lurra estalia zerutikako yanari hartaz: agertzen zuten espantimenduaren gainean, Moisek erran zioten mana hura Jainkoak zerutik egortzen zioten ogi bat zela; abisatu zituen ethortzeaz, egun oroz, mana hartarik biltzerat; ordean iguzkia athera gabe. Horrek erran nahi zuen, dio iskritura sainduak, ez dela gerorat utzi behar bihotza Jainkoari altxatzeko artha; aitzitik, goiz goizetik, erran nahi da, lehen-bailehen, behar dugula gure Jainkoa maitatu eta lorifikatu egin darozkigun fagoreez. Mana hura goizean behartzen bildu, ezen iguzkia aphur bat goratzerat, urtzen zen guzia. Jainkoak debekatu zituen israeldarrak begiratzeaz mana hartarik batere biharamuneko. Hortan irakhatsten zuen etzela konturik egin behar egunean eguneko baizik, eta utzi behar zela biharamunaren artha probidentziarat. Azkenean, errelijione gehiagoeekin begiratua izan zadintzat sabateko eguna, edo larunbata. Jainkoak erran zioten israeldarrei har zezatela manatik, bezperan, bi alditakotzat. Gauza miragarria! Arte hura zen bakharra zeinetan mana hura ez baitzen gaixtatzen, bi egunik barnean.

Mana hartaz aditu behar dugu, ageri den bezala, eukaristia saindua. Hala ematen daroku konprenitzerat Jesus-Kristok bere Ebanyelioan.

Zenbat ere abantailatuak baitziren yuduak izateaz fagoratuak halako yanari gozo eta misterios batez, erran behar dugu girstinoen yanaria infinituki prezagarriagoa dela. Yanari hura da zeruko mana egiazkoa, eta aingeruen ogi salbagarria. Jesu-Kristok ematen diote yanari preziatu hura Ejiptotik, erran nahi da, mundu-petik atheratzen diren arima zuhurrei; hartaz beraz konsolatzen eta borthitzten ditu bizitze huntako mortu ondikozkoan, sar daiten artean egiazko lur aginduan, zeina baida zerua. Girstinoak, zeruko yanari hartaz behar dire baliatu, bertze orduz, yuduak manaz egin ziren baino hobeki: ez dute izan behar aingeruen ogi haren-tzat, yuduek manarentzat agertu zuten desgustua. Hanbat bozkario erakutsi ondoan yanari hura eman zitzaienean, nork erranen zuen hain laster higinduko zitzaiotela, nahiagoko ere zituztela Ejiptoko phorruak eta tip-hulak ezen-ez yanari mirakuilluzko hura? Yuduak manari egin zioten idoiak erakutsten du girstino gaixtoek Jesu-Kristori egiten diotena bere sakramendu adoragarrian, atrebitzen direnean yanari sakratu hartarat hurbiltzerat frogatu gabe bere buruak, eta ungi ezagutu gabe salbatzailearen gorphutz guziz saindua: halako girstinoek baltsatzen-tuzte Ejiptoko yanariak Jesu-Kristoren ogiarekin, eta hari dire lurra eta zerua elkharrekin konpunterat.



## XLIII. KAPITULUA

### Arrokako ura

Mana zerutik yautsten hasi zenetik laster, israeldarrak gerthatu ziren Rafidin zaritzon lekhu batean urik gabe, eta egarriaz behartuak. Moisen leihaltasuna eta botherea ezagutzen eta frogatu zuten; bazakiten beraz gidari zuhur hark hetaz artha zadukala; bizkitartean abiatu ziren, egundaino bezala, gizon saindu haren kontra mintzatzen, eta erran zioten: Eman diezaguzu edateko ura. Zerentzat ilkhiazi gaitutzu Ejiptotik? Zer? Gu hil-arazteko gure umekin eta gure abereekin batean! Orduan Moisek izan zuen erreortsu Jainkoaganat, eta erran zion: Jauna, zer eginen diot populu huni? Harrikaturen nau sarri. Jainkoak ihardetsi zioen: Eman zaite populuaren buruan; eramatzu zurekin Israelgo zaharrak; har ezazu, eskutan, arribera yotzeko zinduen zigorra, eta zohazi hobereko arrokarat; yoko duzu arroka hura, eta handik atherako da ura. Moisek egin zuen Jainkoak manatu zioena; eta ordu beretik, athera ziren arroka hartarik urak hain frankia handian, non hedatu baitziren inguru guziatarat. Arroka gogor hartarik athera ziren ur hek guziek aditzerat ematen zuten Jesu-Kristo gurutzefikatuak graziazko uholdeak hedaturen zituela alde orotarat. Hura ahal da egiazko harria, ematen dituena, bizitze huntako mortuan, bere populuaren egartsua hil-arazteko gai diren ur dohatsuak, eta oraino sor-arazten dituena arimetan bertze ithurburu batzuek atherarazten dituztenak penitentziazko nigarrak bihotzik gogorrenetarik.

Handik ondoan, israeldarrak aurkhitu ziren Kadesko herrian, zeinetan hil eta ehortzi baitzen Moisen arreba. Yarri ziren, ohi bezala, Moisen kontra erasten: uraren eskasia berak ahantzarazi zioten bere buruzagiari zor zioten errespetua: bere errenkurak hain urrun zaramatzaten non nahi baitzuten harrikatu Moise, eta orobat Aaron: bata eta bertzea goan ziren tabernaklerat; yarri ziren ahuzpez Jainkoaren oinetan, eta eman zuten arimen artzainek populuaren alderat behar duten eztitasunaren etsenplu miragarri bat. Jainkoari miserikordia galdetzen diote hain zuzen kontra persekutatzan zituzten, yazarri ere nahi zioten bihotz gogor eta esker gabe batzuen fagoretan; maite zituzten berak higin zituztenak, othoitz egiten zuten berak galdu nahi zituzten berentzat.

Moisek, arroka zigorraz yorik, urak handik ilkhi-arazteko egin zuen mirakuilluan, bada gauza bat atenzione berezi bat galdetzen duena. Bi aldiz yo zuen arroka, fida izan ez balitz bezala atherako zela handik urik.

Jainkoak gaitzetzi zuen fidantzia eskas hura, eta erran zioen Moisi, haren punimendutan, etzela sarthuren haren populuari primuzatatzat agindu zioen lurrean. Hortik hartzen du san Gregoriok Jaunaren yuiamenduak ungi adoragarriak behar direla, eta ikharagarri dela ikhuslea gizon saindu hura, gauza guzietan hain leihal agertzen zena, populu esker gabe bat hanbatetan Jainkoarekin baketu zuena, bera punitua fidantzia eskas arin batengatik.



## XLIV. KAPITULUA

### Amalek desegina

Exod. 17.

Amalezitarrak izan ziren lehenak atrebitu zirenak gudu ematerat Jainkoak hain lorioski Ejiptotik libratu zuen populuari. Etsai kruel hek, ikhususirik yuduak nekheaz hebainduak zirela, eta gosez eta egarriaz bertze alde, armarik ere etzutela, aski laxoak agertu ziren nahi izatekotzat oraino gehiago beheratu yende batzu, ziren estatu tristean, mundu guzieren urrikalmendua merezi zutenak: baliatu ziren gerlako imintziona guziez yazartekotzat armatua etzen populu hagarandu bati: erori ziren, bet-betan, yuduen gainerat. Moisek Jainkoa baitan zaduzkan bere indarra eta fidantzia. Armada haren nonbreak eta ospeak etzuten batere izitu. Erran zion Josueri hauta zetzala, populu gutzian, bihotzik gehien zutenak; bazohala bera Aaron eta hurekin mendi gorarat, eta seguratu zuen berak eginen zuela, handik, behartzen guzia. Hasi zenean gudua, eta Josuek animorekin ihardukitzen zuen denboran amalezitarren kontra, Moisek altxatu zioen bere bihotza Jainkoari, eta hedatuak zaduzkan bere besoak, egiten zuelarik gure etsaientzat, egun batez, hain salhagarri eta ikharagarri behar zen gurutzaren seinalea. Gizon saindu hark irakhatsi zioten yuduei, lehenbiziko gudu hartan; garaitia Jainkoaren nahian datzala, eta haren beso botheretsuaren azpian humilki beheratzen direnentzat dadukala. Moisen eskuak zauden bethi zerurat altxatuak: errekeritzen zuen amadetako Jainkoa arren fagora zetzan bere populua armak. Hala zagoen denbora guzian garaitiar ziren israeldarrak; ordean eskuak aphur bat beheitzen zituenekotzat, ordainez, amalezitarrek zaramaten garaitia. Aaronek eta hurek hori ikhusi zutenean, eta Moisek ezin gehiago atxik zetzakela besoak altxatuak, yar-arazi zuten harri baten gainean, eta berek iduki ziotzoten airean besoak, Josuek arras desegin zetzan artean amalezitar guziak. Jainkoak manatu zituen yuduak emateaz, haren ohoretan, ezagutzazko seinale bat bethi iraunen zuena, eta egiteaz yuramentu sesurik gabe persekutaturen zituztela amalezitarrak, sartuko zirenean agindu zioten lurrean.

Hemen Jainkoak irakhatsten daroku molderik hoberena etsaien garaitzeko othoitzza dela. Gizonen egin ahal guziak alferretan dire ez badi-re othoitzaz lagunduak. Josuek eraman zuen garaitiak erraten daroku beraz yaidura handi bat izan behar dugula othoitzarentzat, eta beregainki

arimeen artzainek mundu-petik urrun bizi bebar dutela: maitatu behar dutela erretiramendua, eta othoitzean egon behar dutela, bere egin ahal guzian. Maite badituzte bere populuak, behar dituzte lagundu bere othoitzeez. Hura ahal da egin diozoketen fagorerik handiena. Arimeen artzainek utz diozokete bertze bati, kanpotik behar den artha; ordean othoitzaz bezanbatean, hura da gauza bat berei datxeikona, eta othoitz bakharrarekin egiten dute bertzek egin ahal dezaketen baino hainitz gehiago. Garaitua izanen zen Josue, Moise ez balitzaio eman othoitzari: amalezitarrek iharduk zezaketen armada oso baten kontra; ordean Moisek errexki garaitu izan zituen bere othoitzeez; erran nahi da beraz, gizon bakhar bat, nekheak hurrendua zena borthitzago izan zela othoitzaren laguntzarekin, ezen-ez armada handi bat bere arma eta indar guziekin.



## XLV. KAPITULUA

### Lehenbiziko tablak

Exod. 19.

Jainkoak, bere populua Faraonen gathibutasunetik libratu zuenetik hirur ilhabeteren buruan, galdetu zuen Moise, eta manatu zion errateaz populuari zer moldez athera zuen Ejiptotik, eta adiarazteaz baldin izan nahi bazen leihal haren alderat, eta nahi balin bazituen haren manuak begiratu, behaturen zioela bethi bere primuzari gisa, eta hari konsekratua izatekotzat, mundu guzian bereziko zuen populu bati bezala. Moisek erran ziotzon populuari Jainkoak manatu ziotzonak. Guziek ihardetsi zuten, boz beraz, eginen zutela Jainkoak manaturen ziotena. Gizon saindu hark deklaratu zioenean Jainkoari populuak erakutsten zuen sumetimendua, Jainkoak erran zioen adiaraz ziozatela guziei prest egoteaz, hirur egunik barnean, eta mintzatuko zitzaiera Sinaiko mendi gainetik; erran zioen oraino ezartzeaz muga harriak mendiaren ingurutan, eta debeka zezala populua heien iragatetik, non ez, bizia galdu behar zela. Moise yauts zen menditik, eta egin zituen Jainkoaren erran guziak. Hirurgarren egunean, argia agertzearekin, entzun izan zen mendi gain hartarik ozpin eta ihurzurien harrabots handi hat. Xismixtek hedatzen zuten argi bizi bat bazter guzietarat, eta hedoi lodi batek estaltzen zuen mundu guzia; entzuten zen, denbora berean, tronpeta soinu harramantza handi bat. Laztu izan ziren israeldar guziak, eta Moisek etzituen errexki ilkhi-arazi bere lekharik hurbil-araztekotzat Jainkoagana. Baratu ziren mendiaren behean: mendi hark, sutan zirurien zela; altxatzen zen handik khar bat sutan datzan labe batetik ilkhitzen den bezalakoa. Populuak urrundarik entzuten zituen Jainkoak, bere ahoz, ematen ziotzan hamar manamenduak. Xismixta bizi hek ikharan zadukan bat bedera. Beldur ere ziren hil, baldin Jainkoa mintzatzen bazitzaien gehiago. Arrazoin hortaz, populuak othoitztu zuen Moise bera mintza zakion, eta erran ziozon, Jaunaren partez, manatu nahi ziotzon gauza guziak. Horra nola izan diren publikatuak, lehen aldikotzat, Jainkoaren hamar manamenduak, zeinak baidire lege guziz saindu batzu. Egiazko giriztinoek behatzen diote, zuzen den bezala, hamar manamendu hei, gure erreljionearen azentu ezin kordokatuzko baten oinean, eta badakite manamendu hetarik bakhar bat hautsten duena, hobendun dela bertze guziez.

Elizako aireen nahia izan da yuduek Jainkoaren manamenduak entzutean izan zuten izialduratik kutsu bat bederen hel zadin gutarat, eta ikhara gaiten beldurrez den gutiena, kolpa manamendu heien saindutasuna. Denborak eta gaixtakeriak, lehen yuduen artean bezala, orai ere, giriztinoen artean, hainitz estakuru sor-arazi dituzte Jainkoaren manamenduen konplizetik urrun-araztekotzat. Estakuru ondikoizko hek antzerekin dire asmatuak: gizonak, bere lazokerian idukitzeko osoki dire, iduriz gaiak; ordean ez bekigu behinere ahantz salbatzaillearen errana. Seguratzan gaitu lege saindu hetako hitzik ttipiena bera behar dela izan leihalki konplituua. Irakhatsten daroku oraino manamendu hei behar zaiela behatu errespektu bethi berri batekin. Eta egiaz, giriztinoak ez dire orai gathibu, yuduak ziren bezala: ez dute erraten lehenago yuduek ziotena. Urrun bekigu Jainkoa, ez bekigu bera mintza hil ez gaitezentzat. Egiazko giristinoek atsegin dute, aitzitik, Jainkoa mintza dakioten: badakite haren hitzak biziaren hitzak direla, eta gantzadura gozo bat berekin dakharketela. Hargatik ere, dire ekharriak gogotik eta plazerekin konplizterat, Jaunaren manamendu sainduak. Urrun da behatzen baidiote lege salbagarri hei, yuduek gisa, ezin yasanezko ustari pisu bati bezala.





## XLVI. KAPITULUA

### Urrezko xahala

Exod. 32.

Yuduek eman zutenean erakutsterat nahiago zutela Moise mintza zakioten, ezen-ez Jainkoa bera, nausi soberanoak iragan-azi zuen gizon saildu hura mendiaren gainerat, eta egin zuen yakintsun haren populua- ren gobernatzeari zagozkon lege sailduez: emanak ziren hanbat zuhur- tziarekin non populuen gisa guzietako gidariek kausi baidezakete hetan zertaz probetxa. Jainkoak nahi izan zuen Moise geldid zadin ber-bera hare- kin, berrogoi egunez eta berrogoi gauez, mendiaren gainean. Deklaratu ziotzonean bere nahi guziak, egorri zuen bere populuaganat, emanik bi tabla, bere Jainkozko erriaz iskribatuak. Tabla hetan ziren ezarriak Jain- koak populua aitzaingean aipatu zituen hamar manamenduak, eta manatu zituen gauza guziak. Ordean populua egundaino bezain sorraio eta sinhets gogor, agertu zen Moise berantetsirik, goan zitzaien Aaroni eta eragin zioten, bortxaz, urrezko xahal bat; hortarakotz, yuduek eman zituzten bere emazteen, beharritakoak, edo petentak, eta adoratu zuten idol hura allegrantzia handirekin. Moise yautsi zenean menditik Jainkoak berak iskribatuak ziren bi tableekin, entzun zuen bihotz minekin orduko haro handia; eta aphur bat hurbildu zenean, ikhusi zuen urrezko xahala, eta haren ingurutan egiten ziren dantza erhoak. Orduan haren bihotza izan zen sustatua khar saildu batez, zeinak artik-arazi baitziotzan lurrerat bi tablak; eta izan ziren hautsiak mendiaren behean. Alferretan zaduz- kan Jaunaren legeak harriaren gainean ezarriak, ya bihotzetik kanpoan balin baziren. Etzitzaion iduritzen arima ganbiakhor hek gai zirela ohora- tuak izateko Jainkoaren manuez. Hartu zuen populuak adoratzan zuen xahala, erre zuen guzien aitzaingean, eta ezarri zituen hautsak urean; gero edanarazi zioten ur hartarik israeldar guziei. Moisek irakhatsten zio- ten, horrela eginik, zein gauza arbuia garria zen hek adoratzan zuten urrezko xahala: gaitzitu zitzaion Aaronen ez gibel-arazteaz gaizki hek guziak; eman zen, israeldarren kanpatik hurbil, eta abiatu zen erraten, oihuz: Jainkoari yarraiki nahi direnak eman beitez enekin. Berehala Lebi- ren tribua edo populua bildu zen Moiseen ingurutarat: gidari saildu hunek erran zioten populu hartako guziei, har zetzatela bere ezpatak, zohazela eta bihur zitezela kanpan gaindi; hil zetzatela bathuren zituzten guziak nihor guphidetsi gabe, ez adiskiderik, ez ahaidetik, ez anaiarik, ez

eta umerik. Lebiaren tribuak konplitu zuen khar handirekin Moiseen manua, eta hil izan ziren sarraski hartan hogoi eta hirur milla gizon. Moisek benedikatu zuen, ordu beretik, Lebiaren populua, eta erran zioen etzuela Jainkoa damutatu odol isur-arazte hartaz, aitzitik, konsekratu zio- tzala bere eskuak.

San Gregoriok ematen dio khar hari bere admirazionea: uzte du eskola handi batentzat balia dakioketela aita ez antsiatu batzuei, zeinak herabe baidire ematerat abisurik ttipiena bere umei, ikhusririk ere phulun- patuak direla munduko amudioan eta gaixakerian, mundu hau egiatzko idolatria bat den denboran. Lebiten maite zituzten bere umeak, guziare- kin etzituzten guphidetsi; gabetu zituzten biziaz ihardetsekotzat Jainkoa- ren manu hertsuari; eta guk, maitatzen ditugu gure umeak, nola? Haragia- ren araberako amudioarekin, ez ditugu korreyitzen beldurrez damurik hei egin. Bizkitartean amudiorik amultsuenak berak badu bere gisako hase- rradura bat. Ez ahal da aitarik bere umea maite duenik Moisek bere popu- lua maite zuen bezanbat; ezen nahi zuen izan borrotua biziaren liburutik, eta galdu bere bizia begiratzekotzat bere populua: bizkitartean, eta bere amudio handi guziaren erdian, hil-arazten ditu hirur hogoi eta hirur milla gizon bere populu maite hartarik. Barnean erreza zadukan amudioa- ren sua konpuzten zen miragarriki yustiziaren alderat zuen leihaltasuna- rekin. Zenbatenaz baitzen Moise beldur Jainkoaren kolera sailduaz bere umeentzat, hanbatenaz lehiazten zen heien hartarik begiratzetat; horra zergatik zuen berak artha zorrotz bat hekien gaztigatzeko garratztasun etsenpluzko batez.



## XLVII. KAPITULUA

### Bigarren tablak

Exod. 34.

Moisen bihotza zaurthua zatzen damurik minenaz ikhustez haren populuak egin zuen gaizki handia idolatrian erortzean. Bildu zituen, biharamunean, ziren guziak: ezagutarazi zioten bere hoben ikharagarria, eta erran bazohala Jainkoaganat nahiz aphazegatu haren kolera saildua, hanbat merezitu zutena. Humiliatu zen Jaunaren aitzinean bera izan balitz bezala yudu guzien bekhatuaz hobendun bakharra, eta ikhara guziarekin galdegin zuen halako sakrilio baten barkhamendua. Karitateak izan-arazi zion Moisi gaitz handi hari zagokon erremedio bat: eman zuen bere burua hobendun heien baltsan, eta nahi izan zen biziaren liburutik khendua bere populuarekin batean molde huntan, hertxatu bezala zuen Jainkoa barkhatzerat hobendun hei guziei, faltiar etzen batengatik; eta Jainkoak nahiago izan zituen guphideti gaixtagin guziak ezen-ez, heien baltsan, gal-arazi hobenik gabe zen bat. Jainkoak egorri zuen Moise bere yendetarat, erraterat emanen ziotela agindu zioten lurra, zeren gogoan zakharzken heien arbasoak; ordean etzela bera hetarako gehiago, zeren ziren buru gogorregiak, eta beldur baitzen heien gogortasunak erakhar zezan azkenean, heien arras gal-arazterat. Jainkoak manatu zioten yuduei utzteaz bere berregintza guziak, bere urrikiaren seinaleztat, eta Moisi, egiteaz bi tabla, harri pikatuz, hautsi zituen lehenbiziko heien iduriak. Moisek egin zuen manatu zitzaion bezala, eta argitu gabe, igan zen bere bi tableekin Sinaiko mendi gainerat. Han eman zituen berrogoi egun othoitzean. Yarri zen, ahuspez, Jainkoaren maiestate sailduaren oinetan, zeina agertu bait zitzaion, hedoi batean, mendi haren gainean; eta errekeritu zuen populu hari barkhatzeaz bere bekhatu guziak. Jainkoak arraiki hartu zuen Moisen othoitza, eta agindu zion bere laguntza. Yuduen gidari zuhur hark iragan zituen berrogoi egun eta berrogoi gau, batere yan gabe, entzuten Jainkoak gerokotzat eman nahi ziotzon manu guziak; bihurtu zen gero bere populuaganat, Jainkoak bere erri sailduz iskribatu zituen bi tablekin. Ala ordean miretsiak izan baitziren guziak ikhustez Moisen arpegia edo bisaia arrairoz bethea, berak yakin gabe! Etzen bat atrebitzen hari hurbiltzerat; Moisek, hori ikhusirik, berak deithu zituen, eta egin zituen yakintsun hei errateko ikhasi zituen gauza guziez. Mintzo zitzaie-nean, estalia zadukan bere arpegia, zinetan gelditu baitzen zigillatua

arraiozko distadura bat, Jainkoarekin izan zuen treberasunetik heldu zitzaioena. Estalki hura iduki behar izan zuen bethi bere arpegian, khentzen zuen bakharrik tenpluan sartzen zenean Jainkoari mintzatzekotzat. Horrela egitean, Moisek irakhatsten diote elizako artzain guziei ez dituztela behar predikatu egia sailduak, edozein aphaindurekin, bainan bakoxtaren hedaduraren arabera.

Hunela bethe zen lehenbiziko tableen eskasa. Jainkoak barkhatu zioen populuari, Moiseen othoitzetarat, eta zigillatu zituen bere erri sakratuaz harriaren gainean, bigarren aldiaren eman zituen manamendu sailduak.

Jainkoak, ordu hartan, agertzen zuen urrikalmenduak erakutsten du arima penitentari egiten dioen grazia miragarria; ikhusten duenean bihotz bat bere erorikoez zaurthua dena, Zigillatzen du haren ariman bere lege sailduaren bothere miragarria, bekhatu guziak borratzen dituen. Ordean Jainkoak eman zioen Moisi erakutsterat hulako graziak ez direla errexki ardiesten; hargatik ere aphain-arazi ziotzan berari bigarren tablak. Horrek erran nahi zuen bekhatoreak edireten duela gaitztasun bat, berriz irabazi nahi duenean Jaunaren amudio saildua, bere bekhatuez galdu izan duena. Probidentzia guziz zuhurrak nahi du gaitztasun hark berak iduk dezan bat bedera ernetasun handiagoan, eta erakhar dezan maiteki begiraterat nekhearekin eta penitentziaren bidez, Jaunaren miserikordiatik ardiesten dituen grazia preziatuak.



## XLVIII. KAPITULUA

### Tabernaklea eta allientziako arka

Exod. 27.

Moisek eraman ziotzan beraz populuari legearen tablak. Ikhusi zue-  
nean bere mundua ekharria zela Jainkoari leihalki obeditzerat, eman zen,  
oso-oso, egin bidetan obratzeko Jainkoak manatu ziotzanak, mendi gai-  
nean egon zen berrogoi egun hetan. Batere lanari lothu gabe, bil-  
arazi zuen populua, eta egin zuen yakintsun Jainkoak egiteko manatu ziotzon  
gauza guziez, nahiz bakoetak eman zezan, bere araberrako laguntza, han-  
bat obra egitekotzat. Moise mintzatu zen bezain lasler, israeldarrek ekha-  
rri zituzten bere edergaillu baliosenak; emaztekiek ere ez zituzten guphi-  
detsi bere beharritakoak, brazeletak, errestunak, ez eta bere yarrorik abe-  
ratsenak. Populuak eman zituen oraino estofa zituen ederrenak eta urrin-  
onak. Jainkoak hautatu zituen Beseleel eta Ooliab obra guzieren aitzindari-  
tzat, bethe ere zituen bi gizon hek bere izpiritu sailduaz eta zuhurtziaz.  
Hunenbat ontasun ekharri izan zen, non Moisek eragin behar izan bai-  
tzuen oihera nihork gehiago deusik ez ekhartzeaz. Lehenbiziko obra izan  
zen tabernaklea.

Huna nolakoa zen: bazituen hogoi eta hamar beso luzetasunean, eta  
hamar zabaltasunean: taulak zituen asentutzat, eta dela barnetik, dela  
kanpotik, estalia zen estoferiez: barnekoak ziren den baliosenak, eta kan-  
pokoak ziren larru, denbora txarrari ihardetsteke on zirenak. Barneko  
estoferian ikhusten ziren kerubinak eta plumaia broderian ezarriak; eta  
larru hek guzieren elkharriz zatxeizkon errestun, antze miragarri harekin egi-  
nez. Baziren lau estalki emanak, elkharren gainzka, uritik hobeki begira-  
tzekotzat. Tablak urrezko errestunez zatxeizkon bata bertzeari, eta heien  
artetarik ziren emanak hagak, orobat urrezkoak, hetaz altxatzekotzat  
tabernaklea behar zenean lekhu aldarratu; baziren, bertze alde, zilharrez-  
ko pausa-tokiak, arka segurkiago izan zadintzat heien gainean ezarria.

Egin zenean tabernailea, Jainkoak manatu zuen moldean, Moise  
abiatu zen berehala arkaren egiten. Arka hark zadukan laburzki yuduen  
erreljione guzia; eta hura, lekhu ohorezko batean ezartzeagatik, egin izan  
zen beregainki tabernaklea. Yuduek behatzen zioten arka hari, zuketen  
gauzarik preziatuenari bezala. Iskritura sailduak deitzen du arka hura  
Israelgo ohorea eta popularen indarra. Bi beso eta erdi zituen luzetasu-  
nean, beso bat eta erdi zabaltasunean; eta bertze haren bertze goratasu-

nean. Egina zen ezin uztelduzko zur batez, zeina baitzen horratua kan-  
potik eta barnetik, urre garbizko zathi lodiz. Arkaren gaina etzen zura,  
bainan zen urrezko mahain bat, arka hera bezain handia. Estalki hari zari-  
tzon, propizatorioa, erran nahi da, fagoratzeko lekhu. Handik ematen  
ziotzon Jainkoak bere orakleak populuari, haren alde zenean, eta haren  
othoitzak onhetsten zituenean harekin bakhetekotzat. Propizatorio  
haren gainean zauden bi kerubin, elkharriz behatzen ziotenak: hedatzen  
zituzten bere hegalak, arkaren luzetasunean, baliatzeko bezala tronutzat  
Jaunaren majestate sailduari: hortik heldu bide da iskritura sailduak maiz  
aiphatzen baiditu kerubinak, eta erraten baidaroku Jainkoa heien gainean  
datzala yarria. Arkaren lau burutan, Jainkoak eman-arazi zituen urrezko  
errestunak eta eragin zituen hagak, Setimgo zurez, urrea zariotenak. Haga  
hek zauden bethi lau errestun hetan sartuak erabiltzekotzat arka, kanpak,  
erran nahi da, populua nihorat behar zueneko. Jainkoak nahi izan zuen  
konsekra zakion arka hura, eta ez zadin eman haren barnean bertze deu-  
sik, lekhat, legearen tablak: hortik heldu da arka deitzen baitzuten, lek-  
hukotasunaren arka, ezperen, allientziako arka. Ezarri zituzten arka har-  
tan mana guti bat eta Aaronen zigorra.

Horrela Jainkoak eman zion bertze orduz, populu harro bati, bere  
debozionearen objet ageri bat, haren flakiteari zagokona. Ordean arka,  
egiazkoa zeinetan orai, lege berrian, Jainkoak lakhet baidu egotea, da giris-  
tino leihalen arima; zeren haren lege saildua zigillatua baidatza heien  
bihotzetan, tabla bizietan bezala, eta zeren arthoski begiratzen baidute  
manaren grazia heien arimak hazten dituen.

Arka estaltzen zuen propizatorioak Jesus-Kristo erran nahi zuen:  
eta egiaz, J. D. Paulek dioen bezala, salbatzaille amultsua bethi gure lagun-  
tzerat dago, eta baketu izan gaitu bere aitarekin. Gizonaren dohatsutasu-  
na! Gure Jesus maitea idireten da girstino leihalen arimetan, eta yauts-  
arazten ditu heien gainerat zeruko dohain preziatuenak.

Propizatorio hark bazituen, egia da, kerubinak; ordean san Augus-  
tinek, maiz aski dioen bezala, girstinoak berak dire kerubinak bere kari-  
tatearen bethetasunaz, zeinaren bidez egiten baidire Jainkoaren egoitzak  
eta tronuk bezala. Beraz girstinoek ikhustean nolako ohoretarat Jainko-  
ak altxatu dituen, arbuiatu behar dituzte munduko handitasun ez deusak;  
eta nola munduak ez baidu merezi eman diozoten konturik, harenganik  
hastantzerat egin behar dute: molde huntan, bethi izanen dire santuario-  
aren pare, Jainkoak atseginekin eginen du heien bihotzetan bere egoitza  
saildua. Egiazko girstinoak beiratu behar dire atzartasunekin egitetik,  
lehenago Jainkoaren tenpluaren etsaiek egin izan zutena, atrebitu zirenean



ezartzerat arka saildua Dagonen idolaren aldean: gauza bera, dio san Augustinek, egiten dugu guk ere, konpuntu nahi ditugunean munduko banitatea Jainkoaren egjarekin, eta etsai gaixtoei bihurtzen diotegun ohorea, Jesu-Kristori ekharri behar diogunarekin.

## XLIX. KAPITULUA

### Proposizioen ogiak

Exod. 25.

Akhabatu zeneko allientziaren arka, Moisek egin zuen mahain hat, Jainkoaren manuaren arabera. Mahain hura zen eгина ezin gal zitekeien zur batetarik; urrez inguratua zen alde guzietarik: bazituen bi beso luzetasunean, beso bat zabaltasunean, eta beso bat eta erdi goratasunean. Jainkoak eman-arazi zuen mahain haren inguruan, urrezko khoroa ttipi bat, eta khoroa haren azpian ziren urrezko lau errestun zeinetarik sartzen baitziren haga hatzu, urrez estaliak, erabiltzekotzat mahain hura kanpak, erran nahi da, populuak nihorat behar zuen guzian. Mahain haren gainean behar zitzaizkon bethi Jainkoari ofrendatu ogi batzu, proposizioneko ogiak deitzen zirenak. Baziren ogi hetarik hamabi: ezartzen ziren, seira, mahainaren bi aldetan, eta ziren eginak irinik garbienaz, olioarekin baltsaturik. Ogi hek ganbiatzen ziren, azte guziez: urdintzen zirenean, ematen zituzten ordainak, freskoenetarik. Aphezei zitzaien bakharririk zilhegi yatea khentzen ziren ogi hetarik, eta oraino, heien saildutasuna erakustetekotzat, lekhu sailduan yan behar zituzten. Jainkoak manatu zion Moisi eragiteaz thoki ttipi batzu urrez, ogi hekientzat, eta heien emateaz mahain gainean; erran zioen oraino eragin zetzala urrezko estalkiak ogi thokientzat. Jainkoak manatu zuen, bertze alde, ezar zadin bi ogi thoki ttipi hetarik bakotxaren gainean yarro bat, inzensurik hoberenaz bethea, handikako khea hel zadintzat zerurainokoan, eta ogi hek izan zitezentzat, molde hartan, Jainkoari konsekratuak. Horra nolakoa zen populuak, nihoiz baratu gabe, Jainkoari ofrendatu behar zioen sakrifizioa. Bethiereko sakrifizio hartaz populuak erakutsi behar zuen Jainkoaren alderako bere ezagutza yustua; aithortu behar zuen humilki zituen ontasun guziek haren miseri-kordia infinitutik zaduzkala. Hamabi ogi hek nahi zuten erran Israelgo hamabi tribuak edo populuak. Jainkoak nahi zuen populu hetarik bakotxak ikhus zezan zenbat zen zordun haren alderat, eta guziek, batean emanik, beha ziozoten haren majestate soberanoari bere ontasun guzien ithurburuari eta emailleari bezala.

Jainkoak orai ere ezagutza eta aithor bera galdetzen ditu giristinotarik, hanbatenaz zuzen gehiangoekin, zenbatenaz egiten diotzaten emaitzak eta grazia infinituki handiangoak baidire; eta egiaz, giriztinoek badute proposizioneko bertze ogi bat, zeina baida Jesu-Kristo mahain sailduan:



hura bera ofrendatzen diote Jainkoari eskerren ematekotzat: gehiago dena; salbatzaillea bera ofrendatzen zaio den guzia, bere aitari aldare sainduan, eskerren bihurtzekotzat elizaren gainerat hedatzen dituen dohain eta fagore guziez; hargatik ere deitzen da zeruko ogi hura, eukaristia. Irakhatsten daroku Jainkoari eskerrak bihurtzen, ez ogi harro eta arrunt batengatik, ez eta lurreko ontasunengatik, bainan bai grazia eta ontasun gorde eta izpiritualengatik. Grazia heien emaille saindua gure aldareetan datza izatekotzat gutaz adoratu, eta nahiz hazi gure arimak. Zeruko ogi salbagarri hura ez da bakharrik aphezentzat, proposizioneko ogiak ziren bezala; ematen zaie giriztino guziei; izan behar dire beraz izpiritu beraz animatuak, guziek gorputz bera eta ogi bera egin behar dute: kausitu behar dire, izpirituz eta bihotzez, Jesu-Kristorekin aldarean, harekin bat bezala eginik. Ofrendatu behar diotzogu gure buruak aita eternalari haren seme maitearekin batean. Konsekratu behar gaizko gure salbatzaille adoragarriari bere amodioaren sakramenduan: aurkhitu nahi baditugu egiazko ontasunak eta ohoreak, bilhatu behar ditugu, ez munduko nahikaretan era haren emaitzetan, bainan khartsuki maitatzean ontasun eta zorion guzien ithurburu sakratua, Jesus guziz maitagarria; eta maiz eta sainduki haztean mahain sainduan gure arimak haren gorputz adoragarriaz.

## L. KAPITULUA

### Urrezko kandelera

Exod. 25.

Gauza guziak ziren miragarriak Jainkoak bere ohoretan, eragin zuen tabernaklean. Guziarekin erran daite han gehienik distiatzen zuena, zela urrezko kandelera. Jainkoak berak irakhatsi zuen nola behar zen izan egina. Behar zituen sei gidar, birazka ilkhiko zirenak hek zaduzkan zuraren bi basterretarik: zura bera behar zen baliatu zazpigarren gidartzat. Gidar hek guziak edertuak ziren, elkhari, antze miragarri batekin zatxeizkon, sagar ttipiz eta lore bereziez. Zazpi gidar heien azpian Jainkoak eman-arazi zituen zazpi lanpa, orobat urre garbienaz eginak, eta manatu zuen populuak artha izan zezan ofrendatzekotzat tenpluan lanpa hetako azitun edo olib-olio den hoberenetik. Aphez-handia zen bakharra hek biztu behar zituena argi zezatentzat, gau guzian, tabernaklean. Zazpi lanpa misterios hek aria handi bat dute Apokalipsean ikhusten denarekin. Irakhurtzen da liburu saindu hartan, Jesu-Kristok, lorioski zerurat higan eta, atseginekin erraten duela, zazpi lanpen erdian datzala. Lanpa hek dire, haren erranaren arabera, elizak eta elizetako buruzagiak.

Jainkoak, lege zaharrea berean, erakutsten zuen nolakoak beharko ziren lege berriko ministroak. Berei erran daroe biztu izan dituela lanpak bezala, ez gorderik egoteko lekhu ilhunean, bainan bai etxean argitzeko. Nahi du lanpa hauk izan daiten biztuak eta distiantak: horrek erran nahi du, Jaun-doni Batistaren arabera, aphezek behar dutela bere dignitate errespektagarria distiarazi gizonen begietan, heien bihotzak sustatzen dituen Jainkoarenganako amodio egiazko batez: Izpiritu sainduak behin biztuz geroz, bere su salbagarriaz heien barneak, ez dute utzi behar zeruko su dohatsu hura behinere iraungitzerat, oraino gutiago hiltzerat, gizonek zer nahi egin ahal dezaketeien hortakotzat. Munduak, dio san Paulinek, lakhet du azpikoaz gora itzultzea probidentziaren arrimu zuhurra; asko aldiz, ezartzen ditu kandelaren gainean lanpa kherik baizen ez dutenak, eta gordetzen ditu gaitzeruaren azpian lanpa biztu eta argi eder bat hedatzen dutenak, eta bertzeak ere bitz-araz detzaketenak. San Gregoriok ere ederretsi du kandelera miragarri hura. Obra haren solidotasunetik hartzen du elizako artzain guziek izan behar dutela fermutasun saindu hat, eta atzarriak egon behar dutela beldurrez Jainkoak aldara dezan heien kandelera bere lekhitik. Mehatxu hau bera, irakurtzen da Apoka-



lipsean, egin zioela bertze orduz, aphezpiku bati. Elizako artzainek ezin dukete fermutasun hura Jesu-Kristoganik baizen. Hura da guzizko harroina: hari datxeizko gidar eta aldaska guziak: Ezin dukete bere baitarik, iraupenik batere: salbatzailleaganik behar dute bere indar guzia. Arimeen artzainek, Jesu-Kristori balin badatxeizko, ez dute, dio san Gregorio berak, zeren izan deuseren beldurrik. Munduak, egia da, asko egin dezake heien barneko su saindua iraungitzekotzat; ordean haren egin ahal guziak alfer izanen dire: Jainkoak ezarri dituen bezala bere elizan, lanpa batzuen pare, bertzeen argitzekotzat, hark berak orobat borthitzturen ditu bere grazia sainduaz, eta izanen dire fermu eta tieso Jaunaren etxean, munduko asaldura guzien erdian.

## LI. KAPITULUA

### Urrin-onen aldarea

Exod. 30.

Eman izan zirenean tabernaklean, Jainkoak han emateko Moisi marratu ziotzan gauza guziak, gizon saindu hark eragin zuen aldare bat, urrin onen aldarea zaritzona, zeren hartan bethi, ofrendatzen baitzitzaion Jainkoari urrin-ona. Aldare hura zen egina Setingo zurez: luze bezain zabal zen. Beso bat eta erdi zautzkan luzetasunean eta zabaltasunean, eta bi beso goratasunean. Jainkoak berak irakhatsi zuen aldare haren gainean ofrendatu beharko zitzaizkon urrin onen, aphaintzeko moldea. Aldare hura zen ezarria tabernaklean, Jainkoak arkaen aitzinean eman-arazi zuen estalkiari zatxeiskola, proposizionen ogiak zaduzkan mahainaren eta urrezko kandelaren erdian. Jainkoak eragin zuen oraino bertze aldare bat aperikuan eta tabernaklearen aitzinean. Etzen denbora txarraren gerizean, etzelakotzat baliatzen sakrifizioen erretzeko baizik. Deithzen zuten holokausten aldarea. Luze bezain zabal zen. Bortz beso zaduzkan luzetasunean eta bertze haren bertze zabaltasunean: hirur beso zituen goratasunean. Setingo zurez zen egina, estalia, alde guzietarik, kobre lodiz: haren gaina zen estalia burdinez, zeinen azpian baitatzan su-thoki ttipi bat beso bat eta erdi gora zena. Heltzen zen aldarearen erdirainokoan. Aldare hura etzen sendoki egina, hutsa zuen barnea, eta horkan bertzelakoa edireten zen, Jainkoaren manuaren arabera, egin behar ziren aldaretarik populua lekhu berean egoteko zenean; ezen populua higitu behar etzenean aldareak sinki eginak izan behar ziren, erran nahi da, lurrez eta harri harroz. Ordean holokausten aldarea egina zen erabil, eta lekhuz aldara zitekeien bezala, populuak nihorat behar zuenean.

Bi aldare hek ematen zuten erakutsterat, san Gregorioren arabera, lege zaharretik beretik, nolakoak izanen ginen lege berrian, eta edirenen zela bethi eliza sainduan batzutarik eta bertzetarik; izanen zirela penitentak eta inozentak. Bi aldare hetarik bat zatzan tabernaklearen barnean, eta bertzea, hartaz kanpoan, penitentek ezagut zezatentzat etzirela oraino aski garbi sartzeko tenpluan. Aldare hetarik bat zen egina aziendeen haragien erretzekotzat. Aldare hark irakhatsten daroku penitentek, nolazpait ere, imolatu behar diotzotela Jainkoari bere buruak, erretzen direlarik haren alderako suaz, holokausta bat bezala. Bertze aldarean erretzen ziren urrin-onak altxa zitezentzat zeruraino intzensuaren urrina eta khea, zei-





nek erran nahi baitzuten arima sailduiek khartsuki maitatzen eta othoitzten dutela Jainkoa. Molde huntan, aldare hetarik bat datza dolhamenetan bizi direnentzat, orhoitzean bere bekhatez izan behar duren urriki minaz. Bertze aldarea datza lehen bai lehen Jainkoaz gozatzeko hirritsa saildu batean direnentzat. Erran daite aphezek lehenbiziko aldarearen lekhu dadukatela zinki ematen diotzotenean gaixtaginei begitarat bere bekhatu guziak, nahiz sor-arazi urriki saildu bat heien bihotzetan. Erran daite orobat aphezek bigarren aldare haren lekhu dadukatela iragan-arazten dituztenean penitentzia salbagarri batetarik Jainkoaganat bihurtu nahi diren arima zuhurak, eta lehiatzen direnean sor-arazterat heien baitan fidantzia ezti bat eta ikhara saildu bat. Zer konsolamendu ez dure ardietsen horrela hartzen diren Jaunaren ministroek! Erakhartzen tuzte salbamenduari zinez, lothzen zaizkonak isurtzerat nigar oraino gehiago Jainkoarenganako amodioaren gaindiduraz, ezen-ez bere bekhatez berez.

Aipatu ditugun bi aldareak zenbat baidirudite elkharrekin guti konpuzten direla, erran daite bizkitartean baterat dohazela. Batean nola bertzean Jainkoa ohoratua eta adoratua edireten da, eta biek Izpiritu sailduaren suaren beharra dute, erretzekotzat hetan ofrendatzen diren sakrifizioak.

## LII. KAPITULUA

### Aphezen yaunstura

Exod. 28.

Moisek bil-arazi zituen israeldarrak tabernaklearen inguruan, eta erran zioten Jainkoak hautetsi zituela Aaron eta haren umeak apheztasuneko eginbiden bethetzekotzat. Yauntzi ziotzaten behar zituzten soinekoak, eta konsekratu zituen olio sailduz eta biktimeen odolaz. Aphezeen edo sakrifikatzaileen yaunsturak ziren arropa linho sinesko bat, gerriko bat eta khoro edo bonet harizko bat. Aaronek, aphez-handi bezala, bazuen bertze alde soineko bat hyazinthearen kolorekoa, hainitz largoa, eta yautsten zena oinetaraino: soineko haren behean ziren ezarriak grenadak eta koskoilak elkhari zatxeizkonak: heltzen ziren hirur hogoi eta hamabitarrinokoan. Soineko haren gainetik aphez-handiak bazuen oraino arropa labur, mahunka gabe bat, Efod zaritzona, esposa urrez, eta broderian egin; gainetik zen bakharrik idekia, oraingo dalmatikak bezala. Estakatzen zen bi kurtxetez zeinetan edireten baitziren bi harri preziatu; eta osoki ederrak: harri hetarik bakotxaren gainean ziren zigillatuak Israelgo hamabi tribuen izenak, sei batean, eta bertze sei, bertzean. Aphez-handiak bazuen oraino aitzinean yaunstura balios bat, luze bezain zabala, pektoral edo bihotzekoa deithzen zutena; pektorale hura inguratua zen hamahi harri preziatuz, eta hetarik bakotxaren gainean zen iskribatua hamahi tribuen izen hakotxa. Khoroaren gainean erabiltzen zuen urre peza zabal bat, kopeta estaltzen zioena. Eta hartan ziren iskribatuak hitz hauk: *Saindutasuna Jainkoarena da*. Aaronek eta haren umeek bethetzeko zituzten eginbide guziek Jainkoaren ohoratzerat zaronaten: ematen zuten goiz arratsetan, egun oroz, olio lanpetan, eta erretzen zituzten urrin-onak urrezko aldarearen gainean. Urratzen zuten tabernaklea populua nihorat zohanean, eta osatzen berriz kanpamenduko lekhurat heltzen zenean. Lebitak ziren funkzione aphaltentzat, eta Aaron eta haren umeak altxatuenentzat.

Funkzione guzietarik handiena eta sailduena, zen sakrifizioa. Huna nola egiten zen. Sakrifizio bat Jainkoari ofrendatu nahi zioenak bazaraman biktima holokaustetako aldarearen aitzinerat, eta ematen zuen eskua haren buruaren gainean. Biktima hura izan behar zen etxeazienda israeldarrei yatea zillhegi zitzaienatarik: hala nola, idi, aratxe, bildotz eta ahuntzerarik. Azienda hura izan behar zen notharik gabea. Egiten ziotzoten



zintzurak, eta aphezek ematen zuten yarro batean biktimaren odola: barraiatzen zuten gero odol hura aldarearen inguruan. Azkenean, larrutzen zuten azienda hura, eta erretzen oso-oso, edo zathitan aldarearen gainean.

Aithor agun lege zaharreko aphezen yaunsturak deusere ez direla, bere distadura guziaren erdian, heien edertasunak erran nahi zuenaren aldean: hetako urrieriak erran nahi zuen, san Gregorioren arabera, Jainkoak beregainki zuhurtzia galdetzen duela haren aldaretarat hurbiltzen direnetarik; ordean zuhurtzia bat haren gogorakoa, eta kausi-arazten dituen haren begietan agradagarriago, gizonen begieran yaunstura hek ziren baino. Gauza soinu egiten zuten hek erraten zioten aphezei heien bizitzeak berak behar duela mintzatu, eta heien hurrats guziek behar gaituztela erakharri Jainkoaz orhoitzerat. Koskoila hek ixil zaudeen aphez-handia higitzen etzenean: arimen artzainek ere ez dituzte edifikatzen bere populua, non ez diren berak ibiltzen eta aitzinatzen berthutearen bidean. Pektoral hark zeinetan iskribatuak baitziren hi hitz hauk, *Doktrina eta Egia*, adiarazten zuen aphezek khendu behar dituztela izpiritutik funtsik gabeko gogoetak eta lurreko egiteko sobraniazko guziak, eta heien bihotzak izan behar direla osoki itzuliak Jainkoaganat. Hamabi izen, hamabi harri baliosen gainean zigillatu hek nahi zuten erran, aphez batek gogoan erabilli behar zuela elizako aiten bizitze saildua. Ezin daite, dio san Gregorio berak, erratekorik aphez batez bizi denean sailduak bizi izan diren bezala, eta heien etsenpluak dakharzkenean bere begien aitzinean hei yarraikitze kotzat bera, eta bertzeak ere hetarat erakhartze kotzat.

Aipatu ditugun sakrifizioek ezin, bere baitatik, ohora zezaketeien Jainkoa, ez eta azki garbi gizonaren bihotza Jainkoaganat hurbiltzeko; bainan ezagut-arazten zuten Jesu-Kristoren sakrifizioa bera, haren indarra eta haren efektuak. Beraz, lege zaharreko sakrifizioen ofrendatzailleek ezin zuketeien merezimendurik heien fedea non etzen hedatzen, ordu beretik, Jesu-Kristoren sakrifiziorat.

## LIII. KAPITULUA

### Nadab eta Abiu

Lev. 10.

Moisek akhabatu zituenean Jainkoaren adoratzeko eta hari sakrifikatze behar ziren gauzak, konsekratu zuen tabernaklea: denbora hura zen Ejiptoko librantzaren bigarren urthearen hastea, Jainkoak eman zuen erakutsterat onhesten zituela haren loriari ofrendatzen zitzairen gauza guziak. Hedoi batek estali zuen tabernaklea; horrek erran nahi zuen Jaunaren majeslateak bethetzen zuela. Hedoi hura etzen handik higitzen Jainkoak nahi zuenean bere tabernaklea geldi zadin lekhu berean; ordean aldaratzen zen, populua kanpatzeko zenean bertze nonbait. Orduan hasi ziren gizonak ofritzen Jainkoari lurraren gainean eta arrimuan, kanpoko adorazioeak eta sakrifizioak, berak eman zituen legeen arabera. Aaron eta haren umeak ziren Jainkoaz deithuak ministerio hartarat: hek ziren beraz sakrifikatze artha zadukatenak. Laster Jainkoak erakutsi zuen funtzio-ne saildu heien bethetzeko behar zen leihaltasuna, eta zer zorrotzasunekin nahi zuen begiratuak izan zitezen sakrifiziotan hark manatu guziak. Aldarean bethi erre behar zen sutik bethetzen ziren inzensarioak, inzensamenduak egiteko zirenean; non ez Jainkoaren punimenduak ikharagarri ziren, Nadab eta Abiu, Aaronen bi ume zaharrenek, andikoz! frogatu zuten bezala: hauk biak erori ziren hil gogorrek tabernaklean berean, sailduen sailduaren aitzinean, insensatzen hari zirela, eta hori, zeren bertze su batetarik eman izan zuten bere insensariotan. Jainkoak egorri zuen su bat irurtzuri baten pare zena, eta erre zituen bi anaia hek barnetik, batere lothu gabe heien gorputzei ez eta soinekoei. Kolpe kolpezko gatzigu latzgarri hark erakharri zuen Moise gomendatzerat aphezei arthoski bethetzeaz bere eginbideak. Altxa-arazi zituen sanduariotik Nadaben eta Abiuren gorputzak, eta eraman-arazi kanpaz haratago, tabernaklean ziren estatu berean; erran nahi da, linhozko bere arropekin. Debekatu zioten, bertze alde, dela Aaroni, dela haren umei, nigarrrik egitetik hil heien gainerat, bere buruko illen motztetik, eta hautstetik bere soinekoak. Erran zioten utzi behar zirela dolhuko seinale hulakoak populuarentzat: hetaz bezanbatean, populua bertzela agertu behar zirela, nahiz ordu hartan, nahiz bertze denbora guzietan; heien konsekratzeko erabilli zuen olio sailduaren alderako errespektuak hala galdetzen zuela heingantik.



Jainkoak irakhatsten zuen gaztigu garratz eta ikharagarri hartaz, ofrenda ahal diotzokegun gauzarik sailduenak berak, hala nola insensua, ez zaizkola agradagarri ez balin bagara leihal haren erranetar; eta kanpotik ager detzakegun haren alderako seinalerik ederrenak deusere ez direla ez baditugu arthoski bethetzen haren manu sailduak. Jaunaren majestatea hain da errespektagarria, non ezin ohora baidezakegu berak manatzen darokun moldean baizen. Jainkoak, hala da, ez ditu orai ageriki egortzen bere zigorradak haren manamenduak leihalki konplitzen ez dituztenetar; ordean ez ditu gutiago berexten eta gaitzetzen kanpoko su bat baizik ez dutenak harentzat, berak erretzen hari diren denboran ez, haren izpiritu sailduak bitzen duen su salbagarriaz, bainan bai ifernurat daramatzen ondikozko su batez. Gure Jainkoak arbiuaten eta heriotzeaz beraz punitzen du, dio san Gregoriok, ondikozko su hura, erran nahi da, munduko amodio zoroa. Saildu berak ikhusirik Nadabi eta Abiudi gertatu zaiena, erakhartzen ditu girstino guziak, beregainki Jaunaren minitreak khentzerat bere bihotzetarik urrun munduko gauzeen alderako yaidura sobraniazkoa, zeina baida su bat osoki kaltekhorra: gomendatzen diote Jainkoarenganako amudio egiazko bat; hau da su salbagarri bat heien bihotzak erre behar dituen, eta su bakharra Jainkoak gure barnean ikhusi nahi duena.

## LIV. KAPITULUA

### Blasfematzailea harrikatua

Nonb. 15.

Jainkoak bere garratzasun sailduaren etsenplu ikharagarri bat eman zioten aldareko ministrei, hitz mutu hil-araztean Nadab eta Abiu. Ordu hartan berean, eman zuen bertze etsenplu bat orobat ikharagarria, zeinetaz erakutsten baitzuen mundu guziaren alderat begiratzen zuen zuzentasuna. Huna zertan. Bi yudu elkharrekin liskarrean abiatu ziren, eta hetarik bat yarri zen haserradura borthitz batean, Jaunaren izen saildua gaizki erabiltzerainokoa. Blasfematzaile hura izan zen eramana Moisen aitzinerat: populuaren gidari zuhur hunek, bere sententzia ekharri baino lehen, konsultatu zuen Jainkoa, yakitekotz zer egin behar zuen: Jainkoak erran zion khien-araz zezala kanpatik blasfematzaile dohakabe hura, blasfemioak entzun zituztenek erran zetzatela bere eskuak haren buruaren gainean, eta gero izan zadin populu guziaz harrikatua. Gauza egin izan zen manatu bezala. Huna oraino denboratsu hartako bertze etsenplu bat, orobat lazgarria, eta ikharatu behar dituen Jainkoaren manuen alderat leihal ez direnak. Populuak arthoski begiratzen zuen kanpotik, sabateko eguna, edo larunbata, zeren Jainkoak berriro debekatu zioen, bere aho sakratuz, egitetik egun saildu hartan, nekhazale-lanik; gerthatu zen gizon batek bildu baitzuen larunbat-kara, mortuan, lasto guti bat. Ikhusi orduko, hala hari zela, eraman zuten Moisen eta Aaronen aitzinerat, yuia zezatentzat. Gizon saildu hauk etziren berehala eman eginbide hartan; nahi izan zuten lehenik konsultatu Jainkoa; etzakiten gizon hark behar zuenez bada galdu bizia hain gauza gutientzat, eta zer heriotzetar behar zen kondemnatu: Jainkoak, orduan ere, erran zuen manu bera, khien zezatela gizon hura kanpatik, eta guziek harrika zezatela.

Ala leihaltasun gehiago baiginduke Jaunaren alderat, baldin haren lege saildua hautsi bekain sarri, galdu behar baigindu, guk ere, bizia! Segur ahal da halako punimendu baten beldurrak erakhar gintzakeiela hari, lehian, obeditzerat. Bizkitartean, amodioak eraman behar luke egiazko giriztinoa Jainkoaganat, eta ez beldurrak. Ordean zenbatak ez dire Jainkoari ekhartzetik urrun amudio phuru hura, beldurrik ere ez dutenak haren lege sailduen, ez eta gehienik begiratu behar lituzketen manuez berez? Fedeak irakhatsten daroku mundu huntako gaztigu borthitzenak deusere ez direla, bertze munduan yasan beharko ditugunean aldean,



heldu bagara bekhatuan hiltzerat. Halarik ere, o! itsumendua, lasto guti baten, edo buruzka zenbaitengatik, diot, behere huntako atsegin iragankhor eta ontasun ongariaren pare diren batzuegatik, tarritatzen dugu Jaunaren yustizia, eta yauts-arazten gure buruen gainerat eternitateko tormentak.

Zeruko legea bethi bera da: ez da ganbiatzen: Jainkoak behin erratendu du zer nahi duen, eta hartan dago: ez da gehiago mintzo. Gizona errexki engana daite bere gisa hartuz Jainkoaren legea; ordean alferretan lausengaturen du bere burua. Alferretan erranen du lasto guti baten, edo zenbait buruzka biltzen hari zen gizon haren iduriko dela, haren hutsak ez direla aski handiak merezitzekotzat punimendu borthitz bat. Arrazoinamendu zoroa! Ez da gutiago ekharriko haren heriotzeko sententzia. Ezaguteren du orduan, ondiko! berantegi, san Augustinen arabera, ez dela zeren kondatu munduko hitz ederren gainean, ez dela zeren uzte izan zeruko legeak hauts ditezkeela gauza ttipitan. Bat bederak egun batez, frogaturen du Jainkoaren hitza egia bera dela, eta haren manu arinen iduriak berak leihalki bethe behar direla.

## LV. KAPITULUA

### Hamabi berri-ekhartzailleak

Nonb. 13.

Jainkoak bere populuari egortzen ziotzan gaztigu guziak etziren aski erauntsien ixil-arazteko: azkenaz goiti, Aaron bera eta Moisen arreba eman zitzaizkon errenkurari. Inbidia ekhartzen zioten gidari saindu hari, Jainkoak utzi zion nausitasun handiagatik, erraterainokoan Moise etzela bakharra, Jainkoa mintzatu zitzaioena; eta nola haren emaztea ethiopiarrak baitzen, hori bera hartu zuten bere erauntsien estakurutzat. Moisek, orduan ere, begiratu zuen ohi bezala eztitasun guzia; ordean Jainkoa yarri zen haren alde. Guphidetsi zuen Aaron bere dignitateari esker. Bainan egorri zioen Moisen arrebari lepra bat, huntaraino izigarria non iretsi baitzioen, bet-betan, gorphutz guzia. Alferretan Moisek othoitztu zuen Jainkoa sendatzeaz haren arreba; etzen izan entzuna. Jainkoak nahi izan zuen haurride hura egon zadin, zazpi egunez, kanpatik khendua eta hastandua; egun hek iragan zirenean, sendatu izan zuen. Etziren oraino zeinbait bakhar baizik erauntsi zutenak; ordean handik laster populu guzia abiatu zen errenkuratzen. Huna zertaz: Jainkoak manatu zion Moisi egortzeaz tribu guzietarik gizon bana Kanaango herrien ikhusterat, ekhartzekotzat hetako fruitutarik. Gizon hek egin izan zuten Kanaako itzuli guzia; eta ethorri ziren, berrogoi egunen buruan, israeldarren kanparat. Bertze fruituen artean, ekharri zuten mahats mulkho bat lur hek hainitz onak zirela erakutsten zuena. Bildu ziren guziak nahiz yakin Kanaako berri. Erran zitzaizen bazter hek nahikarazkoak zirela, etzela han deuseren eskasik; ordean hango hiriak murru lodiz inguratuak zirela, eta yendeak izigarriki zirela handiak, bertze gizonak, hetakoen aldean, etzirela uliak baino gehiago; etzela beraz zeren abiatu Kanaanat, herri hetako yendeak ezin garaituzkoak zirela. Berri hauiek hedatu zuten izialdura bihotzetarat. Guziak hasi ziren Moisez errenkuratzen, nahiagoko zuten galdu bere biziak mortuan berean, ezen-ez gudukatu halako gizon izigarriki handi batzuen kontra. Gehiago dena, eman ziren eginbidetan hautatzeko aitzindari bat Ejip-torat bihurtzeko.

Moisek eta Aaronek ikhusi zutenean populuaren asaldura, eman ziren ahusphez Jainkoaren oinetan, nahiz aphazegatu haren kolera saindua; eta denbora berean, Josue eta Kaleb Kanaan ibilli ziren hamabi hetarik zirenak hari ziren, egin ahal guzian, populuaren eztitzerat eta



bihotzen altxatzerat, ziotelarik: Begira zaitezte deusere egitetik Jainkoaren desgogara; ez duzue zeren beldurrik izan herri hetako yendez. Jainkoa alde balin badugu, irets detzakegu hek guziak ogi zathi bat bezain errexki: ez dute batere laguntzarik, eta guk gurekin dugu gure Jainkoa; ez beraz izi. Urrun da ordean entzunak baitziren; populua egundaino bezain bort-hitzki mintzo zen, eta harrikatzerat zaramatzen Josue eta Kaleb baldin Jainkoak ez balu hartarik gibelatu, agertzen zelarik tabernaklearen gainean, bere distadura guzian. Jainkoak manatu zuen tabernaklearen gainetik, errateaz populuari entzun zituela haren erauntsiak eta murmurantzak; eginen zuela guzian alderat berek galdetzen zuten bezala; eta heien nahia zenaz geroz mortuan hiltzea, hala gerthaturen zitzaizotela; beraz mortuan berean galduren zutela bizia hogoi urtheak bethe zituzten guziek, eta heien umeak izanen zirela bakharrak sarthuren zirenak Kanaango lur aginduan, ibilliko ziren ondoan, berrogoi urthez, errebelatuak mortuan. Josue eta Kaleb guphidetsiak izan ziren, izpirituen aphazegatzaille bezala; ordean Kanaango lurraren ikhusterat egorri ziren bertze hamarrak eta populua asaldatu zutenak izan ziren hillak bertze guziekin batean, eta oren berean.

Erran ditugunetarik ageri da, Jainkoak ez duela nahi izi gaiten yasan behar diren gudu ttipiez, heltzekotzat agintzen dituen sari handitarat. Ezin nihor sar daite lur aginduan, non ez duen lehenik garaitzen hango athea hertsia dadukan etsaia. Ez dugu utzi behar bihotza erortzerat etsaia ikhustean, aitzitik orduan behar dugu altxatu gure fedea, eta eman deskantsuan barnea, orhoiturik Jainkoa gure alde gudukatzen dela. Ez du agintzen bere erresuma bortxarekin arrapaturen dutenei baizik. Erresuma dohatsu hartaz etsitzea ahal da, Jainkoak haren ardietstekotzat manatzen dituen gauzak ez egitea. Ez dugu erran behar harat heltzeko bidean bathzen diren trabak eta debekuak ezin garaituzkoak direla: hunela mintzo laitezkenak izanen dire Jainkoaz punituak, berekin batean bertzeak gal-arazten dituzten zoro batzu bezala.

## LVI. KAPITULUA

### Kore, Dathan eta Abiron

Nonb. 16.

Kanaako berriek sor-arazi zuten asaldurak baino oraino gehiago ofentsatu zuen Jainkoa handik laster gerthatu zen gaizki batek. Kore, Dathan eta Abiron altxatu ziren mortuan Moisen eta Aaronen kontra, eta bereganatu zituzten berrehun eta berrogoi eta hamar gizon, populua artean lehenbizikotarik zirenak. Errenkuratzen ziren Aaron zuzen kontra yabetu zela aphezetasunaz, eta Moisek dorphekiegi zakharkeiela Israelgo populua. Korek aphezetasunaren hirritsa zuen: berriz Dathanek eta Abironen nekhez onhetsten zuten nausitasun guzia Moisen eskuetan: populu hori guzia (erraten zioten) konsekratua da Jainkoaren zerbitzuari, Jainkoa harekin datza, zerentzat beraz dadukazu zure burua yende horien buruzagitzat? Moise, hitz hauk entzutearekin batean, eman zen lurrean ahuzpez: gero erran zioten Koreri eta haren lagunei: Bihar goizean Jainkoak emanen du erakutsterat zein diren harenak eta hari konsekratuak. Hurbil-araziren ditu beregana bereak dauzkanak. Erradazue, o! zuek Lebiren umeak, ez othe zen bada aski, Jainkoak berex zintzaten, bertze guzian artean haren tabernaklean zerbitzatzeko? Behar othe zineren bada oraino abiatu bortxaz sartzerat aphezetasunean! Zer? Jainkoaren kontra altxatzen zarete? O! itsumendua. Othe dakizue nor den Aaron zeinarentzat hanbat errateko edireten baiduzue?

Moisek galdegin zituen Dathan eta Abiron; ordean ihardetsi zuten: Ez gara zureganako: aski ahal zen gu ilkhi-araztea lur gizen eta nahikarazko batetarik hiltzekotzat mortu huntan, oraino dorphetasun hortan agertu gabe gure alderat. Ez, ez gara zureganat hurbilduren. Moisek gaitzetsi zituen errenkura inyustu hek, eta erran zioen Koreri: Ager zaite bihar, zure lagunekin batean, Jainkoaren aitzinean, harturik zuten insensarioak eta urrin-onak; eta Aaronen ere egin beza gauza bera.

Biharamunean, Kore ethorri zen bere lagunekin tabernaklerat, yende oste bat yarraikitzen zitzaioela. Orduan Jainkoak erran zioten Moisi eta Aaroni: Berex zaitezte yende horietarik, guziak betan fundi detzadantzat. Berehala, Moisek eta Aaronen artiki zituzten bere buruak lurrerat, eta erran zuten Jainko guziz botheretsua, zer? bakharr baten bekhatuagatik, nahi ditutzu bada gal-arazi guziak? Jainkoak ihardetsi zioen Moisi: Erran diozozu populuari urrun dadiela Koreren, Dathanen eta Abironen





ingurutarik. Moisek manu hau konplitu bezain laster, lurra arraillatu eta ideki zen Koreren, Dathanen eta Abironen oinen azpian, eta izan ziren, bet-betan, fundituak, populuaren begietan. Orduko su berak erre izan zituen Koreekin insensatzen han ziren berrehun eta berrogoi eta hamar gizon.

Ikhusgarri hark etzuen hargatik populua zuhurtu. Egundaino beza-la abiatu zen, biharamunean, erasten Moiseren eta Aaronen kontra, zorigaitz ikharagarri hartaz hobendun izan balire bezala. Jainkoak egorri zituen, berriz ere, suzko khar bizi batzu, ziren guziak arras iretsiren zituztenak, baldin Moisek eta Aaronen ez balute aphur bat aphazegatu haren haserradura saildua. Bi gizon miragarri haien othoitzzerarat iraungitu izan zen su lasimagarri hura. Etziren hargatik gutiago erre hamabortz milla gizon, edo inguru hura.

Jainkoak oraino hobeki finkatzekotzat aphezetasuna Aaron baitan, nahi izan zuen tribu bakotzak eman zezan zigor bat tabernaklean bere izenarekin; loraturen zen zigoretik behar zen yakin zein izanen zen altxatua aphezetasunerat. Aaronen zigorra, zelarik ondo ihartu batetarik egina, gerthatu zen bakharra hostoak era loreak ekharri zituena. Jainkoak begiratu zuen zigor hura tabernaklean.

Aiphaturik heldu garen etsenplu handiek gibelatu behar dituzte presuna zuhurak sartzerik, bere buruz, aldare sailduen ministerioan. Beldurtu behar dire hartzeaz arinkiegi insensario bere eskutan. Eliza gizonek orhoitzeko dute Kore, Dathan eta Abiron ehortziak izan zirela su lame-tan, bizi biziak, eta ifernuan barna artikiak. Izan behar dute beraz desfiantzia saildu bat bere buruez: yakin behar dute zenbat den handia zerbitzatzen duten nausi adoragarria; eta ezin daitekela behar den bezala, bere ministroez zerbitzatua, non ez dituen berak altxatzen funkzione saildutarat. Ematen diote halakoei behar diren laguntza eta dohain guziak sailduki bethetzekotzat bere eginbideak.

## LVII. KAPITULUA

### Metalezko sugea

Nonb. 21.

Korek, Dathanek eta Abironek eman zuten asaldurari laster yarraiki zitzaion bertze bat Jainkoak ikharagarriki punitu zuena. Nola populua unhatua baitzen ibiltzeaz mortuan hanbat urthe hetan, desterratu, pausalekhuz pausalekhu, Moisen nahiaren arabera, altxatu zen, ohi bezala, gidari zuhur haren kontra: eman zioen erakutsterat asea zela hartaz; populua Moisez bezala, Jainkoaz ere errenkuratzen zen, eta errenkurak bethi gauza bererat zaronsaten; erran nahi da, Ejiptotik ilki-arazteaz. Damu gaixtorik, ziotzaten, ez garela Ejiptoan gelditu. Zer? mortu zabal huntan behar dugu bada galdu bizia? Ez dugu ogirik yateko, ura bera maiz eskasten zaiku, eta aspaldion desgustatuak gara gure yanari arinaz, hasiak ere gara haren higuntzen. Horra nola mintzo ziren israeldarrak manaz. Jainkoak gaitzetsi zituen erauntsia hek, egorri ziotzoten suge batzu bere susko ausikiez hil-arazten zituztenak; muthirienak berak izan ziren laz-tuak kolpezko gaztigu ikharagarri hartaz. Laster utzi zituzten bere erauntsiak: bide egin zuten Moisenenganat, eta erran zioten: Bekhatu egin dugu mintzatzaz Jainkoaren eta zure kontra: othoitz ezazu libra gaitzan suge hautarik.

Moise eman zen othoitzetan, eta izan zen entzuna; Jainkoak erran zion: egizu metalezko suge bat, ezar azu haga baten buruan, eta altxa ezazu gorazko, eta hari behaturen dioten guziak izanen dire sendatuak bere zauritarik. Moisek egin zuen metalezko suge hura, eta eman haga baten buruan: aski zen hari behatzea sendatua izatekotzat.

Populuaren orduko erauntsiak eta murmurantzak, haren zauriak eta hetarik sendatzea hanbat abisu zuhur ahal dire gure baitan sar-arazi behar gaituztenak. Irakhatsten darokute, elizako aiteen arabera, ez garela behinere behar errenkuratu yasateko dituzkegun nekhez, atsekabez, ez eta zerurat daraman bidearen gaitzetasunaz. Aitzitik, zenbatenez baigara zaurthuak munduko lazeriez, hanbatenez gure fedek erneago izan behar du, eta fidantzia gehiago behar dugu ezarri, gure onetan humiliatzen gaituen Jauna baitan. Baldin trikatzen bagara, gure nahirat, barneko asalduratan, eta ez balin baditugu gure buruak osoki utzten probidentziarat, erran daite ordutik erituak garela sugearen ausiki phozoatuaz, eta etsai gaixtoaren meneko gerthatzen garela. Orhoit gaiten Sathan gure inguru-





tan dabillala, eta gure bihotzak hobeki urruntzeko Jainkoaganik, heien gogo urritzerat eta flakatzerat hari dela: horra haren xede ondikozkoa, sinhets-arazi nahi darokunean mundu huntan behar dugula bilhatu gure zoriona, beraz urrundu behar ditugula gureganik zerurat heltzeko bathzen diren lazeria eta atsekabe guziak.

Metalezko suge hartaz aditu behar dugu Jesus-Kristo bera. Etzaio aphalegi iduritu bere burua berdin egitea ebanjelioan metalezko sugearekin. Nahi bagara sendatu barneko gaitzetarik, behar ditugu guk ere altxatu begiak gurutzean ezarria izan den salbatzailleagana, ordean fede bizi, eta fidantzia oso batekin; eta ordu beretik, ixilduko dire gure errateko eta errenkura guziak; ordutik edirenen dugu konsolamendurik eztena gure atsekabetan, eta erranen dugu, baratu gabe: inozentzia bera denak hanbat pairatu nahi izan du, eta hanbat amultsutasunekin bekhatoarengatik, eta bekhatoareak baduke bada bekhokia errenkuratzeko bere nahikabez eta sofrikariez! A! non da gure fedea? Jainkoak dorpheki tratatu balin badu, denboraz, egur hezea, ez ahal da batere miretsteke ez dezan orai guphidets egur iharra.

## LVIII. KAPITULUA

**Balaam**

Nom. 22.

Moisek bere populuaganik izan zituen damu eta atsekabez bertze alde, izan zuen oraino zer paira profeta falsoen partetik. Israeldarrak hurbildu ziren Moabeko alderat, eta horrek damustatu zuen herri hetako erregea Balak zaritzona. Errege hunek ikhususirik etzuela aski indar buru emateko israeldarrei, gaztiatu zioen Balaam moabitarren profeta falsoari, heltzeaz, othoi, israeldarren madarikatzerat. Balaamek etzuen berehala ihardetsi. Galdetu zuen gau baten ephea nahiz lehenik Jainkoa konsultatu. Jainkoak erran zioen: Begira zaite mandatari horiekin abiatzetik; ez dezazula madarika populu hura, ezen benedikatua datza. Beraz Balaamek egorri zituen mandatari hek, eta ez zitzaien yarraiki nahi izan. Balak erregeak egorri zituen, bigarreanean, mandatariak Balaamganat, lehenbizikoak baino ohoragarriagoak, eta gaztiatu zion nahi bezanbat ontasun emanen zioela ethorri nahi bazen Israelgo populu madarikatzerat. Balaamek ihardetsi zuen: Balak erregeak eman banintza bere etxea urrez eta zilharrez bethea, orobat laite: ezin nagoke Jaunaren manua konplitu gabe hitzez hitz. Halarik ere othoiztu zituen mandatariak aphur bat igurikitzeaz, berriz ere Jainkoa konsultatu artean. Bigarren aldi hartan, Jainkoak erran zioen Balaami: zohazi yende horiekin; ordean nik manaturen darotzudana egitekotan.

Orduan Balaam eman zen bere astoaren gainean, eta lothu zitzaion bideari. Balak erregeganat zohala, agertu zitzaion aingeru bat ezpata bulhuzi bat eskuan; astoak ikhus zuenean aingerua, baratu zen, erori ere bai aingeruaren oinetan, eta nola Balaamek yazartzen baitzion, nahiz altxarazi, Jainkoak mintzarazi zuen abere hura, eta egin ziotzon bere errenkurak Balaami zeren hala zehatzen zuen; ordu hartan Jainkoak ideki zituen Balaamen begiak, ikhusi zuen bidearen gainean aingerua ezpata bulhuziarekin, zeinak mehatxatu ere baizuen hiltzeaz. Balaamek ezagutu zuen bere gaizkia, humiliatu zen, eta erran zioen aingeruari bere etxerat bihurtzerat zagola, hala nahi balin bazuen. Ihardetsi zioen aingeruak: Yarraik zakizko zure bideari, beira zaite ordean deusere erratetik nik manaturen darozkitzudan gauzez landan.

Balaamek arthoski bethe zuen aingeruaren manua. Alferretan athera zitzaion Balak erregea, eta alferretan sari handiak agindu ziotzan madarikatzen balin bazituen israeldarrak. Balaamek maledikzionen orde,



etzuen benedikzionerik baizen israeldarrentzat. Balak sumindu zen profeta haren kontra, eta khendu zuen handik.

Balaamek iduri zuen egiazko Jainkoaren profeta bat; ordean haren bihotza gaixtatua zen ontasunen alderako hirritsa ondikozkoaz. Jainkoa konsultatu zuen bigarren aldian, ez etzakielakotzat haren nahiaren berri, bainan agian haren bihotzaren yaidura gaixtoari atsegin egiteko zerbaiz entzunen zuela.

Zer profeta gisa zen Balaam, huntarik da ageri. Profeta zelako gizon traidore hark bihurtu gabe etxerat, eman zioen Balak erregeri abisu hau, egortzeaz israeldarren kanparat moabitarren eta madianitarren alabak, nahiz eror zitezen bekhatuan, gero idolatريان, eta azkenean Jainkoak abandona zetzan israeldarrak bere etsaien eskutarat. Balak yarraiki zitzaion abisu gaixto hari, eta izan ziren hainitzak israeldarren artean madianitarren alabek amoraturik: heien idolak adoratu izan zituztenak. Jainkoa tarritatua izan zen gauza hartaz, eta manatu zioen Moisi hil-arazteaz gaitski hartaz kutsatzen ziren guziak, bertzela funditzerat zohala Israelgo populu guzia. Moisek bil-arazi zituen israeldarrereri aitzindariak eta yuieak, eta erran zioten: zuetarik bat bederak hil-araz beza bere ahaide idolei ohore bihurtu diotenak. Manu hau emana izan zen efetutan. Ordu hartan, Jainkoaren gaztigua ikharagarria gerthatu zen; hogoi eta lau milla gizonek galdu zuten bizia.

Horra beraz nola profeta faltso batek gal-arazter zuen bere abisu gaixtoaz eta bere abarizioaz Jainkoaren populu guzia; dohatsuki, Jaunaren ministro egiazko batek gibelatu zuen zorigaitz handi hura, bere khar sainduaz. Iklusirik yudu bat bekhatutan madianitar emazteki batekin, eman zen animazione saindu batean, hartu zuen ezpata bat, eta sartu zuen bi hobendun heien gorphutzetan. Sakrifizio hunek aphazegatu zuen Jainkoa. Profeta faltso batez bere gaixtakeriaz enganatu zuen populua izan zen beraz, dio S. Anbrosiok, mirakuilluzki libratua egiazko, aphez baten bidez. Bataren berthuteak indar gehiago erakutsi zuen ezen-ez bertzearen abarizioak.

Etsenplu hunek irakhasen daroku milletan dohatsu dela populua, duenean aitzindari bat, bere zuhurtziaz eta khar sainduaz, urrunten dituen gaixtakeria guziak, eta begiratzan duena bekhatorea Jainkoaren aserradura saindutik. Gerthaturen dire bethi elizan Balaamak, erran nahi da, bere intres propioa Jainkoarena baino hobeki bilhatzen dutenak. Oxala! aurkhi baledi Finees hainitz, diot, eliza gizon khartsu hainitz: Jainkoaren alderako gaitskiak, eta arimetako zauriak min-minean sentitzen dituztenak, mundua arbuaturik zerua bakharririk irabazi eta irabaz-arazi nahi dutenak!

## LIX. KAPITULUA

### Moisen heriotzea

Deut. 34.

Jainkoak gaitzets zituen madianitarrek zeren erakharri zituzten israeldarrak idolatriarar: manatu zion Moisi gudu emateaz madianitarrei, eta hek ezpataren puntatik pasatzeaz. Moisek egorri zuen yende heien kontra armada bat, baster guziak sutan eta odoletan ezarri zituena. Balaamek ere galdu zuen bertzeekin batean bere bizia. Beraz heriotzea izan zen Moabeko erregeri eman zioen abisu gaixtoaren saria. Neskatxa lohikerian kutsatu etzirenak bakharririk izan ziren guphidetsiak sarraski handi hartan. Heltzen ziren hogoi eta hamabi milletaraino. Moisek eman ziotzaten Jourdainez alde hartarik ziren herriak Rubengo tribuari, Gadekoari, eta Manaseren tribu erdiari. Nola ez baitzitzaion zilhegi Moisi Jourdaingo arriberaz harat heltzea, erakharri zuen, Jainkoaren manuz, Josue, eta eman zioen, populu guzia lekhuiko, israeldar guzien aitzindegia. Moisek gomen-datu zioen, behin baino gehiagotan, Josueri arma zadiela indarrez eta animoz sar-araztekotzat azkenean, populua hanbatetan agindu zitzaion lurrean. Gizon saindu hark erreberitu zituen, hitz laburrez, Jainkoaganik entzun zituen gauza guziak. Iskribatu ere zituen liburu batean zeina deithzen ohi baida *Deuteronomia*: liburu hura sar-arazi zuen arkan, legeko tablekin batean: haik guziak hunela egin eta erregelatu ondoan, Moise higan zen Abarimeko mendi gorarat, eta benedikatu zituen handik Israelgo populu guziak. Jainkoak erakutsi zioen Kanaaneko lurra, eta erran: Huna Abrahami, Isaaki eta Jakobi, yuramentuaren azpian, agindu diotedan lurra: ikhusten duzu: aski da hori. Etzara han sarturen.

Moise hil izan zen Abarimeko mendi haren gainean, ehun eta hogoi urthetan. Izan zen ehortzia; ordean nihork ez du yakin egundaino non den haren hobia: adin hartan ere bere bethiko fermutasun guzia berekin zuen. Israeldar guziek auhendatu zuten bere gidari saindua, hogoi eta hamar egunez, eta ezagutu zuten bere buruzagitzat Josue, zeina Jainkoak bethi baitzuen bere izpirituaz eta bere zuhurtziaz. Erran behar da hargatik ez dela gerthatu Moisez geroz, nihor hurbil dakioenik profeta miragarri hari. Haren emetasunak etzuen nihon parerik, denbora berean, sustatua zen Jainkozko khar batez. Bata nola bertzea erregelatzen zituen prudentzia oso batekin.



Moisen leihaltasuna ederretsia izan da saindu guziez. Bihurtzen zioen Jainkoari zor zitzaion guzia, deusetan eskasik egin gabe bere popularen alderat; orobat bihurtzen zioen populari harenganik igurik ahal zezakeien guzia, eskasik batere egin gabe Jainkoari zor ziotzan eginbidetan. Etzen nekherik eta hirriskurik baizen haren bizitze zuzian; eta azkenean, haren heriotzea punimendu bat bezala gerthatu zen. Iduri zuen Jainkoak arras garbitu nahi zuela profeta saindu haren berthutea. Beira gaiten, dio san Augustinek, den gutiena sinhestetik Jainkoak punitu nahi izan zuela halako zerbitzari leihal bat, eta zorigaitz handi bat izan zela Moisentzat ez heltzeaz lur batetarat, zeinetan, hura hillez geroz, sarthu izan baitziren asko bekhatore, Jainkoak gai zadukan Moise gozatzeko nahikara guzien egoitzaz, zeruko erresuma dohatsuaz; etzen beraz hain atsekabe handia harentzat ez sartzea lur aginduan. Eta egiaz, zer zen lur agindua zeruaren aldean? Helas! deus guti, ez errateko deusere.

Iskribu sailduaren arabera, Moise lur aginduan ez sartzeak irakhatsen du, ez dela aski, zeruratzekotzat, hitzez hitz, yarraikitzea legeari. Zer-bait gehiago behar dela egiazko lur agindu hartan sartzekotzat; Jainkoa zinki behar dela maitatu, graziazko estatuan izan behar dela. Gure salbazaille maitea da egiazko Josue. Hura da gure aitzindari guzizkoa; hark daramatza zerurat giriztino leihalak, Jourdaingo ura iragan duketenean, erran nahi da, mundu huntako nekhe eta atsekabetarik lekhora.

## LX. KAPITULUA

### Jourdaingo ura bertze alderat iragatea

Jos. 3

Moise hil zenean, Jainkoak eman zioen Josueri bere popularen aitzindartasuna; erraten zioela: zurekin izanen naiz Moisekin nintzen bezala. Zutaz artha izanen dut; begira zazu xoilki Moise ene zerbitzariak utzi dautzun legea: ez hartarik batere aldara, eta gauza guziak zure gogara gerthaturen dire: ez izan deuseren beldurrik: zaude tieso eta animoz bethea: norat nahi zohazen, zurekin izanen duzu Jainko zure Jauna. Israel-darrek ezagutu zuten Josue bere buruzagitzat, eta ekharri zioten obediencia oso bat. Aitzindari berri hark erakharri zituen bere yendeak bereganana. Erran zioten iragan behar zutela Jourdaingo arribera, hirur egunik barnean; bil zezatela beraz aphur bateko yanaria. Hirur egun hek iragan zirenean, Josuek adi-arazi zioten guziei beha ziozotela arkari, eta noiz ere ikhusingen baitzuten arka arriberaren gainean, orduan aitzina zitezela iragatekotzat ur hura; ordean egon zitezela bi milla beso arkatik urrun. Manatu zioten aphezzei sartzeaz arkarekin ur hartan, eta trikatzeaz egin ondoan zenbait hurrats. Arribera hark laster ezagutu zuen arka bere gainean zakharkela. Aphezeen oinen azpiko urak egin zuen berehala bide: xukatu zen guzia. Aphezak atxikitzen zuten arka populu guzia hel arte-raino arriberaren bertze hegirat. Bat-bederak iragan zuen ur handi hura, oinik busti gabe.

Josue ikhasia zen Moiseganik behar zela lehiatu Jainkoari eskerrak bihurtzerat bere laguntza seinalatzen zuen aldi guziez. Gogoan zakharkaien Jourdaingo arriberan egin zitzaion fagore mirakuilluzkoa, eta eman nahi izan zuen bere bihurkhundearen bethiereko seinale bat. Hortakotzat, manatu zuen bereziren zirela hamabi tributan hamabi gizon: hartuko zutela harri bana uraren erditik, aphezak baratu ziren lekhu berean: nahi zuen egin zezaten, harri hetaz, lur gogorraren gainean aldare bat bezala, ethorkizunerat baliatuko zena seinaleztat zer mirakuilluz israeldarrek iragan zuten Jourdaingo ura. Josuek manatu zuen oraino, gizon hek berek har zezaten Jourdaingo hegian bertze hamabi harri, ezar zitezten aphezak gelditu ziren lekhu, eta molda zadin hetaz bertze aldare bat bezala, egonen zena ur haren erdian. Arka zaramaten aphezak izan zuten manua ilkitzeko ur haren erditik. Ez ziren hain laster leihorrerat, non geldi-geldia zatzan arriberak hartu baitzuen, bet-betan, bere leheneko abiadura



borthitz guzia. Ikhusi izan zen, egun hartan, Josue zein gizon handia eta errespektagarria zen. Ordudanik aitzindari berri haren ospea eta ohorea finkatu izan ziren israeldarren izpirituan.

Jainkoak ematean gure begietarat aiphatu dugun mirakuillua, irakhatsten daroku, egun oroz, egiten eta menderen mende, eginen duen mirakuillu zorionezkoa begiratzeko duenean bekhatore dohakabea galdua izatetik, eta sar-arazten duenean salbamenduko bidean heltzekotzat zeruko erresumarat. Bekhatoreak ezagutu behar du bere ezdeustasuna, eta Jaunaren graziaren mirakuillu bat behar zela haren bekhatzeko gathe lodien hauts-arazteko, eta haren bihotza Jainkoaganat altxatzeko: horrek berak erakharri behar du bere baitan sartzen den bekhatorea amodioz bezala, bihurkhundez ere bethea izaterat bere salbatzailearen alderat.

## LXI. KAPITULUA

### Jeriko hartua da

Jos. 6.

Lehenbizirik atakatzeko zen hiria, Jourdaingo ura iragan eta, zen Jeriko. Josuek egorri zituen aitzinetik ixillik yendeak, yakitekotzat hiri hartako berri. Yende hek ezagutuak izan ziren, eta bizia galdu behar zuten, baldin orduraino bizitze gaixto bat eramane zuten, eta Rahab zaritzon emazteki batek ez balu izan ontasuna heien gordetzeko. Berriketari hek bihurtu zirenean Josuegana, urrun da, egin baitzuten Moisek, lau urthe lehenago Kanaango berri yakiterat egorri zituenek bezala. Hauiek izitu eta asaldatu zuten populu guzia bere erranez eta espantuez; ordean Josuek Jerikorat egorriek animatu zuten mundu guzia: erran zuten hiri hura hain lazdua handian gerthatzen zela, non yadanik hartua bezala baitzen. Xuxen mintzo ziren: hiri hura ikharan emana zen ikhustez israeldarrak harat hurbilduak, eta orhoitzeaz Jainkoak Israelen fagoretan egin zituen gauza miragarriez. Hiri hartakoek ez zuten deusere guphidetsi bere buruen begiratzeko: egin zituzten murru eta antapara den borthitzenak. Iduri zuen hiri hura ezin hartuzkoa zela; ordean Jainkoak arbiuatu zituen Jerikoen egin ahal aphurrak. Agindu zion Josueri artikiren zituela lurrera murru lodi hek guziak gerletako imintzionerik eta nekherik batere gabe. Manatu zion populuak egin zezan, zazpi egunez, hiri hartako murru guzien birunda, aphezek har zetzaten, zazpigarren egunean, zazpi tronpeta, eta errepikaraz zetzaten, berak arkaren aitzinean ibilliko ziren denboran; egin zezaten, molde hartan, zazpitan, Jerikoen itzulia, ixiltasun handirekin; egin zezaten, zazpigarren egunean, betan, harramantza borthitz eta min bat, eta populu guziak ihardets ziozon harramantza hari. Jainkoak hitz eman zuen, gauza hauk guziak eginak izanen ziren ordu bertik, lurrerako zirela hiri hartako murru guziak. Hala gerthatu zen. Jainkoak debekatu zuen deusere hartzetik hiri hartan; nahi izan zuen madarikatu lekhu hura, zen bezala, eta zituen guziekin. Josuek zorrozki gomendatu zuen ez behintzat deusik hartzeaz hiri hartan, beldurrez nihork erakhar zezan populu guziaren zorigaitza, ontasunen alderako sobraniazko hirritsaz: gomendatu zuen oraino izan zezaten artha Rahabez; eta erran zioten Jerikorat berriketarat egorriak izan ziren hei zohazela emazteki haren bilha; eta erakhar zezatela berehala, zituen guziekin kanparen erdirat, han ediren zezantzat bere seguramendua, merezi zuen bezala. Horra



beraz nola Jeriko izan zen desegina. Hiri hartako populua, bere zorigaitz handitan, Jainkoaren etsai gerthatu zen: alferretan kondatzen zuen murreren loditasunaren eta goratasunaren gainean; ikhusi zituen, momento batez lurrerat artikiak. Eta nola? tronpeteen harramantza bakharraz.

Aiphatu ditugun mirakuilluek erakutsten zuten misterio bat, zeinari elizako aiteek atenzione handi bat eman baidiote. Erran izan darokute tronpeta heien harrabots miragarriaz aditu behar dugula, arimen artzainek predikatzean izan behar duten khar saindua. Hedatu behar dute bozkarioa israeldarren bihotzetarat, eta ikhara hei gudu egiten diotenetarat. Deuserek, san Gregorioren arabera, ez dio hala ematen Jainkoaren populuari garaitia bere etsaien gainean, nola hartzen den arthak haren animatzekotzat Jainkoaren hitzaren soinuaz eta graziazko tronpeten harramantzez: horrek erran nahi du, Jaunaren ministroek khartsuki behar diotela ezagut-arazi bekhatorei Jainkoak egiten daroen grazia handia, barkhatzen diotzatenean bere bekhatuak. Aphezeen erranek arimetan sor-arazten duten alegrantziak egiten du, profeta sainduen arabera, giriztino onen indar guzia. Ezin hartua zen Jeriko aphezak ixillik zaudezeino; ordean harrabots egiten hasi zireneko, eta populuak harrabots hari ihardetsi orduko, hiri hartako murrak eroriak izan ziren lurrerat. Beraz, san Ambrosiok dioena, giriztinoek garaituren dituzte salbamenduko etsaiak, baldin lege berriko aphezak, predikatzen badute, halatoki eta nihoren beldurrik gabe, Jaunaren hitza. Egia sainduak hedatzen dute bozkarioa Kristau onetarat: irakhatsten diote egoten zerurat hasgorapenez, eta oinen azpian ezartzen Jainkoaganik urrun detzaketen gauza guziak. Behatzen diote mundu huni bigarren Jeriko bati bezala, erran nahi da, hiri maledikzioezko eta higuigarri bati bezala.

## LXII. KAPITULUA

### Hai desegina

Jos. 7.

Josue yabetu zenean Jerikoz, egorri zituen yendeak Hai zaritzon hiriaren ezagutzerat. Ekharri zioten berria lekhu hura etzela hartzeko gaitza, eta etzela armada oso baten beharrik hartaz nausitzeko: hirur milla gizon aski izanen zirela hartako. Josuek sinhetsi zuen gauza, eta etzuen gehiagoko troparik egorri. Gutxi igurikitzen zuen haren yendeak deseginak izanen zirela: bizkitartean hala gerthatu zen. Ihes egin behar izan zuten, eta galdu izan zuten zenbait gizon. Josue eman izan zen ahuspez lurrean arkaen aitzinean, eta egon zen arratseraino hala. Zer? (erraten zioen Jainkoari) errana izanen da bada, Jauna, iragan-arazi dukezula populu hau, Jourdaingo uraz alde hartarat etsaien eskutarat uztekotzat? Inguru hautan direnek entzun behar dute bada israeldarrak eman zaizkola ihesari? Horletan, elkhar adituren dute guziek, eroriko dire gure gainerat, eta lehertuak izanen gara. Orduan zer ethorriko da, zure izen sainduaren ohorea? Jainkoak ihardetsi zion Josueri: Israeldarrek bekhatu egin zutela, bazela zenbait, heien baltsan, haren debekua begiratu ez zutenak, eta zerbait hartu zutenak Jerikoko hirian: beraz (zioen oraino) ez naiz gehiago zuekin izanen, non ez duzuen funditzen hobendun dena, erre bedi dituen guziekin.

Biharamunean, argitu orduko, Josuek bildu-arazi zuen populua: egin zen zortea tribu guzietan, yakitekotzat nor zen hobendun hura. Zortea erori zen Judako tribuaren gainerat, gero tribu hartako familia baten gainerat, eta azkenean Akanen gainerat. Orduan Josuek erran zioen Akani: ene haur maitea, aithor ezazu egia. Ez niri deusere geriza. Hala da (ihardetsi zuen Akanek) ni naiz bekhatu egin dudana: ikhusirik Jerikoko bertze gauzeen artean, kapa gorri eder bat, dirutze bat eta urrezko erregela bat, heien gutizia ethorri zait; hartu izan ditut, eta gorde ene kabanen. Berehala goan ziren kabana hartarat, eta han ediren ziren Akanek erran gauzak. Josuek, ordu beretik har-arazi zuen Akan, haren umeak, eta haren ontasun guziak; eraman zuten Akoren haranerat; eta han harrikatua izan zen populu guziaz, eta errea zituen guziekin.

Punimendu hark aphazegatu zuen Jainkoa, eta erran zioen Josueri, ez zadin izi, libratu zioela eskutarat Haiko hiria hango erregearekin eta populu guziarekin. Josuek ezarri zituen gauaz, lekhu gordetan eta hiritik hurbil tropak, eta manatu zituen sartzeaz hirian, eta hari su emateaz, hark



hortako seinalea emanen zuenean. Ungi argitu zenean, aitzindari hura abiatu zen ageriki armada guziarekin Haiko alderat, hiri hari gudu ematerat. Hiri hartako erregea athera zen bere populuarekin, nahiz bere legen, ihez egorri etsaiak. Israeldarrek egin zuten beldur zirelako itxura; abiatu ziren ihesi. Horrek erakharri zituen hiritarrak hei yarraikitzerat. Ordean atzemanak gerthatu ziren; sobera urrundu ziren Haitik. Arte hartan, gordeak ziren israeldarrak sarthu ziren hiri hartan, eta ezarri zuten sutan. Israeldarren ondoan zohazen yende hek ikhusi zutenean, gibelat behatzean, bere hiria sutan, galdu izan zituzten bere ahal guziak, etzakiten zer billaka. Orduan, itxuraz ihez egiten zutenak eta hirian sarthuak ziren israeldarrak erori ziren betan, heien gainerat eta xehakatu izan zituzten ziren guziak, guphidetsi gabe bakhar bat. Hunela izan zen altxatua israeldarren ohorea. Akanek galdu izan zuen berak bizia, eta hanbat sarraski eragin zuen Jainkoaren manua begiratze eskasez.

San Krisostomek konsideratzen duenean nolako zorigaitza erakharri zioen presuna bakhar baten gaizkiak populu oso bati, hainitz ditu urrikari bekhatoreen baltsan bizi diren arima Jainkotiarrak. Badaki zein lerrakhor den bat-bedera, eta zein errexki etsenplu gaixtoak ero-araz dezaken bekhatuan; hargatik ere, nahi luke saindu hark munduari ihes egin dakion, egin ahal bezanbatean. Gaitz da, dio saindu handi hark, garbi izatea Jerikoen erdian, erran nahi da, mundu-pean, batere kutsatu gabe hango gaixtakerietan eta maledikzionetan. Ala milletan dohatsua baida presuna munduaren phozadura ez denean heltzen haren bihotzerat! Nahi dut gizonak ez dutela gure baitan ikhusten, bertze orduz, Akanek Jerikoko hirian egin zuen bezalako gaixtakeriarik, ez eta bekhatuaren halako ondore lazgarririk; ordean garbi othe gara Jainkoaren eta aingeruen begietan! Nahi dut atzartasun handienarekin ihes egiten diogula bekhatuari, eta ez gindukeiela nahi gure Jainko maitea niholere ofentsatu; ordean zenbat giriztino ez da aurkhitzen berek bekhatua higuin dutelarik, bertzeek bere etsenplu gaixtoez, emeki-emeki, Jainkoaganik urruntzen eta gaizkian eror-arazten dituztenak!

## LXIII. KAPITULUA

### Iguzkia baratua

Josue 10.

Kanaango bazterretako erregeek ikhusi zutenean Jerikoen eta Hai-  
ren zorte ondikozkoa, elkhargana ziren, eta bildu zituzten bere indar  
guziak buru egitekotzat israeldarrei; ordean Gabaongo yendeak bertzeak  
baino zuhurrago agertu ziren. Ezagutu zuten alferretan zela elkhargana-  
tzea, eta etzela deusere israeldarrei buru eman ahal ziozoketenik. Finki  
hartu ziren, huna nola. Yauntsi zituzten soineko ihetxiak: egin zuten,  
Josueren alderat, urrundik heldu zirelako itxura: iduri zuen haren alien-  
tziaren ondoan zabiltzala. Lehenbizian, Josue ez zitzaien sobera fida;  
gerorat gabaonitarrek sinhets-arazi zioten gezurra, hunela mintzatuz:  
ikhusten tutzu ogi hau? Bero-beroak ziren gu herritik abiatzean, eta  
herrauts bilhakutzen hari dire. Ikhusten tutzu arno toki, edo zahagi hau?  
Ez zuten deusere erratekorik, gu etxetik ilkitzean; eta horra nola diren  
erdi hautsiak. Bada gure abarkak eta gure yauntstura guzia berriusak  
ziren bideari lothu gaizkonean, bizkitartean porroskatu hurrenak dire.  
Josuek, eta hark bezala populuaren bertze aitzindariak, fede eman zioten  
gezurrari, eta batere konsultatu gabe Jainkoa, egin zuten gabaonitarrekin,  
yuramentuaren azpian, batasunezko alientzia bat.

Hirur egunen buruko, ezagutu zuten tronperia. Israeldarrak gertha-  
tu ziren, ustekabean gabaonitarren lurretan. Abiatu ziren erauntsian  
gezurti heien guphidetsteaz; hillen ere zituzten Josuek ez balitu hartarik  
gibelatu, senti-arazirik egin zuen yuramentuaren saindutasuna. Engana-  
tzaille heien punimendu guzia izan zen, kondenmatuak izatea bethiko gat-  
hibutasunerat, guzientzat egur pikatzerat eta ur ekhartzerat: horrela itzu-  
ri ziren gabaonitarrik israeldarretarik. Ordean bere hauzotako populu-  
en eskutarat erortzerat zohazen, Josuek ez balitu begiratu hartarik. Adonibe-  
sek, Jerusalemeko erregeak, ikhusi zituenean gabaonitarrik bat eginak  
israeldarrekin, behatu zioten, ordu beretik, bere etsaiei bezala; eta nola  
Gabaon hiri handienetarik baitzen, eta hango populu baitzen hainitz ani-  
motsua, othoitztu zituen inguru hetako bertze lau errege harekin eman  
zieren gabaonitarrei yazartzeko. Populu hau urrikaltzeko izanen zen  
Josueren bihotz-ontasunak eta israeldarren animoak ez balute fagoratu.  
Israeldarrak eman ziren berehala eginbidetan gabaonitarren laguntzeko,  
eta desegin zituzten bortz erregeak. Egunaren laburtasunak debeketzen





zituen hei ondotik yarraikitsetik, eta heien funditzetik; ordean Josuek manatu zion iguzkiari, bara zadiela israeldarrak bere etsaiek arras xehaka zetzaten arteraino. Iguzkia baratu zen bet-betan, eta egin zen sarraski handi bat etsaietan. Mirakuillu hark ez du, iskribu sailduaren arabera, etsenplurik aitzinagoko denboretan, ez eta gerokoetan. Jainkoak nahi izan zioten bere zerbitzariaren bozari obeditu.

Nor dagoke hemen ederretsi gabe halako mirakuillu bat. Jainko baten bothere guzia behar ahal zen erakhartzekotzat arrazoinik gabeko kreatura bat, hala nola iguzkia, errespektatzerat gizon baten manua, eta egiterat hark nahi zuen guzia. Ordu hartan iguzkiak ezagutu zuen Josue baitan, Jesu-Kristok geroztik agertu duen botherea, debekatu duenean bere lege sailduaren argia sartzetik ilhunbetan, eta hedatu dituenegia sailduaren arraiok alde guzietarat.

Jainkoak ez du orai halako mirakuillu ageririk egiten bere elizan. Populuen aitzindariak ezin geldi-araz dezakete iguzkiaren kortsua zeruan, bai ordean gaizkia lurrean. Zer zohakon Josueri (san Ambrosio mintzo da) hala geldi-araztea argizagi hura zeruan, ezin geldi-araz bazezakeien abarizioa lurraren gainean? Manatzen dio iguzkiari, eta obeditua da; iguzkiak ematen dio denbora guzia nahi duen guzia egiteko bere etsaiez; ordean ezin manatu zioen Akanen abarizioari: aitzitik, abarizio hark berak khen-tzen dio eskutarik garaitia, eta egor arazten du laidotsuki ihesi bere etsaien aitzinean. Iguzkia bararazi zuen mirakuillua lege zaharreko handienetarik bat bide da; ala handiagoa baida lege berrian ikhusten dena, ez duken arren distiadura bera, arima batek baratzen eta hil arazten dituenegia bere yaidura edo afekzione gaixtoak; hautsten dituenegia etsaiaren gathe ondi-kozkoak, eta arbuaiaturik mundu galkhor hau, hartzen duenean zuhurki zeruko bide dohatsua!

## LXIV. KAPITULUA

### Adonibesek punitua da

Yuieak 1.

Zerua Josueren alde agertzen zen. Aitzindari hunek desegiten zituen etsai guziak. Etzen herri hetan handirik ez xumerik haren nahitarat erori behar etzenik. Ardietsten zituen, egunetik egunera, abantail berriak. Guziak ihes zabiltzkon; iduri zuen ezagutzen zutela Jainkoak israeldarrei eman zaroen botherea gozatzeko lur hetaz, bere primuzaz bezala. Horrela izan ziren suntsituak, sei urtherik barnean, alde hetako idolatra gehienak. Iskritura sailduak kondatzen ditu hogoi eta hamar erregetaraino garaituak izan zirenak israeldarren aitzindari balentrios hartaz. Jainkoak etzuen utzi, herri hetan, leheneko yendetarik israeldarrak errespektuan eta beldurrean idukitzeko behar zen bezanbat baizik. Nahi zuen ordean geldi zadin lekhuaren gaineko zenbait frogatzekotzat bere populua leihaltasuna, eta heien bidez, punitzekotzat haren kolera saildua bereganaturen zutenak.

Josue yabetu zenean, bere animoaz eta bere armez, Kanaango herriaz, partitu ziotzoten hango hiriak eta lurra Israelgo populuei; eta hori egin zuen zuzentasun eta zuhurtzia miragarrienekin. Bil-arazi zituen hiltzerakoan, tribu guziak, eta erran zioten: ikhusten duzue Jainkoak eman darotzuela, agindu zarotzuen lurra. Bera agertu izan da, zuen alde, lur hartako populuen kontra: hark berak egin zaituzte lur haren yabe. Egia da, gelditzen dire oraino zenbait populu garaitzeko; ordean ez zaitetzela izi: yarraik zakizkote leihalki Jainko Jaunari: maita zazue guzia maitagarria den nausi soberano hura, eta suntsi-araziren ditu zuen etsai guziak, zuen begien aitzienan. Josuek othoitztu zituen populu guziak ez izateaz eta ez ezagutzeaz egiazko Jainkoaz landan, bertze Jainkorik: guziek egindu zioten, yuramentuaren azpian, ez zutela ezaguturen Jainkotzat zeru lurren kreatzaillea baizik. Hil zen bake ezti batean, ehun eta hamar urthetan eta izan zen populu guziaz auhendatua. Aitzindaritasuna izan zuen denbora guzian, populua ez zitzaion behinere erori idolatrian, ez eta Jainkoaren kontra erauntsietan. Dohatsutasun hau ez bide zen gauza gutia gizon miragarri haren begietan!

Josuek yasan zituen gudu hek guziek, nahiz sar-arazi Jainkoaren populua lur aginduan, erakharri dituzte elizako aita erraterat nihor ezin sar daitekeiela zeruko primuzan, non ez duen lehenik khentzen bere bar-



nean dakharkeien etsaia. Baike. Garen guziak kananeenen, eta amorrheeneen meneko sortzen gara; erran nahi da, etsaiaren meneko: egin behar dugu beraz hain ungi non gure bihotza erreberrituen baida guzia, eta atherarik etsaiaren gathetarik, emanen baitzaio, oso-osoa, Jainkoari.

Josue hil zenean, seinalatu izan zen Judako populua, Kaleb zuelarik aitzindaritzat gudu guzietan. Adonibesekek frogatu behar izan zuen lehenbizirik populu haren animo handia. Atakatua eta desegina izan zen populu hartaz: yarraiki ere zitzaion ondotik, ihesi abiatu zenean. Adonibesek izan zen hartua, eta gerthatu zen haren heriotzean, nihon ikhusten ohi ez dena. Ebaki ziotzoten oinak eta eskuak. Orduan ezagutu zuen printze dohakabe hark Jainkoaren yuiamendueen zuzentasuna haren alde- rat. Egin zitzaion berak, hirur-hogoi eta hamar erregei egin izan ziotena: aski barbaroa izan zen ebakitzeko oinak eta eskuak hanbat erregei, eta hei bil-arazteko haren mahainetik erortzen ziren ogi papurrak. Ala Adonibesekek frogatu baitzuen, bere gostuz, Jainkoaren yustizia atzarria datzala populua- ren gainean bezala, erregeen gainean ere! Eraman zuten Jerusalemerat, eta han hil zen.

Adonibesekek, elizako aitek diotena, erakutsi du, bere ondiko- zko etsenpluaz, Jesus-Kristo egia guziarekin mintzo dela, dioenean yuiaturen dituela gizon guziak, dela erregeak, dela azpikoak berek bertzeak yuiatu dituzketenaren eredura. Salbatzailleak erraten daroku oraino printzeek ez ikhusirik ere haren hitza konplitua mundu huntan, Adonibesekek bezala, ez dutela hargatik gutiago frogaturen haren hitz sainduaren egia, bertze munduan. Ezin gibelatuko dire, bizitze huntarik lekhora, erortzetik yuie yustiziak berak yuiaturen dituenaren eskutarat. Orai danik yuie adoragarri hark erraten daroe munduko handiei eta erregei, botheretsuak are bort- hitzkiago izanen direla tormentuak, baldin ez badire behar den bezala baliatzen bere bothereaz.

## LXV. KAPITULUA

### Sisaraen heriotzea

Yuieak 4.

Josue bera, eta haren ondoan, hamabortz urthe bizi izan zirenak, hil zirenean, yuduen populua erori zen deserregelamendu handitan. Eman zuen erakutsterat arimeen zoriona maiz artzain on baten zuhurtziari datxekola, eta bere buruz gidatzen dena urrikalgarri dela. Yuduak buruz- zagirik gabe aurkhitzen ziren, eta nor bere gisa gobernatzan zen: horrek egin zuen, iskribu sainduaren arabera, erori baitziren asko bekhatutan, eta gero gathibusanean; orduan egin ziotzoten bere othoitzak Jainkoari. Entzunak izan ziren. Jainkoak egorri zituen zenbait aitzindari heien libra- tze- kotzat. Hartu zuten yuieen izena. Othoniel, Kaleben, Aoden eta Sam- garen ilhoba eta ondorioa hil zenean, Jainkoak eman zioen Debora zari- tzon emazte bati bere populua- ren aitzindaritasuna: ikhusi zen emazte haren baitan nor-nahi on dela guzietako, Jainkoari hala zaiogenean. Debo- ra aitzindari zela, Jabin Kanaango erregeak gerla biztu zioten yuduei, eta egorri zuen heien kontra Sifara, bere tropeen buruzagia. Debora Jainko- aren izpirituaz bethea zatzen: agertu zuen bakean zuhurtzia bezanbat ger- latean animo. Hasi zen ematetik aitzindari bat Sifaraekin iharduki behar zuten tropei: gaztiatu zion Baraki Jainkoak hura hautatzen zuela bere armadaren aitzindaritzat; ordean Barakek erran zion etzela agerturen ger- late hartan, non etzen hura ere han kausitzen. Hartu zenean guduko eguna, Deborak manatu zioen Baraki abiatzeaz hamar milla gizonekin atakatzekotzat Sifara. Jabinen armadaren aitzindari hau deskantsu guzie- tan bizi zen, nihoren beldurrik gabe: fidantzia itsu bat zuen bere karrio- tetan, eta sega zorrotzez armatuak ziren bere yende ezin kondatuzkotan; ordean Jainkoak sar-arazi zuen, bet-betan, izialdura etsaieen bihotzetan. Azkenaz goiti, Sifara bera eman zitzaion oinez ihesari, eta arte hartan xehakatu zuten haren armada guzia. Ihesi zohala, Jael Haberen emaztea, eta Jabinen urkhua, athera zitzaion biderat, eta othoitztu zuen sartzeaz haren kabanen; ordean ihesi lasterkatzeak behartu zituen haren indarrak, eta etzan behar izan zen lurrean. Jaelek estali zuen, eta eman zioen esnea edaterat, galdetu zioen uraren orde. Sisara lo pisu batean zatzala, Jaelek hartu zuen itze handi bat, sartu zioen burutik, eta itzeztatu zuen lurrare- kin batean. Barak agertu zen handik laster Sisaraen ondoan zabillala, Jae-



lek sar-arazi zuen bere kabanen: molde huntan, Barakek ikhusi zuen Sisa-hil gogorra lurrean.

Deborak eskerrak bihurtu ziotzon Jainkoari garaitia seinalatu hartaz, kantatuz esker-onezko kantika bat, zeinetan altxatzen baitzituen Jaelen zuhurtzia eta animoa. Erran nahi da beraz emazteki batek hasi zuela gerla, eta bertze batek akhabatu. Batak nola bertzeak ezagut-arazten dute Jainkoak ematen diotela emaztekiei, gizoni bezala, indarra eta animoa egiteko handiei buru emateko, berari hala zaioenean. Debora eskuratu zuen bere zuhurtziaz populu bat, zeinaren erauntsien ixil-araztea hanbat gostatzen baizitzaion Moise berari. Debora izan zen oraino, emazteki guzietarik lehena, Jainkoak bere populuaren aitzindariasuna ohoratu zuena. Hain zagokon ederki aitzindegia, non edireten baitziren haren baitan gizon adituenetarik igurik ahal zitezkeien guziak. Berak berezten zituen tropeen aitzindariak; berak ikhusten zuen zer yende galdetzen zuen gudu bakotzak; berak oraino hartzen zituen guduko egunak eta mugak. Baliatu zen, hala da, Barakez; erran daite ordean, hobeki egortzen zuela aitzindari hura garaitzerat ezen-ez gudukatzerat. Barak, zenbat baitzen ere gerlako ofizioan trebe, behatzen zioen Debora, alhargun sailduari, Jaunaren aingeru bati bezala. Uste ere zuen haren garaitia guziak, Debora gudian aurkhitzetik heldu zirela.

Elizako aitek kausitzen dute etsenplu aiphatu ditugunetan, deusere ez dela lurraren gainean handirik eta borthitzik non ez duen asentutzat Jainkoaren izpiritua; gizonak emaztekiak baino oraino herbalago direla, largatzen diotzatenean bere buruak bere flakeziari; eta emaztekiak gizonak baino hazkarrago gerthatzen direla, Jaunaren izpirituaz borthitztuak direnean. Debora eman zuen argitarat Yaun-doni Paulo en hitz hunen egia; Jainkoak batzutan hautatzen dituela, munduaren arabera gutien zuhur direnak, ahalkarazteko zatuhurren direlakoak; orobat hautatzen dituela, bertze aldi batzutan, munduko iduriz herbalenak, konfunditzeko zat borthitzenak.

## LXVI. KAPITULUA

### Jedeonen sakrifizioa

Yuieak 6.

Debora hil zenean, israeldarrak aitzindaririk gabe gerthatu ziren. Abiatu ziren, egundaino bezala, hunenbat gaizki egiten, non Jainkoak largatu baitzituen madianitarren eskutarat. Ikhusi zituztenean bere buruak herstura handitan, altxatu zituzten bere bihotzak zerurat. Heien othoitzak entzunak izan ziren: Jainkoari urrikaldu zitzaizkon, nahi izan zituen lagundu. Gaztiatu zioen aingeru batez Jedeoni, hura berezten zuela libratzekotzat bere populua etsaietarik. Jedeonek guti igurikitzen zuen halako berririk. Harritu zen, eta mintzatu zitzaion aingeruari bere aphaltasunaz, erraten zioela, haren familia, edo egokia Israel guziko behenetarik zela, ez zagokola beraz hari izatea halako obra handi baten buruan. Aingeruak ihardetsi zioen: ahal zohazke deuseren beldurrik gabe, Jainkoa zurekin izanen da, eta haren laguntzarekin, madianitarren oste ezin kondatuzko hek guziak emanen zaizko ihesari, guziek gizon bakhar bat baizik egiten ez balute bezala.

Jedeonek othoitztu zuen aingerua arren eman ziozon seinale bat segurantzatzat erraten ziotzanak egiak zirela. Gero errekeritu zuen igurikitzeaz aphur bat yateko zerbeit ekhar ziozon artean. Jedeon goantzen berehala bere etxerat, dio iskritura sailduak: erre-arazi zuen pitika bat; aphaindu zituen lemami gabeko ogiak, eta ezarri zuen pitika hari erretzean erori zitzaion urrina yarro batean: bihurtu zen gero aingeruaganat, eta eskani ziotzon yanari hek. Aingeruak manatu zioen Jedeoni emateaz haragi hura harri baten gainean, eta isurtzeaz harat urin hura. Jedeonek egin zuenean hala, aingeruak ukitu zuen, eskuan zadukan zigorraz haragi hura, eta momento berean, athera zen harri hartarik su bat guziak ez deustatu zituen: ordu berean suntsitu zen aingerua. Jedeon lastu zen guzia, uste ere zuen hil behar zuela izialdura hartarik; ordean Jainkoak deskantsuan eman zuen haren izpiritua, erranik, zohala desegiterat Baalen aldea, bil zetzala haren ingurutako zurak, eta egin zezala, lekhu berean, aldare bat egiazko Jainkoaren ohoretan, eta ofrenda zezala aldare berri hartan bere sakrifizioa. Jedeonek egin zituen, harorik gabe, eta gau minean, manatu zitzaizkon guziak. Beldur zen lekhu hartako yendez. Yakintsun egin zirenean goiz-alderat lurrerat artiki zutela Baalen aldea, eta Jedeon zela idoi hura heien Jainkoari egin ziotena, sumindu ziren haren kontra; erran zio-



ten haren aitari eman ziozabela Jedeon bere semea eskutarat, hil zezaten-tzat. Urrun da buraso hura eman baitzen hartan: aitzitik, erran zioten hal-toki yende hei, etzagokotela gizonei, bainan bai Baal berari punitzea, bal-din Jainko bazen idoi, hura egin ziotena. Molde huntan, itzuri zen Jedeon, haren biziari nahi zioteneen eskutarik. Geroztik, Jeroboalen izena ekharri zuen. Etsenplu hunek irakhatsten diote eliza-gizonei, heien lehenbiziko eginbidea arimeez kargatzean, dela bethi ekharriak izatea bere bizia hirris-katzerat Jainkoaren mezuei yarraikitzeo eta idolen suntsi-arazteko.

Jedeonek ezagutu zuen ospe handiko sakrifizio hartarik, Jainkoak hautatzen zuela bere populuaren aitzindaritzat. Sakrifizio hark, elizako aiteen arabera, Jesus-Kristoren sakrifizioa bera erran nahi zuen. Jedeon, bere sakrifizioa ofrendatzekotzat, baliatu zen harri misterios hartarik athera zen su hartaz aditu behar dugu Izpiritu sainduaren sua, Jesus-Kris-tok bere heriotzeaz merezi-arazi darokuna, eta bizten duena gure biho-tzetan erretzeko eta arras borratzeko bekhatuaren ondore dohakabeak, eta gureganik urruntzeko gaizkiaren alderako yaidura guziak.

## LXVII. KAPITULUA

### Ardien illen mirakuillua

Yuieak 6.

Jedeonek ezagutu zueneko harritik ilki zen, eta guziak erre zituen su hartarik, hura zela Jainkoak bere populuaren aitzindaritzat zadukana, lehiatu zen israeldarren libratzerat gathibutasunetik. Ordukotzat, madi-a-nitarrek eta amalezitarrek iragan zuten Jourdaingo ura, eta hedatu ziren israeldarren herritarat. Ordu berean, Jedeon argitua izan zen Jainkoaren izpirituz: abiatu zen tronpeta soinuaz, eta egorri zituen bere manuak alde guzietarat tropeen bil-araztekotzat. Ikhusi izan zen ethorki aphaleko, orduraino hurren ezagutua etzen gizon bat arte laburrez, armada handi baten buruan. Urrun da ordean eskutan zadukan bothere handiak hantu baitzuen haren bihotza. Bethi orhoitzen zen Jainkoaganik zuela bere bot-herrea. Etzen supherago agertu ikhustez bere burua halako armada baten aitzindari; aitzitik, humilago baizik etzen izan, iduri ere zuen urrunegi zaramala bere presunaz zuen fidantzia eskasa. Jainkoak, haren fagoretan, egin zuen lehenbiziko mirakuilluak, eta eman zioen animo handia ez ziren aski haren izpiritua deskantsuan ezartzekotzat; nahi zuen oraino Jainkoak eman ziozan bere borondatearen seinale berri bat, eta ezagut-araz ziozan hura hautatzen zuela bere populuaren aitzindaritzat hortan, san Ambro-sioren arabera, bere beharrak baino gureak hobeki zarabillan Jedeonen gogoa: irakhatsi nahi izan diote eliza-gizonei ez dutela behar errexkiegi sinhetsi Jainkoaz direla deithuak bere kargu handitarat, eta Jedeonen kar-gua zen baino infinituki sainduago direnetarat. Jedeonek errekeritu zuen Jainkoa eman ziozan segurantza berri bat hartaz baliatu nahi zela bere populua etsaietarik libratzekotzat, eta erakuts ziozon nahi hura mirakuillu berak esleyitzen zion huntaz: othoitztu zuen beraz Jainkoa arren agrada zakion eman zetzan landa batean ardien illeak; eta erran zioen ihintza erortzen balin bazen ille hetarat landa bera batere busti gabe, ezaguturen zuela hartarik, Jainkoak libratuko zuela populua. Mirakuillu hau egin izan zen Jedeonen nahiaren arabera; ordean haren humiltasun handiak bazi-rauen oraino. Egundaino bezala, othoitztu zuen Jainkoa egiteaz bigarren mirakuillu bat, lehenbizikotik bertzelakoa; erran nahi da, ihintzak busti zezan landa guzia, batere erori gabe ardien illeen gainerat. Jainkoak egin zuen hori ere, nahiz osoki seguratu Jedeon hura hautatzen zuela bere populuaren libratzailletzat.



Bi mirakuillu hek erakutsten zuten, diote elizako aitek, Jainkoak zer egin izan duen, lehenik, yuduen alderat, eta ondoan, giriztinoen alderat: Judako erresumakotzat zaduzkan, bertze orduz, bere grazia guziak. Erresuma hura zen bakharra zeruko ihintza gozoan fagoratu. Bertze herri guziek etzuten ikhusten agortasunik baizen, eta bekhatuén kharreen erdian erretzen hari ziren. Ordean orai orduko mirakuilluaz bertzelako bat ikhusten da: guzietarat hedatua den elizak errezibitzen du, frankia handian, Jainkoak haren ihintztatzeko egorri dioen uri salbagarria, Judea bere aldian agortasunean datzan denboran, ondikozko erresuma hark urrundu izan ditu bereganik Jesus-Kristoren miserikordiak, bere esker gabetasunaz. Zeruko fagoreek erakharri behar bidean yuduak humilago izaterat, ez ziren supherago baizik agertu. Mirakuillu batak nola bertzeak irakhatsten darokute Jaunaren grazia zeruko ihintzaren pare dela: erran daite beraz graziaz gabetua den arima lur agor, iguzkiak alde guzietarik erretzen duenaren iduriko gerthatzen dela.

## LXVIII. KAPITULUA

### Jedeonen soldaduak

Yuieak 7.

Aiphatu ditugun bi mirakuillutarik Jedeonek hartu zuen azkenean finki Jainkoak hura naihi zuela bere populuaren aitzindaritzat, eta garaituren zituela etsaiak, Jainkoak agindu bezala. Eman zen, zen guzia Jaunaren nahiaren egiten, eta agertu zuen haren manuen alderat, aitzinagoko uzkurtasunaren orde, lehariak khartsuena. Bildu zuen, arte laburrez, populu oste handi bat, eta eman zen madianitarren kanparen aitzinean; ordean hasi gabe gudukatzen, Jainkoak erran zioen Jedeoni: *Yende sobera duzu zurekin. Ez da horren bertze mundu behar madianitarren garaitzeko, israel-darrek uste lukete ez dutela ene laguntzaren beharrik, bere indarrak aski dituztela garaitiaren ardiestekotzat: adi araz zazu beraz kanpa guzian, iziper guziak ahal dohazkela bere etxetarat.* Berehala hogoi eta bi milla gizon hastandu ziren bertzetarik; hamar milla gelditzen ziren bakharrrik. Jainkoak erran zioen Jedeoni: *Oraino sobera mundu gelditzen da. Erakhar ezatuz guziak Jourdaingorriberaren hegirat, eta han erakutsiren darozkitzut zein diren yarraiki behar zaizkitzunak, eta egorri behar ditutzunak.* Armada ur hegirat zenean, Jainkoak erran zion Jedeoni: *ematuz alde batean ura ahurrean hartu dutenak edatekotzat, eta ematuz, bertze aldean, makhurtu direnak edatekotzat.* Hirur ehun gizon bakharr gerthatu ziren ahurrean edan zutenak; bertze guziek, makhurturik edan zuten. Orduan Jainkoak erran zion Jedeoni: *Aski ditutzu hirur ehun gizon hek madianitarren garaitzekotzat, egor atzu bertze guziak bere etxetarat.*

Jainkoak irakhasten daroku etsenplu huntaz, lakhet duela berak bereztea bere zerbitzariak eta gai direnak sartzeko haren milizia sainduan, gudu egiteko haren etsaiei. Hemen ageri da gutiak direla haren egiazko zerbitzariak; ezen hogoi eta hamabi milla gizonetarik, khentzen tu berehala hogoi eta bi milla, eta oraino gelditzen ziren hamar milletarik ez ditu beretzat idukitzen hirur ehun baizik. Jainkoaren zerbitzatzekotzat on direlako seinalea zen ez makhurtzea edatean, eta ez ematea bere egartsuari doieko soleyimendua baizik, hura ere, trikatu gabe, iragatean bezala. Jainkoaren nahia da haren zerbitzariak dauden xuxen eta tieso altxatuak zeruko alderat, eta ezin bertzez makhur deiten lureko alderat. Guziarekin, gizon bezala, ezin bertzez bada ere, iharduki behar dute munduarekin; ordean baliatu behar dire munduaz, dio Yaun-Doni Paulek, hartaz baliatzen ez balire bezala, eta ahalik gutiena hedatu behar dute izpiri-



tua behere huntako gauzetarat, mundu hau denaz geroz bere bidan dohan uraren pare: ez dugu beraz zeren eman gure bihotza mundu iragankhor huni: egon behar du aitzitik, zerurat altxatua; han ediren behar du oraidanik bere egiazko egoitza. Aithor agun ordean bakharrak direla hunela bizi direnak Jaunaren zerbitzari beren artean: bakhar hek bizkitartean, egi-ten dute elizaren indar guzia, hek dire gudu ematen diotenak elizaren etsaiei haren lege sainduei nahi diotenean.

## LXIX. KAPITULUA

### Madianitarrak deseginak

Yuieak 7.

Jedeon eman zen hirur ehun gizon heieen buruan, eta hurbildu zen etsaietararat. Heltzen ziren ehun eta hogoi milla gizonetaraino, eta ziren kanpatuak haren batean. Ondoko gauean, Jainkoak erran zion Jedeoni zohala bera, edo lagun batekin etsaieen kanparat entzutekotzat hango solasak. Harat heldu zenean, entzun zuen soldadu bat hunela mintzo zitzaiona lagun bati: ikhusi dut gauaz, ametsetan garagarrezko ogi bat, bira-bira, yautsten mendi goratik, eta artikitzen lurrerat bere bidean bathzen zuena. Amets hunen kondatzaileari erran zioen lagun hark ogi hura Jedeonen ezpata zela, arras desegiterat zohana madianitarren armada, Jedeonek entzun zuenean amets hura, eta yakin zuenean zer erran nahi zuen, eman zen ahuspez lurrean, eta adoratu zuen Jainkoa: bihurtu zen gero berehala bere kanparat, eta erran zioen bere yendei: abia gaiten, ezen Jainkoak libratu du gure eskutarat madianitarren armada.

Jedeonek partitu zituen bere hirur ehun gizonak hirur araldetan: eman zaroen tronpeta bana eta lurrezko eltze bana, zeinetan baitzen lanpa bat, eta manatu zioten egiteaz hark bezala. Gau-erdi gainerat, Jedeonen soldaduak hurbildu ziren etsaienganat, hirur aldetarik. Hasi ziren tronpeta yotzen eta hautsten bere eltzeak, batzuk bertzeak yorik, batere aldaratu gabe bere lekhutarik, eta erraten zutela oihuz: Jainkoaren eta Jedeonen ezpata. Ikhara lothu zitzaien madianitar guziet: etzakiten non ziren, eta Jainkoak nahi izan zuen heien ezpatak balia zitezen elkhar hiltzekotzat. Madianitar gehienak, orobat heien aitzindariak eman zitzaizkon ihesari; ordean Jedeon abiatu zen heien ondoan, eta hurren guziak hartuak eta hillak izan ziren. Horrela izan zen desegina israeldarren eskuz, edo hobeki, Jainkoaren bothereaz, madianitarren armada ikharagarri hura.

Zenbatenez, dio san Gregoriok, gudukatzeko molde hura baitzen ohi ez bezalakoa, hanbatenez da ageri zenbait misterio gorde erakutsten zuela; eta egiaz, nor izan da egundaino gerlarat armarik gabe? Nor egundaino baliatu da lurrezko eltzez etsaien muthiritasunaren zebatzeko? Gudu gisa hark, saildu beraren arabera, dosteta bat idukiko zuen ez balu hedatu izialdura handiena madianitarren bihotzetarat. Jainkoak irakhats-ten daroe etsenplu hartaz lege berriko soldaduei, erran nahi da giriztinoie,





baldin garaitu nahi badituzte salbamenduko etsaiak, ez dutela zeren kondatu bere egin ahal flakoen gainean; bainan heien othoitzak behar direla zerurat hedatu, tronpeta soinua ingurutarat hedatzen den bezala, eta hautsi behar dituztela pasione guzien gatheak, eltzeak hautsten diren bezala. Lurrezko eltze hek markatzen zuten gure gorphutzaren herbaltasuna. Berriz, Jedeonez aditu behar dugu Jesus-Kristo bera. Salbatzaille maiteak bere zerbitzaritzat berezten dituenak dire bakharrik bere buruak arbuia-tzen, eta bere arimako etsaiek hil-arazten dituztenak bere bihotzetan, bera gure bekhatuengatik gurutzean hil izan den bezala.

Jainkotiarrak behatzen dio bere gorphutzari lurrezko eltze hautskhor bati bezala; eta hiltzen denean, haren arimak argitzen eta distiatzen du Jedeonen soldaduen lanpek bezala. Gehiago diot: arima garbi hark ahal-karazten eta konfunditzen ohi ditu berthutearen etsaiek. Gauza hau bera gerthatu da martirioa yasan duten sailduetan. Askotan tiranoen eta burreuen errabia guzia garaitzen zuten bere pairakortasunaz, bere bert-huteen eta mirakuilluen distiadura bakharrak. Erragun oraino: giriztino leihalaren arbuiatzailleak izan dire berak heien ohoratzaileak; hilarazi dituzten gizon zoro hek berak ikhusi dire, egia saildua ezagutzen, maitatzen eta hari yarraikitzen.

## LXX. KAPITULUA

### Abimeleken heriotzea

Yuieak 9.

Hil zen Jedeon, gobernatu ondoan populua sailduki. Utzi zituen hirur hogoi eta hamar seme, emazte batzu eta bertzetarik izanak. Sikemgo emazteki batenganik izan zuen, bertze-alde, seme bat, Abimelek zaritzona: hunek nahasmendu hainitz eman zuen, aita hil zitzaionean. Amoratu zituen fiximitarrak bere amaren arartekotasunaz eta bere emaitzeez: adi-arazi zioten balinba hobe zela erregina zezan berak bakharrik ezen-ez haren haurrideek, erran nahi da, Jedeonen hirur hogoi eta hamar umeek. Siximitarrek sinhetsi zuten Abimelek, eta hartu zuten bere erregetzat. Eman zioten dirutze handi bat, eta altxatu zituen berehala zenbait manduler eta gaixtagin. Eraman zituen Jedeon, bere aitaren herrirat, eta hilarazi zituen bere hirur hogoi eta hamar anaiak, batez landan. Hetarik gazteena eta Hoathan deitzen zena, gerthatu zen bakharra itzuri zitzaiona Abimeleken fuliari. Joathan gazteak entzun zuenean siximitarrak bilduak zirela kanpan bozkariatzeko xedez bere errege berriaz egin zuten hautuaz, agertu zen, bet-betan, mendi baten gainean: handik eman zioten, hitz estaliz, siximitarrei begitarat bere esker-gabetasuna, goraturik boza. Hortakotzat, mintzarazi zituen arbolak, bere artean errege bat berezten balute bezala. Lehenik berezi zuen azitun edo olib-ondoa, gero phiko-ondoa, handik mahatstia: etzen arbola hauk guzietan gerthatu batere errege izan nahi zenik: azkenean, hartu behar izan zuten erregetzat elhorria. Elhorrriak agindu zioten ausarki gorderen zituela bere itzalaren azpian.

Joathanek othoitztu zuen Jainkoa punitzeaz yende hek Jedeoni egin zioten idoi-az, eta ez balin bazuen laudatzen Abimelekez egin zen hautua, permeti zezan ilki zadin elhorri hartarik su bat iretsiren zituen siximitarrak, eta heiekin batean, Abimelek bera. Jainkoak entzun zuen Joathanen othoitzta: hirur urtheen buruko siximitarrak aseak izan ziren bere erregearen dorphetasunaz, eta nahi izan ziren athera haren uztarri pisuaren azpitik: bazuten hortakotzat Gaal zaritzon printze baten laguntza: etziren ordean aski borthitzak Abimeleki buru emateko. Errege gogor hunek garaitu izan zituen, eta desegin zioten asentutarainokoan bere hiria. Horrela Jainkoak punitu zituen siximitar eskergabeak Jedeonen alderako bere traidorekeriaz, baliatzen zelarik hortakotz zuzen kontra erregetzat hartu izan zuten gizon beraz. Handik laster Abimelekek sethiatu zuen



Thebes zaritzon hiria. Hiri hark zuen dorre handi bat, eta dorre hartan sartu ziren hiriko yende guziak. Hurbildu zenean Thebesi su ematerat, emazteki batek artiki zion dorre gainetik ihara harri bat, eta haren eskarda batek hurren lehertu izan zuen. Abimelek supherrak etzuen nahi izan zadin errana emazteki baten eskuz galdu zuela bizia: manatu zioen bere eskutariari arren akhaba zezan lehen-bailehen. Hala ere egin zitzaion.

Abimelekek yasan zuen, erran dugun molde ondikoizan, merezi zuen punimendua hil-arazteaz bere anaia. Uste zukeien Jainkoa etzela orhoitzen haren hoben izigarriaz, zeren etzuen berehala punitu, eta zeren, geroztik ere, gauzak bere nahitarat yoan zitzaizkon. Ala guti baitzakien Jaunaren pazientziak badituela bere mugarriak! Ez ditu berehala heriotzeaz punitzen gaixtaginak, nahiz baliarazi gaixtakeriak berak onetako. Irakhatsten diote bekhatoreei azkenean yautsten dela, bet-betan, zeru goratik heien gainerat, eta heien gal-arazterat. Erran daite Jainkoaren yustizia saildua harri handi baten pare dela, ohore gorenerat altxatuak diren gaixtaginak eror-arazten dituela, hala nahi duenean, thulunbioan barna.

Elizako aiteei zaie oraino Abimeleken etsenpluak irakhatsten diotela gizonei, deusek ere ez dakharkela nihor hala bere anaieen persekutazterat, nola nautsi izan nahiaren hirritsak. Orgilleriatik heldu den pasione hunek zorutzen ohi du izpiritua, eta ahantz-arazten anaiei eta burasoei berei zor zaien amudioa eta errespektua. Anbizioenez itsutua denak badarama bere zoramendua azken hariraino: urrun da baidu damurik ikhustez isurtzen bere hurbillenean odola, hortaz beraz atsegirik baizen ez du. Lariatzen ohi da ikhustez hiltzen haren goratasunari gibelamendu edo debeku ekhar diozoketenak.

## LXXI. KAPITULUA

### Jefteren alaba

Yui. 11.

Abimelek gaixtagina hil zenean, israeldarren erresuma erori izan zen Tholeren eta Jairen eskutara. Azkeneko hunen ondorio gerthatu zen Jefte. Egia da, emazteki gaizki bizi zen batenganikakoa zela; ordean Galaaden umea aurkhitzen zen. Bere anaiek ez zuten nahi ezagutu haurridetzat, behartu ere zuten heltzerat Toberen herrirat. Nola animo handitakoa baitzen, zenbait nanduler, ebaskoz bizi zirenek, hartu izan zuten bere aitzindaritzat. Denbora hartan berean, amonitarrek hersturan zaduzkaten israeldarrak gerla kruel batzuz. Hunenbat gaitz bazuten yasateko etsai heien aldetik, non iduritzen baizitzaie Jeften animoa ahal zela heien erremedio baxharra. Israeldarrek egin zuten beraz, bere artean, gaztiatu behar ziotela Jefteri, hel zadilla, othoi, heien laguntzerat. Jefte erori zen othoitz hartarat. Minki errenkuratu zitzaie israeldarrei haren alderat erabilli zituzten manera txarrez. Israeldarrek erakutsi zioten bere urrikia, eta seguratu zuten ekharriren ziotela obediencia bere printzeari bezala. Jeftek egin zuen berehala urruntzat amonitarren erregea israeldarren kontra hartu zuen xedetik; ordean haren egin-ahal guziak alferretan gerthatu ziren: etzuten batere kantitu errege haren bihotza; etzuten gibelatu gudukatzeko zuen nahi handia. Arte hartan, Jaunaren izpiritua yautsi zen Jefteren gainerat: bil-arazi zituen tropak alde guzietarik, eta abiatu zen amonitarren ondoan. Jainkoari botu egin zioen baldin ematen bazioen garaitia, sakrifikaturen zioela, bere etxetik biderat lehenbizirik ilkiren zitzaiona. Jeftek garaitu zituen etsaiek; ordean garaitzirik heldu zen bozkarioa laster izan zen itzulia atsekabe min batetara. Etxerat bihurtzean, biderat leheni athera zitzaion presuna, gerthatu zen haren alaba baxharra, alegantzia guzietan, eta gathanbore soinu zohakona, dantzan, bere emazteki lagunekin. Zer bihotz-min buraso harentzat, orhoitzean bere botuaz, eta ikhustean bere alaba! Ume hunek yakin zuenean zer botu egin zuen haren aitak, etzen batere lotsatu: bera zen erakhartzen zuena haren konplitzerat, erraten zioelarik deskantsuan hillen zela ikhusirik amonitarrak garaituak. Ume hark, burasoari galdetu zion grazia baxharra izan zen utz zezan, othoi, bi ilhabetez, menditan auhendatzerat bere heriotzea, gathanbore soinu, hari yarraiki zitzaizkon lagunekin batean. Bi ilhabete hek



iragan zireneko, alaba hura bihurtu zen bere aitagana. Orduan, aita hark konplitu zuen ondikoz! bere botu arina.

Elizako aiteei zaie Jefteren botua floxkiegi izan zela egina; eta diote orai ere badirela asko presuna lasteregi lerritzen direnak botutarat. Hortik beretik, ezartzen tuzte bere buruak premia ondikozko batean; edo bekhatu egiteko ez konplitu botuak, edo konplitzeko botuak, Jainkoa ofentsatuz. Hobe ahal da, dio san Ambrosiok, ez egitea boturik, ezen-ez hartzea botuz, Jainkoak gaitzesten dituen gauzak, eta gaixkirik gabe ezin konpli daitezkenak, Jeftek berak ezagutu bide zuen bere botuaren inprudentzia eta arinkeria. Zer behar ez zitzaion gosta haren amudioari ume maite baten sakrifikatzea? Ezin bertzez eman zen eginbide dohakabe hartan: uste zuen ezin gibela zitekela hartarik, eta haren botuak baitezpada konplitu izan behar zuela. Errateko hainitz bada, ikhusia den bezala, aita hark halako botu bat egiteko eta bethetzeko izan zuen arinkeriaz; ordean erran behar da, alaba haren orduko konportamendua osoki zela miragarria. Bi ilhabete heien buruan, bihurtzen da alegeraki hura inmolutu-gogo zuenaren eskutarat. Ez bere lagun nigarrek: ez beithi begietan zakharkeien heriotzearen orhoitzapenak: hitz batez, deuserik ez du lotsatzen, deusek ere ez du izitzen. Erran daite alaba hark konplitu zuela, nolazpait ere, sakrifizio hark haren aitaren partetik eskas zuen guzia. Iduri zuen bortxazkoa; bizkitartean borondatezkoa gerthatu zen. Bekhatutik heldu zen sakrifizioa, diote elizako aitek, aurkhitu zen, alabari esker, holokausta bat xoil agradagarria Jainkoaren begietan.

Neskatxa gazte, zeruko amodioaz eta munduaren alderako higuintza saildu batez hartuak direnek, ikhas dezakete Jefteren alabaren eskolan, inmolatzen alegeraki Jainkoari bere buruak, burasoek sakrifikatu nahi dituztenean munduko ergelkeria, edo intres zikhin bati. Aurkhitzen dire burasoak, itsumendu auhendagarria! Axolarik batere ez dutenak sakrifikatzeaz bere umeak munduko izpirituari, ohore funtsik gabekoari, edo ontasun iragankhorrei, orhoitu behar bidean egiazko ohorea eta aberatasuna berthutean eta Jainkoari yarraikitzean datzala. Badire oraino bertze buraso batzu, ukho bezala egiten diotenak odolari, ez dutenak batere damurik bere umeen heriotzeaz, nahiz berak gozatu hei zor zaieen ontasunez, edo heien ondoan heldu zaienez. Hulako ordutan neskatxa Jainkotiarrek egin behar dutena da, altxatzea zerurat bere bihotzak, eta largatzea bere buruak, zabal-zabala, Jaunaren eskutarat. Ez beitez eman penetan ea xuxen, ala makhur dabilzan heien burasoak: bilha bezate, guzien gainetik Jainkoarengana amudioan, eta leihaltasun saildu batean bere barneko bakea eta konsolamendua; eta ordutik ez dute deuseren eskasik

izanen. Umeek, zer nahi atsekabe eta damu duketen aita ametarik, adortu behar dute probidentziaren zuhurtzia. Askotan baliatzen da burasoen bihotz gogortasunaz, edo intresaren alderako heien amarradura sobraniazkoaz, hiz batez, heien gaixkiez, oraino finkiago erakhartzekotz umeak zeruko bide dohatsurat.



## LXXII. KAPITULUA

### Sansonen sortzea

Yui. 14.

Iskrittura sainduak ez du, Jeftetik lekhora, gauza baitezbadakorik aipatzen, baizik Sansonez mintzo denean. Xeheki dakharke gizon miragarri haren bizia. Sanson zen Danen tribukoa. Aingeru batek erran zion haren amari, etzela gehiago agor egonen, emanen zuela mundurat haur bat Jainkoari konsekratua izan beharko zena; beira zadiela beraz edatetik arnorik, edo hordi-araz dezaketen edaritarik. Emazte hark erran zioen bere senharrari zer iragaten zen. Senhar hunek nahiko zuen berak ikhushi aingeru hura. Jainkoak laudatu zuen haren nahia. Emazteak ikhushi zue-nean aingerua bigarren aldikotzat, deithu zuen berehala bere senharra. Senhar hunek othoitztu zuen aingerua, onhets zezan aphain zezaten pitika bat harentzat. Aingeruak ihardetsi zion: ez dut niholere yanen; bainan ungi balin bazaitzu ofrenda diozozu holokausta bat Jainkoari. Manuek (hunela deithzen zen senhar hura) galdegin zioen bere izena aingeruari, nahiz bere ezagutza erakutsi, hark erranak konplituren zirenean. Aingeruak ihardetsi zuen: ez duzu zeren nere izena galdetu: hori da gauza gorde bat yakinen ez duzuna. Manuek hartu zuen pitika bat, ezarri zuen harri baten gainean, eta ofrendatu zion Jainkoari. Orduan egin izan zen mirakuillu bat Manueren eta haren emaztearen begietan. Harri hartarik ilkitzen zen kharra altxatzen hari zela zeruko alderat, aingerua higan zen khar haren erdian, eta suntsitu zen. Senhar emazte hek ezagutu zuten ordu hartan, gizontzat zedukatena aingeru bat zela: ikhara sarthu zen heien bihotzetan, eta eman ziren lurrean ahuspez; Manue beldur zen hill. Emazteak altxatu zion bihotza, erraten zuela: Jainkoak nahi izan bagintu hil arazi, etzuen onhetsiren gure sakrifizioa, eta ez gintuen yakintsun eginen ethorkizunaz.

Jainkoak agindu bezala, Manueren emazteak eman zuen mundurat ume bat, Sanson zaritzona. Ume hura handitu zen, eta Jainkoak benedikatu izan zuen; ordudunik Jainkoaren izpiritua haur haren baitan edireten zen. Sanson, hemezortzi urthetarat zenean, nahi izan zen ezkondu filistindar batekin; galdegin zioen bere aitari laudamendua. Aita hura nekhez erori zen hartarat, filistindarraren aiphamenak berak lastu zuen guzia; etzekien alabainan Jainkoaren izpirituak zarabillala Sanson. Sansonek markatzen zuen Jesu-Kristo guziz botheretsua, esposaturen zuena, egun

batez, jentilen eliza, utzirik Judea. Sansonek bilhatzen zuen ezkontza hartan, parada bihurtzeko filistindarrei, berek hanbat urthez israeldarrei yasan-arazi zioten gaixkien ordaina.

Sansonek, emazteki filistindar harengana zohala, harekin ezkontzeko, bathu zuen lehoin gazte bat errabian zohakona: Jaunaren izpiritua ez bethea nola baitzen, athera zitzaion lehoin hari armarik gabe, zigor bat ere gabe: lothu zitzaion basa abere hari, eta eman zuen zathitan, pitika bat izan balitz bezain errexxi. Handik zenbait denboraren buruan, bide bereetik iragatean, nahi izan zuen ikhushi berak hillikako lehoina: ediren zuen haren zintzurtean erlen ezta, bere kofunetan egin izan balute bezala; hartu eta yan zuen ezti hartarik, eman ere bai bere burasoei. Handik laster Sansonek egin zuen bazkari bat bere ezteietan zituen gizon gazte lagunekin, eta erran zioten: Explika zatzue hitz hau: yanaria ilki da iretsailleaganik, eta eztitasuna borthitzaganik. Gizon gazte hek etzuten sekulan bere baitarik emanen explikazione hura; ordean othoitztu zuten Sansonen emaztea yakiteaz senharraganik hitz hek zer erran nahi zuten. Emazte hau abiatu zen hunenbat antzerekin lausengatzen bere senharra, non azkenean ardietsi baitzuen nahi zuen guzia. Lehiatu zen gizon gazte hek yakintsun egiterat explikazione hartaz.

Aiphatu dugun lehoinaren etsenpluak adiarazten zuen, aitzinetik, elizako aiteen arabera, Jesus-Kristok, egun batez, egin behar zuen ganbiamendu handia paganotan eta idolatretan: erran daite populu hauk, bertze orduz, lehoin errabiatu baten pare zirela. Etzuten batere urrikalmendurik giriztinoez; aitzitik, ematen zituzten zathitan: ordean salbatzailleak garaitu eta ematu ditu bere bothere bakharraz, eta armarik batere gabe. Hain ungi egin izan du non heriotzeko sententziarik baizen ekhartzen etzuten enperadoreek utzi baidituzte giriztinoen kontrako bere manu dorphe eta kruelak, eta agertu baidire elizaren alde; hil-arazi tuzte bera bihotzetan kharatstasuna eta krudelitatea, eta egin izan dire eztiaren pare arima Jainkotiarren alderat: erran nahi da beraz, salbatzaileak bere heriotze sainduaz, egin duela lehoina baino kruelago zen populu batez, populu berri bat, populu bat sarthua dena salbamenduko bidean, eta giriztinoek duten zuzen bera duena zeruko erresuman. Ganbiamendu zorionezkoa! Lehenago paganokeriaren eta idolatriaren ilhunbe loditan bizi zirenak dire orai, Jaunaren miserikordiari esker, fagoratuak graziaren argi preziatuaz: biztuak dire Jesu-Kristo baitan; gorphutz bat egiten dute giriztino guziekin, eta Jainko bera ezagutzen dute bere yabe eta nausi adoragarritzat.



## LXXIII. KAPITULUA

### Filistindarren desegitea

Yui. 15.

Sansonek damu handi bat hartu zuen ikhustez emazteak enganatu zuela hitz legunez eta lausenguez. Gaitz nahi izan zioen traidorekeria hartaz. Sumindu zen haren kontra eta hastandu harenganik. Sansonen emaztearen ahaidek uste izan zuten senharrak utzi zuela alde baterat: sinhetste hartan, ezkondu zuten haren ezteietan gerthatu zen gizon gazte hetarik batekin: handik laster, Sanson bihurtu zen bere emazteaganat: haren aita athera zitzaion biderat, guzia izitua. Erran zioen bere suhiari ezkondu zuela haren emaztea bertze batekin: bainan bazuela bertze alaba gazteago bat, eta ezkon ahal zitekeiela harekin. Sansonek etzuen hulakorik aditu nahi izan: ihardetsi zuen filistindarrek orhoitzeko izanen zutela hetarik zuen idoiatz, eta bere faltaz, yasan beharko zituztela heien gainerat erortzeko ziren gaitz guziak. Huna nola hartu zen yazartzekotz filistindarrei: lothu zituen, buztanetik, hirur egun axeri, birazka, eta eman zioten guziei, argi bana; gero largatu zituen filistindarren landa bihitarat eta mahatstitarat, eta eman zituzten bazter guziak sutan. Filistindarrek yakin zutenean Sansonenganik heldu zitzaie la kalte min hura, eta zerk erakharri zuen hartarat, aspertu zitzaizkon haren aita ginharrabari eta haren emazteari, eta erre zituzten bata eta bertzea.

Sanson etzen hartan baratu. Egin zuen sarraski handi bat filistindarretan, eta hedatu zuen ikhara alde guzietarat. Filistindarrak bildu ziren hirur milla gizonetarainokoan, eta abiatu ziren Sansonen ondoan. Israeldarrek ikhusi zutenean yende oste hura armetan, izitu ziren; eta nahiz hek amonatu, hitz eman zioten libratuaren ziotela Sanson amarraturik. Lothu izan zuten bi soka lodiz, eta eraman zuten hurren filistindarren arterat. Haren etsaiek etzuten hain laster ikhusi hala estakatua, non yarri baitziren bozkario guzietan hartaz nausi izan balire bezala: ala tronpatzen baitziren! Sansonek egin zituen soka hek bi erdi, sare batzuk izan balire bezain errexki, eta lurreen aurkhitu zuen asto baten matraillarekin, hil zituen milla filistindar. Garaitia huntarik lekhora, Sansonek izan zuen egartxu khalda bat, eta egin zioen Jainkoari othoitz hau: Jauna, zuk begiratu duzu zure zerbitzaria: zuk eman darotazu biktoria handi bat: ikhusten duzu egartsuak hiltzerat naramala, eta etsaieen eskutarat erortzeko menean naitzela: Jainkoak entzun zuen Sansonen othoitz, sor-arazi zuen matrailla

hartako hortz batean ithurri bat: Sansonek edan zuen, nahi zuen bezanbat, eta ardietsi zituen bere indar guziak. Ezagutzaz bethea izan zen Jainkoaren alderat, halako mirakuillu bat egiteaz haren fagoretan: nahi ere izan zuen lekhu hark ekhar zezan haren bihurkhundearen bethiko seinale bat ematen zioen izenaz: izen hura zen *mirakuilluaren lekhua*.

Elizako aitek admirazione saindu batekin, eta errelijionearen begiekin, behatu diote erranik heldu garen gauza espantagarri: bertzela egiten dute mundutiarrek. Probetxatu behar bidean salbamendukotzat hualako historio sakratuez, hautaz dosteta profano bat egiten dute, batere sartu gabe Jaunaren xede adoragarrietan. Ez othe da, hori bera idoi egitea haren hitz sainduari? San Gregorio handiak ederretsten du Jainkoaren bothere guzizkoa: miretsia dago nola Jesu-Kristok Sanson egiazkoak desegin dituen, armarik batere gabe, bere etsai muthirienak. Sansonen arma bakharra filistindarren kontra abere hil baten matrailla izan zen bezala, orobat, salbatzaillea baliatu izan da gizonik herbalenez, heien ezitetasunaz eta pairakortasunaz errelijionearen kontrako etsaiek borthitzenak garaitzeko eta urmariatzeko.

Jesu-Kristo bezala pairakor izan direnak, eta haren ohoretan bere bizia alegeraki eman dutenak bilhakatu dire, mundu huntarik lekhora, ur bizizko ithurri dohatsu batzu, zeinetarik Jainkoak hedatzen baiditu eliza guziaren gainerat ezin erran bezanbat grazia salbagarri.



## LXXIV. KAPITULUA

### Gazako atheak

Yui. 16.

Iduri zuen filistindarren fuliak iraungitua izan behar zuela, eta etzuela zeren berriz abiatu Sansonen kontra, desegin ziotzotenaz geroz, aipatu dugun molde murakuilluzkoan, milla presuna. Ordean Sansonen kontrako gerlek nahi zuten erran etsaiak, egun batez, altxaturen zirela Jesu-Kristoren eta haren elizaren kontra: beraz Sansonen kontra agertzen ziren presekuzione berriek irakhatsten darokute salbamenduko etsaiek bethi yazarriren darokutela, eta ikhususik ere Jainkoak heien gainean ematen darokun garaitia, ez direla behinere baratuko gu persekutatzetik.

Filistindarrek utzi behar bidean Sanson deskantsuan, bederen bere buruengatik, hartaz yabetu nahizko hirritsan bizi ziren. Eskuratu nahi zuten gizon ikharagarri hura, molde batez edo bertzez: hortakotzat zelatatzen zituzten arthoski haren hurrats guziak. Erran izan zitzairen, egun batez, Sanson Gazako hirian zela. Berri hura entzun bezain laster, bildu izan ziren arte laburrez, eta inguratu zuten hiri hura, alde guzietarik: ezarri zituzten soldadu osteak athetan, eta iragan zuten gau osoa, hiriaren ingurutan, ixiltasun handian. Heien xedea zen hiltzeko Sanson, goiz-alderat, ilkiko zenean Gazatik. Ala tronpatzen baitziren bere xedetan! Filistindar hek guziak hala zabiltzan denboran nahiz Sansonez yabetu, Sanson lo zatzen deskantsuki. Urrun da gogoratzen baitzitzaien edireten zen hirriskua; ordean yakin zuenean zer iragaten zen, yeiki zen gauaren minean, hedatu zen deuseren beldurrik gabe hiriko athe baterat, sueltarazi zuen bere sarrail eta partaderekin; eman zuen bere bizkarrean, eta eraman mendi gora baterat; iragan zen hura atzeman nahi zuteneen erditik, eta guziak ikharatuak egon ziren ikhustez halako gauza espantigarri bat. Horra beraz nola izan ziren berriz ere urmariatuak filistindarren esparantzak guziak. Ikhusi behar izan zuten gizon bakhar bat gal-arazteko egiten zituzten egin ahal guziak alferretan zirela, eta heien laido handitan gertatzen zirela.

Sansonen etsenpluan ezagutu-behar dugu, san Gregorio handiak dioen bezala, Jesu-Kristo bera. Etsaiek yazarri izan diote gure salbatzaille maiteari, bere bizitze guzian; sarthu izan dute hobia batean; inguratu izan dute goardiareiz hobia hura, filistindarrek Gazako hiria inguratu zuten bezala, Sanson deskantsuki lo zatzen denboran; ordean Sanson egiazkoa

atzarri izan da gauaren minean; biztu izan da lorioski, libratu bere etsaieen artetik, eta athera hobitik, ez gehiago hiltzekotan; eta nahiz gizona ere libratu Satanen gathetarik, hautsi izan ditu herioaren atheak eta sarrailak, eliza sainduak erraten duen bezala, bere esker onezko othoitzetan. Jesu-Kristok eraman izan ditu berekin herioaren athe eta sarraila hek mendian gora, erran nahi da, zeruraino. Ideki daroku, bere bizte loriosoaz, zeruko erresuma: nahi bagara sarthu egoitza dohatsu hartan, aski dugu yarraikitzea salbatzaille amultsuari; khoroaturen du haren alderako gure leihaltasuna bethiko zorianaz.





## LXXV. KAPITULUA

### Sansonen heriotzea

Yui. 16.

Oxala! Sansonek erakutsi balu emazteki baten alderat, lehoinen zat-hikatzeko, eta berak baxharrik armada oso bati buru egiteko agertu izan zuen indar bera! Bainan ez: errana izan behar zen Dalilaren artifizioek gal-arazi zutela gizon guzietarik sendoena.

Sansonek egin zituen adiskidetasunak emazteki filistindar, Dalila zartizon batekin: filistindarren printzeek, ikhususirik gauza, agindu zioten emazteki hari dirutze handi bat, yakiten balin bazuen Sansonenganik nondik heldu zitzaion indar espantigarri hura, eta zer egin behar zen hartaz yabetzekotzat. Dalilak erran zioen beraz Sansoni: erradazu othoi, nondik duzu hazkartasun handi hori, eta zerekin behar zintuzkete lothu zu esku-ratzekotzat? Sansonek ihardetsi zion: baldin estakatzen banindute zazpi zumeez, bertze gizonak bezain herbal ediren naite. Dalilak gorde-arazirik yendeak gela batean, estakatu zuen Sanson, hark erran bezala: gero, egin zioen oiuhu: Sanson, filistindarrak hemen dire zure hartzerat ethorriak. Sansonek, berehala hautsi zituen bere lokharriak, den errexkiena. Dalilak egin ziotzan bere errenkurak, erraten zioela trufatu zela hartaz: behartu zuen, egundaino bezala, egiaz mintzatzerat. Aldi hartan ere, Sansonek tronpatu zuen Dalila, erranik hari bere indarra gal-arazteko egin ahal zite-keien gauza baxharra zela, haren illeak lothzea zur baten birundan. Dalilak egin zuen hala; ordean oiuhu egin zuenean filistindarrak han zirela, Sansonek hautsi eta porrokatu zituen guziak.

Dalila antzetsuak ikhususirik yokatua zela, erakutsi zioen Sansoni bere damu mina, erraten zioelarik ageri zela etzuela harentzat amudiorik: han-bat eta hunenbat behartu zuen Sanson, egun osoz, bere nigarrez eta lau-senguez, non azkenean amoratu baitzuen, eta erakharri egiaz mintzatzera. Sansonek beraz aithortu zuen gauza, zen bezala: erran zioen emazte-ki hari: bizar nabalak ez du egundaino ukitu ene burua, nazareendarra nai-zelakotzat, erran nahi da Jainkoari konsekratua ene amaren sabeletik. Bal-din moxten badute ene buruko illea, neure indarrak egin du, eta bertze gizon guziak bezain herbal gertha naite. Dalilak ikhusi zuenean Sanso-nek zabaldu zioela bere bihotza, gaztiatu zioten filistindarrei hurbiltzeaz: zatozte (erraten zioten) zatozte, orai ere: aldi huntan bederen yakintsun egin nau gauza guziez. Filistindarrak hedatu ziren emazteki haren etxerat,

agindu zuten diruarekin. Dalilak lokhar-arazi zuen Sanson bere belhau-neeen gainean: ebak-arazi ziotzon buruko illeak, eta urrundu zuen berega-nik, oiuhu egiten zioela: Sanson, huna filistindarrak zure hartzerat etho-riak. Sanson iratzarri zen berehala, eta bazarontsan bere buruarekin: atherako naiz bai, ohi bezala etsaieen eskutarik. Etzakien alabainan Jain-koa urrundu zela harenganik. Filistindarrak yabetu ziren hartaz, lehertu ziotzoten begiak, ezarri zuten presondegi batean gatheztaturik, eta kon-demnatu zuten ihara-harriaren biratzerat. Denboraekin, leheneko indarra ethorri izan zitzaion illeekin batean, orai ikhususiren dugun bezala. Filistin-darrek egin izan zuten bezta handi bat seinalatzekotzat Sansonez yabe-tzeaz zuten bozkarioa. Bildu ziren hirur milletaraino, dela gizon, dela emazteki. Othuruntza handi bat egin zuten ondoan, erakharri zuten San-son nahiz eman populuari dostatzeko bidea. Etziren gaixki atzemanak gerthatu. Idoi humiliagarri hark zaurthu zuen Sansonen bihotza. Eman-arazi zuen bere burua etxe guzia zadukaten harroinen aldean. Han egin zioen Jainkoari othoitz hau: ene Jainko Jauna, orhoit zaite nitaz. Bihur diezadazu lehen nuen indarra yazartzekotzat filistindarrei ene begien gal-arazte sari. Othoitz hartarik lekhora, hartu zuen esku baxotxean harroin hetarik bana, eta iharosi zituen ezin erranezko borthitztatunarekin; eror-arazi zuen etxe guzia lurrerat: eta hil izan zen, bere nahitarat, hirur milla filistindarren baltsan. Molde huntan, Sansonek, iskribu sainduak erraten duen bezala, yende gehiago hil arazi zuen bera hil zenean, ezen-ez bizi zela.

Erran dezakegu gauza bera gure salbatzailleaz. Arimeen etsai gehia-go garaitu izan du hil izan denean bere nahitarat, ezen-ez bizi zenean. Heriotze lorios hartaz izan ziren urmariatuak Satanen urgilua eta haren bothere kaltekorra. Sansonen historioan edireten tugu abisu hainitz zuhurrak. Aithor agun gizon hazkar hura urrikaltzeko zela erortzeaz emazteki baten botherearen azpirat! Ordutik, galtzen ditu bere ille guziak, erran nahi da, bere berthute guziak; ordutik, lehertzen diotzote begiak, erran nahi da, khentzen diotzotela bere argi guziak; ordu beretik, kon-demnatua da errota-harria itzultzerat; erran nahi da, azienda baten pare bilhakutzen dela, nekhea yasan behar duela. Estatu lastimagarria halako gizon batentzat! Horra bizkitartean gutarik bat bederaren zorte ondiko-zkoa urruntzen garenean Jainkoaganik. Ordutik, arimak galtzen du bere indarra; ordutik, phulunpatzen da ilhunbe lodienetan; ordutik erortzen da etsai gaixtoaren gathetan; ez da hurren orhoitzen zeruaz; largatzen dio bihotza munduari. Jainkoaganik urruntzen garen ordutik, behere huntan bilhatzen dugu gure zoriona. Ordean zer gerthatzen da? Munduko atse-



ginak berak dire gure nahikabeen emendatzailleak, ala urrikalgarri baida beraz arima gaxo bat Jainkoa utzirik, munduari lothzen zaiouena! Athera nahi bada etsaiaren gathetarik, yarraiki behar zaio Sansonen etsenplu zuhurrari. Sansonek othoitztu zuen Jainkoa egor ziotzon leheneko indarrak: bekhatoreak orobat othoitz egin: behar dio bere Jaun soberanoari, arren lagun dezan bere grazia sailduaz sartzekotzat haren amudioan. Jainkoagana finki itzultzen denak hautsten tu etsaiaren gatheak; bizi da, mundu huntan ez balitz bezala; hil-arazten ditu, bere bihotzean munduaren alderako yaidura gaixto guziak, eta darama bere bizi guzia Jainkoarenaganako amudio ezti eta salbagarran.

## LXXVI. KAPITULUA

### Lebitaren emaztea idoztatua

Yui. 19.

Irakurtzen dugu iskritura sainduan, Yuieen liburuko azkeneko bi kapitulutan, historio bat, ondore handiak izan zituen Judean, eta galaztzen zuena tribu oso bat. Huna zer iragan zen, Efraingo mendian bizi zen lebita bat: ezkondu izan zen Bethleem hiriko emazteki batekin. Sortu zen zenbait hotzetasun heien artean, eta hastandu ziren elkharganik. Emazte hura bihurtu zen Bethleemerat, bere burasotarat. Lebita hark maite zuen bere esposa, eta nahi izan zen harekin baketu. Xede hartan, hedatu zen bere aita ginharrabaganat. Galdegin zion berriz ere, bere alaba. Bere emaztearen aita hark egin zion begitarte arrai bat; emazteak ere, iraganak iragan, erakutsi zion amudiorik handiena. Geldi-arazi zuten, hirur egunez, bere etxean. Laugarren egunean, eman izan zen bere herrirat bihurtzeko eginbidetan; ordean aita ginharrabak bethi gibelatzen zuen, bere othoitzez abiatzetik. Azkenean, lothu zitzaion bideari, harturik berekin bere emaztea, eta zituenak.

Lebita eta haren emaztea hedatu ziren, iguzkia sartzearrekin, Benjamin hiri, Gabaa zaritzon baterat: egon ziren aphur bat plazaren erdian; etzen nihor ostatatatu nahi izan zituenik. Arrats aphalerat, gizon zahar bat, lur lanetarik heldu zena, eta lebitaren herritarra, iragan zen plaza hartarik. Ikhusi zuenean han yarria, galdegin zioen nondik heldu zen, eta norat zohan. Lebitak ihardetsi zion: Bethleemendik heldu gara, eta Efraim gure herrirat bihurtzen gara: nihork ez gaitu nahi ostatatatu. Bizkitartean badugu ogia eta arnoa guretzat, bai eta lastoa eta belharra gure bi astoentzat, bakharrak gau huntako egoitza nahi ginduke. Langille zaharrak erran zioten: ematzue zuen gogoak deskantsuan: zatozte neure etxerat, eta han edirenen duzue behar den guzia; yar-arazi zituen mahainean, eta eman zioten afaitarat.

Mahainean zirela, hiri hartako gizonki, Jainkoaren beldurrik eta kontzientziarik gabeko batzuk, inguratu zuten gizon zahar haren etxea, yo zioten athea, erraten ziotelarik, oihuz, larga ziozotela eskutarat barnean zadukan arrotza. Zahar gaizo hark egin zituen egin ahal guziak nahiz erakharri yende zoratu hek arrazoinerat; ordean guziak alferretan gerthatu ziren. Sartzerat zohazen bortxaz, etxean, eta hiltzen zuten lebita, baldin ez baliote largatu eskutarat bere emaztea. Tratatu izan zuten, gau har-



tan guzian, emazte hura, ezin erran bezain gaixki. Argitu zenean, utzi zuten bihurtzerat senharra zuen etxerat; etzen ordean hain laster heldu atheraino, non erori baitzen han berean hil gogorra.

Lebita yeiki zenean bideari lothzekotzat, ideki zuen etxeko athea. Ikhusi zuen bere emaztea zabal-zabala, lurrean: deithu izan zuen bere ize-naz, ustez lo zatzan. Ezagutu zuenean hilla zela, hartu zuen gorphutz hura bizkarrean, eraman zuen bere etxerat, ezarri zuen hamabi zathitan, eta egorri zuen zathi hetarik bana hamabi tributarat. Israeldarrek ikhusi zituztenean gorphutz hillaren zathi hek, lastu ziren guziak, eta abiatu ziren erraten, boz beraz: egundaino ez da hulako izigarrikeriarik gerthatu Israelen Ejiptotik ilki geroz. Ordu beretik, hartu zuten xedea benjamin-tarrei yazartzeko eta hei mendekatzeko, halako gauza lazgarri baten ithur-buruei bezala.

San Anbrosiok ederretsten du israeldarrek, ordu hartan, hartu zuten xedearen kharra. Laudatzen ditu agertzeaz higuintzarik handiena halako gaixtakerientzat, eta gaitzezteaz Jainkoaren lege saindua izan dadin haustsia. Emazte ezkondu bati egin zitzaion idoiak sumintzen tu izpiritu guziak, tribu bakhar bat da hobenduna, eta bertze tribu guziek elkhar aditzen dute haren funditzekotzat. Agertzen dute kharrik handiena, ez nahiz munduak uzte izan zezan laudatzen zuketela halako gaixki bat, eta bel-durrrez yautes-araz tribu guzien gainerat, hetarik bakhar batek merezi zuen punimendu bere bidezkoa. San Anbrozio bera ahalkatzen da ikhustez haren denborako gaixtakeria, eta zaio ez direla aski punitzen ezkontzaren saindutasuna zaurtzen dutenak. Ala israeldarren kharra laudagarria baitzen! Urrun da gerizatu nahi izan baitzuten bere laguneen gaixkia; aitzitik berak agertzen dire heien yuie eta punitzaille: eta nola punitzen dituzte bere lagun gaistaginak? Dorphetasun guziarekin, punimendu garratz baten beldurrak hobeki gibelaturen zituelakoan gizonak gaistakerietarik. Oxala, khar saindu batez sustatuak balire gure bihotzak ikhustean gure lagun gaizkiak! Ala urrikari izan behar baiditugu presuna lazo eta antsi-kabeak, zeinek ez baidute artharik, bere buruez baizik, eta ikhusten baidituzte Jaunaren lege sainduaren profanazionerik izigarrienak berak, bate-re kantitu gabe! Non da bada salbatzaille maitearen intresentzat, eta lagunaren fagoretan agertu behar luketeien khar saindua?

## LXXVII. KAPITULUA

### Benjaminarren punimendua

Yui. 20.

Israeldarrak bildu ziren Masfan. Heltzen ziren lau ehun milla gerla gizonetaraino. Entzun zutenean lebita beraren ahotik gabaatarrek erabilli zituzten gaixtakeria eta itsuskeria guziak, sumindu ziren heien kontra, eta hartu zuten xedea hei punimendu etsenpluzko bat yasan-arazteko, bihurtu baino lehen bere herritarat. Gaztiatu zioten benjaminarrei libra ziotzotela eskutarat hobendun hek gal zezatentzat bizia. Urrun da ordean benjaminarrek laudatu baitzuten bere anaieen galdea; yarri ziren aitzitik, gabaatarren alde, eta bildu izan ziren hogoi eta bortz milla gizonetaraino. Gabaatarrek berak etziren zazpi ehun gizon baino gehiago; ordean animoz betheak ziren: antzetsuak: hain ziren fida esku ezkeraz, nola eskuinaz, eta huntaraino ziren artexak, non ez baitzuten huts eginen harri batekin ille izpi bat ere.

Israeldarrek, gudua hasi gabetarik konsultatu zuten Jainkoa. Iduri zuen onhetsten zuela heien xedea: etzuten bizkitartean ardietsi garaitia, uste bezala; benjaminarrek xehakatu ziotzoten hogoi eta bi milla gizon. Harrituak izan ziren hunenbat mundu galtzeaz: halarik ere, ekharriak ziren oraino gudurat; konsultatu zuten Jainkoa: galdegin zioten ea abiatuko ziren, berriz ere, benjaminarren kontra. Jainkoak ihardetsi zioten baietz. Israeldarrek eskutan zadukaten garaitia, bizkitartean galdu zituzten, ordu hartan ere, hemezortzi milla gizon. Miretsiak zauden ikhustez hogoi eta bortz milla gizonek garaitzen zituztela lau ehun milla. Altxatu zituzten bere bihotzak Jainkoagana, eman ziren nigarretan eta barur eginen, eta Jainkoa konsultatu zuten, hirugarren aldian, yakitekotzat behar zirenez gehiago abiatu benjaminarren ondoan. Jainkoak manatu zioten abiatzeaz, eta erran zaroen garaitiar izanen zirela. Jaunaren hitza sinhetsirik, israeldarrak lothu zitzaizkon bideari, eta sethiatu zuten Gabaa. Zer gerthatu zen? Benjamintarrak, ikhusi orduko israeldarrak, athera ziren bere hiritik segur izan balire bezala eramateaz, ohi gisa, garaitia. Lehenik atakatu zituzten tropak, eman zitzaizkon, itxuraz, ihesari, bere artean konpartitu zutenaren arabera, eta antze haen bidez, sar-arazi zituzten saretan bezala: gordeak zaduzkaten lagunak agertu ziren, bet-betan: molde huntan, inguratu zituzten benjamintarrak, alde guzietarik eta hil izan ziotzoten, egun hartan, hogoi eta bortz milla eta ehun gizon, eta heien hiriak



izan ziren herrauts eginak. Bakharrik sei ehun benjamintar itzuri ziren desmasia hartarik. Ihes egin zuten mortutarat: hek behar zuten egun batez, altxatu benjamintarren tribua edo populua.

Sarraski hartarik lekhora, israeldarrei min zitzaien ikhustez bere arteko tribu bat arras galdua. Yuramentu eginak ziren etzutela bere alabetarik batere ezkunduren benjamintarrekin; halarik ere, izan zuten tribu haren altxatzeko antzea hautsi gabe bere yuramentua. Huna nola. Galarazi zituztenean Jabes zaritzon, Galaadeko yendeak, etzirelakotzat gudukatu, hek bezala, utzi zioten bizia heien alabei; eta ezkondu izan zituzten sei ehun benjamintar, mortutarat ihes egin zutenekin. Ezkontza heien bidez, begiratu eta emendatu izan zen denboraekin Benjaminen tribua.

Elizako aitek ederretsten dute Jaunaren probidentzia benjamintarren alderat. Ez da egundaino gerlateralik hasi hain sailduki nola israeldarrena. Halarik, zehatuak dire, bi aldiz. Jainkoak, san Gregorioren arabera, nahi izan zuen erakutsi zein garbi izan behar diren bertzeren hutsak punitu nahi dituztenak. Bekhatuaren kutsurik ere gabe izan behar laite laguneeen gaixkien ondoan abiatzekotzat. Saindu berak dio khar gaiski errege-latu bat dela, bat-bederak, bihotza ungi xahu ez duenean, nahi izatea bertzeak bere hutsetarik garbitu.

Jainkoak irakhatsten daroku oraino benjamintarren etsenpluaz, nolako amudioa izan behar dugun elkharentzat. Bortxaz, eta ezin bertzez, egin behar diogu gure proximo lagunari bide-gaberik ttipiena. Baldin baitzepadako premia batek hartarat erakhar bagintza, orduan ere egin behar ginduke egin ahal guzia eztitzerat eta arintzerat bidegabe, edo damu hura.

Israeldarrek urriki izan zuten benjamintarrei egin izan ziotzoten gaixki guziez, eta lehiatu izan ziren altxatzerat berak eror-arazi, eta galarazi zuten populua. Errana behar othe da bada giriztinoek ez dutela heien bihotz-ontasun bera? Ikhus othe dezakete odol hotzean eta antsi-kaberik, galtzen elizaren golkhoan, ez dut erraten, herri oso bat, ez eta familia bat, bainan arima bakhar bat ere? Zer lehia, zer khar ez dugu behar erakutsi ikhusten dugunean gure anaia urrundua Jainkoaganik, haren amultsuki erakhartzekotzat bere salbatzailleaganat?

## LXXVIII. KAPITULUA

### Ruth yarraikitzen zaio Noemiri

#### Ruth 2.

Hanbat gauza edireten dire Ruthen bizian, non ezarria baida hedadurarekin isribu sailduan. Yuieen denboran gerthatu zen Israelen gosate handi bat: erakharri zuen Bethleemgo gizon bat iragaterat bere emaztearekin eta bere bi semeekin, Moabeko herrirat. Elimelek zaritzon gizon hari, eta Noemi haren emazteari, Noemi alhargundu zenean, baratu zen Moaben, eta ezkondu zituen bere bi semeak herri hartako bi neskatxeekin; hautarik bata zen Orfa, eta bertzea Ruth. Noemiren bi semeak hil ziren hamabi urtheen buruan. Beraz emazte hura aurkhitzen zen bera, senharrik eta umerik gabe. Erran zioten bere bi errainei Jainkoari urrikaldu zitzaiola Israelgo populua, suntsi-arazi zuela Israelen zen gosetea, eta harat heltzeko xedea zaramala. Noemik utzi zituen herri atze hek, eta lothu zitzaion bideari bere bi errainekin. Bidean zohazela, erran zioten errain hei: bihur zaitezte zuen burasotarat, eta agian bigarren ezkontza batek arinduko du zuen alharguntzaren dolua. Urrun da bi errainek onhetsi baitzuten solas hura; aitzitik, ihardetsi zioten Noemiri etzirela haren ganik hastanduren. Horren gainean Noemik eman zioten ezagutzerat etzutela zeren deusere gehiago iguriki hareganik, eta hek, harekin gelditzeaz, yasan beharko zuten atsekabeak emendatzen zuela haren ondikoa. Orfak entzun zuenean Noemi hala mintzatzen, egin ziotzan bere azken adiuak, eta utzi zuen. Orfaren urruntzeak oraino gehiago seinalarazi zuen Ruthen fede bizia eta bihotz-ontasuna: ez zitzaion gogoratzen ere hastandu behar zela bere amaginharrabaganik. Ihardetsi zioen fermuki hitz miragarri hautaz: Ez, othoi, niri gehiago mintza zure utzteaz: norako baitzara, eta ni ere harako naiz. Biziko naiz non ere zu biziko baitzara, eta han berean. Hillen naiz zu hillen zaren herri berean, eta ehortziren naiz zu ehortzia izanen zaren lekhu eta hobia berean.

Noemik, ikhusi zuenean Ruthen fermutasuna, laudatu zuen yarraik zakion Bethleem, bere sor-lekhurat. Ordu hura zen sasoinen biltzeko denbora: hertstuak kausitzen ziren gosearen partetik; arrazoin huntaz Ruthen othoitzi zuen Noemi arren utz zezan bihi buruzken biltzerat. Hala beharra: gerthatu zen buruzkak biltzen zituen landa baitzen Boozena. Booz hura zen gizon aberats bat, Elimelek zenaren ahaide hurbilla.



Booz agertu zenean bere langilletarat, galdegin zioten nor zen landan ikhusten zuen emazteki hura: ihardetsi zitzaion: hura da Noemirekin ethorri den moabitarra. Othoitztu gaitu utzteaz zenbeit buruzka biltzerat: eta hemen hari da lanean, goizetik huna, batere aldaratu gabe landatik. Orduan Boozek erran zion Rutheri: ene alaba, ez zohazela nihongo landatarat; bil zatzu hemen buruzkak, eta yan eta edan zazu ene alabeekin batean. Boozek oraino manatu zituen bihi biltzailleak utzteaz, berariaz, erortzerat zenbait ogi buru, Ruthek altxazetzantzat.

Boozen bihotz-ontasunak ematen daroku, begien aitzinean, Jesu-Kristoren miserikorida infinitua elizaren alderat. Ez dio behatu, ez haren aphaltasunari; ez haren iragan idolatriari; ez eta haren umeen esker-gabetasunari: beti arraitasun bera, bethi amudio bera agertzen du eliza, bere espos sailduaren alderat. Ruthen etsenplu ederrak irakhatsten daroku ukho egiten burasoei, sor-lekhuari eta munduko gaixtakeriari; eta bilhartzan salbamendua gauza guzien gainetik. Ez dugu deusere galduren munduari ihes egiteaz, egin ahal bezanbatean, eta hainitz irabaziren dugu yarraikitzeaz gure Jainkoari, ontasun guzien yabe soberanoari. Noemik etzuen ontasunik; ordean horrek etzuen Ruth gibelatu yarriakitzetik emazte saildu hari: gehiago probetxatu zen harekin, ezen-ez izan balitu moabitarren ontasun guziak. Erran daite, aphur bat gora-behera, gauza bera gure eliza sailduaz: alhargun erromes baten pare da. Iduri du ez duela ontasunik bere ume maiteentzat; ordean erran dezakegu, egia guziarekin, amudio zinezko batez elizari datxeikon giriztino zuhurrak edireten duela zeruan dohatsutasun bat, mundu huntako urre eta zilhar guziak baino infinituki gehiago balio duena.

## LXXIX. KAPITULUA

### Booz ezkontzen da Ruthekin

#### Ruth 3.

Ruthek bildu zituen, aiphatu dugun landan, hirur gaitzeru bihi, eta eraman ziotzan amaginharrabari. Noemik galdetu zioen non ibilhi zen buruzkaketan: Ruthek ihardetsi zion Boozen landan bildu zituela, eta landaen yabe hark arraitasun handirekin hartu zuela. Horren gainean, Noemik erran zion Ruthi: ene alaba, gogoan darabillat zure ezkontzea, ungi izanen zaren bezala. Booz gure ahaide hurkoa da. Heldu den gauean haitzaren du bere garagarra, eta landan etzanen da: urrin-onez gantzu zaite, eta yaunts zatzu soinekorik ederrenak. Beira ordean Boozek ikhus zaitzan. Begizta zazu haren etzantzaren tokia. Noiz eta ere lokharturen baida, orduan zohazi haren oinetarat: berak erranen darotzu zer egin beharko duzun. Ruthek etzuen, urrun da, eginen, bere baitarik, halako hurratsik; ordean obeditu nahi izan zuen bere amaginharraba. Booz, afaldu zenean, etzan zen belhar meta baten gainean: Ruth lerratu zen emeki-emeki haren oinetarat. Gau-erditsuan, Booz iratzarri zen, eta lastu ikhus-teaz norbait etzana haren oinetan. Galdetu zioen berehala: nor zara zu? Bertzeak ihardetsi zioen: ni naiz Ruth zure neskatoa: ahaide hurkoa zaitut, eta legearen arabera, banuke zurekin ezkontzeko zuzena. Boozek erran zion: egia da, zure ahaide naiz, eta nola zure berthutea ospe handitan baida hiri guzian, ekharria naite zuree esposatzerat; ordean baduzu bertze ahaide bat ni baino hurbillagoa, nik baino zuzen gehiago duena zurekin ezkontzeko. Bihar goizean yakinen dut haren berri, eta ez balin bada nahi baliatu bere zuzenaz, hitz ematen darotzut esposaturen zaitudala. Ruthek iragan zuen gau hura emazteki Jainkotiar bati dagokion modestia guzian. Goiz alderat, bihurtu zen Noemirengana Boozek eman ziotzan sei gaitzeru garagarrekin, eta xehatu ziotzon gauza iragan guziak.

Goiz hartan berean, Booz yarri izan zen hiriko athean, han ziren yendeen baltsan. Ikhusi zuenean Elimeleken bertze ahaide hura erakharri zuen beregana, eta mintzatu zitzaion, hiriko hamar zaharren aitzinean hunela: Noemik saldu nahi du Elimelek, gure ahaidearen landaren zathi bat. Ahaide bezala, yabe zaitezke lur hartaz; ez balin bazara hartarat ekharria, aski duzu erratea yakin dezadantzat zer egin behar duan; ezen ni naiz, zure ondoan, ahaidetik hurbillena. Bertzeak ihardetsi zion: erosiren dut landa: Boozek, horren gainean erran zioen: landa erostekotan, behar





zara ezkondu Ruth, zure ahaide zenaren alhargunarekin, haren izena gal ez dadintzat ondoriotan. Horrela denaz geroz, dio bertzeak, ez dut landa haren gutziarik: sar zaitezke ene zuzen guzietan. Orduan Boozek erran zioen ahaide hari khentzeaz bere zapata, bere zuzena utzten zioelako seinaleztat. Hala egiten ohi zen israeldarren artean, halako ordutan. Gero hartu zituen zaharrak eta populua lekhukotzat nola erosten zuen Elimexeren eta haren umeen primuza, eta nola hartzen zuen Ruth bere emaztetzat, nahiz begiratu aitzinekoen izena. Guziek, boz batez, erran zuten gauza heien lekhuko zirela, eta desiratu ziotzaten milla benedikzio-ne Boози eta Ruthi. Boozek izan zuen ezkontza hartarik ume bat, Obed zaritzona. Noemik izan zuen haur hartaz egiazko unhide, edo ama batek izan ahal zezakeien artha guzia. Obed hau gerthatu zen Isaiaren aita eta Dabid erregeren aitasoa.

Izpiritu gaixkirat itzuliek, eta bertzeak arinki kondenatzerat ekharririk direnek, aurkhituren bide dute zerbait errateko Boozen eta Ruthen gainean. Oxala balute bi presuna Jainkotiar haien berthutea eta fede zabala! Nahi dut, iduritik hartzerat, gaiski bat zela, Ruthen aldetik, gauaz Boozen ingurutarat hurbiltzea, eta Boozek ere etzuela, gure iduriz, halakorik laudatu behar: ordean izan dezagun heien fede on eta zuzentasun bera: sinhets dezagun lanhoki Jaunaren probidentzia zabillala ordu hartan.

Jainkoak, dio san Ambrosiok, irakhatsi izan nahi daroku Ruthen etsenplu miragarriaz, ez dabillala gure ethorkiaren, ez eta gure arbasoen saindutasunaren ondoan, bakharrik gure berthuteari, gure bihotzaren garbitasunari behatzen dioela. Gauza miretstekoa! emazteki moabitar bat, buraso idolatretarik heldu zena altxatua da bere bizitze sainduaz, lurraren gainean gertha ahal daiten ohorerik gorenerat! Sartzen da Jesu-Kristoren iralgi loriosoan eta salbatzaillearen amaso izaten da! zer goratasun! Legeak debekatzen zioten yuduei ezkontzeko gogoa bera moabitar emaztekiekin; eta Ruthek hunenbat fede agertzen du non merezi baidu, ez xoilki yudu batekin ezkontzea, bainan oraino Jesu-Kristo athera dadin haren ethorkitik, eta bera gertha dadin salbatzaillearen amaso.

Ruthek erakutsten daroku, san Ambrosio beraren arabera, Jainkoa lazoki eta kanpotik zerbitzatzea, gauza aphurra dela. Zerbait gehiago galdetzen du gureganik. Ez dugu ezarri behar gure fidantzia eta ohore guzia giriztinoaren izen xoilean, yuduek haragizko sakrifiziotan eta Abrahamen izenean ezartzen zuten bezala. Ruthek irakhatsten daroku oraino bortxatu behar ditugula gure buruak Jainkoari yarraikitze kotzat, eta lehiatu behar garela, gure fedearen kharraz, bizitzerat eliza sainduaren ume leihal bezala. Orhoit gaiten bethi lehen erran dugunaz: Jainkoak ez ditu bilha-

tzen bertzeren merezimenduez berreginduak direnak, edo gizonen begietan baizik garbi ez direnak. Gure salbatzaille maitea bihotzaren humiltasunari darraiko. Berthute huntan datza egiazko garbitasuna. Bai, humiltasunak egiten du Jainkoaren araberako giriztinoaren zimendu funtsezkoa. Humiltasuna gabe ezin daite iraupenik berthutean. Ez da zeren miretsi baldin saindu batek, mintzatzean bihotzaren humiltasunaz, erraten badu, hura dela garbitasunaren garbitasuna, eta berthute guzien erregina.





## LXXX. KAPITULUA

### Samuelen sortzea eta konsekrazioean

1 Erreg. 1.

Samuel saindu handi bat izan behar zen, egun batez: Jainkoak eman ziotzon hortakotzat bide guziak. Ana, Samuelen amak, ohore gehiago zuen, san Krisostomeren arabera, izateaz halako ume bat, munduko printzerik handiena baino. Ama hark agortasunean iragan zuen bere bizi gehiena; ordean haren othoitzak khartsuak izan ziren: Jainkoak saristatu zuen, azkenean, haren fede bizia. Eman zion seme bat, Samuel zaritzona. Anak bihurtu zion berehala ume hura Jainkoari. Ez zitzaion aski zela ofrendatzea umearen orde, dirua, edo bertze zerbait gauza, ez eta ofrendatzea bere haurra zenbait urthe bakotxentzat: konsekratu zioen behin bethikotzat; eta noiz? haurrak bulharra utzi zueneko. Hulakoa izan zen buraso haren ezagutza Jainkoaren alderat. Ez zitzaion iduritzen sakrifizio eder hura egitean, ematen zuela deusere bererik; usteko ere zuen erori sakrilio batean bezala, bertzela egiterat. Etsenplu miragarria! Ama hark ala guti bilhatzen baitzuen bere burua! Ithotzen zituen amakarako mobimendu samur guziak, eta Jainkoarentzat zuen bihurkhundeak bazaraman nolazpait-ere, bere odolari ukho egiterat. Zer etsenplu handi burasoentzat!

Samuel, hamabi urthetako, abiatu zen Heli aphez-handia laguntzen tenpluko eginbidetan: tenpluan berean, eta arkaren hurbillean zuen ere bere entzantza. Heli lo zatzala, Samuel ttipiak entzun zuen, lotarik, boz bat bere izenaz deithzen zuena. Ihardetsi zion: badantzut; altxatu zen berehala, goan zitzaion Heliri, ustez hark galdetzen zuen, eta erran zion: hemen naiz. Helik ihardetsi zion: ene haur maitea, ez darotzut egin oiuhurik: zohazi, eta egizu lo. Samuel bihurtu, eta lokhartu izan zen. Handik laster, entzuten du boz bera. Yeikitzen de berriz, eta badohako Heliri. Helik orduan ere egortzen du erraten zuelarik etziola egin oihu. Samuelek, lokhartu zenetik laster entzuten du, hirurgarren aldikotzat, boz bera, zeina baitzen Jainkoarena. Yeikitzen da egundaino bezala: badohako Heliri, eta erraten dio: hemen naiz ethorria zure galderat. Orduan Helik ezagutu zuen Jainkoa mintzo zitzaiola Samuel ttipiari: erran zioen: zohazi, eta egizu lo. Galdetzen balin bazaituzte gehiago, ihardetsiren duzu: mintza zaite, Jauna, zure zerbitzaria zure entzuterat dago. Jainkoak, lehenetan bezala, deithu zuen Samuel, lotan zela; haurrak ihardetsi zuen Helik erran zion bezala. Orduan Jainkoa abiatu zen mintzatzen hitz hautaz: *Punituren*

*dut Heli eta haren umeak; nik erran guziak konplituak izanen dire: Helik bazakien bere umeen gaixtakerien berri, eta guphidetsi izan ditu: horra beraz zergatik yazarriren diotedan.*

Hemen ageri da nola Jainkoari gaitzitu zitzaion Heliren lazokeria eta ez-antsiatasuna. Ikhusten zituen bere umeen gaixtakeriak, eta etzuen agertu buraso bati dagokon fermutasuna. Bazakien ume ondikozko hek profanatzen zutela aldarearen saindutasuna, eta etzuen kharrik batere erakutsi Jainkoaren loriarentzat; ordean, ala gusta baitzitzaion bere huts handia! Jainkoa Samueli mintzatu zitzaion biharamunean, Helik nahi izan zuen yakin zer erran zuen. Samuel ttipia herabe zen guzien erraterat, nahiko ere zuen zerbait gerizatu damurik ez egitekotzat aphez-handiari: ordean behartua izan zen gauzak ziren bezala erraterat. Helik ezagutu zuen berantegi balin bazen ere, Jainkoak haren eta haren umeen kontra ekharri zuen sententzia bere bidean zela; etzela aski buraso batentzat bera prestu izatea; bainan behar zituela erakharri bere umeak ere sainduki bizi-tzerat. Ordu beretik, aphez-handi hura eman zen eginbidetan yasateko sumisione humil batekin, haren buruaren gainerat erori behar ziren zorigaitz ikharagarriak, zeren etzituen bere umeak altxatu Jainko legean.

Hainitzak dire, san Gregorio mintzo da, Heliren idurikoak, huts berean erortzen direnak. Zenbat buraso eta buruzagi bere umeen eta azpikoen alderat lazokeria ahalkagarriean bizi direnak! Ikhusten dukete Jainkoaganik urrun dabiltzala, ez direla hurren behinere hurbiltzen sakramentutarat. Yaidura gaixtoz betheak direla. Badakite heien arimez ihardetsi behar dutela. O! zuek, buraso eta aitzindari lazoak, ikhara zaitezte: bertzeak zuen artha eskasez galtzen hari diren denboran, zuek ere zuen arimen galtzen hari zarete. Zadezte, zuhurrak balin bazarete, atzarriak zuen buruen eta zuen azpiko direnen bizitzearen gainean; bihotz-ontasun sobraniazko batek, edo ez-antsiatsun ondikozko batek ez bezate erakhar zuen sekulako zorigaitza. Ez bekizue behin ere ahantz Heliren punimendua: aitzitik, bilha zazue bethi zuen umeen eta zuen meneko direnen salbamendua, zuen abisu zuhurrez eta guziz zuen etsenplu sainduz.



## LXXXI. KAPITULUA

### Heli punitua da

#### 1 Erregeak 4.

Jainkoa baliatzen zen batzutan filistindarrez, nahi zuenean punitu bere populua: gauza bera egin zuen Heliren eta haren umeen alderat. Altzarazi zituen filistindarrak israeldarren kontra. Bildu zuten armada borthitz bat. Israeldarrak ere yarri ziren armetan. Gudukatu izan ziren bi armadak. Israeldarrak ihesari eman behar izan zitzaizkon, lau milla gizon galdu zituzten ondoan. Israeldarrak bihurtu zirenean bere kanparat, populuko zaharrak hasi ziren erraten: nondik heldu othe da bada Jainkoak hunen dorpheki yazartzen baidaroku? Dezagun erakhar hunat Siloko hiritik allientziaren arka. Agian begiraturen gaitu gure etsaien eskutarik. Populuak egorri zuen berehala Jaunaren allientziaren arkaren bilha. Ekharri zuten, Ofni eta Finees yarraitzen zitzaizkola gibeletik. Arka heldu izan zenean kanparat, israeldarren armada guziak artiki zuen oiuhu handi bat. Oihu hura hedatu zen filistindarren beharritarat; etzakiten, hastean, zer erran nahi zuen; bainan laster entzun zuten Jaunaren allientziaren arka israeldarren kanpan aurkhitzen zela. Berri hunek lastu zituen guziak, eta zioten hasgorapen min batekin: nonbait, gure zorigaitzaren handia! Ala urrikaltzeko baigara! nork begiraturen gaitu Jainko botheretsu haren eskutarik? Bai, Jainko hura bera da, bertze-orduz, egiptoarren armada oso bat fundi arazi zuena.

Denbora laburrik barnean, altxatu ziren filistindarren bihotz eroriak, yautsi ziren sulian bezala, israeldarren gainerat: yabetu ziren arkaz, hil zituzten Heliren bi semeak, eman zituzten zathitan hogoi eta hamar milla israeldar, eta ihes egorri bertze guziak. Arte hartan Heli etzen deskantsu bizi. Lotsa zen nahiz yakin zertarako zen gudua; ikharan zatzan, beldurrez filistindarrek eskura zezaten arka, eta izan zadin hetaz laidostatua. Oxala khar bera agertu balu arkarentzat, haren bi semeek, egun oroz, oraino gehiago laidostatzen zutenean!

Guduko egun berean, hedatu zen alde guzietarat israeldarren desmasiaren eta arka hartua zelako berria: etzen bazter guzietan oiuhu minik eta nigar kharatsik baizen. Heli deskantsu zatzan, bere gogo guzia Jaunaren arkan zadukala. Bazituen lauetan hogoi eta hamar urthe, eta etzuen deusik ikhusten. Entzun zituenean oiuhu min hek guziak, galdegin zuen zer iragaten zen: gudutik itzuri zen gizon bat hurbildu zitzaion; eta erran

zion nondik heldu zen. Nola iragan dire bada gauzak guduan, ene haur maitea, erran zioen Heli? gizon hark ihardetsi zioen: filistindarrek egorri dituzte israeldarrak ihesi: israeldar gehienak xehakatuak izan dire: zure bi semeak hil dire; eta Jaunaren arka hartua izan da. Berri hauk entzutearekin batean, Heli erori zen alkhitik; arraillatu zitzaion burua, eta hil izan zen. Fineesen emaztea izorra gerthatu zen, ordu hartan; yakin zituenean berri ondikoizko hek, erdi zen, bet-betan; eman zuen haur bat mundurat, eta bera hill zen oren hartan berean.

Israeldarrek aphazegatu behar bidean Jaunaren haserradura saildua bere nigarrez eta bere penitentziez, erakhartzen dute kanparat allientziaren arka, segur izan balire bezala garaituren zituztela, harekin batean, bere etsai guziak. Ordean zer gerthatzen zaie? Jainkoak gaitzetzen du kanpotik agertzen zuten fidantzia sobraniazkoa, eta permetitzen du arka izan dadin hartua. Hortik irakhatsten zioten ez dabillala kanpoko seinale ondoan; bainan bihotza nahi duela. Barnetik heldu den bekhatuaren urrikia ahal da bide bakharra ardiestekotzat haren miserikordiatik, gure gaixki guzien barkhamendua, eta behar ditugun laguntzak.

Heliren eta haren umeen etsenplu tristeak irakhatsten daroku oraino leihaltasun eta errespektu sailduenarekin agertu behar garela Jainkoaren alderat, eta gauza sailduen profanatzek merezi dituela gastigurik garra-tsenak.



## LXXXII. KAPITULUA

### Dagonen idola lurrerat artikia, eta arka Israelerat bihurtua

1. Erreg. 5.

Iduri zuen Jaunaren arkak laidostatuak izan behar zuela filistindarren eskutarat geroz; nihoiz bizkitartean etzen izan hala ohoratua, nola ordu hartan. Filistindarrek eraman zuten arka Azot zaritzon, bere hiri buruzagitarik baterat, eta ezarri zuten Dagonen tenpluan, Jainko faltso hunen idolaren aldean. Biharamunean, ediren zuten idola hura ahuspez emana Jaunaren arkaren aitzinean; altxatu zuten, eta ezarri bere lekhu; ordean ondoko egunean ere, ikhusi zuten idola bera lurrerat artikia, bururik eta eskurik gabe. Jainkoaren zigorrada iragan zen idolatik idolatretarat. Azoteko populu guzia izan zen tormentatua ezin erran bezanbat arrotonez, eta bertze gaitz humiliagarri batez, zeinak eraman baitzuen mundutik yendetze handi bat. Azotarrek, ezin gehiago yasanez arkaren presentzia, eraman-arazi zuten bertze hiri baterat. Handik eraman zuten oraino bertze baterat, eta norat ere baitzaramaten arka, eta lekhu hek guzietan etzen heriotzerik baizen.

Filistindarrek, hartu ondoan bere aphezeen eta bere pentsatzailleen abisua, egorri zuten arka israeldarren herrirat; eta yakitekotzat ea Israelgo egiazko Jainkoa othe zen bada, hanbat gaitz hei eman ziotena, hartu zituzten bi behi bere umeen hazten hari zirenak, eta behinere uztarririk yasan gabeak: uztartu izan zituzten orga berri batekin, eta sar-arazi heien xahalak edo aretxeak heia batean. Huna filistindarren arrazoinamendua: baldin behiak Israelgo bideari lothzen bazaizko, hortik ageriko da Israelgo Jainkoak zehatu gaituela; ordean behiek hartzen balin badute bertze biderik, hori izanen da seinale bat gure gaitzak ez direla Israelgo Jainkoaganik heldu; bainan ethorri beharrak zirela, bertzenaz.

Filistindarrek eman zuten beraz Jaunaren arka orgetan, eta utzi zituzten behiak nahi zuten bidea hartzerat. Berehala eman ziren, bere baitarik, Bethsameserat zaraman bidean: lekhu hura zen israeldarren lehenbiziko hiria alde hartarik. Bazohazen bethi aitzinat orhoaz zaudela urrunteaz bere umetarik; ordean bethi xuxen, behinere hartu gabe, ez eskuin ez esker. Filistindarrak yarraiki zitzaizkon arkari Bethsameseren eremutaino. Bethsamitarrek etzuten hain laster ikhusi arka, non eman baitziren bozkario guzietan. Orga baratu zen landa batean: lebitok yautsi zuten

arka, eta ezarri handik hurbil zen harri handi baten gainean. Bethsamitarrek eman zuten zathitan orga hura, eta ezarri zituzten orgaren zathi heien gainean bi behiak, nahiz egin hetaz sakrifizio bat Jainkoaren ohoretan. Ofrendatu ziotzoten bertze biktimak ere eskerren bihurtzeko, eta bere allegrantzia seinalatzeko bere eskuratzeaz arka saildua. Ordean zer gerthatu zen? O! etsenplu erdiragarria. Berrogoi eta hamar milla bethsamitar, eta oraino gehiago izan ziren hillak Jaunaren arkari behatzen sari. Hiri guzia yarri zen dolurik minenean, eta zioten guziek: nor bizi daiten Jainko Jaunaren presentzian? Kariathiaringo populua izan zen othoitztua eramateaz Jaunaren arka, Bethsamesetik bere herrirat. Kariathiarimtarrek, galdetu bezala, eraman zuten arka saildua Bethsamesetik Gabaako herrirat, ezarri zuten Abinadaberen etxean, eta han egontzen luzero.

Kapitulu huntan edireten dire bi gauza handi, Jainkoaren bothere guzizkoa, eta haren zorrotzetasun saildua ezagut-arazten dutenak. 1, Dagonen idolak ezin iraun zuen arka sailduaren presentzian: horrek erran nahi du garbi izan behar garela Jainkoaren begietan, eta zer nahi ohore, edo estimu dukegun munduaren partetik, funtsean, ez garela deusere; Jainko handiak urmaria eta ezdeutsa gaitzakeiela, nahi duen guzian. 2, Bethsamitarrek punituak izan ziren, iduriz deus gutirentzat. Eta nola punituak? Garratzetasun guziarekin. Zer zen heien hobena? Bozkarioz gaindi eginik, behatu zioten Jaunaren arkari. Horra heien gaixki guzia. Hemen ageri da etzela zilhegi arkari behatzea, eta Jainkoaren manurik ttipienak berak leihalki behar direla begiratu.



## LXXXIII. KAPITULUA

### Samuelek libratzen-tu israeldarrak. Israeldarrek galdetzen dute errege bat

1. Er. 7.

Heli, aphez-handia hil zenean, Samuel izan zen Israelgo nausi. Ramatha zaritzon bere sor-lekhuan bizi zen. Ibiltzen zen noizetik noizerat, hiriz hiri, bihurtzekotzat yustizia. Israeldarrak hasiak ziren itzultzen Jainkoagana penitentziaren bidez. Samuelek erran zioten: baldin eman nahi bazaizkote zin-zinez Jainkoari, khen zatzue, zuen artetik, Jainko arrotz guziak; zaudete ekharriak obeditzerat Jainkoari, ez zerbitza hura bera baizik, eta libratu zaituzte filistindarren eskutarik. Israeldarrek khendu eta arbuiatu izan zituzten berehala, orduraino adoratu zituzten Jainko faltsoak, eta eman ziren Jainko xoilak zerbitzatzen. Samuelek erran zioten oraino: zohazte Masfarat, eta eginen dut othoitz zuentzat. Israeldarrak bildu ziren Masfan; egin zituzten barurak, eta aithortu zuten hobendun zirela Jainkoaren begietan.

Filistindarrek yakin zutenekotz israeldarrak bilduak zirela Masfan, abiatu ziren heien ondoan: israeldarrak beldurtu ziren, eta erran zioten Samueli: ez bara othoitz egitetik, gure fagoretan, Jainko gure Jaunari: errekeri zazu arren ez gaiten eror filistindarren eskutarat. Samuelek ofrendatu zuen bildots bat: egin zuen othoitz Israelentzat, eta Jainkoak entzun zuen haren othoitz. Filistindarrak hurbiltzearekin batean israeldarrei gudu ematerat, Jainkoak abiarazi zituen irurtzuri borthitz batzu, huntaraino ikharatu zituzten filistindarrak non eman baitzitzaizkon ihesari. Israeldarrek hil izan zituzten hetarik asko, eta yarraiki zitzairen bertze gainerako guziei bere herriko mugarritaraino. Filistindarrak humiliatuak izan ziren ordu hartan; etzuten handik harat izan gehiago gutziarik hurbiltzekotzat israeldarren bazterretarat: bihurtu behar izan zituzten israeldarrei hartu hiriak, eta gainerako ontasun guziak. Horra nola Samuelek libratu izan zituen israeldarrak filistindarren eskutarik.

Samuel zahartu zenean, ezarri zituen bere umeak israeldarren aitzindaritzat; urrun da ordean aitaren idurikoak baitziren: utzi ziren abarizioaz itsutzerat saltzerainokoa zuzen kontra ekhartzen zituzten yuiamenduak. Israelgo zahar guziak hedatu ziren Samuelgana, eta erran zioten: zahartu zara, eta zure umeak ez dire zu bezalakoak. Eman diezaguzu errege bat, berak gobernatuko gaituena. Galde hau gaitzitu zitzaion Samueli: eman

zen othoitzetan, eta Jainkoak erran zioen: egizu populu horrek galdetzen duena: errege bat galdetze hortaz, niri egiten darot idoi, eta ez zuri: ez nautenaz geroz nahi gehiago bere erregetzat, egizu erraten darotzutena; ordean has zaitte erratetik populuari nolakoak izanen diren haren errege berriaren zuzenak. Samuelek xehatu zituen gauza guziak: erran zioten israeldarrei urrikitzeko izanen zutela errege berri baten azpian yartzeaz: haren erran guziak alferretan izan ziren; baitezpada errege berri bat nahi zuten.

Aithor agun indar handia duela othoitzak, khartsua denean! Zer ez dezake ardiets Jaunaren miserikordiatik? Ez dugu zeren miretsiak izan baldin Samuelek libratzen baditu israeldarrak filistindarren eskutarik: gizon saildu haren othoitzak yar-arazi zuen Jainkoa israeldarren alde, eta ez da etsayik amor eman behar ez dioenik zeruko laguntza botheretsuari. Mundua, pasioneak ager beitez, nahi duten bezanbat, gure kontra, ez gara behar batere lotsatu. Altxa detzagun gure bihotzak Jainkoagana; galde diozogu bere laguntza saildua, eta gaiten seguratuak garaituren ditugula, ordu beretik, gure arimen etsai borthitzenak berak.

Elizako aitek dire espantituak israeldarrek nahiago izateaz gizon herbal batek mana zetzan Jainkoak berak baino; ordean gauza oraino espan-tigarriagoa bide da giriztinoek utz dezaten bere Jainkoa, bere salbatzaillea, bere guzia, hartzekotzat bere manatzailletzat, bere erregetzat Sathan gaixtoa, heien arimak sekulakotz galdu nahiz dabilhana. Zenbat giriztino, o, itsumendu auhendagarria! diotenak mihiz ez bada, bederen bihotzez eta obrez, israeldarrek Samuelen umez erraten zutena: ez dugu nahi ezagutu Jainkoa gure nausi soberanotzat; ez ditugu bethe nahi haren manu zuhur eta salbagarriak. Gure gidaritzat hartu nahi ditugu gure pasione zoroak eta damnagarriak; heien arabera nahi gara bizi mundu huntan.



## LXXXIV. KAPITULUA

### Saul sakratua da Israelgo erregetzat

#### 1. Err. 9.

Benjaminen populuko gizon botheretsu eta sendo, Zis zaritzon batek, zuen seme bat Saul deithzen zena, eta israeldar guzietarik handiena, eta hobekienik egina. Zisek egorri zuen Saul bere semea errebelatu zitzaizkon astoen ondoan; etzituen ordean ediren. Erran zioen berekin zuen sehi bati: bihur gaiten etxerat, non ez, lotsaturen da ene aita. Sehiak ihardetsi zion: huna hiri bat zeinetan baidago Jainkoaren araberako gizon, ospe handitako bat. Ez da behin-ere enganutzen bere erranetan. Mintza gakizkon: eman diezakegu zerbait argitasun abre heien gainean. Saulek laudatu zuen sehi haren solasa. Sarthu ziren hirian, eta haren erditarat zireneko, bathu zuten Samuel Jainkoari sakrifizio bat ofrendatzerat zohala. Jainkoak ordukotzat erran zion Samueli: bihar, muga huntan berean, egorriko darotzut, Benjaminen tribuko gizon bat; sakraturen duzu haina hura ene populua erregetzat; eta hura izanen da libratuen duena ene populua filistindarren eskutarik.

Samuelek etzuen hain laster Saul ikhusi non Jainkoak erran baitzioen: huna bada aiphatu darotzudan gizon hura. Hau izanen da ene populua erregea. Saulek etzuen ezagutzen Samuel, hurbildu zitzaion, eta erran zioen: othoi, erran diezadazu non den profetaren etxea. Samuelek ihardetsi zion: ni naiz zuk bilhatzen duzun profeta: zato enekin sakrifikatzeke lekhurat. Yanen duzu, egun, enekin, eta bihurturen zara bihar goizena. Erranen darozkitzut bihotzean ditutzun gauza guziak. Duela hirur egun, galdu izan tutzun astoez bezanbatean, zaude deskantsu, ediren dire, eta nori dagozko hobeki Israeleko gauzarik hoberenak zuri eta zure aitaren egokiari baino? Saul espantitu zen azkeneko hitz horien entzuteaz; eta ihardetsi zuen: nola mintza ahal zaitezke molde hortan, Benjaminen tribukoa, erran nahi da, bertzetarik ttipienekoa naizen denboran, eta ene ethorkia tribu hartan aphaltana denaz geroz? Berriz ere diot. Nola mintza ahal zaitezke horrela? Sakrifiziotik lekhora, Samuelek eraman arazi zituen Saul eta hunen sehia, sala baterat. Yar-arazi zituen mahainean; han aurkhitzen ziren hogoi eta hamar bat presuneen baltsan, eta Saul othuruntzatu zen odoan Samuelekin; etzan zen Samuelek bere etxean harentzat aphaín-arazi zuen ohe batean.

Biharamun goizean, Samuelek deithu zuen Saul, eta athera ziren biak. Hiri behererat zirenean, Samuelek erran zioen: mana ezazu zure sehia dohan aitzinat, eta trika zaite aphur bat yakintsun egin zaitzadan Jainkoak erran darozkidan gauzez. Orduan Samuelek isuri zuen Saulen gainerat olio guti bat, eta besarkatu zuen, erranik: Jainkoak bere populua erregetzat sakratu zaitu olio hunen gantzuduraz; libratuen tutzu israeldarrak bere etsaietarik. Huna zertarik ezaguturen duzun Jainkoak erregetzat sakratu zaituela: niganik urrunduren zarenean, bathuko tutzu bi gizon, Rakelen hobitik hurbil. Erranen darotzute zuen astoak ediren direla, eta zure aita deskantsu dela, alde hortarik. Handik helduko zarenean Thaboriko haritzerat, bathuren tutzu hirur gizon: batek izanen tu hirur pitika, bertzeak hirur ogi, eta hirugarrenak izanen du flasku bat arno. Eginen darotzute salutantzia, eta emanen bi ogi zeinak hartuko baidituztu. Hauk guziak hunela gerthaturen direnean, bethe zatzu bethetzeke izanen diren eginbide guziak; ezen Jainkoa zurekin edirenen da. Solhas huntarik lekhora, Saul hastandu zen Samuelganik: etzioen nihori salhatu, ez eta bere aitari ere zer erran zion profetak bere erregekoaz.

Samuelek bil-arazi zituen isreldarrak Masfarat, bereztekotzat errege bat. Egin zuten zorte, lehenik tribu guzietan, gero tribu bakotzek familia guzietan: azkenean zortea eroi izan zen, Jainkoak orduko hautetsi zuenaren gainerat. Ikhusi zuten zortez bertze gauza guziez bezala dela; Jainkoak, berari zaion gisa, erregetatzen duela, haren probidentzia sainduak darabiltzala munduko gerthakari guziak. Saul izan zen beraz erregetzat ezagutua. Ibilhi ziren haren ondoan, eta ezin ediren zuten. Azkenean, yakin zuten gordea zatzala bere etxean. Lehiatu ziren harengana: hartu eta erakharri zuten Masfarat; eman zen populua erdian, eta, buru osoaz, bertze guziak baino handiago kausitzen zen.

Saul humil agertu zen, lehenbizian; itxura ederra egin zioten hura erregetzat nahi etzutenei ere. Oxala Jainkoaren alderako haren leihaltasunak irauñ izan balu bethi! bainan ez; erori zen gaixki handi batean. Samuelek erran zioen igurik zezala hulako lekhutan, zazpi egunez, eta etzezala ofrenda sakrifiziorik, hura harat artean. Saulek iguriki zuen Samuel, zazpi egunez; ordean ikhusirik arrats aphaltala zela, Samuel etzela ageri, eta mundu guzia barriatzen zela hara hunat, berak ofrendatu zioen Jainkoari sakrifizioa.

Ala Jaunaren probidentzia osoki baida miragarria! Saul astoketan dabilha, eta sakratua da erregetzat! Mundu huntako ontasun eta khoroa guziak baino infinituki gehiago ardietsten dugu Jainkoaganik, gure behatuak barkhatuak, bere amodio sainduaz fagoratzen gaituenean. Hulako





grazia berezi batek zer ezagutza ez du galdetzen gureganik? Zer leihaltasun ez ginduke behar agertu hanbat ontasun, zerua bera eman nahi darokun salbatzaille amultsuaren alderat! Ordean Saul erori zen bezala, gu ere, belas! errexki lerratzen gara gaixkirat; guti irauten ohi dugu berthutearen bidean; gehienez, laster dire ahantziak zerutikako fagore hautetsienak: ondikoz! orguilluak eta bertze pasioneek laster hartzen ohi dute gure gainean, egundainoko esku bera.

## LXXXV. KAPITULUA

**Jonathasen garaitia.**

**Saulen yuramentua.**

**Jonathas begiratu populuz**

1. Er. 14.

Saul erregetu zenean, eman zioten gudu Jainkoaren populuen etsaiei; ordean filistindarrak altxatu ziren egundaino baino indar eta su gehiagorekin. Israeldarrek ere bildu zituzten bere tropa guziak. Bi armadak hurbil zirelarik elkharganik, Jonathas Saulen semeak hartu zuen xede bat animo guzizko bati zagokona, eta borthitztua zena Jainkoaren baitako fidantzia oso batez. Hedatu nahi izan zen, ber-bera, lagun bat harturik filistindarren kanparat. Seguratu zen Jainkoak ez dioela behatzen indar gutiagoari, edo gehiagoari, ta eror-araz zezakeiela errexki haren eskutarat etsaien armada handi hura guzia, ungi bazitzaion. Higitzen, astaparka, arroka zorrotz batzutarik etsaien kanparat; hil zituen berehala zenbat filistindar. Etzen bertze deus-ere behar. Izialdura sarthu zen kanpa guzian: huntarainokoa ziren guziak asaldatuak, non bere armez berez baliatzen baitziren elkhar hiltzekotzat, eta ez baitzuten bertze etsai beharrik deseginak izateko. Nahasmendu haren harramantza heltzen zen israeldarren kanparainokoa. Saulek ezagutu zuenekoztat Jonathas etzela kanpan, pentsatu zuen zen guzia. Nahi izan zituen persegitu filistindarrak, eta osatu haren semeak hasi zuen garaitia. Yuramentu egin zuen madarikatua gertha zadiela armadako nor nahi, heldu bazen yaterat, ilhundu gabe. Israeldarrak iragan behar izan ziren eztiz bethea zatzen bide batetarik, halarik ere, etzen bat atrebitu hautsterat Saulen manua. Jonathas izan zen bakharra hautsi zuena, ez yakinean bere aitaren debekua. Nola gose eta flako aurkhitzen baitzen, hedatu zuen ezti hartarat bere zigorraren burua, eta yan izan zuen hartarik guti bat.

Israeldarrek, gauaz, filistindarren ondoan abiatzeko xedea zaramaten; ordean Saulek nahi izan zuen lehenik Jainkoa konsultatu, yakitekotzat zertarat zohakeien persegitze berri hura. Jainkoak etzioen deusik iharde-tsi. Saulek ezagutu zuen handik beretik norbait bazela Jainkoa tarritatu zuena, eta egin zuen yuramentu Jainkoaren tarritatzaille hark galduren zuela bizia, balitz ere Jonathas, haren semea bera. Egin zen zorte yakitekotzat nor ahal zen bada gaixki egillea. Zortea erori zen Jonathasen gainerat. Saulek galdegin zioen seme hari, zer gaixki egin zuen. Jonathasek,





auhendatzen zuela bere zorigaitza, ihardetsi zioen bere aitari: bidean nindohala, hartu dut, zigor baten buruan, ezti guti bat, eta horra zerengatik naramaten hiltzerat! Saulek erran zion yuramentu egina zela, eta ezin gibela zitekeiela hari gal-araztetik bere bizia. Israeldarrak yarri ziren Jonathasen alde; libratu zuten bere aitaren eskutarik, hunela mintzo zirela: zer? Jonathasek libratu du mirakuilluzki Israel guzia etsaietarik: zor diogu eza-gutzarik handiena, eta errana izanen da bada galdu duela bere bizia? Ez, ez da holakorik ikhusiren: ez dugu ere nahi egin dakion minik gutiena. Hunela begiratu zuten israeldarrek Jonathasen bizia. Saul ez zitzairen gehiago yarraiki etsaiei, eta filistindarrak bihurtu ziren bere herritarat.

Badire saindu batzu laudatu dutenak Saulen fermutasuna, eta bere yuramentua konplitu nahizko zorrotzasuna; badire bertze saindu batzu errateko aurkhitzen dutenak buraso hartaz. Zer nahi den dela: Jonathasen etsenpluak irakhasten daroku yazartzen khar saindu batekin arimako etsaiei, nahi balin baditugu zebatu. Irakhaststen daroku oraino eztitik yate hartaz, ez garela ibilhi behar munduko atsegin eta nahikaren ondoan, eta eramanik ere garaitiarik konpliena gure pasioneen gainean, orobat bethi atzarriak, eta bethi ikhara zuhur batean behar garela bizi. Hutsik, iduriz, arinena bera aski da maiz tarritatzeko Jaunaren haserradura saindua, eta yauts-arazteko gure buruen gainerat zigorrada lastimagarrienak.

## LXXXVI. KAPITULUA

### Saulen bigarren desobedientzia

#### 1. Erreg. 15.

Saulek finkatu zuen bere erregetasuna: yazartzen zioten, alde guzie-tarik, bere etsaiei, eta bethi garaitiar gelditzen zen. Samuel hedatu zen, egun batez, Saulengana, eta erran zioen: Jainkoak egorri nau zu sakratzerat Israelgo erregetzat. Entzun ezazu beraz orai zer manatzen darotzun: gogoan dakharket amalezitarrek ene populuari egin izan diotena, eta nola nahi zioten bortxa egin Ejiptotik ilki zenean. Abia zaite beraz amalezitarren kontra: zathika zatzu guziak, fundi zatzu heien ontasun guziak; beira ordean izan heien gauzeen gutiziarik. Ez nihor guphidets; aitzitik, hil araz zatzu gizon, emazteki, haur, abere, hitz batez, guziak. Saulek bildu zituen berrehun milla gizon iraganak. Eman zaroen gudu amalezitarrei, garaitu zituen, preso altxatu Agag heien erregea, eta ezpatan pasarazi zuen populu guzia; ordean, dela Saulek, dela armadak, guziek guphidetsi zuten Agag. Desegin zituzten gauza arrunt eta guti prezatzeko zirenak; eta begiratu zituzten beretzat soineko ederrenak, arthaldetako bildotsik gizenenak, eta heientzat on ziren gauza guziak. Min zitzairen halakoen galtzea.

Ordean, Jainkoa mintzatu zitzaion Samueli, eta erran zion: urrikitan nago egin izateaz Saul erregetzat: ezen arbuiatu nau, eta ez ditu bethe ene manuak. Hitz hauiek damustatu zuten Samuel, eta egon zen gau guzia othoitzean. Biharamun goizean, abian zela heltzeko Saulgana, entzun zuen printze hark eragin zuela trionfazko arka bat, eraman zuen garaitiaren seinaleztat. Samuelek ediren zuen Saul Jainkoari ofrendatzerat zohala sakrifizio bat amalezitarrei hartu ziotzoten gauzez. Saulek ikhusi zuenean Samuel hurbiltzen, ilki zitzaion biderat, egin zion salutantzia, eta erran zioen: konplitu tut Jainkoaren manuak. Samuelek ihardetsi zuen: zer dire bada hemen entzuten ditudan aziendeen orro horiek? Horren gainean, Saulek erran zuen: populuak begiratu ditu amalezitarren arthaldetan ziren gizenenak Jainkoari ofrendatuak izatekotzat. Orduan profetak erran zioen khar saindu batekin: Jainkoak athera zaitu aphaltasunetik, altxatu zaitu erregetasunerat, zergatik beraz etzara leihal agertu haren manutarat? Nola izan dukezu bekhokia bekhatu egiteko Jaunaren begietan, eta hautsteko haren manu errespektagarriak, intres zikhin batengatik? Bada, yakin zazu arbuiatu duzunaz geroz Jainkoaren hitza, Jainkoak gaitzetzten zaituela, zu ere, eta ez zarela gehiago izanen errege. Hitz hunek zaurthu zuen Saul,



erran arazi ere zioen bekhatu egin zuela. Samuel urrundu zen hareganik, eta bihurtu zen bere etxerat. Hil-arazi eta zathitan eman arazi zuen ondolan Agag, amalezitarren erregea.

Zenbat giriztino Jainkoaren manuak ostikatzen dituztenak, mundu huntako ontasun eta atsegin iragankhor batzuegatik! Gerthatzen dire heien artean, bere gaixkiak, Saulek bezala, aithortzen dituztenak, erraten ere dutenak urrikitan direla, ordean, ala guti baida fidatzeko heien hitzetan! Bekhatore gehien penitentzia ezpainetan datza, Saulena bezala, eta ez bihotzean. Jainkoak etzuen entzun printze ondikozko haren othoitza, zeren etzen bihotzetik heldu. Orobat da gutarik bat-bederaz: alferretan erranen dugu urriki dugula gure bekhatuez, eta itzuli nahi garela Jainkoaganat; ez bada bihotza mintzo, ez balin baditugu utzten lekhu, etxe, lagun eta bekhatuzko bertze bide guziak, Jainkoak ez gaitu behinere entzunen; aitzitik, arbuiaturen du gure othoitza, eta izanen gara, egun batez haren yustizia sainduaren biktima dohakabeak.

## LXXXVII. KAPITULUA

### Dabiten hastapena

#### 1. Erreg. 16.

Jainkoak bulhuzi nahi izan zuenean Saul erregetasunaz, erran zioen Samueli: har ezazu olio guti bat, eta zohazi Bethleemerat, Isairen etxerat, ezen haren umetarik bat berezten dut erregetzat. Samuelek ihardetsi zuen: nola nohake? Saul heldu bada gauza hunen yakiterat, eneak egin du, gal-araziren darot bizia. Jainkoak erran zioen: har ezazu zurekin xahal bat, eta erranen duzu haren ofrendatzerat zohazela. Erakharriren duzu Isai biktimaren othuruntzarat, eta sakraturen duzu nik erakutsiko darotzudana, Samuel iragan zen Bethleemerat: erran zioten hiriko zaharrei harat ethorria zela ofrendatzekotzat Jainkoari sakrifizio bat: gonbidatu zituen Isai eta haren umeak harekin othuruntzatzerat. Aita hura agertu zen bere umeekin. Samuelek ikhusi zuenean Eliab, haurridetarik zaharrena, zeina baitzen gizon handi eta iduri ederreko bat, erran zioen Jainkoari: hau da eiki errege behar dena. Jainkoak ihardetsi zuen: etzela behar yuiatu gauzez, iduritik, haren yuiamenduak etzirela gizonenak bezalakoak. Gizonek axaletik behatzen ziotela; bainan hark ikhusten zuela bihotzaren zola. Isaik erakharri zuen Samuelen aitzinerat, bere bigarren semea, Abinadab zari-tzona, gero bertze bortzak: Jainkoak eman zion Samueli ezagutzerat, etzela hetarik batere erregetzat berezten zuenik. Orduan profetak erran zioen Isairi: hemen dire zure ume guziak? Bertzeak ihardetsi zuen: gelditzen da oraino ttipi bat ardien bazkarazten dena. Samuelek erran zion: egor ezazu haren bilha, ezen-ez gara yarriren mahainean non ez den hura hemen. Berehala Isaik erakharri zuen ume ttipi hura, eta Jainkoak erran zioen Samueli: hori da erregetzat dadukadana, gantzu zazu olioz. Samuelek berehala sakratu zuen haur gazte hura bere anaia guzien aintzinean. Erregetzat sakratu berri hau deithzen zen Dabit: gizon gazte ungi egin bat zen, eta hamabortz urthe ahal zituen.

Ordu beretik, Jainkoaren izpiritua urrundu zen Saulganik, eta iragan Dabitengana.

Saul printze dohakabea izan zen, ordu hartan berean, etsai gaixtoaz bort-hitzki asaldatua: etzuen nihon sosegurik. Bere azpiko zituen aitzindariak erran zioten urrikaldurik, bilharaz zezala norbait manyura yotzen zakiena: manyuraren soinu eztiak agian arinduren zituela haren oinhazeak eta tormentak. Saulek erran zioten: bilha zazue bada halako bat. Aitzindari heta-



rik batek ihardetsi zuen: ikhusi izan dut Isai Betleemekoaren semetarik bat manyura, den hobekiena, yotzen: hura da gizon gazte ungi egin bat, hazkarra, guduko behar bezalakoa, zuhurra bere hitzetan, eta Jainkoa harekin datza. Saulek gaztiatu zion Isairi egor ziozala Dabit, bere semea. Dabit agertu zeneko, Saulek maitatu zuen, eta eman zioen kargu eder bat. Jainkoak zarabilla etsai gaixto hark asaldatzen zuenean Saul, Dabit abiatzen zen manyura soinuaz; Saulen oinhazeak arintzen ziren, eta etsai gaixtoa urruntzen zen.

Dabitek arintzeaz, bere soinu eztiatz, Saulen oinhazeak, eta urrunteaz etsai gaixtoa printze dohakabe harenganik, irakhatsten daroku ezitetasun eta arraitasun handiekin behar garella agertu gure lagunaren alderat bere damu eta atsekabetan. Burfudiak eta dorphetasunak emendatzen ohi dute mina; ordean mantsotasunak eta urrikalmenduak konsolatzen dute, eta maiz sendatzen bihotz nahikabek eritua daukatena. Dabitek Sauli egin zion laguntza iraupen laburretakoa zen; ordean errege saildu haren salmo eder, eta sarkhorretan ezarriak diren egia salbagarriak ederretsiak izanen dire, menderen mende, kristau leihal guziez, eta dire osoki gaiak urruntzekotzat, bere gantzadura sailduaz, gure bihotzetarik munduaren alde-rako yaidura sobraniazkoak, eta yauts-araztektotzat gure gainerat zeruko grazia berezienak.

## LXXXVIII. KAPITULUA

### Dabit eta Goliath

#### 1. Erreg. 17.

Biztu izan zen gerla berri bat filistindarren eta israeldarren artean. Batzuk eta bertzek bildu zituzten bere indar guziak, hurbilduak ere ziren elkharganat. Filistindar bat extranioki handia zena gorphutzez, ez gutiago urgiluz, Goliath zaritzona, agertu zen berrogoi egunez, israeldarrei trufa eta idoi egiterat, erraten ziotelarik, oihuz: zerentzat nahi zarete guziak gudukatu? egizue hobeki; hauta zazue bat zuen artean, eta bedi guduka ene kontra. Eramaten badarot bizia, yarriren gara zuen gathibu: hala-hala, nik garaitzen balin badut, eta gabetzen balin badut bere bizi-az, gure meneko beharko zarete. Saulek eta israeldarrek ezin ikhus zezaketen izi-garriki handia zen gizon hura lastu gabe: horrek berak erakhartzen zuen Goliath burfudia guzietarat, erraterainokoan ere desafio eman zioela israeldarren armada osoari, eta etzela bat atrebitu haren aitzinean ager-tzerat.

Dabit, Isairen semea, etzen, ordu hartan, erregerekin: bihurtua zen Bethleemerat zaitzekotzat bere aitaren arthaldeak, eta bazituen hirur anaia armadan. Egun batez, hala beharra! Isaik egortzen du Dabit bere haurridetarat yateko zerbaitekin. Hetarat zen, xuzen-xuxena, bi armadak elkharri lothzerat zohazela: Dabitek utzi zituen berekin zaramatzan gauzak, eta egin zuen laster guduko lekhurat. Harat zeneko, horra non agertzen den Goliath, ohi bezala, bi armadeen erdian, egundainoko burfudia eta desafio bereekin, eta non ihesi egortzen dituen israeldar iziperak. Bertzelako animoa erakutsi zuen ordean Dabitek: erraten zioten ingurutan zituenei: zer luke saritzat filistindar hori hill lezakenak? borra lezakenak israeldarren laidoa? Ihardetsi zitzaion: baldin edireten balitz norbait Goliath hill lezakena, erregek eman liozokela nahi bezanbat ontasun, bai eta bere alaba ezkontzan. Eliab, Dabiten anaia zaharrenak, entzutean solas hek, erran zion bere haurrideari: zer tutzu elhe horiek? Zer egiteko duzu zuk hemen? Non zabiltza ardiak trebes utzirik mortuan? Ezagutzen dut zure xedea: gudukatzen ikhusi nahiak erakharri zaitu alde hautarat. Dabit urrundu zen bere anaiganik; ordean gauza bera zioen heltzen zen lekhu guzietan.

Saul egin zen yakintsun Dabiten solasez, eta erakharri zuen bere aitzinerat. Huna nola Dabit mintzatu zitzaion erregeri: nihork ez beza



izan beldurrik filistindar hartaz: ekharria naiz haren kontra gudukatzera: ez da errana ez dudala eskurako. Saulek erran zioen Dabiti: gaztegi zara; etzara gai buru egiteko filistindar, gudutan ohitua den hari. Dabitek ihardetsi zuen: ene aitaren arthaldea zaintzen nuenean, heldu ziren batzutan lehoiak eta hartzak, ardi arrapatzerat: ordu hetan, yarraikitzen nintzaio-ten ondotik, lothzen nintzaie, eta utz-arazten niotzoten zaramatzaten ardiak: heldu balin baziren ene gainerat, hartzen nituen zintzurretik, eta gal-arazten nioten bizia. Bada, gauza bera eginen dut filistindar haren alderat: lehoineen hortzetarik eta hartzeen aztaparretarik beiratu nauen Jainko hark berak beiraturen nau filistindar haren eskutarik. Saulek entzun zituenean gauza espantigarri hauk guziak, erran zioen Dabiti: zohazi beraz, Jauna dela zurekin: eman-arazi ziotzan kuirasa bat, erran nahi da, gerrontze-kara bat gorphutzean, altzairuzko kaska, edo kalota bat buruan, eta ezpata bat gerrian. Hauk guziak etziren Dabiten nekhatzekotzat baizik. Aurkhitzen zen planta berrian ezin hurren higuere zitekeien; khendu behar izan zituen beraz bere kuirasa, bere kaska eta bere ezpata; etzen alabainan halakoekin ohitua; hartu zituen bere leheneko armak, zeinak baitziren makilla bat eta habaillak, eta abiatu zen filistindar-rraren kontra.

Goliathek ikhusi orduko Dabit, burlatu zen hartaz, erraten zioela: zer egin gogo duk? Zer? makilla batekin heldu haiz enegana? Zertzat idukitzen nauk? Uste duk naski zenbeit zakhur naizela. Yakin ahal dezakek yan-araziren diotedala hire gorphutz ttipia aireko hegastinei eta lurreko aziendei. Goliathek egitearekin batean zenbait hurrats bere lantzarekin Dabitengana, Dabitek, harturik harri bat, erabilli zituen bere habaillak, landatu zuen harria Goliathen kopetaren erdian, eta artiki zuen ahuspez, lurrerat. Orduan ebaki zion burua beraren ezpataz. Heriotze hark hedatu zuen ikhara filistindarretarat, eta bozkarioa Israel guzirat.

Dabiten etsenplu ederrak irakhatsten daroku ezartzen gure fidantzia guzia Jainkoa baitan. Etsai borthitzenak eta muthirienak, hala nola pasio- ne nausituenak, laster dire garaituak eta ezdeustatuak Jaunaren laguntza sainduarekin. Goliathen suphertasunak erran nahi du, ez dela zeren kon- datu hazkartasunaren gainean; Jainkoak beheratzen eta urmariatzen ditu supherraketa sendoak, altxatzen eta khorotzen dituen denboran humi- llak eta munduaz arbuiatuak.

## LXXXIX. KAPITULUA

Saul bekhaxten da.

Jonathasen amudioa Dabitentzat

1. Erreg. 18.

Gudutik lekhora, Dabit eramana izan zen Saulen aitzinerat; geroztik errege hark berekin zadukan, eta eman zion gerla-gizon multzo baten aitzindaritasuna. Jonathas Saulen semea, hanbat akzione eder filistinda- rren kontra egin izan zuena; etzizaion batere bekaxtu Dabiti, zenbat bai- tzen ere arrotza: ikhusten zuen bada Dabitek goibeltzen zituela, garaitia bakhar batez, berak orduraino ardietsi zituen laudorio eta ohore guziak; aitzitik ekharri zioen Dabiti ezin erran bezanbat amudio: iduri zuen etzu- tela biek gorphutz bera eta arima bera baizik. Jonathas bulhuzei zen bere berregintza eta bere arma guziez, eta eman ziotzon Dabiti. Ordu hartan, populuak oraino urrunago eraman zuen bere bozkarioa. Dabit heldu zela Goliath hillik, eta haren burua eskutan, Israelgo emazteki oste bat ilki zitzaion biderat musikako soinu gisa guziekin, nahiz ohoratu haren garai- tia bere allegrantziaz eta laudorioz. Ohore hura bazagokon Dabiti; zor ere zioten israeldarrek bere librantzaren bihurkunde bat bezala; ordean nola emazteki hek, bere kantuz eta musika soinuaz, baitzioten errepikaz kopl a guzietan: Saulek hil izan ditu milla filistindar, eta Dabitek hamar milla. Errege bati baino ohore gehiago Dabiti iratxekitze hura gaitzitu zitzaion Saul supherrari. Handik harat etzioen arraiki behatzen Dabiti, higundu ere zuen orduraino hanbat maitatu zuena, eta maitatu behar zuena.

Saulek ezkondu zuen bertze batekin Merob, bere alaba zaharrena, Dabiti emaztetzat agindua. Yakin zuenean Mikol, haren alaba gaztea, ekharria zela Dabitentzat, gaztiatu zion Dabiti alaba hura hari ezkontzan ematerat zagoela, lehenik ehun filistindar hiltzekotan. Saulen xedea zen hura bera gal-araztea. Dabit eman zitzaion bideari bere azpiko zituen bak- harrekin, eta hil izan zituen berrehun filistindar. Orduan Saul ezin debe- katu zen bere hitza atxikitetik. Haren herrakhundea emendatzen zen ikhustez Dabit Israel guziaz maitatua, geroago eta beldurrago zen har- taz. Eman zen behin baino gehiagotan haren, bere eskuz, hiltzeko egin- bidetan haren aitzinean manyura soinuaz hari zela. Ordean Dabitek begi- ratzen zuen dohatsuki bere burua.

Saulek nahi izan zuen bertzeez eragin, berak ezin egin zuena: egorri zituen, gau minean, gizon armatuak Dabiten etxerat haren hiltzekotzat.



Dabit galtzerat zohan bere bizia, Mikol bere emazteak ez balu lagundu. Emazte hunek hain ungi egin zuen non yauts-arazi baitzuen bere senharrara leiho batetarik: eman zuen gero zur bat ohean sinhets-araztekotzat Dabit eri zela: arte hartan Dabitek egin zuen bide, eta itzuri izan zen haren biziari nahi ziotenetarik.

Zer etzuen egin Jonathasek bere aitaren sumindura aphazegatzekotzat, eta hari erakutsterat ematekotzat etsai handi bati bezala yazarri nahi zioen hura, zela haren zerbitzaririk leihalena! Ordean Jonathasen egin ahal guziak alferretan izan ziren; Saul haren aita Dabiten alderako herrakunde berean gelditu zen.

Ala urrikalgarria baida bihotz bat inbidiari utzia dena! Zer desmasia izigarri ez du egiten presunetan gure salbamenduko etsai ixil eta kaltehor hark? Saulek preztatzeko zuen Dabiten prestutasuna; ordean zertaraino ez da heltzen gizonaren eskergabetasuna! ezagutu behar bidean zordun zela bere khoroz beraz Dabiten alderat, Saul, bihotz gogorak ez dio herrarik eta sumindurarik baizen erakutsten. Nonbait erran behar da beraz inbidiak ungi itsutzen duela bat-bedera, eta pasione hark gure higuntza guzia ungi merezi duela!

## XC. KAPITULUA

### Jonathas eta Dabit

#### 1. Erregeak 21.

Jonathasek ikhusi zuenean ezin sendatuzkoa zela bere aitaren izpirituko gaitza, eta zer xede zaraman bere ungi-egillearen kontra, erran zioen bere adiskideari urruntzerat egin behar zuela Saulen begietari: elkharr maiteki besarkatu izan zuten hastantzean bata bertzeaganik, eta agindu zioten elkharri amodio bethiko bat.

Dabit hedatu zen Nobeko hirirat, Akimelek aphez-handiagana. Hiri hartan zatzan Jaunaren tabernaklea: etzuen armarik, eta etzakien no ediren yateko zerbait, dela beretzat, dela yarraikitzen zitzaientzat. Galdetu zioen zenbait ogi aphez-handiari, eta erran zion, buruz buru, erregeren manu hertsiek eman-arazi zutela bidean, izan gabe astirik behar zituen gauzen hartzeko. Gerthatu zen Akimelekek ez baitzuen bertze ogirik, leihat ogi proposizioneko deithzen zirenak: hek ere altxatu berri ziren urrezko mahainaren azpitik, ezartekotzat, legearen arabera, heien orde, bertze ogiak. Aphezak ziren bakharrak ogi hetarik yan ahal zezaketeienak; ordean aphez-handiak, ikhusirik Dabiten herstura, eman zioen ogi hetarik; eta nola tabernaklean aurkhitzen baitzen Goliathen ezpata, hura ere eman zioen Dabiti ez izanez bertzerik hari eskaintzekotzat.

Saulen aitzindaritarik bat Doeg zaritzona, ordu hartan, han gerthatu zen: berehala egin zuen Saul yakintsun nola aphez-handiak eman ziotzan Dabiti proposizioneko ogiak yaterat, eta Goliathen ezpata. Saulek, ordu berean, erakharri zituen bereganat Akimelek eta haren leinuko aphez, Nobeko hirian aurkhitzen zirenak. Saulen aitzinerat zirenean, errege hark erran zioen aphez-handiari: zergatik horrela agertzen zarete ene kontra, nahiz zu, nahiz Isairen semea? Zeri dagokola eman diozu Dabiti ogi hetarik, eta ezpata bat? Akimelekek ihardetsi zion erregeri: ez ahal da bat, Jauna, zure azpikoen artean, zure alderat Dabit bezain leihal denik: bertze alde, Jauna, Dabit zure suhia da, eta zure manu guzien konplitzerat dago: urrun da uzte izan baidut egin gaixkirik ttipiena: hitz bat ez nakien zuk orai aiphatzen ditutzun gauzetarik. Erregek erran zioen Akimeleki: ez da haratik ez hunatik, oren huntan berean, bizia galduren duzue, zuk eta zure etxeko guziek. Ordu berean manatu zituen inguratzen zuten gizon armadunak yazartzeaz Jaunaren aphezei, eta heien hiltzeaz, zioelarik, bazakite-la Dabit ihes zabillala, halarik ere etziotela deusere adi-arazi. Etzen bak-



har bat ezarri nahi zuenik eskua Jaunaren aphezen gainean. Hori ikhuserik, erregek manatu zuen Doege heien hiltzeaz. Doegek egin zuen obeditzerat: hil zituen, egun hartan, lauetan hogoi eta bortz aphez: sarraski hartarik lekhora, Saul hedatu zen Noberat, eta pasarazi zituen guziak ezpatan, azkenaz goiti bulharreko haurrak berak. Bakhar bat itzuri izan zen desmasia hartarik, hura zen Abiathar Akimeleken semea, zeinak ihes egin baitzuen Dabitengana. Dabiten bihotza izan zen atsekabez zaurthua halako berrien entzutean: Erran zion Abiathari: geldi zaite neurekin: zorte bera izanen dugu bata nola bertzeak: elkharrekin galduren gara, edo begiratuko ditugu biek gure biziak.

Dabitek, ikhuserik etzela segurean Saulen lurretan, hedatu zen Akis Gethko erregeganat, filistindarren bazterretarat; ordean bere fama handiak gal-arazten zion bizia. Errege hark atsegin hartu zuen bere eskutan izateaz gizon bat gerletan hanbat akzione eder egin zituena. Hiltzerat zaraman Dabit, baldin Jainkoak zarabillan presuna miragarri hau ez balitz baliatu asmu antzetsu batez: begiratu zuen bere burua errhoarena eginik. Akis erregeak herrexki sinhetsi zuen nahasia zela Dabiten izpiritua: erran zioten bere erresumako buruzagiei: zergatik erakharri duzue gizon hori ene begietarat? Zertako sar-arazi duzue ene palazioan? Ez othe ginduen bada errhorik aski gure herritan, heien emendatzerat hari gabe? Hunela itzuri zen Dabit bere etsaien eskutarik. Bihurtu izan zen Israelgo erresumarat.

Elizako aitek diote Dabiten errhokeria zelakoa etzela funtsean errhokeria, baina bai egiazko zuhurtzia. Gehien errho iduriak dire askotan zuhurrenak. Giriztino batek ez du beraz zeren hartu damurik munduak uzte izateaz izpiritu flakoa duela, hedadura gutitakoa dela. Oin huntan behatzen ohi diote mundutiarrek arima Jainkotiar eta munduko plazer zoragarritarik ihes dabiltzanei. Hulakoak dire bizkitartean funtski arrazoi-natzen dutenak, eta bakharrak agradagarriak zuhurtzia bera denaren begietan.

## XCI. KAPITULUA

### Nabal eta Abigail

#### 1. Erregeak 25.

Dabitek zaraman bizia, Saul etsaitzat agertzen zitzaion orduz geroz, osoki zen urrikalgarria. Egoitzarik gabe, mendiz mendi, arrokaz arroka zabilhan, ihesari emana. Haren bihotza gehienik zaurthzen zuena zen ikhustea gauza guzien eskasean harenganat hedatuak ziren eta orotarar yarraikitzen zitzaizkon lau ehun gizonak. Egorri zituen hetarik hamar Nabalgana, nahiz zenbait laguntza. Nabal hura izantsuna zen; ordean moldegaitza eta gogorra. Mandatari hek egin zioten salutantzia Nabali Dabiten partez, eta galdetu zioten zer bait yanari; erran ere zioten etziotela egundaino egin bidegaberik den gutiena, haren lur bazterretan egon zirenean. Nabalek ihardetsi zioten: nor duzue Dabit hura? Zer da Isairen semea delako hura? Ez da orai ikhusten nausien ihes dabiltzan sehirik baizik: zuentzat ditut bada ene ogiak eta gainerako yanariak: ez, ez, ahal zohazkete; ez dut deusik emateko ezagutzen ez ditudan, eta hart hunat dabiltzanei. Dabit eman zen suminduran berri hauk entzutean: funditzerat zaraman Nabal bere ontasan guziekin Abigailek ez balu hartarik gibelatu.

Abigail zen Nabalen emaztea, haren senharra zoroa zen bezain zuhurra bera. Yakin zuenekotz Dabiten galdeari egin zitzaion begitarte txarra, kargatu zituen bere astoak yateko gauza guziez, eta hel-arazi zituen Dabitengana: higantzen bera ere asto baten gainerat. Etzuen hain laster ikhusi Dabit, non yautsi baitzen eta egin baitzion agur handi bat: yari ere zen ahuspez haren oinetan, eta mintzatu zitzaion hunenbat zuhurtziarekin, non ematu baitzuen Dabiten haserradura guzia. Dabitek onhetsi eta hartu zituen Abigailen emaitzak; emazte hura bihurtu zen bere etxerat; etzioen erran berehala bere senharrari zer egin zuen, arnoan zelakotzat; baina guziak xehatu ziotzan biharamunean. Nabalek etzakien non zen: laztu zen guzia ikhustez zertan ematen zuen bere burua: lothu zitzaion ikhara ezin erranezko bat. Handik hamar bat egunen buruan, Jainkoak punitu izan zuen, eta hil zen.

Dabitek entzun zuenean Nabalen hil-berria, erran zuen: bedi Jainkoa benedikatua punitzeaz Nabal nere alderako bihotz gogortasunaz, eta zeren begiratu nauen egin gogo nuen gaixki handitik. Handik laster, Dabitek galdetu zuen Abigail ezkontzan. Emazte hunek etzadukan bere burua





halako ohore batentzat; ordean bazagokon haren humiltasunari eta haren zuhurtziari izatea printze bat senhartzat.

Abigailek irakhatsten daroku bere arraitasunaz eta eztitasunaz, nola behar garen hartu bere buruak sumindurari eta gaixki egiteko xedeari utzten diotzoteneen alderat: ez ahal da, halakoen eskuratzeko eta ematzeko, molde hoberik nola hitz ona eta humiltasuna.

Dabitek bere aldetik irakhatsten daroku amor eman behar zaiola arrazoinari; eta zapatu behar direla barneko obimendu guziak ezagutzen dugun ordutik gaixkirat dakharketela.

## XCII. KAPITULUA

### Dabitek guphidetsten du Saul

1. Erreg. 26.

Saulek huntarainokoan nahi zion Dabiten biziari, non bil-arazi baitzituen bere erresumako indar guziak gizon bakhar haren gal-araztekoztat. Yakintsun egin zenean Dabit Zifko mortuan zela, abiatu zen haren ondoan. Zer egiten du Dabitek? Badoha bakhar bakharra Saulen kanparat, Abisai lagun harturik. Heltzen da Saulen tentarat edo kabanarat, eta aurkhitzen du errege lo zatzala. Abisaik erran zioen orduan Dabiti: ikhusten duzu Jainkoak eskutarat ematen darotzula zure etsaia: banohako beraz bizia eramaterat ene lantzaz. Dabitek ihardetsi zion: begira zaite halako lan batetarik. Nor da bere eskua ezar dezakeienik, gaixki handi bat egin gabe, Jaunaren gantzutuaren gainean? Har ezazu bakharrik haren lantza eta haren edateko tokia, eta ilkhi gaiten hemendik.

Dabit athera zen beraz Saulen kanpatik, nihork deusere ezagutu gabe: *Jainkoak lo pisu bat egorri zioten kanpan ziren guziak*: higan zen mendizka baterat, eta egin zioten Saulen armadakoei oiuhu, beregainki Abneri, zeinak oraino premia gehiago baitzuen erregeren begiratzeko: erran zioten boza altxaturik: norbait ibilhi da zuen kanpan, nahiz hill errege zuen nausia: ez da behintzat huntan gezurrik. Mira zazueia non diren haren lantza eta edateko tokia, ea edirenen ditutzuen bada bere lekhotan. Saul iratzarri izan zen oiuhu hartan, eta ezaguturik Dabiten boza, erran zioen: Dabit ene semea, zure boza entzuten ahal dut. Dabitek ihardetsi zion: bai, ene boza entzuten duzu, ene Jauna eta ene erregea: zergatik, Jauna, persekutatzen duzu zure zerbitzaria? Zer egin dut? Non da ene hobena? Ez bekizu gaitzets mintzo banatzaitzu hitz hautaz: baldin Jainkoak bazarabiltza ene kontra, onhets beza egiten diodan sakrifizioa sumetitzean haren manu guzietarat; ordean gizonak balin bazarabiltzate, madarikatuak dire Jaunaren aitzinean ni khendu nahi izateaz haren primuzatik, eta ni bortxatzeaz Jainko arrotzeen zerbitzaterat.

Dabitek erran zuen oraino: huna erregeren lantza; hurbil bedi harenetarik norbait hunen bilha. Gero mintzatu zitzaion Sauli hunela: Jainkoak libratu zaitu, egun, ene eskutarat; ordean begiratu naiz besoa altxatetik Jaunaren gantzutuaren gainerat; prezatu dut, egun, zure bizia. Oxala, Jainkoak ere onhets baleza neurea, eta beira banintza gaitz guzietarik! Saulek ihardetsi zion: bekhatu egin dut; bihur zaite enegana, Dabit ene



semea; utzi darotazunaz geroz egun bizia, ez duzu zeren beldurrik izan eginen darotzudala behinere gaixkirik. Ezagutzen dut orai zoratu bat nintzela zuri yazarri nahi izateaz, eta ez nakizkiela gauza guziak, ziren bezala. Hitz hauk erran eta, Saul urrundu zen handik, eta Dabit ere hedatu zen bere azpiko zituen lau ehun gizonekin filistindarren lurretarat. Yarri zen Akis, Gethko erregeren, zerbitzuan, eta izan zuen bere egoitzatzat Sikelegko hiria.

Elizako aita guziek handizki altxatu dute Dabiten emetasuna. San Anbrosio miretsia dago nola etzuen hill bere bizia begiratzeko, eta erre-suma bat beretzeko, berari bizia eraman nahiz zabilhan etsai ikharragarri hura, hain errexki, eta nihortaz ikhusia izan gabe, egin zezakelarik bere kolpea. Etsenplu miragarria, eta irakhatsten darokuna etsaien barkhatzen, eta ungia gaixkiarentzat bihurtzen! Saulek ederretsten du, ezin bertzez bada ere, Dabiten bihotz ontasuna; ordean esker gabe hura ez da hargatik bere baitan sartzen: egundaino bezala persegitzen du bere ungi-egillea. Hemen ageri da zein urrikalgarri den bihotz bat inbidiaz phozoatua dena.

## XCIII. KAPITULUA

### Sikelegko ontasunak eramanak, eta hiri hura errea

1. Erreg. 29.

Dabit Sikelegko hirian zela, gerla, ohi bezala, biztu izan zen israel-darren eta filistindarren artean. Akifek bazakien Dabiten eta harekin ziren gizoneen animoaren berri; fidatzen zen bertze-alde, heien leihaltasunaren gainean: eraman zituen beraz berekin gudurat. Ordean herri hetako buruzagiak zenbait traidorekerien beldurrean bizi ziren: etzuten nahi Dabit aurkhi zadin guduan, erakharri ere zuten Akis erregea haren urruntzerat. Dabitek orduan hartu zuen damuari yarraiki zitzaion bertze bat oraino minagoa. Amalezitarrak yabetu ziren Sikelegez, erre zuten hiri hura, eta eraman handik aurkhi ahal guzia, baita emaztekiak eta haurrak ere. Dabiten bi emazteak, erran nahi da Akinoam eta Abigail, gathibuen balsan edireten ziren. Dabit eta harekin zirenak bihurtu nahi izan zirenean hiri hartarat, ikhusi zuten egin zen desmasia izigarria. Eman ziren hasgorapen minenetan eta nigarrak kharatsenetan. Hauk guziak etziren oraino aski. Dabiti yarraikitzen zitzaizkon gizonek ezin konsolatuz galtzeaz bere emazteak eta bere umeak, yazarri nahi izan zioten Dabit berari, zorigaitz hetaz hobendun izan balitz bezala: harrikatzer zuten gizon saildu hura; ordean Dabitek Jainkoa baitan zadukan bere indar eta fidantzia guzia: konsultatu zuen beraz bere nausi dibinoa, yakitekotzat zer egin ahal zeza-keien amalezitar gaixtaginen alderat. Jainkoak laudatu zuen heien ondoan abiatzeko zaraman xedea.

Orduan Dabit eman zen bere yende guzien buruan, nahiz ardietsi amalezitarrak. Dabiten berrehun bat gizon gelditu behar izan ziren bidean, indar eskasez, eta ezin lagunei yarraikiz. Dabitek bathu zuen dohatsuki gaixtagin hetarik bat guzia hagarandua, hirur egun hetan yan eta edan gabea: eman zitzaion behar zena. Dabitek yakin zuenean haina hura amalezitar baten gathibua zela, erran zioen: hel-araz gaitzakek yende hek diren lekhurat? Gathibuak ihardetsi zion, eginen zuela hark galdetzen zuena, ez galtzekotan bere bizia, eta ez izatekotan largatua bere nausiaren eskutarat. Gathibua bere hitzaren yabe agertu zen. Dabitek atzeman zituen amalezitarrak guti igurikitzen zutela: yaten, edaten eta dantzari hiri ziren bozkario handitan: yazarri zioten borthizki: desegin zituen hetarik gehienak, eta bertzeak eman zitzaizkon ihesari. Eskuratu zituen gaixtagin



hek ebatsi zituzten ontasun guziak, baita berekin zaramatzaten gathibuak: molde hartan etzen deusere galdu.

Dabitek desegin zituenean amalezitarrak, bihurtu zen ezin yarraiki zitzaizkon, eta bidean utzi behar izan zituen berrehun gizonetarat: mintzatu zitzaien amultsuki. Harekin zirenetarik bakhar batzu hasi ziren txar-keriaz, erraten: ez direnaz geroz gurekin ethorri, ez dute behar etsaien gainean harturik heldu garen gauzetarik: aski da bihur dakizkoten bere emazteak eta bere haurrak. Dabitek ihardetsi zioten zuhurki: ene anaiak, ez egin horrela: Jainkoaganik ditugu izate hauk: hark berak begiratu ditu gure biziak, eta libratu ohoin hek gure eskutarat. Ezin gudukatu dena partzurer izanen da gudukatu denarekin; parti beitez beraz guziak guzien artean. Hala egin zen; eta ordu hartan Dabitek eman zuen manua gerorat lege bilhakatu zen Israelgo erresuman.

Sikelegko gaixtaginak denborarekin atzemanak eta punituak izan ziren. Erran daite gauza bera gure mendeko bekhatozeez. Probidentzia adoragarriak egortzen diote noiz edo noiz, zenbait gaztigu humiliagarri; batean eritasun borthitz bat, bertzean atsekabe min bat; hitz batez, yasaten ohi dute zeruko zenbait zigorrada handi, bizitze huntarik beretik. Baldin guphidetsiak balin badire mundu huntan, oraino gehiago urrikaltzeko izanen dire bertzean. Zer izanen da hetaz? Zer bilhakaturen dire agertu beharko dutenean yustiziak berak yuiaturen dituenaren begietan! Zer lastima! zer punimendu ikharragarri ez dago heientzat!

## XCIV. KAPITULUA

### Samuel agertzen zaio Sauli

#### 1. Erreg. 28.

Filistindarrek bildu zituzten bere tropak: kanpatu ziren Sunaman, eta Saul eman zen israeldarrekin Gelboen. Errege hunek ikhusi zuenean filistindarren armada, izialdura sarthu zitzaion bihotzean. Konsultatu zuen Jainkoa, eta Jainkoak etzioen deusere adi-arazi ez ametsetan, ez aphezen, ez eta profeten bidez. Khendu berri zituen bere erresumatik aztiak eta sorginak, Jainkoak debekutzen zuelakotzat halakoen konsultatzea; ordean ikhusirik Jainkoak etzioela batere ihardetsten, yo zuen berak hetarat. Erran zitzaion bazela Endoren emazte bat sorginkoan zakiena: harturik bi lagun, hedatu zen harengana, gerizatzen zuelarik bere burua. Sarthu zen, gau minean, emazte haren etxean, eta othoitztu zuen erak-hartzeaz haren begietarat, hark erranen zioena: emazte hura nekhez eman zen hartan: etzen sobera fida; beldur ere zen eraman ziozoten bizia: ordean Saulek hitz eman zioen yuramentuaren azpian, ez zitzaiola gaixkirik eginen. Orduan emazte hark galdetu zion Sauli: nor nahi zinduke ikhusi? Saulek ihardetsi zuen: erakuts diezadazu Samuel: bazuen bi urthe profeta hau hilla zela. Emazte hark ikhusi zuenean Samuel agertzen, artiki zuen oiuhu handi bat, eta erran zioen Sauli: zergatik enganatu nauzu? ezen Saul zara. Erregek ihardetsi zuen: ez izan beldurrik. Zer ikhusi duzu? Ikhusi dut, erran zuen emazte hark, Jainko bat lurpetik atheratzen. Saulek galdetu zion: nola da egina? Emazte hark ihardetsi zuen: gizon zahar bat da, kapaz estalia. Saulek ezagutu zuen Samuel bera zela, eta eman zen lurrean ahuspez. Orduan Samuel mintzatu zitzaion hitz hautaz: zertako asaldatu duzu ene deskantsua, ni hunat erakharririk? Saulek ihardetsi zion: ezin erranezko hersturan gerthatzen naiz. Filistindarrek gudu ematen darotet, eta Jainkoa urrundua da eneganik. Konsultatu dut, eta ez du deusik ihardetsi: horra zergatik nahi zintudan ikhusi; atsegin nuke yakitea, zure ahotik, zer egin behar dudan. Samuelek erran zioen horren gainean: Jainkoak utzi zaituenaz geroz, zer nahi duzu eneganik? Eginen du zure alderat, nik haren izenean, erran darotzudana: emanen dio zure erresuma Dabit zure semeari, zeren ez diozun obediencia ekharri Jaunaren manuari, eta zeren etzaren amalezitarren alderat agertu haren kolera sainduak galdetzen zuen bezala: largaturen du Israel filistindarren eskutarat, eta enekin izanen zarete, bihar, zu eta zure semeak. Solas hunek lastu eta



ikharatu zuen Saul hutaraino, non erori baitzen zabal-zabala lurrerat. Deusere hartugabea zen egun hartan guzian: emazteki azti hark, eta han ziren bi lagunek erakharri zuten Saul aphur bat yaterat. Errege hark bildu zituen bere gorphutzeko indarrak, eta hedatu zen bere armadarat.

Saul, bera nor izaterat, errege handi eta dohatsu bat behar zen: hortakotzat aski zuen Jainkoaren nahia egitea; ordean desleihal agertu zen haren alderat, eta ordu beretik, izan zen largatua bere itsumendu ondikozkorat: yauts-arazi zituen bere gainerat gaztigurik izigarrienak. Saul dohakabearen etsenplu lazgarriak irakhatsten daroku munduko izateak, handitasunak, erregetasuna bera deus guti direla, edo hobeki errateko, deusik ez direla zeruko laguntza gabe; ordean gureganatzekotzat zeruko graziak, bethe behar ditugu arthoski Jaunaren manu salbagarriak, eta begiratu maiteki haren amudio saildua. Saulen zorte auhendagarriak erraten daroku beraz ediretekotzat gure zorion egiazkoa, bilhatu behar dugula, ez inbidian eta herrakhundean, edo gure nahien egitean, baina bakharrik Jainkoaren alderako leihaltasun oso eta itsu batean.

## XCV. KAPITULUA

### Saulen heriotzea.

#### Nola hartzen duen Dabitek berri hau

##### 1. Erreg. 31.

Saul kanparat zenean, eman zen gudua: israeldarrak garaituak izan ziren; hill zuten hetarik hainitz Gelboeko mendiaren gainean. Jonathasek eta Saulen bi semeek galdu zuten bizia gudu hartan: etsaiek Saul berari yazarri zioten gehienik. Kolpatua izan zen, eta ikhusi zuenean hartua izaterat zohala, erran zioen bere aitzindaritarik bati: athera ezazu zure ezpata, eta hill nazazu, errana izan ez dadin etsaieen eskutik galdu dudala bizia. Galde hunek lastu zuen aitzindari hura, eta etzen eman izan nahi eginbide hartan. Saulek hartu zuen bere ezpata, landatu zuen puntaz gora, eta artiki zuen bere burua haren gainerat. Orduan aitzindari hark ikhusirik etzela gehiago bizirik Saulentzat, eman zion heriotze kolpea.

Biharamunean, filistindarrek ediren zituzten Saul eta haren hirur semeak hillak, eta ebaki zuten Saulen burua; hartu zituzten errege haren armak, eta ezarri zituzten bere Jainko faltso baten tenpluan. Gehiago egin zuten: urkhatu zuten Saulen gorphutza Bethsanako murruen gainean: ordean Galaadarrek altxatu zituzten, gauaz, errege haren eta haren hirur semeen gorphutzak, erre zituzten, eta lurpean sarthu heieen hezurak.

Gauza hau guziak iragaten ziren denboran, Dabit Sikelegko hirian gerthatu zen. Hurbildu zitzaion gizon bat Saulen armadatik heldu zena, eta egin zion agur handi bat. Nondik heldu haiz, erran zioen Dabitek? Jauna, ihardetsi zion bertzeak, itzuri naiz israeldarren armadatik. Dabitek erran zioen: zer berri da bada alde hartan? Nola iragan dire egitekoak? mintza hadi. Gizon hark ihardetsi zuen: gudua eman da; armada desegina izan da; hainitzak hill dire: gehiago dena: Saulek eta Jonathas haren semeak galdu dute bizia. Dabitek galdetu zion berri ekhartzaille hari: nondik dakik Saul eta Jonathas hill direla? Bertzeak ihardetsi zuen: ikhusi dut Gelboeko mendi gainetik nola Saulek sartzen zuen bere burua ezpatan. Hartua izaterat zohan filistindarrez, hori ikhusirik, Saulek deithu nau beregana, eta othoitztu nau hil nezan lehen bai lehen. Nola ezin gehiago bizi baitzitekeien bere buruari eman zioen kolpearen ondoan, egin dut galdetzen zuena, eraman diot bizia: hartu ditut gero, haren khoroa, eta brazeletak edo esku-muthurretakoak: huna non ekhartzen darozkitzudan. Zer berri hiragarri Dabitentzat! Gizon miragarri hau yarri zen nigarrez,



eta erran zion berri ondiko zko heien emalleari: nola atrebitu haiz eskua ezartzerat Jaunaren gantzutuaren gainean? Denbora berean, eman zuen manua hil zezatela gizon hura, kutsatzen zenaz geroz, bere aithorraren arabera, Saulen heriotzean.

Saul hil zenean, Dabitek konsultatu zuen Jainkoa, yakitekotzat zer egin behar zuen. Jainkoak erran zion zohala Judearat. Hala egin zuen, eta Judako tribuak sakratu zuen bere erregetzat: Dabitek hogoi eta hamar urthe zituen ordu hartan. Abner, Saulen armadako aitzindariak, ezagutarazi zuen Isboseht Saulen semea bertze hamar tribuen erregetzat. Handik bi urtheen buruan, bi gaixtaginek hil izan zuten Isboseht lo zatzala, eta eraman zuten haren burua Dabitgana, ustez hari atsegin egin. Zenbat ere Isbosehten heriotzeak eror arazten baitzituen Judako tribu edo herri guziak Dabiten eskutarat, eta ezartzen baitzuten Dabit erresuma oso baten buruan, urrun da bizkitartean boztu baitzen, den gutiena, ikhustez ebakia Isboseht bere etsai muthiriaren burua. Gehiago dena, hil arazi zituen berehala buru haren ekhartzailleak.

Dabiten emetasunak eta bihotz ontasunak irakhatsten darokute, ez dugula atsegin hartu behar gure etsaieen heriotzeaz, ez eta heien atseka-beaz, zer nahi damu, idoi eta bidegabe izan dezagun heianganik. Orhoit gaiten bethi gaixki-egilleak ere anaiak ditugula, eta Jainkoaren manu zorrotza dela hei barkhatzea eta heien maitatzea. Nola ez barkha gure etsaiei, yuie ikharagarriak hanbat barkhatzen darokunean? Nola hek ez maita, salbatzaille amultsuak maite gaituen denboran gure gaixtakeria guzien erdian? Errateko edireten dugu Dabiten alderako Saulen eskergabetasunaz eta herrakhundeaz. Zer dire bizkitartean Saulen gaixki guziak, guk, aitarik hoberenarentzat agertzen dugun urruntasunaren, eta gure bekhatuak haren maiestate adoragarriari egiten dioen idoi eta ofentsaren aldean.

## XCVI. KAPITULUA

**Arka Jerusalemerat eramana.  
Dabitek yotzen du manyura,  
eta dantzatzen da arkaen aitzinean**

2. Erreg. 6.

Dabiten lehenbiziko lana sakratua izan zenean erregetzat, izan zen yabetzea Jerusalemeko, Sion zaritzon gaztelluaz. Jebuseandarren eskutan aurkhitzen zen orduraino. Dabitek egin zuen bere egoitza gaztelli hartan, eta horra zergatik deitzen zuten Dabiten hiria. Bertze alde, eraman zituen bi biktoria handi filistindarren gainean: hortik heldu zen ikharan baitzaduzkan inguru hek guziak.

Aiphatu ditugun bi biktoria handitarik lekhora, Dabitek erakharri nahi izan zuen Jerusalemeko allientziaren arka, eta ezarri bere etxean. Arka hura zatzen Kariathiarimgo hirian, filistindarrek bere eskutarik lar-gatu zutenetik geroz. Dabitek bildu zituen zeremonia eder hartakotzat, aphezak, lebitak, eta Israelgo buruzagi guziak. Hartu zuten arka Abinadabeen etxean, eta eman zuten orga berri batzutan. Oza eta Ahio, Abinadabeen bi semeak, ziren orgaren gidari. Dabit etzen, bide guzian, baratzen manyura yotzetik, eta etzen bozkariazko eta musikako xirola eta soinurik errepikatzen etzutenik arkaen aitzin gibeletan. Orga zaramaten idiak iziturik, makhur-arazi zuten aphur bat arka. Oza beldurtu zen eror zadin; beldur hark erakharri zuen hedatzerat eskua arkarat. Jainkoak punitu zuen oren berean, arkaen ukitzeko Ozak hartu zuen atrebentzia: erori zen han berean hil gogorra lurrerat. Ikhusgarri hunek laztu zuen Dabit, eta zaurt-hu haren bihotza Jaunaren alderako ikhara handienaz: erran ere zuen: nola sar daite Jaunaren arka ene etxean? Etzen nahi izan eginbide hartan eman: eta eraman arazi zuen arka Obededomeen etxerat. Arka egon zen, hirur hillabete, Obededomeen etxean. Jainkoak hedatu zituen bere benedikzioneak Obededomen eta haren ahaide hurbil guzien gainerat. Dabitek yakin zuenean benedikzione heien berria, hartu zuen, bigarreanean, arka bere etxerat hel-arazteko xedea; ordean eman zuen manua lebithek ekharriren zutela.

Dabitek egin zuen bide Obededomeen etxerat: berekin zituen Israelgo zaharrak, eta armadetako aitzindariak. Lebithek hartu zuten arka bere sorbaldetan, eta sei hurratsetarik sei hurratsetarat, imolatzen zuten idi bat eta akher bat. Aphez eta lebita oste handi batek kantatzen zuten, eta



yotzen musikako soinuak; etzen alde guzietarik entzuten bozkariozko oihurik baizik, eta Dabit bera, harizko arropa bat zuela yaunsturatzat, hari zen arkaen aitzinean dantzan, dio iskribu sailduak, munduan egin ahala. Sarthu zirenean hirian, Mikol Saulen alabak ikhusi zuen leiho batetarik, errege bere senharra dantzan hari zela arkaen aitzinean, gaixki hartu zuen Dabitek seinalatzen zuen allegrantzia hura.

Zeremonia eder hartarik lekhora, Dabit bihurtu zen bere etxerat. Mikolek erran zion burlaz: ala Israelgo erregeak ohore hainitz egin baidio egun bere buruari, hirri eragiteaz mundu guziari! Dabitek ihardetsi zion bere emazteari. Jainkoak, utzirik zure aita, et zure etxeko guziak, berezi izan nau haren populua buruzagitzat: dantzatu naiz beraz atseginekin Jaunaren aitzinean, eta dantzaturen naiz berriz ere, behehituren naiz oraino gehiago: arbuiaturen dut ene burua: ohore dadukat xehe eta aphil agertzea mundu guziaren begietan.

Nor da, gure artean, ikharatzeko ez duenik ikhustez Ozaen punimendu lazgarria? Zer egin zuen? Zer zen haren gaixkia hill gogorra erortzeko? Beldur zen arka eror zadin orgetarik, eta haren xuxentzekotzat hedatu zioen eskua, Jainkoaren debekuaren kontra. Horra Ozaen bekhatu guzia. Hala punitua izan denaz geroz Jainkoaren legea zadukan arka ukitzea baizik egin etzuen, zer punimendu ikharagarri ez du igurikitzeke lege sailduaren emaillea bera arbuiatzen duenak bere bekhatuez, haren gorp-hutz garbia eta sakratua profanatzen duenak bere komunione gaixtoez!

Dabitek ematen daroku humiltasunaren etsenplu eder bat. Ahantzten zaio errege handi hari, hartzeen, lehoineen eta gizonen gainean eraman dituen biktoria loriosoak; ez da orhoitzen bere aphaltasunaz baizik. Lakheta du xume agertzea munduaren begietan. Jainkoaren aitzinean bilhatzen du bakharririk egiazko handitasuna. Abisu zuhurra guretzat! Arbuia detzagun beraz lurreko ontasun eta ohore diren guziak, eta yarraik gakitikon humiltasunari: maiz erabil dezagun gogoan atsegin, ontasun eta ohore guzien ithurburu dohatsua, erran nahi da zeruko erresuma, humilzentzat dela.

## XCVII. KAPITULUA

**Dabiten enbaxadoreak,  
edo mandatari ohorezkoak,  
eta errege haren erorikoa**

2. Erreg. 10.

Hil zenean Naas amonitarren erregea, Dabitek gaztiatu zion Hanon, haren seme eta ondorioari, damu zuela haren aitaren heriotzeaz, elkhar atxikitzen zutelakotzat. Urrun da ordean honestasun hau izan baitzen behar bezala hartua. Printze gazte hari sinhets-arazi zioten Dabitek gordezten zuela zenbait xede gaixto adiskidetasunaren itzalean; etzela beraz zeren fidatu haren baitan; mandatari hek egorriak zirela bazterren ikhusterat, eta ezagutzerat lekharatik flakoenak, errexkiago yabetzekotzat amonitarren erresumaz. Hanonek sinhetsirik gauza hau guziak hala zirela, idoiztatu zituen Dabiten mandatariak: mots-arazi zioten bizarraren erdia, eta hauts-arazi heien soinekoak, gainetik beheraino. Dabitek minki hartu zuen gauza. Egorri zituen yendeak bere mandatari ohorezkoen biderat heien kontsolatzekotzat, eta hei erraterat ez agertzeaz hala Jerusalem; bainan egoteaz Jerikon, bizarra berriz ethor-arteraino. Dabitek eman zion finki bere buruari etzuela utzi behar halako idoi bat punimendu gabe: egorri zuen Joab, bere armadetako aitzindaria, amonitarrei gudu ematerat, eta izan ziren garaituak. Ondoko urthean, amonitarrak altxatu ziren israeldarren kontra, armada handi batekin. Dabit eman zen bera, bere tropeen buruan; desegin zituen etsai gehienak, eta egorri ihesi bertze guziak.

Handik hirugarren urthean, Dabitek egorri zuen, egundaino bezala, Joab armada batekin amonitarrei gudu ematerat, eta gelditu zen bera Jerusalem, bere zorigaitz handitan, orai erranen dugun bezala. Dabitek bere palazioko lur altxatu batean zabillala, ikhusi zuen emazteki eder bat freskuran zatzana urean: galdetu zuen nor zen emazteki hura: erran zitzaion hura zela Bethsabee, Uriren emaztea. Erakharri zuen bere etxerat, eta erori zen harekin adulterioan. Emazte hark armadetan zuen senharra. Nahi izan zuen estali bere bekhatu handia, eta bereganik urrundu halako gaixkitan erori ziren emaztekien kontra orduko legeak zakharkeien punimendu laidotsua. Hartarakotz egin zuen Dabit bere beldurrak yakin-tsun.

Dabitek berehala gaztiatu zioen Joab, bere armadetako aitzindariari, egorzteaz Uri harengana, gerlako berrien yakiteko estakuruan. Agertu zitzaio-





nean Uri, nahi izan zuen egorri bere etxerat, begitarte arrai bat egin zion ondoan. Urik etzuen ordean obeditu: iragan zuen gau guzia palazioaren ingurutan bertze aitzindari batzuekin batean. Dabitek gaitzetsi zuen desobedientzia hura, eta egin zituen bere errenkurak. Orduan Uri mintzatu zitzaion erregeri hitz hautaz: Jainkoaren arka, israeldar guziak eta Joab ene aitzindaria bera tenteen azpian (kabanetan) daude; eta ni nohan ene etxerat! ez, ez, hori da gauza bat ezin egin dezakedana.

Dabitek ikhusi zuenean bere egin ahalak alfer zituela, ezin amora zezakeiela gizon animoz bethe hura, eta Bethsabee adultertzat ezagutua izaterat zohala, gaztiatu zioen Joabi egortzeaz Uri bizia galtzeko hurriskurik handienetarat, eta larga zezala gero, trebes, laguntzarik batere eman gabe. Joabek egin zuen manatu zitzaion bezala. Ezarri zuen Uri herstura handienez, eta utzi zuen hiltzerat, laguntza eskasez. Dabit errexi kontsolatu zen zerbitzari leihal eta animotsu haren galtzeaz. Bethsabeeek entzun zuenean Uriren hil berria, auhendatu zuen bere senharra; eta iragan zirenean doluko egunak, Dabitek hartu zuen bere emaztetzat, eta izan zuen ume bat harenganik.

Nork erran zuen, nork sinhetsiren zuen Dabit, gizon tieso eta Jainkotiar hura, eroriren zela bekhatu izigarri batean! Hanbat animo bere etsaien kontra seinalatu zuen aitzindari zuhur hura, garaitua izanen zela emazteki baten alderako amudio zoro batez! O, gizona! ezagut ezak hemen hire flakezia, eta ikhas ezak beldurtasun saindu batean bizitzen.

## XCVIII. KAPITULUA

### Dabitek ezagutzen du bere bekhatua

2. Erreg. 12.

Erran behar da bekhatuak ilhunbe lodiak hedatzen dituela bihotzerat! Dabit egon zen, urthe bat iragana, bere baitan sarthu gabe. Azkenean, Jainkoak egorri zion Nathan, hunela mintzatu zitzaiona: bi gizon aurkhitzen ziren hiri batean, bata aberatsa, eta bertzea erromesa. Aberatsa hainitz ardi eta idien yabe zen, eta erromesak etzuen munduan bertze deusere, baizik ardi ttipi bat, berak errosia, eta berak hazten zuena bere haurreen baltsan, bere ogitik eta bere edaritik, eta maite zuena bere ume bat bezala. Arrotz bat ostatatu izan zen aberats haren etxean; ordean aberatsak etzuen nahi izan gutitu bere arditarik eta bere iditarik yaterat emateko arrotz hari; bainan hartu zuen erromesaren ardi bakharra, eta hura eman zioen yaterat bere arrotzari. Solas hau entzutean, Dabit sumindu zen guzia aberats haren kontra, eta erran zion Nathani: halako gizon batek merezi luke heriotzea, lauetan gehiago goztaren zaio hala egiteaz, eta ez guphidetsteaz erromesaren ardia.

Orduan Nathanek erran zion Dabiti: zu zara gizon hura bera: huna nola mintzo den Israelgo Jainkoa: sakratu zaitut Israelgo erregetzat, libratu ere bai Saulen eskutarik: ezarri zaitut Israel eta Juda guziko nausi; baldin hauk guziak ez badire aski, ekharria naiz hainitz gehiago egiterat. Zertako bada arbuiatu duzu ene hitza egiterainokoan gaixkia ene begietan? Hil duzu Uri, eta yabetu zara haren emazteaz. Zeren hil duzun Uri amonitarren ezpataz, ezpata ez da ilkiren zure etxetik: zure etxe bihotzean soraraziren tut zure zorigaitzak: harturen tut zure begietan, zure emazteak, eta emanen diotzat bertze bati. Zuk gauza hori ixillik egin izan duzu, eta nik eginen ditut erranik heldu naizenak Israel guziaren begietan, eta argi zabalean. Dabitek ihardetsi zuen: Oi! bekhatu egin dut Jaunaren aitzinean. Ezitzaion gaitzitu Nathanen solasa: etzioen erran zer zen bada hura, bere erregeri hala mintzatzekotzat; ahantzi zitzaion, ordu hartan, errege zela; etzen orhoitzen bere gaixkiaz baizik. Nathan urrundu zen Dabitenganik; eta hil zen zazpi egunen buruko, Dabitek Uriren emazteaganik izan zuen umea. Bethsabee izan zuen gerorat bertze ume bat, Salomon zaritzona. Jainkoak maitatu zuen ume hau, eta eman zioen Nathanen bidez, deithuratzar *Jainkoaz maitatua*.



Dabitek erratean *bekhatu egin dut*, etzen mintzo Saul, eta giriztino gehienak bezala: etzen mintzo bakharrik mihiz: haren urrikoa bihotzaren zolatik heldu zen: ezagutu zuen bere bekhatua, eta ordu beretik, etzuen nigarririk aski haren borratzeko. Nork egundaino egin izan du halako penitentzia dorpheirik? Nork egundaino hala humiliatu du bere burua? Dabitek, errege handi bat zelarik, nahi izan du yakintsun egin mundu guzia bere bekhatuez. Etsenplu ederra, gure urgileria guzia suntsi-arazi behar duena! Zenbatak ez othe dire asko bekhatuz hobendun direnak? Dabitek baino maizago Jainkoaren lege saildua hautsi dutenak! Ordean haintzak aurkhitzen othe dire, Jainkoaganat zinki bihurtzen direnak, bere buruak, Dabitek bezala humiliatzen dituztenak, hitz batez, yarraikitzen, hurbiltzen ere zaizkonak errege miragarri haren penitentzia ezin erranezkoari!

## XCIX. KAPITULUA

### Amnonen heriotzea

#### 2. Erreg. 13.

Dabitek, ezagutu zuen ordutik bere bekhatua, egin zuen penitentziarik dorpheena, buztitzerainokoa bere ohea, bere nigarrez, eta hagarandua izaterainokoa bere gorputzea: hain ziren minak haren hasgorapenak. Ordean zenbat ere zin-zinezkoa baitzen Dabiten penitentzia, eta ardietsi baitzuen bere bekhatuaren barkhamendua, konplituia izan zen Jainkoaren hitza, eta Dabitek yasan behar izan zituen Nathanek erran zioztion zorigaitz guziak.

Amnon, Dabiten seme zaharrena, erori izan zen bekhatu izigarri batean Thamar zaritzon bere arreba batekin: ondoan, haren amodio zoroa itzuli zen herrarat, eta khendu zuen bere begietarik haurride hura. Absalon, Dabiten bertze semea, eta Thamar bezala, ama beraren ume gerthatzen zena, yarri zen sumindura handian Amnonen alderat; hartu ere zuen haren gal-arazteko xedea, paradak emanen zioenean: etzion hartatik ematen erakutsterat mindua zela haren kontra. Bi urthe iragan ziren hunela. Azkenean, Absalonek erakharri nahi izan zituen othuruntza baterat Dabit bere aita, eta bere anaia printze guziak. Erregek erran zion Absaloni: zertako nahi gaitutzu guziak gonbidatu; karga ginduzketzu. Absalonek asko egin zuen, nahiz amonatu Dabit; ordean aita hau etzen erori bere semearen othoitzetarat, eta aldaratu zen aurkhitzen zen lekhitik. Absalonek ikhusi zuenean ezin eskura zezakeiela bere aita, erran zioen: ez duzunaz geroz nahi ethorri enekin othuruntzaterat, bederen onhets zazu Amnon aurkhi dadin gurekin. Errege nekhez eman zen hartan; ordean Absalonek hunenbat behartu zuen, non utzi baitzuen Amnon bertze printze guziekin bazkari hartarat.

Absalonek aphain arazi zuen errege bati dagokion othuruntza eder bat, eta erran zioten bere meneko zituen aitzindariak: goardia emazue noiz arnoak aphur bat harturen duen Amnon, eta noiz ikhusiren duzuen ene kheinua: orduan yazar diozozue, eta gal-araz bizia: ez izan deuseren beldurrik, nik ematen darotzuet manu hori. Aitzindariak konplitu zuten bere nausiaren manua, eta Amnon hilla izan zen othuruntza hura eman zen egun eta orenean. Dabiten bertze semeak altxatu ziren berehala mahainetik; higan ziren bere mandotararat, eta eman zitzaizkon ihesari: bidean zirela, hedatu zen Dabiten beharritarat berria Absalonek hil zituela printze



guziak, guphidetsi gabe hetarik batere. Errege hark entzun zuenean berri lazgarri hau, artiki zuen bere burua lurrerat, eta gauza bera egin zuten haren ingurutan ziren guziek. Arte hartan printzeak hedatu ziren bere aitagana, nigar marrasketan. Dabitek eta haren azpikoek yakin zutenean Amnonen heriotzearen berri ondikozkoa, ezin baratu zituzten, hek ere, bere nigarrak.

Absalonek, nahiz bere burua eman bere aitaren haserraduraren gerizean, egin zuen ihes Gesurko erregegana, eta egon zen, hirur urthez, haren lurretan. Dabit nekhez kontsolatzen zen bere seme Amnonen heriotzeaz; ordean denborarekin, eta emeki-emeki, gutitu zen haren bihotz mina, eta hasi zen maitatzen bere seme Absalon. Eman zioen libertatea heltzeko Jerusalemert haren aitzinean ez agertzekotan. Handik laster, Dabitek, Joaben erranetarat eta othoizetarat, permititu zion Absaloni, egin ziozan salutantzia: ordu hartan, aita hark besarkatu zuen bere semea, eta bihurtu zioen leheneko amudioa.

Absalonen alderako ontasuna gusta behar izan zitzaion Dabiti. Seme eskergabe hark ikhusi zuenean onhetsia zela bere aitaz, nahi izan zion eraman bere erresuma, gehiago dena, bere bizia; hortarakotzat hasi zen irabaztetik populuaren amudioa. Xehe eta arrai agertzen zen, bere eskatimeen xuritzerat Dabitenganat heldu zirenean alderat; erraten zioten, errege balitz, bat-bederari laster ezagut liozokela bere zuzena, eta nihork ez lukeiela erratekorik hartaz. Horra nola Absalonek eskuratu zituen yustizia galdez, Israelgo hiritarik Dabitengana heldu ziren guziak.

Ume ondikozko hark ikhusi zuenean populua ekharria haren alde altxatzerat, galdegin zioen bere burasoari, Hebronat heltzeko laudamendua; hartu zuen estakurutzat bere desterruko denboran egin zuelako botu baten konplitzeko nahia. Etzen ordean hain laster Hebronat, non ezagutarazi baitzuen bere burua erregetzat. Dabitek entzun zuenean iguriki behar etzuen berri hau, erran zioten berekin zituen aitzindariet: dugun ihes egin hemendik ez erortzekotzat Absalonen eskutarat. Erregek ordu hartan bazituen hirur hogoi urthe iraganak; athera behar izan zen, oinez, bere hiritik, etzuelarik berekin baizik bere goardak, eta oinezko sei ehun gizon Gethoo hiritik haren zerbitzaterat ethorriak.

Dabitek iragan zuen Zedrongo ibaia, eta higan zen, oinez eta nigarreran, Azitunetako edo Olibetako mendirat; ondotik yarraikitzen zitzaizkonak ere orobat zauden nigarrez: etzen alde guzietarik hasgorapen eta oiuhu minik baizen. Dabit hurbildu zenean Bathuringo alderat, athera zitzaion Saulen ahaide bat Semei zaritzona: etzen hitz gaixtorik erregeren kontra ahorat heldu ez zitzaionik, etzen maledikzionerik egiten etzionik:

haren atrebentziak etzakien non geld; heltzen zen erraterainokoan bere erregeri, bekhokirat, kruel bat zela; etzuela ez legerik, ez konzientziarik; arrapatu zioela Sauli bere erresuma, eta hargatik Jainkoak bulhusten zuela hura ere erresuma beraz ematekotzat Absaloni. Hulako hitz zoroek sumindu zuten Abisai Joaben anaia, erran ere zioen erregeri. Zer! utziren diogu bizia bere nausiar horrela mintzo zaion nahasi bati? Ez, banhoako burua ebakitzerat. Emetasun gehiago agertu zuen Dabitek; ihardetsi zioen Abisairi: ez egin holakori: Jainkoak manatu dio gizon horri Dabiten idoiztatzeaz: ez da beraz zeren egin hortaz errenkurarik: ez duzu ikhusten ene semea bera niri bizia eraman nahiz dabilhala? Ez ahal da beraz miresteko atze batek horrela egitea: Dabit, bere bekhatez guzia humiliatua eta urrikiz zaurthua, yarraiki zitzaion bere bideari, eta Semei etzen behinere baratu haren madarikatzetik, eta haren harrikatzetik. Zer ahalkeria errege handi batentzat! Zer bihotz-min aita on batentzat!

Absalon sarthu zen, denboratsu hartan Jerusalemeko hirian, faza eta morga guzien erdian. Kusai, Dabiten adiskide ohia, izan zen lehenbizikotarik salutantzia Absaloni egin zioena, eta ezagutu zuena bere erregetzat: hitz eman zion zerbitzaturen zuela haren aita zerbitzatu zuen leihaltasun berarekin. Absalon yabetu zen, Akitoselen abisu gaixtoz, Dabitek bere palazioan utzi zituen emazteez. Erakharri zituen itsuskeria guzietarat. Molde hartan, konplitu gerthatu zen Nathan profetaren errana.

Zer laido! zer idoi! zer lastima ez darraio Dabiten bekhatuari! Ala gusta baitzitzaion errege dohakabe hari urruntzea Jainkoaganik, eta bere burua largatzea gaixkirat! Utzten dute bere adiskideek, bere meneko zituen populuak altxatzen dire haren kontra; azkenaz goiti, bere semeak berak eraman nahi dio bizia, bulhuzi duen ondoan bere erresumaz. Etsenplu huntarik ikhusteko da, bekhatore garenean, behar gabela lehiatu Jainkoarekin baketzerat gure egiazko penitentziaz, bozki behar direla hartu Jainkoak barnetik eta kanpotik egortzen darozkigun gaitz eta atsekabe guziak. Bekhatua ezin dagoke punitua izan gabe: goiz, edo berant, mundu huntan edo bertzean, satisfatu behar da Jaunaren yustizia adorgarria.



## C. KAPITULUA

### Absalonen heriotzea.

#### Dabiten damua

##### 2. Erreg. 16.

Absalon yabetu zenean Jerusalemez, eta hiri hartako populuaren izpirituaz, emantzen Dabit gal-arazteko eginbidetan. Hartu zuen bere abisua. Akitofelek erran zioen: bil detzagun hamabi milla gizon, eta abia gaiten, gau huntan berean, Dabiten ondoan: unhatua eta nekhatua izan behar da. Erortzen balin bagara, bet-betan, haren gainerat, harekin diren guziak emanen zaizko ihesari, eta errege bakhar bakharra geldituren da: orduan eginen dugu hartaz nahi dugun guzia, eta guziak zure azpiko yarriren dire. Abisu hau Absalonen eta Israelgo zahar guzien gogarako edireten zen. Halarik ere Absalonek nahi izan zuen oraino, guduari lothu gabe, yakin Kusairen abisua: erakharri zuen beregana, eta erran zion: huna Akitoselen abisua: yarraikiren othe gaitso? zuk, zer diozu? Kusaik ihardetsi zuen: ene iduriz, oraingo huntan Akitofelen abisua ez da batere zuhurra. Badakizu zure aita gerla gizon handi bat dela, harekin direnak animotsuenak direla, eta suminduak gure kontra. Zure yendetarik zenbait hiltzen bada, hedaturen da berria Absalonen tropak garaituak izan direla; eta hori bera aski izanen da banarazteko zatizialdura israeldarretan. Ene arabera, bertzela egin zinezake; eta huna nola. Bil-araz detzagun Israelgo gizon guziak, eta eman zaite heien buruan: gudu emanen diogu Dabiti non nahi gertha dadin, eta gure mundu osteak eskuraturen ditu dela Dabit, dela harekin diren guziak. Abisu hau hobea iduritu zitzaizen Absaloni eta Israelgo zaharrei Akitofelena baino.

Dabitek eta Kusaik elkhar aditzen zuten gerizaturik: Kusaik gaztiatu zion berehala Dabiti zer egin gogo zuen Absalonek, eta iragan behar zuela lehen-bailehen Jourdaingo arribera, non ez galduren zutela bizia hark eta harekin ziren guziek. Dabitek etzuen galdu denborarik; egin zuen Kusaik gaztiatu bezala.

Absalonek iragan zuen noizbait, Jourdaingo arribera; ordean Dabitek izan zuen denborarik aski bere armadaren emendatzekotzat. Eman ziren, batzu nola bertzeak, guduari lothzeko arrimuan. Dabitek nahiko zuen erakutsi bere burua gudu hartan; ordean gibelatu zuten hartarik, bel-durrez eror zadin, beregainki hari yazarri nahi zioten etsaieen eskutarat. Gelditu zen beraz bera hirian, eta armada abiatzerakoan gudukatzerat,

errege handi eta aita samur hark erran zioten tropeen aitzindariei: begira diezadazue behintzat Absalon ene semea.

Gudua izan zen emana Efraimeko oihanean; Dabiten armadak xehakatu zuen Absalonena. Dabiten soldaduek egin izan zuten sarraski izigarri bat etsaieran. Utzi zituzten hetarik hogoi milla hil gogorak lurtean. Absalonek egin zuen itzurtzerat, ihesari emanik; ordean zer gerthatu zitzaion? Haritz lodi eta adartsu baten azpitik iragaten zela, haren ille luziak lothu zitzaizkon haritz haren aldaski, eta azpian zuen mandoa aitzinat zohala, bera airean gelditu zen, eta ezin egundaino libratu zuen bere burua. Soldadu batek ikhusi zueneko Absalon haritz batetarik dilindan, egin zuen Joab gauza hartaz yakintsun. Aitzindari hunek erran zioen soldadu hari: zertako ez diok sarthu hire ezpata gorphutzetik? Izanen huen dirutze handi bat saritzat. Soldaduak ihardetsi zuen: begiraturen naiz, munduko diru guziak izatekotan ere, hedatzetik eskua erregeren semearen gainerat, guziz errege hark egin darotzun, eta guziek entzun dugun gomendio hertsiaeren ondoan. Joabek erran zuen horren gainean: hire hitzek ez niautek baratzen: hurbildu zen haritz hartarat, eta zilhatu zion Absaloni bihotza hirur daga ziztakoz. Absalonen gorphutza izan zen artikia zilho handi baterat, eta estalia harri meta batez: ordu berean, Joabek bararazi zuen gudua, nahiz guphidetsi populua.

Hedatu zuten berehala garaitiaren berria Dabitengana. Dabitek galdegin zuen lehiarekin Absalon bizi zenez. Erran zitzaionean hil zela, sarthu zen gela batean, eta emantzen marrasketan, erraten zuela: Absalon ene semea! ene seme Absalon! oxala eros-ahal baneza zure bizia neurearen gustuz! Armada guzia yari zen doluan, yakin orduko erregeren damu mina bere semea galtzeaz. Tropa guziak sarthu ziren hirian harorik gabe; iduri zuen garaituak izan zirela, eta ihes heldu zirela. Gauza hau gaitzitu zitzaion Joabi: aitzindari hau sarthu zen erregeren gelan, eta erran zioen: ahalkieran eror-arazi tutzu, egun, zure zerbitzariak, bizia begiratu darotzuten ondoan zuri eta zure familiako guziei: maitatzen tutzu higuin zaituztenak. Erakutsterat eman duzu ez duzula axolarik aitzindariak ez eta zure soldaduez: damu guti bide zinduke gu guziak hillik ere, bizi balitz Absalon. Zato arren orai guregana; ager eta mintza zakizkote zure zerbitzariari, erran diozozute hetaz satisfatua zarela. Ez baduzu hori egiten, hitz ematen darotzut etzaitzula, gau huntan, gizon bakhar bat geldituren. Erregek bortxa egin behar izan zion bere buruari. Yari zen hiriko athean, eta populuak egin zion salutantzia.

Zer etsenplu eder burasoentzat! ala ikhas baidezakete Dabiten eskolan, zertarainokoan behar duten hedatu bere umeen alderako amudioa!



Errege prestu hura etzen nahi orhoitu bere semeaganik yasan zituen laido, idoi eta bertze atsekabez. Orhoitzen zen bakharrrik Absalon bere umea zuela. Aita haren bihotz bera zaurthua zen guzia damu minenaz, ikhustez Absalonen heriotze ondikozkoa; ordean, Dabit gehienik nigarrretan eman-arazten zuena, etzen bere seme maitea berak bethikotz gal-tzeak; bainan buraso Jainkotiar hark ume triste haren arima zuen urrikari; haren sekulako damnamenduaren gainerat isurtzen zituen nigarrrik kharatsenak.

## CI. KAPITULUA

**Dabit emana da leheneko oinean,  
eta Sebak galtzen du bizia**

2. Erreg. 20.

Israeldar guziek ezagutu zuten Dabit bere erregetzat, eta iragan zuten harekin Jourdaingo arribera. Semei ere baltsan zen errege ur hartaz bertze alderat zenean, Semei hau eman zen haren oinetan, eta erran zioen: ene Jauna eta erregea, ezagutzen dut egin dudan gaixkia; ordean, othoi, urrikal nakizu. Dabitek barkhatu zion hanbat idoi egin zioen zerbitzari hari. Errege hark bethi bihotzean zakharkeien Absalonen heriotzea, eta ezin gehiago yasanez Joaben insolentzia, xedea hartu zuen khentzeko Joabi armadetako aitzindegia, ematekotzat Amasari, zeina ilhoba baitzuen Joab bezala: bata nola bertzea Dabiten bi arrebeen umeak aurkhitzen ziren. Amasa etzen bethi leihal agertu bere osabaren alderat: bat egin izan zen denboraz Absalonekin, altxatu izan zenean bere aitaren kontra; ordean yarrria zen orduko bere eginbidetan. Dabitek entzun zuen, ordutsu hartan, norbait bazela Benjaminen tribuan, egundaino bezala populua altxarazten zuena haren kontra, errege hark manatu zuen Amasa zohala zenbait tropeekin erreboltatu haren ondoan, eta yazar ziozala. Amasak konplitu zuen erregeren manua; ordean bere egitekoa eginik heldu zela, Joab athera zitzaion biderat; hurbildu zitzaionean, erran zioen: agur, ene anaia. Hitz hauk erratearekin egin zuen Amasaen besarkatzeko itxura, denbora berean sarthu zion ezpata gorphutzetik, eta artiki zuen hil gogorra lurrerat.

Gaixtakeria hartarik lekhora, Joab yarraiki zitzaion bere bideari, eta sethiatu zuen hiri bat Abela zaritzona, zeinetan baitzen Seba bere yendeekin. Joab yabeturen zen hiri hartaz emazteki batek bere zuhurtzia ez seinalatzerat. Huna nola hartu zen emazteki hura: oihu egin zioen Joabi hiriko murru gainetik: zertako sethiatzen duzu gure hiria? Zeren ondoan zabilta? Joabek ihardetsi zuen: ez naiz hunat ethorria nihori minik egiterat; Sebaen ondoan nabilha: hari nahi diot yazarri, zeren hartu dituen armak bere erregearen kontra. Orduan emazteki hark erakharri zuen populua hiltzerat Seba, eta artikitzerat haren burua murrutarik. Molde huntan, hiri hark eta erresuma guziak erosi izan zuten bakea gizon bakharr baten gostuz. Joabek altxatu zuen sethioa, eta bihurtu zen Jerusalemerat.



Zenbat atsekabe etzuen izan yasateko Dabitek Joaben aldetik! Aitzindari supher eta burupetsu hark etzuen bilhatzen bere nahia baizik; desleihal agertzen zen eregeren manutarat. Lehenik, eraman zioen bizia Abner, Saulen odoleko printzeari, Dabiten bortxa; hil zuen gero Absalon erregeren semea bera, arbuiaturik hartarik begiratzeko egin zitzaion gomendio hertsia; eta azkenean gabetu zuen biziuz Amasa, Dabitek bere armadeen aitzindarizat zadukana. Beraz zenbat bihotz-min Dabidentzat! Ordean ala ederretstekoa baida errege saildu haren prestutasuna! Sartzen da bere baitan: orhoitzen da bere gaixki guziez, eta Jainkoaganik izan dituen graziez: erraten dio bere buruari zuzen ahal zela zer nahi paira zezan bere azpikoen aldetik, berak hanbat gaixki egin zuenaz geroz bere nausi soberanoaren alderat. Etsenplu salbagarria guretzat! Har detzagun humilki heldu diren damu eta atsekabeak: ez bekigu ahantz behinere hobendun garela Jainkoaren begietan, halarik ere, punitzetik urrun, bethi ungi egiten hari zaizula.

## CII. KAPITULUA

### Izurriaren zigorrada

#### 2. Erreg. 24.

Dabit deskantsuan bizi zen, ordean laster galdu zuen gozatzen zen bakea eroririk gaixki berri batean. Errege hark nahi izan zuen yakin, suphertasunez, zenbatetaraino heltzen zen haren populua: haren zerbitzariak uzkur ziren gauza hartan obeditzerat, erran ere bazioten Dabiti, aski zela othoitz egitea Jainkoari emenda zezan haren populua gero eta gehiago, eman gabe penetan yakiteko hain zorrozki zenbatetaraino heltzen ahal zen: ordean Dabiten manua hertsia zen: obedituia izan behar zuen. Errege haren aitzindari batzuk ibilhi behar izan zuten, hamar ilhabetez, Judako erresuma guzian: ediren zuten Israelgo bazterretan zortzi ehun milla gizon armadun. Kondatu zituzten Judako tribu bakharrean bortz ehun milla gizon.

Dabitek etzuen, ordu hartan, izan lehenbiziko aldi bezala, profeta beharrik begien idekitzekotzat; laster ezagutu zuen berak bere gaixkia; altxatu zuen bihotza zerurat, eta galdetu zioen Jainkoari barkhamendua. Jainkoak egorri zioen Gad bere profeta, ez erraterat barkhatzen ziola bere gaixkia, bainan berak hauta zezan hirur punimendu hautarik nahien zuena: edo, zazpi urthez, gosetea; edo, hirur ilhabetez, gerlatea; edo, hirur egunez, izurria. Berexete auhendagarria! Dabitek hanbatik hanbatean, galdetu zuen izurria. Gaitz ikharagarri hark iretsi zituen, hirur egun hetan, hirur-hogoi eta hamar milla gizon. Dabitek ikhusten zuen eta sentitzen minki bera zela desmasia handi haren ithurburua: eman zen hazgorapeneta eta nigarretan, erraten zuela: nik egin dut bekhatu, ni naiz hobenduna; zer egin dute bada, Jauna, yende gaxo horiek, hei horrela yazartzekotzat? Itzul azu zure haserradura saildua ene buruaren eta ene familiaren gainerat; ordean, Jauna, urrikal bekizu populua. Dabiten othoitz entzuna izan zen; Jainkoak urrikalmendu izan zuen Jerusalemeko hiriaz; erran zioen aingeru sunditzaileari: Aski da, bara zaite. Aingeruak obeditu zuen, eta ordu beretik, suntsitu zen izurria.

Urgileria hedatzen da bihotz guzietarat: ez ahal da bat bekhatu hartaz kutsatzen ez denik. Bizkitartean nolakoak ez dire urgileriaren ondo-reak? Iduri du etzela baitezpadako gaixki bat errege batentzat yakin nahi izatea zer mundu zuen bere erresuman: ordean urgileriak zarabillan haren izpiritua, eta ordu beretik, haren xedea gaitzitu zitzaion humiltasuna bera





den jainkoari; ez da beraz batere miretsteke baldin Dabitek yasan behar izan bazuen bere gaixkiaren punimendua. Zer laite gutaz? Ala urrikaltze-ko baikintezke Jaunaren zigorradak yautsten balire gure gainerat, banaloriarat, edo zenbeit bertze gaixkitarat largatzen ditugunean gure buruak! Dabit, bere urriki guziaren erdian, hain dorpheki punitua izan zenaz geroz, zer gaztigu lazgarri ez du bekhatoeak igurikitzeke Jaunaren haseradura saildutik, bere gaixkiez urriki izatetik eta aithor humil bat egite-rik urrun, aitzitik, bere gaixki hetaz lorifikatzen eta balentriaz, mintzo balin bada; bere gaixki hetan deskantsuan phulunpatua bizi balin bada?

## CIII. KAPITULUA

### Salomon erregea

#### 3. Erreg. 1.

Dabit zahartu, eta hurbildu zenean azken egunetarat, mundu guziak bere begiak landatuak zaduzkan haren gainean, nahiz yakin nor behar zen haren ondoan errege. Adonias, Dabiten semerik zaharrenak, berantetsirik bere aitaren heriotzea, eman zuen othuruntza handi bat; gonbidatu zituen bere haurrideak eta erresumako lehenbizikoak agian ezaguturen zutela erregetzat: hala ere gerthatu zen. Nathan profetak yakin zueneko zer iragaten zen, nola baitzakien Jainkoaren nahia zela Dabiten ondoan, Salomon izan zadin errege, gaztiatu zioen Bethsabeeri gauzaren berria, nahiz emazteki hark orhoitz-araz zezan Dabit, eman zuen hitzaz utzteko bere erresuma Salomoni. Bethsabee Dabitekin solasean zagoela, Nathan bera hetarat zen: erregek galdetu zion profeta huni, noren manuz izan zen Adonais erregetzat ezagutua. Ordu hartan berean Dabitek manatu zuen Nathan sakratzeaz Salomon, eta haren yar-arazteaz tronua gainean.

Nathani eman zitzaion manuaren berria lauster hedatu zen alde guzietarat. Ikhara sarthu zen Adoniasekin ziren guzien bihotzetan: barraiatu ziren harat hunat; eta Adoniasek berak egin zuen ihes aldarearen ingurutarat: etzen ere nahi izan athera handik non etzioen Salomonek agintzen utziren zioela bizia. Errege hunek eman zuen bere hitza etzioela deusere eginen Adonisi prestuki eta bakean bizitzekotan. Handik sei ilhabeteren buruan, Jainkoak deithu zuen Dabit mundu huntarik bereganana. Hill baino lehen, errege hunek eman ziotzon Salomoni bere abisu onak, eta erran zein ziren bethe behar zituen eginbideak. Adoniasek galdegin zuen ezkontzan Abisag: emazteki hau ederra zen eta berthutosa: etzen bizi izan luzero. Salomon ez zitzaion fida: iduritu zitzaion zenbeit xede gaixto bazuela, eta hil-arazi zuen. Gauza bera egin zuen Joaben alderat: hau zen gerla-gizon ospe handitako bat, Dabitek hiltzerakoan bere armadaren aitzindaritzat utzi zuena. Etzuen gehiago guphidetsi Semei idoi hainitz egin ziolakotzat Dabiti, Absalon, bere semearen ihes zabillan. Salomonek lehenbizian, eztiki hartu zuen Semei: eman zion manu guzia zen ez ilkitzea, biziaren penan, Jerusalemetik. Semeik etzuen manu errex hura konplitu: abiatu zen, zaldiz, ihes zohazkon bi gathibuen ondoan: desobedientzia gosta zitzaion bizia.



Salomonek ikhusi zuenean bere burua finkatua tronuaren gainean, bilhatu zuen Ejiptoko erregeren urkhotasuna edo allientzia: ezkondu zen haren alaba batekin. Handik laster, ametsetan zela, agertu zitzaion Jainkoa: eman zion erakutsterat maite zuela haren aita Dabiten amoreagatik. Erran zioen ematerat zagokola galdeginen zuen guzia. Printze hark ikhusen zuen populu handi baten errege zela, halako goratasunak prudentzia handi baten gainean izan behar zuela asentatua; eta zenbatenaz baitzen altxatua, hanbatenaz behar zela hedatu gauza guzietarat: uste izan zuen beraz gauzarik hoberena eta premiazkoena harentzat ungi gobernatzeko bere erresuma, zela zuhurtzia: Salomonek berthute hau galdetu zuen. Jainkoak laudatu zuen errege gazte haren galdea, zeinak seinalatzen baitzuen berekin zuela galdetzen zuena. Jainkoak erran zioen Salomoni, etzela nihor izan haren aitzinean, ez eta izanen haren ondoan, hura bezain zuhurrik. Zuhurtzia guzizko hartaz bertze alde, Jainkoak eman zion oraino errege hari ezin erran bezanbat ontasun; huntarainokoan bai non ez baida egundaino ikhusi errege hain aberatsik eta distosik.

Etsenplu ederra, Dabiten laudorio bezala, giriztino gehienen kondenamendua dakharkeiena! Zer bilhatzen dugu munduan? Zertarat daronatsate gure gogoeta hurrats eta nahi guziek? Atseginetarat, ontasunetarat, ohoretarat. Hainitzak othe dire Jainkoari galdetzen diotenak zuhurtzia saindu bat, modestia, edo bertze zenbeit berthute, eta prezatzen tuztenak egiazko ontasun hauk munduko nahikara eta izateen gainetik! Ala urrun baida! O, zoramendua! Non da gure buruei ekharri behar diotegun amodio zuhurra? Ez dakigu bada, behere huntako ontasunek ez dutela iraupenik, suntsitzen direla khea bezala, zeruan bakharririk edireten dela bethiko zoriona?

## CIV. KAPITULUA

### Salomonen yuiamendua

#### 3. Erreg 3.

Salomonek laster agertu zuen Jainkoaganik izan zuen zuhurtzia. Huna nola. Bi emazteki bizitze gaixtotakoek othoitztu zuten errege hura xuritzeaz bere arteko eskatima. Hetarik batek zion: elkharrekin eta etxe berean bizi ginelarik biak, erdi izan naiz seme batez, eta handik hirur egunen buruko, emazteki hori ere erdi izan da bertze seme batez; ordean itho du, gauaz, bere haurra; eraman darot neurea, ni lo nindatzala, eta ekharri bere haur hilla neure haur biziaren orde. Goiz alderat, dio emazteki berak, eman nahi izan diodanean bulharra ene haurrari, ediren dut hilla. Behatu diot artha handirekin, eta ezagutu dut etzela nere umea. Bertze emaztekoa etzagon hitz-mutu: ukhatzen zituen bere lagunaren erran guziak: gezurtatzen zuen bere solas guzietan, eta zion harena zela bizi zen haurra, eta hilla haren lagunarena. Egiteko hau, berenez, itsua zen: etzen lekhukorik: gauza etxe bihotzean iragan zen, eta gauaren minean. Bazen Salomon bezain gizon zuhur baten beharra. Errege hark eman zuen, ordu hartan, erakutsterat hartaz errana dena, ezagutzen zituela, ez erroak eta arbolak bakharririk; bainan naturaleza guzia, bihotzaren sentimendurik gordean, eta ameen amudioa bere umeen alderat: erakharri zuen ezpata bat, eta eman sententzia bat harritzekoa zirurieta: huna nolakoa zen: batak dio bizi den haurra nerea da; bertzeak berriz harena dela: haur hori egin bedi bi zathi, eta bakotxak izan beza erdi bana. Itxurazko eta gezurrezko ama berehala erori zen hartarat; ordean egiazko ama izan zen guzia laztua, eta errekeritu zuen errege emateaz bere haurra, oso osoa, gaixtakeriaz eraman nahi zioenari. Ordean ikhusi zen ageriki nor zen egiazko ama, eta hark izan zuen haurra. Ederretsia izan zen Salomonen antze zuhurra. Israel guziak laudatu zuen erregeren prudentzia; eta ikhusirik haren baitan zatzala Jaunaren izpiritua, guziak errespektuz eta beldurrez bethiek agertzen ziren haren alderat.

Erran behar da etsaiak eskudantzia handia hartzen duela Jainkoaren beldurrik ez duteneen bihotzetan! Ama bat izan dadin bada aski lazoa, aski ondikozkoa ukho egiteko bere odolari, bizia eramateko bere ume bati! Zer itsuseria! zer barbaria! Bekhatuak ez du desmasia gutiago egiten giriztinoen artean: zenbatak ez dire, bitartean, bere arimei yazartzen diotenak, bizia eramaten diotenak bere gaixtakeriez, eta artik-arazten dituztenak behin bethiko su lametarat! Zer lazotasun ahalkagarri! zer itsumendu auhendagarri!



## CV. KAPITULUA

### Salomonen tenplua

#### 3. Erreg. 6.

Salomonek erreginatu izan zuen bakhe eta ontasun suerte guzien erdian. Printze haren aberatstasunak ezin erranezkoak ziren: hedatzen ziren haren azpiko guzietarat bizi zirenean prestuki, eta iskritura sainduaren hitzez balia nadin, bere phiko-ondo eta mahatstiaren itzalean. Etzen deusere Salomonen magnifizentziari hurbil zakiokenik; lurreko bertze errege guzien izateak etziren hurren deusere haren ontasunen aldean. Behar ziren, egun oroz, Salomonen palazioko hameka milla barrika irin hoberenetik, eta hogoi eta bi millen ingurua arrunteragokotik; hamar idi gizendu, eta bertze hogoi idi bazkatokitakoak: ehun zikiro; elementia bat orein eta olhoiki eta ihizki guzietarik. Bazituen berrogoi milla zamari uztarriko, bertze hamabi milla azpiko: ematen zitzaien guziei arthoski yaterat, bere mugetan, garagarra eta laztoa. Judea, denbora hartan, gozatzzen zen bakea ahal zen frankia miragarri haren ithurburu dohatsua. Bake hark merezi-arazi zion Salomoni baketiarraren deithura. Errege hunek bazuen bakearen beharra eragiteko gogan zakharkeien tenplua, Dabitek, bere nahi guziarekin ezin ikhusi zuena. Hartu zuen artharik handiena obra hura behar bezala eragiteko. Esleyitu zituen hirur milla eta sei ehun gizon langilleen gainean atzarriak izateko; lauetan hogoi milla presuna zur eta harri pikatzekotz menditan, eta hirur-hogoi eta hamar milla gizon bizkarrean ekhartzeko behar ziren gauzak. Mandatariz othoitztu zuen Hiramgo erregea onhetsteaz pika zitezen Libango zedroak: hunela izan zen egina tenplu ezin erran bezain eder hura. Iduri zuen Jainkoak atsegin zuela erakutsterat ematea zertarainokoa ahal zohakeien gizonen magnifizentzia.

Tenplu hura hasia izan zen Salomon errege zenetik laugarren urthean, lau ehun eta lauetan hogoi urthe Ejiptotik ilki ondoan: izan zen osatua mundua kreatu zenetik hirur milla urtheen ingurutsuan; xuxen-xuxena, egiazgo Mesiaz sorthu zen baino milla urthe lehenago. Eman izan zituzten zazpi urthe tenplu haren egiten. Salomonek hogoi eta bortz urthe ahal zituzkeien obra handi hari lothzean. Errege hark izan zuen lehenbizirik zoriona eragiteko lurraren gainean tenplu bat Jaunaren ize-naren eta loriaren ohoretan.

Oxala! dio S, Anbrosiok, Salomonek izan balu tenplu eder haren eragiteko zuen artha bera finkatzeko bere burua humiltasun saindu batean. Bihotzaren garbitasuna da Jainkoari agradatzen zaion tenplua; han du lakhet egotea: zer ez ginduke behar egin Jainkoari egoitza saindu bat aphaintzeko gure arimetan! Gureganat nahia da: gurekin izateak egiten du haren atsegina: guri dagoku haren amudio ezin erranezkoari, ahalik hobekiena, ihardetstea, urruntzea gure bihotzetarik haren saindutasunak gaitzets detzaken yaidura gaixto guziak, eta guk ere gure bozkarioa ediretea maiz bazkatzean gure arimak zeruko yanari dohatsuaz, Jesu-Kristoren gorp-hutz adoragarriaz.



## CVI. KAPITULUA

### Tenpluaren dedikazionean

#### 3. Erreg. 8.

Tenplua izan zenean osatua, Salomonek nahi izan zuen egin haren dedikazionea, eta harat erakharri zuen arka Dabitek eman-arazi zuen lek-hutik. Ez da kalte mintza gaiten, berriz ere, aphur bat, arkaz eta taberna-  
kleaz. Moisek eragin zituenean, Jainkoaren manuz, bata nola bertzea, Josuek ezar-arazi zituen Silo zaritzon lekhuana: denbora hura zen Jour-  
daingo ura iragan zenetik zazpigarren urthea. Silo zen hiri bat Efraimen  
tribukoa, Salem ziruriena: errana da Salem haren hegian bathaiatzen zuela  
Joanes-Baptistak. Salem hartan egon zen arka hirur ehun eta hogoi eta  
zortzi urthez. Handik izan zen eramana kanparat, eta han yabetu ziren  
hartaz filistindarrak. Populu hunek egorri zuen arka zazpi ilhabeteren  
buruan: eman zuten Kariathiarimen Abinadaben etxean. Egon zen han  
hirur-hogoi eta hamar urthez. Abinadaben etxetik, eraman zuten Obede-  
domen etxerat: etzen han baratu, hirur ilhabete baizik. Handik Dabitek  
erakharri zuen harentzat aphain-arazi zuen Sion bere hiri berriko lekhu-  
baterat. Sion hura zen Jerusalemaren gaztellua bezala. Iduri du bethi Sio-  
nen gelditu zen tabernaklea, izan zela eramana Gabaonat, Judako tribu-  
rat: nola nahi den, handik berrogoi urtheren buruan, Salomonek nahi izan  
zuen dedikatu, eragin zuen tenplu ederra, eta erakharri zituen harat arka  
eta tabernaklea, eta heiekin batean, metalezko aldarea, zeinaren gainean  
ofrendatzen baitziren holokaustak. Egon ziren tenplu hartan Nabukodo-  
noresek Jerusalem hartu eta tenplua sutan eman zuen arteraino; erran  
nahi da, lau ehun eta hogoi eta lau urthe.

Salomonek, nahiz arkari bihurtu ohore guziak, eta emendatu zere-  
moniaren edertasuna, bildu zuen populu guzia. Zer mundu oste! aphezek  
zaramaten arka, eta bera haren aitzinean zohan, ofrendatzen zituela ezin  
konda bezanbat sakrifizio. Tenplurat zirenean, aphezek eraman zuten  
arka hango lekhuatik barnenerat, eta ezarri zuten harentzat aphaindua zen  
tokian. Etziren hain laster handik ilki non hedoi batek bethe baitzuen  
tenplu guzia, huntaraino bai non aphezak ezin egon baitziren bere lekhu-  
tan, eta ezin bethe baitzetzaketeien bere eginbideak.

Salomon yarri zen bozkario guzietan ikhustez Jainkoak erakutsten  
zuela kanpoko seinale hartaz onhetsten zuela harentzat aphain-arazi zuen  
lekhu. Belhaunikatu zen arkaren oinetan, eta altxaturik zerurat eskuak,

othoitz egin zioen Jainkoari bere bihotz guziaz. Ikhustean Jaunaren  
maiestate saildua eran zuen gora: badaite gure Jainkoak nahi duen egon  
lurraren gainean! Zeruak eta lurak ezin badaukate haren handitasun ado-  
ragarria, nola atxikiren du bada eragin dudan etxe hunek? Gero, errekeri-  
tu zuen Jainkoa izurtzeaz bere benedikzionaek haren populuaren gaine-  
rat, arraiki entzuteaz tenplu hartarako zireneen othoitzak galdetzekotzat  
haren miserikordiak, eta aphazegatzeaz, othoi, bere haserradura saildua  
tenplu hartan urriki egiazko batekin bere bekhatuak aithorturen zituzte-  
neen fagoretan. Salomonek othoitztu zuen oraino Jainkoa haren popu-  
luak aurkhi zezan tenplu berean gerize segur bat etsaien asalduren kontra,  
zerua eginen zenean, gizonen bekhatuengatik, metalaren berdin, lurra  
burdinaren, eta agorte luze batek erakharriko zuenean gosete ikharagarri  
bat. Errege hark errekeritu zuen oraino Jainkoa, arren aiphaturik heldu  
garen ordu hetan tenpluan eginen ziren othoitzek, yauts-araz zetzaten  
zeruko ihintz gozoa, eta hango benedikziona guziak lurraren gainerat.

Dedikazionearen zeremonia ederrak iraun zuen hamabortz egun.

Elizako aitek diote, Salomonen tenpluari bihurtu zitzaizkon ohore  
handiek behar luketeiela zigillatu giriztino guzietan, errespektu guzizko  
bat gure eliza sailduen, eta sailduen saildua dadukateneen alderat. Ez  
gintezke behar hetan sarthu zaurthuak izan gabe ikhara-salbagarri batez.  
Zer edireten zuten Juduek Salomonen tenpluan? Egiaren itzala, eta horra  
guzia; ordean guk edireten dugu gure elizetan egia bera, Jainkoa bera, bere  
maiestate adoragarrian, deus-ere gutiago. Zabal baleitez zeruak eta zerue-  
tako zerua, ez laite han kausi, dio S, Krisostomek, deusere handiagorik eta  
sainduagorik gure aldaretan edireten dena baino. Oi! non da gure fedea  
hotztasun eta barraiadura ahalkagarri batekin agertzen garenean, Jainko-  
ak bere maiestate adoragarriaz ohoratzen eta bethetzen dituen elizetan!



## CVII. KAPITULUA

### Sabako erregina

#### 3. Erreg. 10.

Salomonek eragin zuen ondoan tenplue eder hura Jainkoaren oho-  
ratzekotzat, eragin zuen orobat palazio guzizko bat beretzat, eta bertze  
bat erregina bere emaztearentzat, zeina baitzen Ejiptoko erregeren alaba:  
etzen gauza miragarri eta lilluragarririk Salomonen palazioan edireten  
etzenik. Urrea zarion alde guzietarik: xoratzen bezala zituen hura ikhus-  
ten zuten guziak. Palazio haren eta Salomonen bertze obra ederren ospea  
hedatu zen bazter gehienetarat. Mundua heldu zen, osteka, Salomonen  
ikhusterat, eta guziek behatzen zioten errege hari, bere mendeko mira-  
kuillu bati bezala. Haren ikhusi nahizko gutizia gehien agertu zuena zen  
Sabako erregina. Printzesa hau ethorri zen hegoako alde barnetarik, yaki-  
terat egjak othe ziren bada Salomonez zarauntsaten guziak. Sarthu zen  
Jerusalemen morga eta edertasun handitan. Hedatu zen Salomongana:  
ekharri zioen present edo emaitza hainitz: hala nola, ehun eta hogoi talen  
urre, zeinek baidakharkete zortzi million diru, perleria balios hainitz, eta  
nihork egundaino ikhusi etzituen bezalako urrin-onak. Sabako erregina  
mintzatu zitzaion Salomoni harenganat erakharri izan zuen xedeaz; asko  
galde egin ziotzon. Erregek ihardetsi zion xeheki gauza guzien gainean,  
eta erregina arrotzak izan zituen bilhatzen zituen argitasunak. Ezagutu  
zuen Salomonek magnifizentzia bere palazioan; haren zuhurtzia bere  
hitzetan, haren izpirituko zorrotzasuna ikhusteko gauzarik gordeenak:  
eman zen, dio iskritura sainduak, bere baitarik kanpoan bezala, eta erran  
zioen printze hari: orai nerhorrek ikhusten dut zutaz, eta zure zuhurtziaz  
erran zitzaizkidan guziak hala direla. Ezin sinhets netzakeien zutaz entzu-  
ten nituen gauza harrigarriak, eta nahi izan naiz guziez argitu ene begiz;  
ordean nik ikhusten ditudanak oraino gehiagokoak dire: ala baidire doha-  
tsuak zure zerbitzuan direnak, eta zure solas zuhurren lekhuko direnak!  
Sabako erregina bihurtu zen bere erresumarat, guzia loriatua berak ikhu-  
si zituen gauzez. Salomonek egin izan ziotzon berak ekharri ziotzkan pre-  
sentak baino hainitz ederragoak.

Sabako erreginaren etsenpluak gure ahalkea, eta kondenamendua  
dakharke. Hedatu zen lurraren bertze bazterretik Salomonengana: ezagu-  
tu zuenean berak haren zuhurtzia guzizkoa, dohatsu zaduzkan hari hur-  
biltzen zitzaizkonak, eta zerbitzu bihur ahal ziozoketenak. Eta guk Jainko

bat dugu nausitzat, Jesu-Kristoren zuhurtzia bera erregelatzat, zerua bera  
gollardotzat: halarik ere, o, itsumendua! hobeki yarraikitzen gaizko krea-  
tura ezdeus-bati, ezen-ez kreatzaille adoragarriari, munduko zuhurtziari,  
ezen-ez Jesu-Kristorenari, lurreko gozamenari, ezen-ez zerukoari. Berriz  
ere diot: o, itsumendua! o, erhokeria.



## CVIII. KAPITULUA

### Salomonen erorikoa eta heriotzea

#### 3. Erreg. 11.

Salomonek hanbat gauza miragarri egin zituen hastapenean! Oxala ez balu, azkenerat goibeldu bere akziona ederren distadura! Ala erakutserat ematen baidu gizonak ez duela zeren behinere kondatu bere indarreen gainean, aitzitik bere flakeziaren beldur izan behar duela, altxatua den eredurat! Salomon emakoa gerthatu zen: emaztekiek gaixtatu zuten haren bihotza; zuhurtziaren alderako amudiotik, iragan zen heien alderako amudio zoro baterat, eta emaztekien maitatzetik, idolatriarat.

Salomonek izan zituen zazpi ehun emazte, guziek erreginarene izena zakharketenak; bertze alde, hirur ehun konkubina, edo presuna emazteen ointsuan behatuak zirenak. Hortan hautsten zuen Jainkoaren legea. Zil-hegi zelarik, denbora hetan, izatea emazte bat baino gehiago, guziarekin debekatua zen haren bertze izatea, guziz ezkontzea emazteki atzeekin. Errege hark tenplu bat eragin zuen bezala Jainkoaren ohoretan, eragin zuen bertze bat idolen ohoratzekotzat. Ejiptotik, amonitarren eta moabitarraren herritarik hartu zituen emazteen alderako flakoak erakharri zuen ohore bihurtzerat Sidoniaren Deesari, edo Jainko faltsoari: hura zen amonitarren idola. Salomonen bekhatu izigarri hau gaitzitu zitzaion Jainkoari. Agertu zitzaion errege hari, ez, bertze orduz bezala, laudatzeko haren zuhurtzia, eta ontasun eskaintzeko; bainan bai, hari erakutstekotzat bere sumindura: erran zioen: ez duzunaz geroz begiratu enekin egin duzun batasuna eta ene legea, hel-araziren dut zure erresuma bertzeen eskutarat: emanen diot zure zerbitzarietarik bati. Ez naiz hargatik hortarako, zu bizi zareino, zeren orhoitzen naizen Dabitez. Igurikiren dut zure semea erregetu arteraino. Ez diot ere khenduren zure semeari erresuma osoa: aldaraturen dut tribu bat harentzat; eta hori, Dabiten eta Jerusalemengatik.

Jainkoak erreginatzeke zadukana Salomonen erresumari khendu behar zitzaizkon tribuen gainean, zen Jeroboam. Hura zen gizon bat buru onetakoa, animoz bethea, eta Salomonek berak bere erresumako kargu handi batean ezarria.

Jeroboam athera zen, egun batez, Jerusalemetik, eta bathu zuen Ahias profeta kapa berri batez estalia: etziren bi biak baizik bidearen gainean. Profetak hartu zuen bere kapa, eta hautsi hamabi zathitan; erran

zioen gero Jeroboami: har ezatzu hamar zathi zuretzat: ezen huna zen dioen Jainkoak: partituko dut Salomonen erresuma, eta emanen darozkitzut hango hamar tribu. Leihal balin bazara ene alderat, eta behar den bezala bizi bazara ene begietan, Dabit ene zerbitzaria bezala, zurekin izanen naiz, eta hel-araziren dut Israelgo erresuma zure ondoriotarat. Iduri du Salomon yakintsun izan zela gauza hautaz, ezen nahi izan zuen hil-arazi Jeroboam; ordean Jeroboamek egin zuen ihes Ejiptorat, eta han egon-tzen Salomon hil arteraino.

Salomonek erreginatu zuen berrogoi urtez. Hill izan zen hirur hogoi urtheren ingurutsuan, eta ehortzi zuten bere aita Dabiten hirian. Roboam haren semea izan zen, haren ondoan, errege. Salomonen erorikoa, egia da, ondikozkoa zen harentzat; ordean gauza fedearren begiekin hartzerat, eroriko hura bera probetxos da guretzat: osoki da gaia batbedera bere baitan sar-arazteko, eta ikhara saildu batean bizi-arazteko. Gauza miresteko! Salomonek hanbat fagore ardietsi zuen Jainkoaganik; halarik ere, ez dakigu ala gure auhenak, ala gure laudorioak behar dituen. Salomonen eta Dabiten erorikoak ez dire sobera baizik ageri iskritura saildua; ordean ezin erran dezakegu gauza bera batatz eta bertzeaz. Segur da Dabitek egin zuela penitentzia; ez dakigu ordean Salomonek ere egin zuenez.

Erranik heldu garen gauzek erakharri behar dituzte gure bihotzak arbuizatzerat munduko handitasun guziak, heldu balire ere Jainkoa beraren eskutik. Ez da nihor, gure artean, nahiago behar ez duenik, hanbatik hanbatean, Joben ongarria, ezen-ez Salomonen tronua. Batak ematen daroku begien aitzinean saildu guziak khoroatzen dituen pairakortasunaren etsenplu dohatsua; eta bertzeak, gizon izantsun bat, bere burua begiratze eskasez, erortzen dena. Nola galdu zen Salomon? Aberatstasunei datxeikon orguillieriaz: frankiaren phozoaturak gaixtatu zuen haren bihotza; eta hori noiz? Egundaino izan den zuhurtziarik handienaren erdian.





## CIX. KAPITULUA

### Hamar tribuek utzten dute Roboam

3. Er. 12.

Hil zenean Salomon, Roboam haren semea hedatu zen Sikemerat. Israel guzia bildua zen lekhu hartarat haren erregetzat ezagutzeko. Jeroboam ere ethorria zen bilkhu hartarat Ejipto bere ihes-lekhotik. Jeroboam eman zen populu guziaren buruan, eta hura nola mintzatu zitzaizkon Roboami: zure aitaren uztarria pisuegia zen guretzat; haren arintzerat egin behar duzu: ekhar gaitzatu eztekiago eta arraikiago: molde huntan zerbitzaturen zaitugu. Roboamek ihardetsi zioten: zatozte hirur egunen buruan.

Populua aldaratu zenean, Roboamek hartu zuen zaharren abisua, haren aitek egiten zuen bezala: galdegin zioten zer ihardetsi behar zion populuari; zaharrek erran zioten: amultsuki agertzen balin bazara, eta onhetsten balin baduzu populuaren galdea, eskuraturen tutzu guziak behin bethikotzat. Zaharren abisu hau etzen Roboamen gogarokoa. Galdetu zioten bere haurreko lagun, eta bethi berekin zituenei zer zioten populuaren galdeaz. Gazteak mintzatu ziren gazte bezala, eta arinkiegi; erran zioten erregeri: huna zer ihardetsi behar diozun populuari: ene erri-rik ttipiena ene aitaren gorphutza zen baino lodiagoa da: diozue uztarri pisu bat eman darotzuela: bada, nere uztarria oraino pisuagoa izanen da. Zigorrekin zehatu izan zaituzte; bada nik zehaturen zaituztet burdinezko puntak dituzten azoteekin.

Erran bezala, Jeroboam eta populua hedatu ziren, hirugarren egunean, Roboamganat. Errege hunek ihardetsi zioten gizon gazte heien hitz berez. Populuak egin zuen munduan egin ahala, nahiz amoratu errege; ordean guziak alferretan izan ziren. Hori ikhusirik, abiatu zen erraten: zer aria dugu Dabitekin? Zer on dukegu igurikitzeke Isairen semeaganik? Israeldarrak, bihur zaitezte zuen etxerarat; eta zuk, Dabit, goberna zazu zure etxea zaitzun bezala. Horra nola israeldarrak hastandu ziren Dabiten ganik. Berezi izan zuten Jeroboam bere erregetzat. Judako eta Benjamineen tribu bakharrak izan ziren Dabiten ethorkikoari yarraiki zitzaizkonak.

Roboam bihurtu zenean Jerusalemerat, bildu zituen haren alderat leihal agertu ziren bi tribuak. Eman zen ehun eta lauetan hogoi milla gizonen buruan israeldarri gudu ematekotzat, eta hetaz nausitzekotzat; ordean

profeta bat, Semeias zaritzona, hurbildu zitzaien Jainkoaren mezuz, eta mintzatu zen hitz hautaz: huna Jainkoak zer dioen: ez loth bideari, eta ez guduka zuen anaieen kontra. Bat-bedera bihur bedi bere etxerat. Roboamek eta harekin zirenek entzun zutenean Jaunaren hitza, utzi zuten Jeroboamen ondoan abiatzeko xedea, eta bihurtu ziren bere lekhotarat. Molde huntan, Israelgo erresuma izan zen partitua bietarat: hamar tribuentzat zen alderdiak itxiki zuen Israelgo erresumaren izena, eta bertze alderdiak zakharken Judako erresumaren izena. Jeroboamek egin zuen bere egoitza Sikemen, eta Roboamek berea Jerusalemen.

Erregerik zuhurrenak, nork erranen zuen? Utzten du bere erresuma handia seme arin eta funts gutitako baten eskutan. Zer gerthatzen da? Jainkoak ematen du erakutsterat bera dela populuaren eta erregeen nausi guzien gainekoa. Punitzen du aita, semea punitzean. Roboamen arinkeria da punimendu bat bezala, zeinetaz Jainkoa baliatzen baida Salomonen errikoari yazartzeko. Ala prezatzeko baidire abisu zuhur eta Jainkoaren araberrakoen emailleak! Hetaz gidatzen dena ezin dohake xuxen baizik salbamenduko bidean. Zenbat behatstopa eta eroriko ez darraizko abisu arinegi eta bihotz gaixki erregelatua den batetik heldu direnei! Aithor agun urrikaltzeko direla abisu gaixtoen hartzailleak, eta ez gutiago, heien emailleak.



## CX. KAPITULUA

### Hamar tribuak erortzen dire idolatريان.

#### Profeta desobedientia

##### 3. Erreg. 13.

Jeroboam erregetu zenean, bere buruari erran zioen: baldin populu hau heltzen bada, ohi bezala, bethi Jerusalemerat sakrifizioen ofrendatzerat Jaunaren etxean, erresuma laster bihurturen da Dabiten ondoriorat: bihotzak hurbilduren dire Roboamengana, hari emanen zaizko, eta hillen naute. Gauza hunen gainean, egin zituen bere gogoetak: uste izan zuen bere tronuaren ez galtzeko biderik hoberena zela, utzte bere erreljioea hartzeko bertze bat. Eragin zituen urrezko bi xahal: ezarri zuen hetarik bat Bethel hirian, eta bertzea Dan zaritzon lekhu batean; erran zion populuari: ez zohaztela gehiago Jerusalemerat. Huna zuek Ejiptotik athera zaituzten Jainkoa. Idol hek eror-arazi zituzten israeldarrak bekhatutan; ezen populua heltzen zen Daneraino urrezko xahala adoratzekotzat. Jeroboam yarraikitzen zitzaion, idolen ohoratzeko moldean, Jerusalemen egiazko Jainkoaren alderat begiratzen zenari. Higan ere izan zen bera aldarerat intsentsuen ofrendatzekotzat.

Jeroboam intsentsu erre-arazten hari zen ordu berean, hurbildu zitzaion Jainkozko gizon bat, Judako herritik heldu zena, zeina hasi baitzen, oihuz, erraten: aldarea, aldarea, huna nola mintzo den Jainkoa: sorturen duk Dabiten ondoriotan printze bat Josias deithuko dena. Printze hark hill-araziren ditik orai hire intsentsatzen hari diren aphezak, eta hire gainean erre-araziren ditik gorphutz hillen hezurak. Ematekotzat erakusterat Jainkoa bera mintzatu dela, urratuko haiz eta eroriko orai berean lurrerat, hire gainean den herrautsa ere barriatua izanen duk bazterretarat. Hala gerthatu zen.

Erregek entzun zituenean Jainkoaren gizon haren hitz hauk, hedatu zuen bere eskua, eta erran: har bezate gizon hori. Momento berean, ihar-tu zen Jeroboamen eskua, eta ezin bereganatu zuen. Orduan errege hark erran zioen Jainkoaren gizonari: othoitz ezazu Jainkoa sendatzeaz ene eskua. Jainkoaren gizonak egin zuen bere othoitz, eta sendatu izan zen esku ihartua. Jeroboamek bere ezagutza seinalatzekotat, erakharri nahi izan zuen gizon saindu hura berekin yaterat, eta nahi izan ziotzon eman ontasun handiak. Bertzeak ihardetsi zuen: izatekotan ere zure etxearen erdia, ez dut hemen yanen ez eta edanen: Jainkoak debekatu darot gauza

hori, eta erran darot ez bihurtzeaz ethorri naizen bidez. Hitz hauk erran eta, abiatu zen bertze bide batetarik.

Bethelen zatzan profeta zahar bat gauza iragan hauk guziez yakin-tsun zena, bere hurrek erranik; bazakien orobat Jainkoaren gizonak erregeri erran ziotzon guziak. Galdegin zuen zein zen hark hartu zuen bidea; higan zen bere astoaren gainerat, eta eman zen haren ondoan. Bathu zuen arbola baten azpian: yakin zuenean berarenganik hura zela hark bilhatzen zuena, othoitztu zuen harekin yateaz. Ezin hori egin dezaket, ihardetsi zion Jainkozko gizonak, debekatua zait. Profeta zaharrak erran zioen: ni ere profeta naiz zu bezala: aingeru bat hedatu zait Jainkoaren mezuz, eta erran darot zu eraman-arazteaz ene etxerat yan eta edan dezazuntzat. Hunela izan zen enganatua: yan eta edan zuen profeta faltsoaren etxean. Mahainean zirela, Jainkoak hel-arazi zuen bere boza profetaren beharritarat, eta hunek erran zion bertzeari: desobedientzia egin diozunaz geroz Jainkoari hemen yanik eta edanik hark debekatu arren, hillen zarenean, zure gorphutza ez da ehortziren zure arbasoen hobian.

Mahainetik lekhora, Jainkozko gizon hura eman zen asto baten gainean, eta hartu zuen bere etxeko bidea. Ordean athera zitzaion lehoin bat itho zuena, eta egon zena geldi-geldia haren gorphutzaren aldean, batere gehiago ukitu gabe haren gorphutz hilla, ez eta haren astoa. Berri hau laster hedatu zen profeta zaharraganat, zeina mintzatu baitzen hunela: Jainkoaren gizon batek hautsi izan du Jaunaren manua: horra zergatik nahi izan duen lehoin batek hil zezan. Joan zen gorphutz hilla zen lekhurat, ezarri zuen bere astoaren gainean, eta ehortzi bere hobian: erran zioten bere umei: behintzat, hiltzen naizenean, emanen nauzue Jainkoaren gizona datzan hobia berean: ene hezurak izan beitez haren hezurren aldean: ezen, hark Jainkoaren mezuz, erran dituen gauza guziak hala gerthaturen dire.

San Gregorioroen arabera, Jainkoaren profetak atsegin gorde bat izan zuen egin zituen gauza handiez, dela erregeren eskua ihar-arazteaz, dela ondoan sendarazteaz esku bera: urgileriak hantu zuen gizon miragarri haren bihotza, eta hedatu zituen haren izpiriturat ondikozko ilhunbeak. Tieso eta leihal egon behar bidean Jainkoaren manuaren alderat, errextasun handiegi bat izan zuen sinhetsteko haren tentan zabillan profeta faltsoa, eta erortzeko haren erranetarat. Gosta zitzaion bere hutsa. Heriotze triste bat izan zen haren desobedientziaren punimendu dorpheia. Etsenplu ikharagarria, irakhatsten darokuna humilki errespektatzen eta arthoski bethetzen, gauza guzietan, Jaunaren nahi saindua.



## CXI. KAPITULUA

### Israelgo nahasmenduak.

#### Akab eta Jezabel

##### 3. Erreg. 15.

Judako bazter guziak bakean ziren, Asahetako erregeren denboran, eta etzen nahasmendurik baizen Israelgo erresuman. Jeroboam gaixtagina hil zeneko, Nadab, haren semea eta aitaren idurikoa, izan zen ezarria tronuaren gainean. Gutti erreginatu zuen. Baasa Israelgo erregeak eraman zioen bizia, eta yabetu zen erresumaz. Baasa hunek hil zituen oraino Jeroboameren egokiko guziak, bakhar bat guphidetsi gabe.

Baasa etzen Jeroboam baino hobea agertu: yarraiki zitzaion errege hari bere gaixtakerietan. Horra zergatik Jainkoak adi-arazi zioen, Jehu profetaren ahoz, yazarriko ziola haren egokiari Jeroboamenari bezala. Baasakek ezin yasanez Jehuren mintzatzeko libertatea, hil-arazi izan zuen profeta hura. Baasakeren ondoan, Ela haren semea, izan zen errege. Etzen egon bi urthe baizik tronuaren gainean. Zanbri haren kabaleriaren, edo zamaldunen aitzindaria, altxatu zen haren kontra, eta eraman zion bizia. Nausitu zen gero, bortxaz, erregetasunaz, eta funditu zuen Baasakeren familia guzia, bati ere utzi gabe bizia, *Jainkoaren hitzaren arabera; eta hori, Baasakeren eta Elaren bekhatuengatik: ezen gaixki handitan erori ziren berak, eta eror-arazi zituzten israeldarrak, Jainkoa tarritatuz bere idolatriaz.*

Zanbri etzen egon zazpi egun baizik bortxaz arrapatu zuen tronuaren gainean. Israeldarren armada, filistindarren kontra guduan hari zenak, yakin zuenean Zانبrik bere burua erregetu zuela, eta hil zela Ela, ezarri zuen khoroa Amri, bere aitzindariaren buruaren gainean. Amrik sethiatu zuen berehala Zانبri bizi zen hiria. Zer egin zuen Zانبrik? Ikhusi zuenean hiri hura hartua izateko menean, su eman zioen bere palazioari, eta erre izan zuen bere burua. *Hil izan zen bere gaixtakerien erdian, yarraikirik Jeroboamen bizitze gaixtoari.*

Amri egon zen errege, hamabi urthez. Hark eragin zuen Samariako hiria, gerorat Israelgo erresumako hiri buruzagia izan zena. Errege hunen bekhatuak bere aitzinagokoenak baino areagoak ziren; bainan Akab, haren semea eta ondorioa, oraino gaixtoago gerthatu zen. Ahantziak ziren Jeroboameren gaixkiak. Ezkondu zen Jezabelekin: emazteki hau zen printzesa idolatre bat, egiazko Jainkoaren profeteen eta zerbitzarien etsai ageri bat. Akabek adoratu zuen, bere emazteak bezala, Baalen idola, eta

eragin zuen, Jainko faltso haren ohoretan, tenplu bat Samariako hirian. Haren azpikoek egin zuten erregek egin zuena; adoratu zuten Baal. Itsu-mendua huntarainokoan hedatu zen, non iduri baitzuen egiazko Jainkoak etzuela gehiago bere adoratzaillerik Israelgo erresuma guzian.

Zanbri bizi zitekeien dohatsu eta deskantsuan: aski ohoratua aurkhitzen zen armadetan zadukan aitzindegiaz. Iduri du etzituela behar urrunago hedatu bere xedeak. Ordean zer ez dezake eragin anbizione zoro batek? Zenbat presuna ez dire ikhusten bertzez gorago altxatu nahizko hirritsak nahazten eta gal-arazten dituenak! Zانبri yabetu zen bortxaz khoroz; ordean zer irabazi zuen bere burua tronurat altxatzeaz? Deuse-re. Galdu zuen, ordu beretik, bere barneko bakea, etzen asaldurarik baizen haren konzientzian. Nola izan zen punitua? Berak kondenatu zuen bere burua erretzerat. Etsenplu hunek irakhatsten daroku ez dugula behar ibilhi ohore eta ontasunketan. Ah! mundu huntako zoriona ez datza bertzeez gorago izatean. Handitasunek, erregeen tronuek berek baituzte bere arantze zorrotzak. Balinba milletan dohatsuago ahal da gutirekin eta doiekoarekin deskantsu bizi dena!



## CXII. KAPITULUA

### Eliaren belheak. Sareptako alharguna

3. Er. 17.

Akab erregeren denboran bizi zen Elia. Profeta hau zen Galaad herrikoa: agertu zen erregeren aitzinean, eta erran zion: dela benedikatua ni ikhusten nauen Jainkoa. Ez da, urthe hautan, eroriren ihintzik, ez uririk ene hitzeen eredura baizen. Ordu berean, Jainkoak manatu zion gorderik egoteaz Karithoko ibaiaren hegian, eta erran zion: edanen duzu ibaia hartako uretik, eta mezutu tut belheak zure hazteaz. Elia hedatu zen Jainkoak erran lekhourat: belheek artha zadukaten hari ekhartzeko, goiz arrats guziez, ogi eta haragi, eta edaten zuen ibaiako uretik. Etzen yauts-ten ur xorta bat lurrerat, eta azkenean, ibaia hura agortu zen.

Orduan Jainkoak erran zion Eliari: zohazi Sarepta daritzon sidoniandarren hirirat, eta zaude han: ezen manatu dut herri hetako emazte alhargun bat zure hasteaz. Profetak hartu zuen berehala Sareptako bidea. Hurbiltzean hiri hartarat, ikhusi zuen emazte alhargun bat egur biltzen hari zena. Deithu zuen beregana, eta erran zioen: indazu ur guti bat edaterat. Emazte hura abiatu zenean urketarat, profetak oihu egin zion ekhartzeaz ogi ausiki bat ere. Alhargunak ihardetsi zuen: ez dut, yuramentu egiten darotzut, ogirik batere; nik dudan guzia da ahur bat irin eta olio ihintz bat: hemen hari naiz egur biltzen nahiz hetaz egin ogi guti bat enetzat eta ene semearentzat. Hartarik yan eta etsi ahal dezakegu biziaz. Herri hetan zen gosete handiak mintzarazten zuen emazte hura hunela. Eliak erran zioen: ez izan beldurrik, zohazi, egizu erranik heldu zarena; ordean egizu lehenik enetzat ogi xume bat, erre-araz zazu hautspean, eta ekhar diezadazu: eginen duzu gero zure eta zure semearen ogia; ezen huna nola mintzo den Jainkoa: zure irin aphurra eta zure olio xorta ez dire gutituren Jainkoak yauts-araz arteraino lurraren gainerat uria. Emazte alhargunak egin zituen Eliak erran guziak. Yan zuten berak, eta haren etxeok, eta ordutik, haren irina eta olio etziren, profetak erran zuen bezala, behinere gutitu.

Handik laster eritu eta hil ere izan zen emazte alhargun haren semea: orduan ama hura hasi zitzaion erraten profetari: o! zu Jainkoaren gizona, zer gaixki egin darotzut bada? Etzara bada ethorri ene etxerat baizik erreberitzekotz ene bekhatuen orhoitzapena, eta hil araztekotz ene semea?

Eliak ihardetsi zion. Indazu zure semea. Hartu eta eraman zuen bera etzaten zen gela gora baterat: ezarri zuen haur hura bere ohearen gainean, eta mintzatu zitzaion Jainkoari hitz hautaz: badaite bada damusta zazun, bere egin ahal guziez, nere hazten hari den alhargun bihotz onetako hau! Eman zen gero, hirur aldiz, haur haren gorphutzaren gainean, eta egiten zion Jainkoari othoitz hau: ene Jainko Jauna, errekeritzen zaitut, bitz bedi haur hau: Jainkoak entzun zuen bere profetaren othoitz, eta bitz zuen haurra. Eliak yauts-arazi zuen bere gelatik, ta eman zioen bere burasoari, erraten zuela: huna non duzun zure semea bizirik. Ama hark ihardetsi zuen: orai ikhusten dut Jainkoaren araberako gizon bat zarela, eta haren hitza zure ahoan datzala.

Ala ez baidire urrikaltzeko Jainkoak bere artharen azpian daduzkanak! Haren probidentzia saindua atzarria dago heien gainean: ez ditu eskasean utzten bere fidantzia osoa haren baitan ezartzen dutenak. Elia profetari gerthatu zitzaiona aski ahal da egia huntaz seguratuak izateko. Ez da deusere gaitzik Jainkoaren bothere guzizkoarentzat: hillen bitztea mirakuillu handi bat zaiku: hala ere da; ordean aithor agun Jainkoak mirakuillu handiago bat obratzen duela bihurtzen dioenean arima bati bekhatuak gal-arazten dioen bizia, erran nahi da, bere grazia saindua. Zer ez ginduke behar egin tresor preziatu hunen maiteki eta arthoski begiratze-kotzat?



## CXIII. KAPITULUA

### Eliaren sakrifizioa

#### 3. Erreg. 18.

Agortasunak eta goseteak iraun zuten hirur urthe eta erdi. Denbora hartan guzian Akab Eliaren ondoan zabillan. Etzen herririk ez eta hautotako erresumarik, zeinetan ez baitzuten galdetzen profeta haren berri. Ordean alferretan izan ziren haren egin ahalak. Ezin egundaino yakin zuen zer ethorri zen profeta hura. Ohiko errabian bizi zen Jezabel. Hil-arazten zituen ardiets ahal zetzakeien Jaunaren profeta guziak: hetarik batzu, ez nahiz erori haren eskutarat, gorde behar izan ziren zilhokotan largaturik bere buruak goseari eta gauza guzien eskasiari. Azkenean Jainkoak erran zioen Eliari: ager zaite Akaben aitzinerat: ezen banoha yauts-arazterat uria lurraren gainerat.

Elia lothu zitzaionean bideari, bathu zuen Abdias erregeren etxeko gobernadora. Hura zen gizon bat *haurdanik Jainkoaren* beldurrean bizi zena, gorde eta hazi zituena, lekhu gerizatutan, ehun bat profeta, Jezabel heien hiltzerat hari zen ordu berean. Abdiasek ezagutu zuen Elia, eta eman zen, ahuspez, haren oinetan. Profetak erran zioen: zohazi, egizu zure nausia yakintsun han duela sarri Elia. Abdias herabe zen mandatu haren egiterat; beldur zen bere biziarentzat; eta erran zion profetari: urrunduren naizenean zureganik, Jaunaren izpirituak eraman zaitzake ezagutua ez den zenbeit lekhotar: hedatzen badut Akaben beharritaratz zure errana, eta ez balin bazaitu edireten, eramanen darot bizia. Eliak agindu zion agertuko zela, egun hartan berean, Akaben aitzinean: hitz hunen gainean, Abdiasek egin zuen mandatua. Printze hura athera zitzaion berehala biderat Eliari; eta ikhusi zueneko, erran zion: hor zara beraz, Israel guziaren asaldatzaillea! Eliak ihardetsi zuen: ez dut nik Israel asaldatzen; bainan bai, zuk, eta zure aitaren ethorkikoe, utzi duzuenaz geroz Jaunaren legea yarraikitze kotzat Baali. Eliak erran zioen oraino Akaberi: bil-araz ezatzu Israel guzia, eta Baalen aphez guziak. Bildu zirenean, profeta berak erran zion populu guziari: noiz artean biziren zarete berex? Baldinetariak zeru lurren kreatzaillea bada egiazko Jainkoa, eman zakizkote; eta Baal balin bada, orobat yarraik zakizkote. Neroni gerthazten naiz hemen Jainkoaren profetetarik bakharra; eta horra non diren Baalen lau ehun eta berrogoi eta hamar aphez: eman bekizkigu bi idi; har bezate hetarik bat, eta hartuko dut nik bertzea. Eman bezate bere idia

zathitan, eta zathi hek aldarearen gainean: nik ere eginen dut gauza bera. Othoitztaren dugu zeinek bere Jainkoa, eta noren ere Jainkoak yauts-araziren baidu, gure othoitzetarat, zeruko sua sakrifizioaren gainerat, eta hura bera bedi ezagutua egiazko Jainkotzat. Konpuntu ziren gauza hortaz. Baalen aphezak hasi ziren lehenik. Ezarri zuten idi bat zathitan aldarearen gainean, eta othoitzak egin ziotzoten bere Jainkoari egu-erdraino; ordean bere Jainkoak etzaroen deusere ihardetsi: horrek erakharri zuen Elia hei burla saindu batekin erraterat: egizue oihua gorago. Gertha daite lo datzan, edo mahainean den zuen Jainkoa. Aphez hek alferretan ezarri zituzten bere gorphutzak sarraskitan, alferretan altxatu zituzten bere oihuak, ezin deusik ardietsi zuten Baal bere Jainkoaganik.

Ordu hartan berean, Eliak eragin zuen harrizko aldare bat, eta ur bide bat haren inguru guzian. Eman zituen aldare haren gainean egurrak eta idi baten zathiak. Isur-arazi zituen aldare hartarat lau yarro handi ur, hiruretan bethe-arazirik. Ura zurrutan zohan alde guzietarik, eta laster izan zen bethea ur bide edo arroilla aiphatu duguna. Muga zenean Eliak egin zioen othoitze Jainkoari, eta yautsi zen berehala zeruko sua, iretsi zituena holokaustak, egurrak, herrautsak, ura bera ere. Orduan populu guzia eman zen lurrean ahuspez, eta aithortu behar izan zuen gure Jainkoa zela egiazko Jainkoa. Aithor hura egin zuenean populuak, Eliak erran zioten: har ezatzue beraz Baalen aphez horiek guziak; ez bedi itzur hetarik bakharr bat. Hil-arazi zituzten ziren guziak. Orduan Eliak agindu zion Akabi uria. Akab etxerat hurbildu zeneko abiatu zen uria.

Ala handia baida egiazen indarra, eta errecki garaitzen baiditu hari yazarri nahi diotenak! Zer etzuten egin idolatrian erori ziren presuna zoro eta itsu hek bereganatzeko Elia saindua? Ordean heien etsenplu gaixtoak, heien mehatxu handiak, guziak alferretan izan ziren. Deusek ere ezin kordokatu zuen profeta haren Jainkoaren alderako leihaltasuna. Ikhusi izan zen, ordu hartan, Jainkoa nola agertzen den egiazen alde, eta nola konfunditzen duen gezurra. Ederrets dezagun Eliaren zuhurtzia, eta haren hartzeko moldea erakhartzekotz egiazen argi zabalerat gezurraren eta idolatriaren ilhunbetan ehortziak zaudenak.

Jainkoak saristatu zuen profetaren fidantzia handia, eta eman zuen bere yustiziarren etsenplu ikharagarri bat hil-araztean idolen aphez faltso guziak.



## CXIV. KAPITULUA

### Eliaren ihesa

Jezabelek etzuen hain laster yakin Eliak zer egin zuen, non eman baitzen haren kontrako sumindura handian; yuramentu ere egin zuen gal-araziren zuela. Profeta beldurtu zen, eta eman zitzaion ihesari: urrundu zen Israelgo erresumatik, nahiz begiratu bere bizia. Hedatu zen mortu handi baterat, eta han yarraiki behar izan zitzaion, egun oso batez, bere bideari. Akhitu eta ezindu bezala zen: yarri behar izan zen arbola baten azpian, eta erran zion Jainkoari: aski da, Jauna, khien diezadazu bizia, ezen-ez naiz ene aitzinagokoak baino hobea. Hitz hauien ondoan, etzan zen lurrean, eta lokhartu zen arbola haren azpian. Jaunaren aingeru batek ukitu zuen eta erran zion: altxa zaite, eta yan zazu. Eliak, altxatzean begiak, ikhusi zuen bere buruaren aldean ogi bat hautspean errea, eta yarro bat urez bethea. Yan zuen, eta edan, gero lokhartu zen bigarren aldian. Jaunaren aingerua hurbildu zitzaion, berriz ere; ukitu zuen, erraten zioela: altxa zaite, eta yan ezazu; ezen bide hainitz duzu oraino iragattekotzat. Elia altxatu zen, eta yan eta edan izan zuen. Yanak *borthitztu zue-nean, atxiki zion bideari berrogoi eguez eta berrogoi gaez, hel zadin arteraino Horeb, edo Sinai diethzen den Jaunaren mendirat.*

Elia egon izan zen, aphur bat, mendi hartako zokho batean. Jainkoak entzun-arazi zion zokho hartan bere boza, erran zioen: zer hari zara hor? Eliak ihardetsi zuen: o! zu, ene Jauna, eta armadetako Jainkoa, sustatua naiz zure alderako kharrak, zeren israeldarrak urrundu diren zureganik; desegin tuzte zure aldareak, eta xehakatu zure profetak: hetarik ez da ni baizik, eta ni hil nahiz dabilta. Jainkoak erran zion: zohazi, bihur zaite ethorri zaren bide beraz: badire Israelen zazpi milla gizon ene esku-ko daduzkadanak, eta belhaunikatu ez direnak Baalen aitzinean.

Elia bihurtu zen beraz Israelgo erresumarat. Han bathu zuen Elisea laborantzan hari zela hamabi idi pareekin. Elia hurbildu zitzaionean, ezarri zuen bere kapa Elisearen gainean. Eliseak utzi zituen berehala, bere idiak yarraikitze-kotzat Eliari, eta erran zion: ez bekizu, othoi, gaitzets nohan ene aita eta ene amaren besarkatzerat: hetarik lekhora, zurekin izanen naiz ibilhiko zaren lekhu guzietan. Eliak ihardetsi zion: bai, zohazi, eta zato gero; ezen egin dut zure alderat ene eginbideak manatzen zarotana: ordu hartarik, Elisea yarraiki zitzaion Eliari, eta yarri zen haren zerbitzuan.

Eliak galdetzean Jainkoari bere heriotzea, ez dugu behintzat uzte izan behar deseparazioneak zarabillala, ez eta bere prestutasunean zukeien fidantzia sobraniazko batek. Bazekien, nork nahi bezain ungi, zenbat diren ikharagarriak Jaunaren yuiamenduak, eta sainduenak ere lazten direla orhoitzean agertu behar direla yustiziak berak yuiatzen dituen yuie adoragarriaren aitzinean. Jainkoaren loriaren alderako kharrak nahiarazten zion Eliari bere heriotzea. Zaurthua zuen bere bihotz guzia ikhus-teaz hanbat sakrilio, eta nahiko zuen ez izan gehiago halako idolatria eta gaixtakerien lekhuko. Edireten dugu profeta saindu haren baitan zorionean, munduan gerthatzen ohi dena, gaixtagina yazartzen Jainkotiarrari, arima yustua persekutatua bekhatoarearen aldetik.





## CXV. KAPITULUA

### Josafaten prestutasuna.

#### Akabeen heriotzea

#### 3. Erreg. 21, 22.

Judako erresumak Josafat zuen bere erregetzat. Printze hura zen Asaren semea eta primua. Etzuen fidantziarik idoletan; baina bai bere arbasoen Jainkoa baitan. Arthoski begiratzen zituen Jaunaren manuak, behinere kutsatzen etzela Israelgo gaixkietan. Artik-arazi zituen lurrerat idola guziak, eta khen-arazi zituen herritik Asa haren aitak ezin atzeman-arazi zituen gizon galdu guziak. Hautatu zituen aphezak eta lebitak, eta egorri izan zituen bere erresumako hiri guzietarat, haren populuak ikhas zezantzat Jainkoaren legea. Aphez eta lebita hek berekin zarabillaten Jaunaren legearen liburua, eta eskolatzen zuten mundu guzia.

Josafat ere bazabillan bera, herriz herri, nahiz erakharri bere populu bihurtzerat Jainkoari leheneko ohorea. Ezarri zituen orobat yuieak bazter guzietan, eta gomendatzen zioten hertsiki, bihurtzeaz justizia zuzentasunekin: beira zaitzte, erraten zioten, arinkiegi yuiatzetik: Jainkoak berak ezarri zaituzte yuietzat, eta ez gizonek. Zuen erdian datzen bertzeak yuiatzten dituzuenen: bizi zaitzte beraz haren beldur sainduan, eta bethe zatzue leihalki zuen eginbideak. Horra nolakoa zen Josafaten prestutasuna, eta kharra errelijonearen alderat. Ez da miretsteko dohatsu eta ontasunez gaindi egina bizi izan balin bazen bere erregeko denboran.

Josafat sarthu zen allientzian Akab Israelgo erregerekin, eta horra zerk gal-arazten zuen errege prestu hura. Akhben ikhusterat hedatu zen aldi batez, Akabek galdegin zion bere laguntza yabetzeko Ramoth zartzon hiriaz: Josafatek ihardetsi zion lanhoki: zuk nahi duzun guzia egiterat nago: ene tropak zure manuko dire, yarraikiren zaitzkitzu gerlate hortarat; ordean, othoi, konsulta zazue lehenik Jainkoa. Israelgo erregek bildu zituen bere profetak: heltzen ziren lau ehunetaraino; erran zioten: zer egin behar dut? Emanen diot asaldu bat Ramoth, Galaadeko bazterretan den hiriar, ala egonen naiz geldi-geldia? Profetak ihardetsi zuten: Jauna, bazohazke, Jainkoak emanen darotzu hiri hura eskutarat. Orduan Josafat mintzatu zen hunela: ez da bada hemen Jaunaren profeta konsulta ahal ginezakenik? Bai, bada bat, ihardetsi zuen Akabek; Mikee du bere izena: ez dut ordean batere maite: ez du behinere deus atsegin egitekorik errateko. Josafatek, hitz horren gainean, erran zuen: o! erregea, othoi, ez

hola mintza. Hitz labur hauk aski izan ziren. Akabek eman zuen berehala manua erakartzeko Mikee harenganat. Arte hartan profeta faltsoak etziren baratzen erratetik erregeri sethia zezala Ramoth, eta hiri hartaz yabetuko zela.

Jaunaren profeta agertu zenean Akaben aitzinerat, errege hunek erran zion: zer eginen dugu bada? Sethiaturen dugu Ramoth Galaadeko hiria, ala utziren dugu den bezala? Profetak ihardetsi zion hitz hautaz: ikhusi dut Israel guzia menditan barriatua, ardi artzain gabeak bezala, eta entzun dut Jainkoa erraten: yende horiek ez dute buruzagirik: bat-bedera bihur bedi bere etxerat: orduan Akabek erran zion Josafati: ikhusten duzu nola mintza den: banakien bai, ez nuela behar deus onik iguriki profeta hunenganik. Mikee etzen hitz bakhar hetan baratu; erran zuen oraino asko bertze gauza Akabi damu egitekoak. Errege hunek ezin yasan zuen gehiago Jaunaren profetaren solasa; altxarazi zuen preso, eta manatu zuen ez ziozotela eman ogia eta ura baizik bere yanari eta edari guzizat.

Bere bihotz gogortasunak erakharri zuen oraino Akab Naboth hil azaraterat. Gizon hunek zuen mahatsti bat errege haren palazioaren aldean. Akabek erran zioen Nabothi: emadazu zure mahatstia, handi dezadantzat ene baratzea; emanen darotzut bertze bat hobea izanen dena; edo nahiago balin baduzu, emanen darotzut, dirutan, zure mahatstiaren balioa. Nabothek ihardetsi zuen: Jainkoak begira nazala saltzetik ene aitzinagokoan primuza. Hitz hauiek sumindu zuten Akab: bihurtu zen bere etxerat, eta artiki zuen bere burua ohe gainerat, yanaririk batere hartu gabe. Jezabelek galdegin zion zerk bada horrela damustatzen zuen. Akabek ihardetsi zuen, eskainirik heldu zela Nabothi bere mahatstiaren balioa, edo bederen ordaina; baina gizon hark erran zioela, biphilki, etziola emanen. Orduan Jezabel mintzatu zitzaion hunela: nonbait erran behar da zure botherea guti hedatzen dela, eta ez dagotzula erreginatzea. Altxa zaitte, yan ezazu, emazu barnea deskantsuan, eta nik izan-araziren darotzut Nabotheren mahatstia.

Jezabelek etzuen galdu denborarik; egorri zituen guthunak, edo letrak erregeren zigilluarekin hiri handienetarat. Guthun hetan ziren iskribatuak hitz hauk: eragizue barur bat, eta irabaz ezazue bi lekhuko faltso, erranen dutenak Nabothek blasfematu duela Jainkoaren izen saindua, eta madarikatu duela errege. Izan bedi hiriaz kanporat eramana, eta harrikatuturik hilla. Manu hau izan zen konplitua. Bi lekhuko faltsoen erranaren gainean, Nabothek galdu behar izan zuen bizia: haren umeak ere hillak izan ziren. Erreginak laster yakin zuen Nabotheren hil berria. Berri bera



hedatu zuen berak Akabeen beharritarat, eta erran zioen: zohazi, sar zaite, deuseren beldurrik gabe, Nabothén mahatstiaren gozamenean.

Akab mahatsti hartan zela, hurbildu zitzaion Elia profeta, Jainkoak hala manaturik, eta erran zioen: hil-arazi duzu Naboth, eta yabetu zara haren ontasunaz. Huna bada nola mintzo den Jainkoa: Nabothén odola zakhurrek limikatu duten lekhu huntan berean, limikaturen dute zurea ere.

Akab eta Josafat eman zitzaizkon bideari Ramoth hiria sethiatzeko xedez. Siriako erregea Ramotheen alde agertzen zen: manatu zituen bere armadako aitzindariak, yazartzeaz, guzien gainetik, Israelgo erregeri. Nonbaitik ere, Akabek yakin zuen manu haren berria. Utzi zituen bere soinekoak, eta hartu bertze zenbaitenak. Josafat zen bakharra, errege bezala, agertzen zena. Etsaiek ustez hura zen Israelgo erregea, inguratu zuten, eta yazartzen zioten alde guzietarik. Herstura hartan, Josafatek othoitz egin zion Jainkoari: entzuna izan zen: etsaiek ezagutu zuten etzela hura Akab, eta urrundu ziren harenganik.

Bere menturarat largatu zuten flexa batek atzeman zuen Akab, eta sarthu zitzaion bulharretan barna. Hil izan zen, arrats hartan berean. Haren zauritik ilkitzen zen odolak bethe zuen hura zen lekhu guzia, eta bildu ziren zakhurrak odol haren limikatzerat. Ala miragarria eta laudagarria baida Josafaten kharra Jainkoaren alderat! Erran behar da hagitzen egin dezakeiela buruzagi batek, oneko eta gaixtoko. Zenbat zorigaitz eta sarraski etzituen eragin Akaben erreljione eskasak! Ordean aithor agun, hala-hala Josafaten prestutasunak emendatu zuela Jainkoaren loria eta bere populuaren zoriona. Akaben heriotze ondikozkoak irakhatsten daroku zein gauza lastimagarria den Jainkoaganik hastantzea, eta bihotza gaixakeriari largatzea.

## CXVI. KAPITULUA

### Okosiasen heriotzea.

#### Elia altxatua zerurat

##### 4. Erreg. 2.

Akab hil zenean, Okosias haren emea izan zen errege; bere aita eta bere ama Jezabelen idurikoa gerthatu zen, guti erreginatatu zuen. Tronurat altxatu izan zenetik urthe baten buruko, erori izan zen bere palazioko leiho gora batetarik. Sarthu zen eritasun handi batean. Konsultarazi zuen Beelzebuth Akaronen Jainkoa, yakitekotz altxatuko zenez bere eritasunetik. Jaunaren aingeru batek manatu zuen Elia hedatzeaz errege Okosiasek Beelzebuthgana egortzen zituen batzutarat, eta heien yakintsun egiteaz Jainkoaren hitzaz. Eliak bathu zituen erregeren mandatari hek, eta erran zioten: zohazte, bihur zaitezte zuen nausiagana; adi-araz diozue Jainkoa hunela mintzo zaiola: ez da bada Jainko bat Israelen, egorri baiduzu Akaronen Jainkoa konsultatzerat? Hori egin duzunaz geroz, yakin zazu etzela altxaturen ohe hortarik, eta hillen zarela.

Hitz hautarik lekhora, Elia urrundu zen, eta mandatariak bihurtu ziren erregegana. Okosiasek galdegin zioten zertako bihurtzen ziren haren manua bethe gabe. Orduan mandatariak ihardetsi zuten: bidean bathu dugu gizon bat zureganat egorri gaituena: denbora berean, xehatu zituzten gauza guziak. Erregek galdetu zioten: nola da egina horrela mintzatu zaitzuena? eta zer yauntstura du? Ihardetsi zitzaion: gizon hura illetsua da, eta larruzko gerriko bat dakharke. Okosiasek, seinale hautarik, ezagutu zuen gizon hura Elia zela. Egorri zuen berehala aitzindari bat berrogoi eta hamar gizonekin profeta haren ondoan. Aitzindari hura hurbildu zitzaion, eta erran zion: Jainkoaren gizona, yaits zaite, orai berean, mendi hortarik; erregek manatzen darotzu. Eliak ihardetsi zion: baldin Jainkoaren gizona banaiz, yaits bedi zerutik su bat iretsiren zaituztena, zu eta zure berrogoi eta hamar gizonak. Ordu berean, yaitsi zen zerutik su bat, eta erre zituen guziak. Erregek egorri zuen bigarren aitzindari bat: mintzatu zitzaion profetari lehenbizikoa bezala; ordean, bere tropaekin batean, zorte bera izan zuen: galdu zituzten bere biziak. Hobeki hartu zen egorria izan zen hirugarren aitzindaria: eman zen belhauniko Eliaren aitzinean, eta egin zioen othoitz hau: Jainkoaren gizona, begira diezaguzu bizia, niri eta enekin diren zure zerbitzari. Orduan Jaunaren aingeruak erran zion Eliari: zohazi gizon horrekin, eta etzaitzela izi.



Eliak egin zuen bide erregeganat, eta erran zioen, Jainkoa haren ahoz mintzo zelarik: nahi izan duzunaz geroz Akaronen Jainkoa konsultatu, Jainkorik Israelen ez balitz bezala, etzara altxaturen eritasun hortarik; aitzitik, hillen zara. Jaunaren hitza izan zen konplitua. Hil zen Okosias, eta haren anaia Joram izan zen tronuan ezarria.

Elia etzen, handik harat, luzero egon lurraren gainean. Urrundu zen Galgalatik Eliseekin batean; nola baitzakien Jainkoak nahi zuela zerurat altxatu, erran zion bere dizipulu leihal hari: geldi zaite hemen, Jainkoak egortzen nau Bethlerat. Jainkoak egin zuen Elisea yakintsun ikhusi behar zen gauzaz. Dizipulu hunek ihardetsi zion bere nausiari: ez, etzaitut niholere utziren. Eman ziren beraz biak Bethlerako bidean, eta handik hedatu ziren Jerikorat. Profeteen dizipuluek (bazen hetarik oste bat bi hiri hetan) erran zioten orduko berak zakiena, galtzerat zohala bere nausia. Bertze aldi batez ere, Eliak nahi izan zuen urrundu Elisea bereganik; ordean alferretan. Ikhusirik nola Elisea yarraikitzen zitzaion lekhu guzietarat, eraman zuen berekin Jourdaingo alderat. Arribera haren hegirat zirenean, Eliak harturik eta plegaturik bere kapa, yo zuen hartaz ura, eta ur hura eman zen berehala bi bazterretarat, hain ungi bai non biek iragan baitzuten arribera oinik busti gabe.

Uraz alde hartarat zirenean, Eliak erran zioen Eliseari: ikhus ezazu zer nahi duzun egin dezadan zuretzat, zureganik hasandu gabe. Eliseak ihardetsi zuen: egizu, othoi, ene baitan aurkhi dadin profezien eta mirakuilluen dohain zure baitan datzana. Eliak erran zion: gauza gaitz bat galdetzen duzu: guziarekin, ardietsiren duzu galdetzen duzuna, ikhusten balin banauzu zerurat altxatzen; ordean ez duzu ardietsiren, ez banauzu, ordu hartan, ikhusten. Hunela mintzo zirela, Elia higan zen zerurat. Eliseak ikhusi zuen nola higatzen zen, eta ordu hartan berean, eman zen erraten oihuz: ene aita, ene aita! Handik laster etzuen ikhusi gehiago.

Eliak, higaterakoan zerurat, utzi zuen erortzerat bere kapa. Eliseak altxatu zuen, eta yo zuen hartaz Jourdaingo ura; ordean ura etzen partitu bi aldetarat lehen bezala. Orduan Eliseak erran zuen: non da bada orai Eliaren Jainkoa? Yo zuen, bigarren aldian, ura. Aldi hartan ura partitu zen, eta Eliseak iragan zuen arribera. Profeteen dizipuluek ezagutu zuten mirakuillu hartarik Elisea fagoratua zela Eliaren izpiritua.

Elisea iragan zen Bethlerat. Hiri hartarat hurbiltzen zela, bathu zuen haur multzo bat. Trufatu zitzaizkon zeren etzuen illerik, eta erraten zioten dosteta batez: higan zaite, buru murrizta, higan zaite. Profetak behatu zioten eta madarikatu zituen, Jainkoak hala nahirik. Ordu berean, bi

hartz izigarri athera ziren oihan batetarik; yazarri zioten haur hei, eta eman zituzten zathitan hetarik berrogoi eta bia.

Okosiasek ezagutu zuen, bere gostuz, gizoneen eta errege bereen egin ahal guziak gauza aphurrak direla, deusera ez direla Jainkoak gaitzesten dituenen. Alferretan errege hura nahi izan zen yabetu Elia sainduaz, hari aspertzeko, eta haren hil-arazteko; profeta hura Jaunaren amudioz fagoratua zen: ardietsi zuen zerutik laguntza guzia, eta sutan emanak izan ziren Okosiasek haren hartzerat egorri zituen gehienak. Punimendu ikharagarria, irakhatsten darokuna berthutea maitatzen eta ohoratzen! Okosiasen heriotze ondikoakoan ikhusten dugu zer punimendu datzan Jainko, bere kreatzailea utzirik, bere sinhetstea eta bozkarioa atseginetan eta kreatura arbuiagarritan ezartzen dutenentzat. Ez bekigu ahantz Elisea zuhurraren etsenplu ederra. Profeta hura etzen nahi izan behinere hasandu Elia, gizon miragarriganik: gauza bera egin behar dugu: urrundu behar gara mundutiar, bere gogo guzia mundu-pean dadukatenetarik. Halakoekin ez da deusik irabazteko; aitzitik gal-araz dezakete dugun ontasunik baliosena, erran nahi dut, gure arima. Jainkotiarrekin bizitzeaz, eta hei leihalki yarraikitzeak eginen dute gure egiazko zoriona.



## CXVII. KAPITULUA

### Hirur errege bat eginak mirakuilluzki garaituak. Josafaten heriotzea

#### 4. Erreg. 3.

Joram Judako erregek etzuen, egia da, hedatu bere gaixtakeria Akabek eta Jezabelek bezain urrun; ordean ohoratzen zituen Jeroboamek eragin zituen urrezko xahalak; Bethi idola hetarat ekharria bizi izan zen.

Moabitarren erregeak, hala konpuntutik Akabekin, eman zuen bere burua zor baten azpian Israelgo erregeren alderat. Ordean hil zenean Akab, etzuen nahi izan iduki bere hitza. Joramek hartu zuen xedea emateko gudu moabitarren erregeri, eta galdetu zuen Josafat bere hurkhoaren laguntza: bi errege hauiek bildu zituzten bere tropa guziak, eta eman ziren moabitarren ondoan. Sarthu ziren mortu handi batean, eta urak eskas egini, galtzen zen armada guzia. Josafatek ikhusirik herstura hura, galdetu zuen bazen-ez lekhu hartan Jaunaren profetarik miseriakordia eskatzeko. Ihardetsi zitzaion armadan gerthatzen zela Elisea, Eliaren dizipulu eta zerbitzaria. Josafatek erran zuen horren gainean: Elisea baitan edireten da Jainkoaren hitza: bi printzeak hedatu ziren berehala Eliseaganat. Profetak erran zion Israelgo erregeri: zer aria da zure eta ene artean? Ahal zohazke zure burasoen profetatarat. Ez banio behatzen Jainkoari, eta ez banu dudan errespektua Josafat Judako erregeren alderat, aiher nainte ez zuri behatzeko. Gero, mintzatu zen hitz hautaz: huna zer dioen Jainkoak: ez duzue izanen haizerik, ez uririk: halarik ere haran hau urez bethetzerat doha, eta edanen duzue ur hartarik. Gauza hau deus gutia da Jainkoarentzat. Eginen du zerbait gehiago: eror-araziren tu moabitarren zuen esku-tarat. Biharamun goizerat, armada aurkhitzen zen lekhua izan zen urez estalia. Moabitarrek uste izan zuten ur hura odolez gorritua zela. Iguzkiaren arraioket hala iduri-arazten zioten. Erran zuten, bere baitan, israeldarren artean zenbait sarraski egin zela, eta elkhar hil zutela. Sinhetste hortan, hurbildu ziren hetarat, nahiz probetxatu heien ontasunez; ordean atzemanak gerthatu ziren; xehakatuak izan ziren, eta moabitarren herriak larrutuak. Horra historioak Josafatez erraten darokun azken gauza. Errege hura bizi izan zen oraino zazpi urthez; erreginatu zuen guziz hogoi et

bortz urthez. Agradagarria zen Jainkoaren begietan. Utzi zion bere erre-suma Joram, bere seme zaharrenari.

Jainkoak ez du arma eta munduko indar beharrik etsaien garitzeko eta suntsi-arazteko. Haren nahikirik ttipiena gizonen egin ahal guziak baino infinituki gehiago da. Armada oso bat galdua izateko menean aurkhitzen zen, ur eskasez. Ordean ala ez baidire urrikaltzeko Jainkoak bere artharen azpian daduzkanak! Zer fidantzia ez dugu behar aita amultsu, hanbat maite gaituenaren baitan! Bothere guzia berekin duen Jainko baten miseriakordietan! Gure salbatzaillea sustatua da gureganako amodioz: ekharria da guri ungi egiterat, gure ondoan dabilha; eta ez du bada izanen gureganik ez-antsiatasunik eta hotzatasunik baizen! Ihes eginen diogu bada! Zer eskergabetasun! Iraganak iragan: higuin dezagun bekhatua; dezagun maita berthutea: emogun, azkenean, gure Jainko adoragarriari bihotz bat berak egina, bakharrik beretzat egina; ordean, ondikoz! munduari lazoki largatu izan dioguna.



## CXVIII. KAPITULUA

**Naaman sendatzen da.**

**Gieziren lepra**

4. Er. 5.

Siriako erregek zuen armadetako aitzindari bat Naaman zaritzona, eta zen hainitz ekharria haren alderat. Naaman hura zen gizon animotsu bat eta aberatsa; ordean lepra duna. Haren emaztea zerbitzaturia zen neskatxa gathibu, Israelgo herritarik erkharria izan zenaz. Egun batez, sehi hark erran zion bere etxeko-andreari: nahi nuke ene nausia ager balakio Samaria hirian den profetari. Senda bide lezake bere lepratik. Naaman hurbildu zen erregeganat, eta mintzatu zitzaion hitz hautaz: Israelgo neskatxa batek hulako solas iduki du. Erregek ihardetsi zion: zohazi, iskribaturen diot Israelgo erregeri.

Naaman lothu zitzaion bideari dirutze handi batekin. Samariatar heldu zenean, eman zion Israelgo erregeri Siriakoaren guthun, edo letra bat, hitz hauk zaduzkana: iskribatzen darotzut guthun hau, zu yakintsun egiteko nola egortzen darotzudan Naaman ene zerbitzaria, senda dezazuntzat bere lepratik. Israelgo errege, irakhurri orduko guthun hura, damustatua izan zen, eta erran zuen: Jainko bat naiz bada khentzeko eta emateko bizia? Ikhusten duzu, Jauna, Siriako errege, nondik enekin hautsiren duen hari dela. Eliseak yakin zuen gauza hunen berri; eta erran zuen: gizon hura yarraik bekit, eta yakin beza badela profeta bat Israelen.

Naaman hedatu zen profetaganat. Haren etxeko athean zela, Eliseak gaztiagu zioen sar zadiela, zazpi-aldiz, Jourdaingo urean, eta sendaturen zela. Gaztigu hura gaitzitu zitzaion Naamani, eta erran zuen: usteko nuen agertuko zitzaitala profeta bera, eta ukiturik ene lepra, sendaturen ninduela, Jaunaren izenean: Damaseko urek balio ahal dituzte Israelgo ur guziak; eta ez bide dute indar gutiengo erien sendatzekotzat. Naamanek hartu zuen bere herrirako bidea, zelarik guzia mindua profeta haren alderat: berekin zituen zerbitzariak erran zioten: Jauna, profetak manatu balarotzu egiteaz gauza nekharri eta borthitz bat, egin beharko zinduen: arren oraino hobeki erori behar zara haren nahitarat, erraten darotzunean: zohazi, sar zaite Jourdaingo urean, eta sendaturen zara. Naamanek sinhetsi zituen bere zerbitzariak. Sarthu zen, zazpi aldiz, ur hartan, eta sendatua izan zen.

Orduan Naaman bihurtu zen yarraikitzen zitzaizkon yendeekin Jainkoaren gizonagana eta erran zion: orai ezagutzen dut ez dela lurraren gainean bertze Jainkorik Israelen dena baizik. Zure zerbitzariak ez du gehiago ofrendatuko holokaustarik Jainko atzean ohoretan: haren sakrifizioak egiazko Jainkoarentzat izanen dire. Naamanek erakharri nahi izan zuen profeta hartzerat eskaintzen ziotzon emaitzak, nahiz erakutsi bere bihurkhundea; ordean profetak etzuen nahi izan deusere hartu. Naamanek egin ziotzon bere adiuoak, eta hastandu zen harenganik.

Naaman ez zitzaion hain laster eman bideari, non Giezi profetaren zerbitzaria hasi baitzen bere buruari erraten: ene nausiak ez du nahi izan deusere hartu Naaman siriadarraganik. Banhoako ondotik: atherako dut zerbitzari harenganik. Erran bezala, zerbitzari hura abiatu zen Naamanen ondoan. Naamanek ikhushi zuenean zerbitzari hura harengana heldu zela, hurbildu zitzaion bera. Geizi hasi zitzaion erraten: ene nausiak zureganat egortzen nau, zirudi arazteko ethorri zaizkola bi mutli gazte etxerat, profeteen umeak direnak. Othoizten zaitu egortzeaz enekin talent bat diru, erran nahi da, dirutze handi bat, eta bi soineko. Naamanek ihardetsi zion profetaren zerbitzariari: hobe da talent baten orde, har ezatzun bia. Eman ziotzan soinekoak ere, eta hauk guziak egorri zituen bi zebitzariekin. Giezik eman zituen diru eta soineko hek etxe batean; eta egorri zituen bidetik Naamanek zerbitzariak.

Geizi bihurtu zenean etxerat, Eliseek galdegina zion: Giezi, nondik heldu zara? Jauna, ihardetsi zuen Giezik, zure zerbitzaria ez da nihon ibilhi. Zertako, erran zioen bere nausiak, ukhatzen duzu gauza, ikhushi ez banu bezala Naaman zureganat hurbiltzen? Diru eta soineko hartzen hari izan zare. Beraz erosi gogo duzu batzuen eta bertezeenganik, idi, arthalde, mahatsi eta hulako bertze ontasunak: bada, yakin zazu Naamanen lepra behin bethikotz zure, eta zure umeen baitan izanen dela. Ordu berean, Giezi urrundu behar izan zen Elisearenganik lepraz guzia maldatua.

Jourdaingo urak izatea Naaman bere gorphutzeko lepratik sendatzeko ahala zerbeit da, hainitz ere da; ordean aithor dezagun arimako lepratik sendatzea, hari leheneko garbitasun guzia izan-araztea, infinituki gehiago dela. Horra bizkitartean penitentziako sakramenduari datxeikon berthute zorionezkoa eta guziz miragarria. Ez dugu zeren ibilhi, Naaman bezala, lekhu urrunetan edireteko senda gaitzaketen erremedioak. Aurkitzen dire lekhu guzietan Eliseak eta ithurri sakratuak, gure arimak bere gaitz guzietarik sendatzeko indar guzia berekin dakharketenak.

Gaitz guziak kaltiar dire, eta ez gutienik, diruaren alderako amodio sobrianazkoa: lekhuo Giezi, Elisearen zerbitzaria.





## CXIX. KAPITULUA

### Tropak egorriak Eliseaz yabetzerat. Samariako sethioa

Siriako erregea guduan hari zen denboran israeldarren kontra, Eli-seak salatzen ziotzon Israelgo erregeri bertzeak gogoan zarabiltzan, eta egin nahi zituen gauza guziak. Hortik heldu zen Israelgo erregek trebesatzen baitzituen bere etsaiaren nahi guziak. Gauza hau hainitz zitzaion min Siriako erregeri. Printze hunek bildu zituen bere meneko zituen aitzindariak, eta mintzatu zitzaion hunela: ez darotazue bada erran nahi nor den traidore hura ene berriak salatzen diotzana Israelgo erregeri? Aitzindariarik batek ihardetsi zion: ez da, Jauna, nihor traidorekeriaz dabillanik; bainan bada Israelen profeta bat salatzen diotzana Israelgo erregeri zuk zure kabinetean erraten ditutzun hitz guziak. Orduan erregek erran zioten bere aitzindari: zohazte, yakin zazue non den profeta hura; nahi dut har-arazi. Erregek yakin zueneko Elisea Dothan zela, egorri zituen tropak hiri haren ingurutzerat.

Elisearen zerbitzaria ilki zenean, goiz-alderat, Dothanetik, ikhusi zituen tropa hek guziak hiriaren inguruan: egin zuen berehala bere nausia yakintsun gauza hartaz, eta erran zioen: Jauna, zer izanen da gutaz? Eli-seak ihardetsi zion: ez izan batere beldurrik. Deus gutiak dire zuk hiriaren ingurutan ikhusi ditutzun gizon osteak, gure ingurutan direnean aldean. Denbora berean profetak othoitztu zuen Jainkoa, idekitzeaz haren zerbitzariaren begiak; ordu beretik, zerbitzari hark ikhusi izan zuen aingeruzko oste bat heien ingurutan zirenak, heien begiratzekotzat. Profeta ilki zen hiritik. Ikhusi zituenean etsaiak bereganat hurbiltzen, othoitz egin zion Jainkoari itsutzeaz yende hek guziak. Hala gerthatu zen. Orduan Eli-seak erran zioten bere etsaiei: ez zohazte bide xuxenaz: yarraik zakizkidate, eta nik aurki-araziren darotzuet zuek bilhatzen duzuen gizona. Sararazi zituen Samariako hirian. Harat zirenean, profetak othoitztu zuen Jainkoa idekitzeaz gizon heien begiak, ikhustekotzat nolako hirriskutan edireten ziren. Zer gauza espantigarria siriar heientzat aurkhitzeaz, ustekaberik, bere buruak etsaien artean! Samariako erregek nahi zituen hil-arazi guziak; ordean Eliseak gibelatu zuen hartarik. Aitzitik, eman-arazi zioten, hura hartu nahiz zabiltzanei yaterat eta edaterat. Gero, egorri zituen guziak bere lekhatarat.

Handik bi urtheen buruan, Benadab, Siriako erregeak, bil-arazi zituen bere tropa guziak, eta sethiatu zuen Samaria. Sethio hunek luze iraun zuen. Halako hersturan izan zen hiri hura non asto baten burua saltzen baitzen lauetan hogoi peza dirutan. Israelgo erregea, iragaten zela hiriko murrueen hegitik, abiatu zitzaion emazteki bat oihuz erraten: ene jauna eta ene erregea, salba nazazu. Erregek ihardetsi zion: Jainkoak etzaitu salbatzen, nola beraz salbaturen zaitut? Zer duzu niri errateko? Emazteki hura mintzatu zitzaion erregeri hitz hautaz: hor ikhusten duzun emaztekiak erran darot: indazu zure semea: yan dezagun egun hura, yanen dugu bihar nerea. Erre eta yan dugu beraz ene umea. Ondoko egunean, erran diot emazte hari: indazu zure semea, eta yan dezagun hura ere; ordean gorde izan du bere umea. Solas hunek arraillatu zuen erregeren bihotza: hautsi zituen bere soinekoak. Ikhusi zioten larruaren gainean zakharkeien zilizioa, edo athorra ille latzez egina.

Benabad erregeak Elisearen gain ematen zituen bere damu eta atsekabe guziak: manatu zuen aitzindari bat hiltzeaz gizon saindu hura. Jainkoak egin zuen Elisea yakintsun erregeren manu dorpheaz: etzen hargatik batere asaldatu; bazakien erregek emanen zuela laster bigarren manu bat hautsiren zuena lehenbizikoa.

Samariako erregeren etsenpluak irakhatsten daroku, zein kaltiar den nork bere burua largatzea orguilleriari eta khexadurari, zein nahi atsekabetan. Printze hark pairatzen du, ekhartzen ere bai bere gorphutzean penitentziatzko seinaleak; ordean ez da humiliatzen: galtzen du Jainkoaren baitan behar zuen fidantzia: hil-arazi nahi du profeta bat, bere saindutasunaz begiratzen zuena hiri hura izatetik funditua. Bertzela egiten dute Jainkoaren zerbitzari egiazkoek; fedearen begiekin behatzen diote munduko lazeria eta atsekabe guziei. Humil eta deskantsu daude bere nahikabetan. Badakite merezi baino gutiago pairatzen dutela. Zenbatenez baidire zeruko zigorradez zaurthuak, hanbatenez lehiatzen dire bere eskerrak Jainkoari bihurtzerat. Halako ordutan egiazko giriztinoek behatzen diote Jainkoari, ez yuie garratz bati bezala: urrun da, bainan ba aita amultsu bati bezala, zeinak zehatzen baiditu bere umeak, maite dituelakotzat.

## INPRIMADOREAREN ABISUA

*Nahiko nuen ezarri liburu berean Testamen Zaharreko historio osoa; ordean igurikitzen nuen baino hedadura gehiago aurkhitu dut dadukala. Beraz,*





*nahiz aphur bat laburtu lehenbiziko liburua, utzi dut Testamen Zaharreko historioaren akhabantza bigarren liburuaren hastapenekotzat. Agertuko da heldu den uztaillean.*

## CXX. KAPITULUA

### **Jezabelen eta Akabaren umeen heriotzea. Jehuren konportamendua.**

#### 4. Erreg. 9.

Benadab Siriako erregea hil izan zen, Samaria sethiatua izan zenetik laster. Hazaelek itho izan zuen ohean eria zatzala, eta yarri zen haren tro-nuan. Denboratsu hartan, Eliseak erran zioen profeteen haur bati: har ezazu olio z bethea den anpoilla hau, eta zohazi Ramotherat. Edirenen duzu hiri hartan Jehu; hura da Joramen erresumako aitzindari bat: othoitzuko duzu sartzeaz zurekin gela batean: isuriko diozu olio hortarik buruaren gainerat, erraten diozula Jainkoak sakratzen duela Israelgo erregetzat. Gauza hori egin bezain laster, idekiren duzu athea, eta emanen zaizko ihesari, batere trikatu gabe lekhu hartan.

Gizon gazte hark egin zuen leihalki manatu zitzaion guzia; erran zioen Jehuri: huna nola mintzo zaitzun Jainkoa: sakratu zaitut Israelgo erregetzat. Suntsi-araziko duzu Akaben egokia: yazarriren diot Jezabeli, zeren hil-arazi dituen ene profeta eta ene zerbitzari hainitz. Zakhurrez yana izanen da Jezraelgo landan; eta ez da nihor izanen hura ehortziren duenik: hitz hauk erran eta, ideki zuen athea, eta abiatu zen ihesi.

Jehu goantzen Jezraelerat. Jezabel eman zen leiho batean bere bisaia fardaturik, eta bere burua ederki aphaindurik. Ikhusi zuenean Jehu sartzen hirian, erran zuen: zer igurik ahal dezake onik, Zambrik bezala, bere errege hil duenak? Jehuk altxatu zituen begiak leiho hartarat, eta egin zuen oiho: bada nihor hor? Berehala bia edo hirur aitzindari agertu zitzaizkon agur errespektuzko bat egiten ziotela. Jehuk erran zioten: artik ezazue emazte hori behere huntarat; ordu berean artiki zuten leihotik behera. Haren odola zurrutan zohan murrutarik, eta zamariak ostikatu zuten haren gorphutza. Jehu sarthu zen bere palazioan: yan zuen ondoan, erran zuen: izan bedi ehortzia emazte dohakabe haren gorphutza. Nolakoa bazen ere bera, errege baten alaba zen. Nahi izan zutenean ehortzi, ediren zuten gorphutza zakhurrek yana; etzen bertze deusik ageri buru kas-koa, oinak eta eskuak baizik. Jehuk hori yakin zuenean, erran zuen: horra beraz non den konplitua Jainkoak, Elisea bere zerbitzariaren ahoz, errana. Samariako hirian aurkhitzen ziren Akaben hirur hogoi eta hamar ume. Hiri hartako phuruenen etxetan zituzten bere egoitzak. Jehuk iskribatu zioten printze hek bizi ziren etxetako nausiei guthun, edo letra bat hitz



hauk zaduzkana: eneak balin bazarete eta nahi baduzue egin nik nahi dudana, ekhar dietzadatzue, bihar, muga huntako erregeren umeen buruak. Irakhurri zuteneko guthuna, hil-arazi zituzten Akaben hirur hogoi eta hamar umeak. Eman zituzten heien buruak saskitan, eta egorri Jesraelerat. Jehuk ezar-arazi zituen buru hek guziak, bi metetan, hiriaren aitzinean. Biharamun goizean bera ere han aurkhitu zen. Erran zioten harat bildu ziren guziei: ez duzue, zuek, hobenik. Ni naiz, aithortzen dut, Joram ene erregea eta ene nausia hil izan dudana. Ordean, nor da hauk guzien hil-araztzaillea? Ikhas ezazue hemen Jainkoak Akaben familiaren kontra erran izan dituenak egiak edireten direla. Jehu etzen hartan baratu. Oraino hil-arazi zituen Akaben familiari zatxeizkon guziak, haren gortheiko handiak, haren adiskideak, haren aphezak berak.

Jehuk adi-arazi zuen bere erresuma guzian sakrifizio handi bat Baali ofrendatzeko gogoa zuela. Manatu zituen Jainko faltso haren profetak eta aphezak kausitzeaz sakrifizio hartan, biziaren penan, eta hulako egunez. Hunela nahi zituen sar-arazi saretan, eta gal-arazi Baal adoratzan zutenak. Guziek egin zuten obediencia. Jehu sarthu zen bertzeekin batean tenpluan, eta erran zioten: ikhas ezazue badenez, zuen artean, Jaunaren ministrorik batere. Jehuk tenpluko athean zaduzkan lauetan hogoi gizon armatuak. Hei erran zioten baldinetariak bakhar bat itzurtzen bada zuen eskutarat libratuaren ditudanetarik, gostako zaitzue bizia. Ofrendatu zenean sakrifizioa, Jehuk erran zioten gizon armatu hei: sar zaitezte, hil zatzue guziak, ez bedi bakhar bat geldi bizirik. Sarthu ziren, eta egin ziotzoten zintzurak Baalen aphez guziei. Heien gorphutzak izan ziren artikiak kanporat. Baalen idola izan zen zathitan emana, eta egin zuten bi erdi haren tenplua.

Horra nola suntsi-arazi zuen Jehuk Baalen alderako adorazionea. Leihalki konplitze sari Jainkoaren nahia Akaben egokiaren alderat, Jainkoak agindu zioen Jehuri baten umeak Israelgo tronua ganean izanen zirela yariak laugarren belhaunerainokoan. Hil zen Jehu erreginaturik hogoi eta zortzi urthez; utzi zion bere khoroa Joakaz bere semeari.

Nor dagoke auhendatu gabe Jezabelen heriotze lastimagarria! Aithor agun Jainkoaren yuiamenduak ungi ikharragarriak direla. Erregina dokabe hark ezagutzen zuen, dio san Ambrosiok, egia, eta yazartzen dio egia hari berari. Profeta faltsoen lausengek lilluratu, eta heien alde yar-arazi zuten egiterainokoan gerlarik barbaroena Jaunaren profetei. Erran behar da non-bait, urgilleriak ungi zoratzan duela presuna, eta ilhunbe lodiak hedatzen dituela haren izpiriturat. Jezabelek ez du gehiago ikhusten bere ona; aitzitik bere zorigaitzaren ondoan dabilla. Largatzen du bere krea-

tzaillea, bere guzia: ematen da Jainko faltsoen adoratzan, eta suntsi-arazten, bere egin ahal guziez, bakharrik egiazko Jainkoari zor zaion ohorea. Ordean zer gerthatu zitzaion Jezabel zoroari? Hiltzea heriotzerik izigarrienaz. O! urgilleria, zer desmasia ez dezaket egin bihotzetan! Zer kalte ez dezakek erakhar arimetarat!



## CXXI. KAPITULUA

**Nola zen Israelgo erresuma**

**Joakazen denboran.**

**Elisearen heriotzea.**

**Zakaria harrikatua**

4. Erreg. 13

Jainkoak laudatu zuen Jehuk haren alderat agertu zuen kharra; ordean errege hark etzuen iraun bere zuzentasunean: Joakaz haren semea eta ondorioa, Jeroboam bezain gaixtoa gerthatu zen. Jainkoak seinlatu zuen here haserradura saildua israelarren kontra: eror-arazi zituen Hazael Siriako erregeren eskutara, zeinak yazarri baitzaroen den dorphekiena. Xehakatu ziotzoten bere armadak huntarainokoa, non ez baitzaitzaioen gelditzen Joakazi, baizik berrogoi eta hamar zamaldun eta oinezko hamar milla gizon. Hazaelek sutan eman zituen israelarren hiri bort-hitz guziak, pasarazi zituen ezpataren puntan gizon gazteak. Siriarrak etziren hortan gelditu. Lehertu zituzten israelarren haurrak, eta sabelak erditik egin emazte izorra guziei. Horra zer herstura handitan aurkhitu zen Israelgo erresuma Joakazen erregekoan. Azkenean printze hunek ezagutu zuen bere zoramendua, humiliatu zen Jainkoaren begietan. Jainkoak urrikari izan zituen israelarrak; athera zituen Siriako erregeren eskutarik. Joas Joakazen semea izan zen heien libratzaillea, Joas errege zen lehenbiziko urthean, hil izan zen Elisea profeta asko mirakuillu egin ondoan. Hil zenean ere ikhusi zen mirakuillu bat haren baitan: huna nolakoa. Gizon baten ehortzen hari zirenek, ikhusi zituzten moabitarrak alde hetarat hurbilduak: nola heien beldur baitziren, nahi izan zuten, lehen bai lehen, ihes egin; hortakotzat artiki zuten, berehala hil hura Elisearen hobirat. Hil hark etzitzen hain laster ukitu profetaren hezurak, non biztu eta altxatu baitzen.

Joasek, zuzen zen bezala, maitatzen eta ohoratzen zuen Joiada, aphez-handia. Sentimendu onez bethea zen, eta Jainkoaren loria bilhatzen zuen. Abhorritzen zituen Athalia, haren Amaren gaixtakeriak, guziz bulhustez Jaunaren tenplua han ziren gauza eder guziez, berregintzekotzat Baalen tenplua eta idola. Hartu zuen idol hek guzien borratzeko gogoa. Nola ez baitzen aski aberatsa berak yasateko hartakotzat egin behar ziren gastuak, egin zuen populua bere xedeaz yakintsun, nahiz haren laguntza. Ezarri zuten Jaunaren tenplua leheneko oin berean. Ordu hartan hil izan

zen ehun urthetan, ondikoz Joasentzat! Joiada prestua. Joasek ohoratu zuen, hil ondoan ere, aphez-handi hura. Ehorts-arazi zuen Judako erregeen hobian.

Ordutik, Joas erregea egin zen osoki bertze bat: etzirurien lehenekoa. Abandonatu zuen bere Jainkoa: eman zen idolen adoratzeko; eta egin zituen gaixtakeria den handienak yauts-arazi zuen Jaunaren haserradura bere buruaren eta Judako erresuma guziaren gainerat. Zakaria, Joiadaren semea eta orobat aphez-handi zena, mintzatu zitzaion Joas erregeri minki eta khar handirekin, largatzeaz zeruko Jainkoa lurreko idolen adoratzekotzat. Ahantzi zitzaion Joasi zordun zela bere khoroaz Joiadaren alderat; beraz onhetsi behar zuela semea aitagatik. Bizkitartean harrikarazi zuen Zakaria tenpluan berean. Gizon saildu hark erran zuen guzia, bere bizia hain zuzen kontra galtzean, hau zen: Jainkoak ikhusi beza zer pairatzen dudana, eta izan beza urrikamendu nitaz.

Jainkoak entzun zuen Zakariaren othoitza. Yazarri zion Joasi. Etzen ordutik printze dohakabe harentzat gudurik eta atsekaberik baizen. Siriarrak desegiten zuten haren armada guzia, eta bere azpiko zituen bi zerbitzariak hil zuten bera lo zatzala ohean. Etzuen ere izan erregeen hobian ehortzia izateko ohorea.

Eliseak, ikhusia da, mirakuillu bat egin zuen hil bat bitz-araztean; ordean ala mirakuillu handiagoa baida, bizia bihurtzea Jainkoaren begietan hilla den arima bati! Gorphutzak berriz hiltzekotzat bizten dire: ez da orobat arimaz. Atheratzen denean bekhatuaren thonbatik, bizten da, bera nor bada, ez gehiago hiltzeko; bainan aingeruen biziaz bizitzeko. Erhokeria bat laite igurikitzea gure gorphutzak bizturen direla hil eta, Lazaroarena bezala; ordean fedea irakhatsten daroku Jainkoaren grazian hiltzen denaren arima biziko dela eternitate guzian.

Deusere halakorik prestu izateko nola prestuei yarraikitzea. Joas erregea Jainkotiar eta behar bezalakoa zen baliatzen zenean Joiadaren abisu zuhurrez; ordean aphez-handi hura hiltzeneko, printze gazte hura erori zen ondikoz! bere erresumako handien erranetarar eta lausengutarar. Ordu beretik, suntsitu zen Jainkoaren tenpluarentzat agertu zuen khar laudagarria: abandonatu zuen egiazko Jainkoa yarraikitzekotzat Jainko faltsoei. Etsenplu handia irakhatsten darokuna hautatzen laguntzat eta adiskidetzat, presuna izpiritu onetakoak eta Jainkotiarrak!



## CXXII. KAPITULUA

**Amasias, Ozias eta Joathan**

**Judako erregeak**

4. Erreg. 15.

Amasias Joasen semea izan zen, aita hil zitzaionean, Judako errege. Hasteak onak zituen, eta Jainkoaren araberakoak. Oxala, ez balitz erori urgillerian! Yakin nahi izan zuen, bere zorigaitzetan, zer mundu zen haren erresuman. Aurkhitu zuen arma-gizonak heltzen zirela hirur ehun milleraino: bertze alde bazituen oraino bere zerbitzuan ehun milla israeldar berezienetarik, Amasiasek ikhusi zuenean bere burua hanbat populuen erregetzat, eman zioen bere gogoari gudu egin behar ziotela israeldarrei. Eraman zuen garaitia handi bat heien gainean. Garaitia hura kaltiar gertatu zen printze harentzat. Adoratu zituen berak etsaiei hartu ziotzaten idolak. Punitua izan zen. Handik laster Israelgo erregek hartu eta eraman-arazi zuen Jerusalem. Erreginatua ondoan hogoi eta bederatzi urthez, galdu zuen bizia bere azpikoen eskutarik.

Amasias hil eta, populuak izendatu zuen Ozias erregetzat. Hamasei urthe zituen orduan. Printze hau Jainkotiar agertu zen, Zakaria profeta bizi izan zeino. Arte hartan bere gogara zohazkon gauza guziak. Gerorat largatu zitzaion suphertasunari, eta horra zerk egin zuen haren ondikoa. Sarthu zen Jaunaren tenpluan, eta nahi izan zuen intzensusa ofrendatu. Azarias aphez-handia eta bertze lauetan hogoi aphez izan ziren Jainkoaren izpirituaz sustatuak, eta nahi izan zuten debekatu Ozias intzensusa ofrendatetik, erraten ziotela: ez dagotzu zuri, Ozias, intzensusurik ofrendatzea; hori da eginbide bat hortakotzat konsekratuak diren aphezek bethe behar dutena. Ilki zaite lekhu saindu huntarik, eta ez horrela arbuia Jainkoaren legeak. Non ez, gostako zaitzu desobeditzeaz. Solas hau gaitzitu zitzaion Oziasi. Utzitetik urrun inzensarioa eskutarik, mehatxatu zituen aphezak. Zer gertatu zitzaion? Egin zen, ordu hartan berean, lepradun. Azariasek eta haren lagun aphezek ezagutu ziotenean Ozias gaitz izigarri hura, khendu izan zuten tenplutik: etzen bera ere handik nahi bezain fite athera.

Ozias hil zenean, altxatu zuten tronurat Joathan. Errege hau aski prestuki bizi izan zen. Akaz haren semea izan zen, aitaren ondoan, erregetzat ezagutua. Hogoi urthe zituen. Urrun da Dabiten idurikoa baitzen; aitzitik adoratu zituen Baalen idolak; eta haren etsenpluak erakharri

zituen haren azpikoak gaixki bererat. Akaz tronurat altxatua izan zen bezain sarri, Rasim Siriako erregea, eta Fazee Israelgo erregeren semea, sarthu ziren Judean, nahiz khendu Akaz tronuaren gainetik, eta ezarri, haren orde, bertze bat Dabiten ethorkitik etzena. Ezin heldu ziren hartarat; zeren Jainkoak oraino urrikari baitzuen Akaz erregea; ordean hunenbat gaixtakerietan ohitua zen, non azkenean bereganatu baitzuen Jainkoaren haserradura saindua. Erori zen Israelgo erregeren eskutarat; eta Fazee hil zituen, hogoi eta lau orenik barnean, Judako sei ehun milla gizon. Hauk guziak ez ziren oraino aski sar-araztekotzat Akaz bere baitan. Hartu eta zathitan eman zituen Jaunaren etxeko gauza eder guziak. Eragin zituen aldareak Jerusalem eta Judako bertze hiritan ofrendatzeko zat intzensusa idolen ohoretan.

Uztez hobeki athera egitekotarik, Akazek egin zuen batasun edo alientzia bat asiriarekin. Etzen hargatik deusetan aitzinatu. Salmanazar Ejiptoko erregeak, sethiatu zuen Samariako hiria, hartu ere bai, hirur urtheen buruan. Eraman-arazi zituen israeldarrak bere erresumarat: handik hedatu izan ziren Asiako bazter batzutarat, gehiago bihurtu gabe bere herritarat. Horra nola akhabatu eta desegin izan zen Israelgo erresuma, Judako erresumatik hastandu zenetik berrehun eta berrogoi eta hamabortz urtheen buruan.

Zenbat etsenplu handi eta lazgarri ez dugu edireten kapitulu huntan! Ala artha guzizko batekin ihes egin behar baidiogu urgilleriari! Ondikoz! hedatua den bizio dohakabe hau ahal da gure zorigaitz eta arimako desmasia gehienen ithurburu phozoatua! Milletan dohatsu bihotzez humila dena. Ezagutzen du bere burua, beldurtasun zuhur eta fidantzia ezti batean daramatza bere egunak: ez du mundu huntako aberatstasunen eta ohoreen hirritsik, Jainkoaz dakusa guzia. Bere salbatzaille amultsua baitan bilhatzen du bere zoriona: harenganako amodioan edireten du bakharrik bere egiazko deskantsua.



## CXXIII. KAPITULUA

### Ezekias prestuak garaitzen du Senakerib. Eritzen da eta sendatzen

Akaz, errege gaixto hura, hil izan zen erreginatu zuen ondoan hama sei urthez, haren seme Ezekias izan zen ezagutua erregetzat: egon zen hogoi eta bederlatzi urthe tronuaren gainean. Ezekias etzen bere aitaren idurikoa. Gaixtakerien orde, seinalarazi zuen berthutea erresuma guzian. Iskritura sainduak ematen dio aithor ohoragarriena dioenean, etzela gertatu Ezekias bezalako erregerik Judako erresuman, ez aitzinean, ez ondolan. Yarraikitzen zitzaion leihalki Jainkoaren legeari. Itzuli zituen gauza guziak azpikoaz gora. Zabalarazi zituen tenpluko atheak, haren aitak heretsiak zaduzkanak. Manatu zaroen aphezei eta lebitei bere buruen santifikatzeaz, garbitzekotzat profanatua izan zen lekhu saindu hura. Artik-arazi zituen idola guziak; Jainkoa nahi zuen izan zadin bakharrik ohoratua eta adoratua. Jainkoak saristatu zituen Ezekiasen xede on guziak. Errege hunek yazarri zioten borthitzki filistindarrei, eta hartu zituen heien hiri phuruenak.

Jainkoak nahi izan zuen frogatu Ezekias prestuaren leihaltasuna. Sor-arazi zuen etsai muthiri bat mehatxu handiak egin ziotzana. Etsai hari zaritzon Senakerib. Ezekiasek etzakien hurren zer egin. Etsai borthitz haren mehatxu dorpheek asaldatu zuten haren bihotza. Sarthu zen Jau-naren tenpluan, eta gaztiatu zioen hala profetari zer hersturan aurkhitzen zen. Profeta hau zen Jainkoaz egorria Ezekiasen kontsolatzekotzat behar ordutan. Isaiak adi-arazi zioen errege saindu hari etzeiela zeren izan beldurrik mehatxu hek guziez, Jainkoa haren alde gudukaturen zela. Hitz eman zioen oraino Senakeribek etzuela sethiatuko haren hiririk, eta Jainkoak bihur-araziren zuela etsai supher hura ethorri zen bide beraz.

Ezekiasek ezarri zuen itsutuki bere fidantzia guzia Isaiaren hitzetan: profeta hunen erran guziak hala gerthatu ziren. Jainkoak egorri zuen gauaz Senakeriben kanparat aingeru bat, hil zituena errege haren ehun eta lauetan hogoi eta bortz milla gizon. Printze hark ikhusi zuenean sarraski hura eman zitzaion ihesari, eta idolen adoratzen hari zela, bere semetarik biek eraman zioten bizia.

Denboratsu hartan Ezekias eritu zen. Isaia profetak ikhusi izan zuen eritasun hartan, eta mintzatu zitzaion hitz hautaz: xuxen-zatzu zure etxe-ko egitekoak, ez da zuretzat bizirik: hillen zara eritasun hortarik. Orduan

Ezekiasek altxatu zuen bihotza zerurat, eta egin zion Jainkoari othoitz hau: Jauna, othoi, orhoit zaite egiari yarraiki natzaiola bihotz zure arabereko batekin, eta nik egin guziak zure gogara izan direla. Yarri zen, denbora berean, nigarretan.

Isaia tenpluaren erdirat heldu gabe, Jainkoak erran zioen: bihur zaite Ezekias ene popularean aitzindariaganat, eta erran diozozu sendatzen dudala orai beretik, tenplurako dela hirur egunik barnean, eta biziren dela oraino hamabortz urthez. Ezekiasek galdegin zion profetari: zertarik hartuko dut sendaturen naizela, eta, hirur egunik barnean, helduko naizela tenplurat? Isaiak ihardetsi zioen: huna zertarik ezaguturen duzun gauza hori: nahi duzu iguzkiaren itzala dohan hunen bertzez aitzinat; ala nahia-go duzu dohan gibelat? Ezekiasek erran zuen horren gainean: gauza errexa da iguzkiaren itzala dohan aitzinat; ez dut hori galdetzen, bainan galdetzen dut dohan gibelat: Jainkoak, ordu berean, gibelarazi zuen Isaiaren othoitzerat, iguzkiaren itzala Ezekiasen nahiaren arabera. Molde huntan izan zen sendatua, mirakuillu batez, errege prestu hura. Bizi izan zen, Isaiak erran bezala, oraino hamabortz urthe.

Ezekiasek zerutik izan zituen laguntza miragarriek irakhatsten darokute, gure Jainkoa ekharria dela guzia haren lege saindua leihalki begiratzeten duteneen alderat, eta badaukala halakoez artharik handiena. Egia da bada arima Jainkotiarrak ez direla, munduko iduriz, bethi dohatsuenak; ordean gaiten seguratuak behere huntan yasaten dituzketen lazeriak eta atsekabeak, hanbat Jainkoaren amodioaren fagore seinalatu direla, izan-araziren diotenak zeruan bere berthutearen gollardo guziz dohatsua.



## CXXIV. KAPITULUA

### Jerusalem sethiatua eta sutan emana

4. Er. 25.

Bazuen bederatzi urthe Sedezias Judako errege zela, Nabukodonosorek sethiatu zuenean armada handi batekin Jerusalemeko hiria. Ejiptoko erregek entzun zuenean sethio haren berria, eman zitzaion bideari nahiz Sedezias lagundu. Nabukodonosorek, ez izatekotzat egiteko, betan, bi etsaiekin, altxatu zuen sethioa, eta athera zen Ejiptoko armadaren biderrat. Yuduek uzte izan zuten libro zirela etsaiekarik, eta yarri ziren bozkarioan. Bere profeta faltsoek hala sinhets-arazten zioten. Bertzela mintzo zen Jeremia. Huna profeta haren hitzak: zuen laguntzerat heldu zen armada bihurturen da bere lekhurat. Kaldeendarrak hunako dire berriz ere. Atakaturen, harturen eta sutan emanen dute hiri hau. Ez duzue zeren zuen buruei eman kaldeendarrak bere herrirat bihurtuko direla. Ez, ez, ikhusiko ditutzue oraino hemen; gehiago dena, emanen duzue heien armada hurren guzia zathitan; ordean hetarik zenbeit bakhar itzuriko dire zuen eskutarik, eta hek izanen dire zuen hiriari su emanen diotenak.

Gauzak, Jeremiak erran bezala, gerthatu ziren. Nabukodonosorek sethiatu zuen Jerusalem bigarren aldian. Hiri handi eta eder hura ezin erranezko hersturan edireten zen: ogiak arras eskas egin zuen. Saltzen zituzten gauzarik baliosenak yanari sari. Ezin bertzela eginez, bizi ziren likhitzkeria desgustagarrienez. Zer ikhusgarri dorphe! Azkenaz goiti, amek yaten zituzten bere umeak, mundurat eman bezain laster. Herstura izigarri hura etzen bakharrik yende xehentzat eta erromesentzat, den aberatsenak eta frankia guzian ohituak, etziren guphidetsiakoak, etzuten bertzek baino gutiago pairatzen golletearen partetik.

Kaldeendarrak sarthu ziren, Jeremiak erran zuen bezala, Jerusalemeko hirian. Egin zuten sarraski izigarri bat; etzuten izan nihortaz urrikalmendurik. Zahar, gazte, gizonki, emazteki, hitz batez, hurren guziek zorte bera izan zuten. Gutiak ziren bizia galdu etzutenak. Etsaiek etzuten deusere utzi dela hirian, dela tenpluan, yabetu ziren beretzat on zituzten guziez. Bizirik utzi ziren gehienak izan ziren gathibu eramanak. Zenbeit nekhazale bakhar gelditu ziren lur lanei hots ematekotzat.

Nabukodonosor egin zen yakintsun Jeremiak nola erran zioten yuduei Jerusalem hartua izanen zela, erakharri ere zituela largatzerat, onez onean, bere buruak etsaieen eskularat. Bazakien oraino yuduek dorpheki

yazari zioteia profeta hari, zeren egiaz mintzatu zen. Errege hark atherarazi zuen berehala presondegitarik gizon saindu hura; eta izan zuen harentzat haren saindutasunari zor zitzaizkon amodioa eta errespektua.

Jerusalem hartu zeneko, Jeremiak gomendatu zioten Jainkoaren beldurrean bizi ziren aphezai, aldaratzeaz eta emateaz lekhu seguretari tabernaklea, allientziaren arka eta urrin-onerako aldarea; emateaz orobat zenbeit lekhu gordetan holokausteen aldarearen gaineko su sakratua. Hauk guziak egin ziren Jeremiak manatu zuen bezala. Profeta hunek erran zuen gauza gordearazi zituen, eta aiphaturik heldu garenak, agerturen zirela denboraekin, erran nahi da, Jainkoak bilduko zuenean baterat bere populu barraiatua, eta eginen zioenean miserikordia.

Jainkoaganat zinez itzulia dena deskantsu datza munduko nahikabe guzien erdian. Bihotzean dakharke bere salbatzaille maitea, eta ordutik herekin du behar duen guzia. Alferretan yazartzen zioten Jeremia profetari. Mehatxuak, presondegiak, gatheak etziren gai kantitzeko haren fede bizia. Etzakien egia zaurtzen. Libertate saindu batekin mintzo zen, Jainkoaren nahiak hala manatzen zuenean. Oxala leihaltasun bera bagindu gure eginbidetan, eta Jainkoak gureganik galdetzen dituen gauza guzietan! Errankisunak edo errespektu humanoak ez gaituzte behar behinere gibelatu gure Jainko handiari yarraikitsetik. Mundu huntan ez bada, bederen bertzean aurkhituren dugu ungiaren saria.





## CXXV. KAPITULUA

### Jerusalemeko tenplua eta hiria erreberituak

#### 2. Esdras 2.

Yuduak egon ziren gathibutasunean, Jainkoaren erranaren arabera, hiruretan hogoi eta hamar urthez: heien buruan, Zirus Persako erregeak eman zioten libertatea bihurtzeko bere herrirat, eta erreberitzeko Jerusalemeko tenplua; eman ere ziotzaten tenplu hartako gauza sakratu Babiloniako erregeek beretu zituztenak. Yuduak lothu zitzaizkon Judako bideari: heltzen ziren berrogoi eta bi milla gizonetaraino. Bazituzten bere buruzagiak: heien arteko phuruenak ziren Zorobabel printzea Dabiten ethoritik heldu zena, eta apezhandi bat.

Yuduak bere herrirat zirenetik laster, bildu ziren Jerusalemerat. Erreberitu zuten holokaustean aldarea, eta hasi ziren ofrendatzen Jainkoari sakrifizioak. Handik urthe baten buruko egin zuten allegrantzia handirekin tenpluaren asentua. Ordean halako moldez hartu ziren samaritarrek non yuduak izan baitziren debekatuak obra aitzinatzetik: utzi behar izan zuten beraz tenplua erdi hasia, eta hala egon zen hamasei urthez eta gehiagoz.

Arte luze hartan iraungitu izan zen yuduen kharra. Eman ziren etxe ederren egiten beretzat, hurren orhoitu gabe Jainkoaren etxeaz: bada, zioten, oraino muga. Jainkoak erran zioten profeta baten ahoz: noiz nahi den muga da zuen egoitza, etxe ederretan egiteko, eta ni, etxerik gabe aurkhitzen naiz. Zohazte mendi gainetarat, ekhar etzatzue behar diren zurak: egizue ene etxea: atsegin eginen darot, eta ene loriak diztaturen du haren barnean.

Yuduek errespektuekin hartu zuten Jainkoaren manua. Ardietsi zuten bere aitzindaritarik Jaunaren etxea egiteko libertatea, eta lothu zitzaizkon lanari. Obra osatu zuten hasia izan zenetik lau urtheen buruko, eta populua abiatu zen ohoratzen Jainkoa bere etxe sainduan.

Persako erregeek eman zioten yuduei tenpluaren erreberitzeko libertatea; ez ordean Jerusalemeko murruean altxatzekoa; horra zergatik egon zen hiri hura, asko urthez, idekia alde guzietarik. Nehemias deitzen zen yudu prestu bati urrikaldu zitzaion hiri saindua. Othoitztu zuen bere erregea utzteaz goaterat Jerusalemerat erreberitzekotzat hango dorreak eta murrak. Errege erori zen Nehemiasen nahitarat; eman ere zioen

Judako buruzagitasuna. Nehemias etzen hain laster Jerusalemen sarthu, non hasi baitzen lanean, yuduek laguntzen zutelarik khar handienarekin. Ordean ingurutako printzeek egin zuten bere artean etzutela behar utzi Jerusalem erreberitzerat. Nehemiasen yakin zuenean printze hek bidean zirela, altxatu zioen bere bihotza Jainkoari, eta hartu zituen bere arrimuk buru egitekotzat etsaiari. Berekin zuen gazteriaren erdiak etzuen lana utzi, eta bertze erdia armatua zagoen gudukatzeko. Gauza miragarria! Langileak berak ikhusi izan ziren palota esku batean, eta ezpata bertzean. Printze hek ezin konplitu zuten here nahia: bihurtu behar izan ziren bere lekutarat. Denborarekin Jerusalemeko hiria izan zen murru sendoz inguratu, eta etzuen nihoren beldurrik.

Nehemiasen eman zituen gauza guziak erregelari Jerusalemeko hirian. Egin zituen bere egin ahalak bihur-araztekoztat Jainkoari zor zioten ohorea. Debekatu zuen lana larunbatetan: ordu hetan larunbata zen orai igandea bezala. Etzuen nahi hiriko atheak idek zitezen egun saindu hartan, ez eta egin zadin batere traturik.

Oxala giriztinoek begira baletzate igande, beztak, yuduek larunbatak begiratu behar zituzten leihaltasunarekin. Urrun da ordean hainitzek santifikatzen baidituzte egun saindu hek yarraikiz ofizio dibinoi, ihes eginik bekhatuzko bidei, egitekoen barraiadurari eta sakramendutarat hurbilduz. Aitzitik, Jainkoak beretzat konsekratu eta aldaratu dituen egun hek berak ahal dire, ondikoiz! zinetan haren maiesyate adoragarria aurkhitzen baida gehienik arbuatua eta ofentsatua.

Nehemiasen etsenpluak irakhatsten daroku nolako artha izan behar dugun Jainkoaren lorifikatzeko, eta gure bihotzen sustatzeko haren aldetako khar sainduaz. Erran daite gizon saindu hartaz J. D. Paulek bere buruaz erran duena etzuela gudurik baizen, dela kanpotik, dela barnetik. Eta, egiaz, Jainkoaren populuaren etsaiek etzioten utzten bakerik, eta bazituen hiriaren barnean profeta traidore batzu haren izitzerat hari zirenak, eta bere xede laudagarritarik gibelatu nahi zutenak. Ordean zer dire gizonen gaixtakeria eta egin ahal guziak Jainkoa alde denean? Zer laguntza ez dezake ardietsi arima Jainkotiarrek, zeruko aita bere umeak hanbat maite dituenarenganik?



## CXXVI. KAPITULUA

### Susanaren garbitasuna

Susana zen Elziasen alaba eta Joakimen emaztea. Haurdanik bere burasoez altxatu izan zuten, ez munduaren, bainan bai Moisen legearen arabera. Bi gizon adinetako, populuaren yuie zirenak, maiz zabiltzan Joakimen etxerat. Harat biltzen ziren hauzirik edo eskatimari xuritzeko zutenak. Bi gizon zahar hek izan ziren hartuak Susanaren alderako su zoro batez. Biek erituak zituzten bere bihotzak; ahalke ziren elkarri bere eritasunaren aithorra egiterat; ordean hartarat ziren, emeki-emeki, eta bere artean egin zuten behar zutela atzeman Susana bakhar-bakharra.

Bero handi bat hari zen egun batez, Susana nahi izan zen freskatu. Sarthu zen bere baratzeko ur batean; egorri zituen bere emazteki sehiak handik, eta hertsu zuen baratzeko athea. Sehiak etziren hain laster urrundu, non bi gizon zaharrak athera baitziren gordeak ziren zokhotarik, eta hurbildu baitziren Susanaganat. Deklaratu zioten emazte hari, bere xede ahalkagarria, eta erran zioten: baldin ez bazara erortzen guk nahi dugunerat, hedaturen dugu berria aurkhitu zaitugula adulterioko bekhatuan.

Susanak artiki zuen hasgorapen min bat, eta erran zioten bi gizon dohakabe hei: ez dut ikhusten, alde guzietarik, hersturarik eta hirriskurik baizen. Egiten badut zuen nahia, hil-arazten dut ordutik ene arima; berriz, ez egiterat zuek nahi duzuen, etsi ahal dezaket ene biziaz. Guziarekin, hanbatik hanbatean, nahiago dut erori zuen eskutarat, egin gabe gaixkirik, ezen ez ene Jainkoa ofentsatu. Hitz hauk erratearekin egin zuen oihi handi bat; zaharrak ere abiatu ziren orobat oihez, eta hetarik batek ideki zuen baratzeko athea. Harat ziren berehala Susanaren etxeko sehiak. Zaharrek sinhetsarazi zioten nahi zuten guzia. Sehi hek harrituak eta ahal-katuak egon ziren: etzuten alabainan, urrun da, egundaino entzun deus halakorik bere etxeko andrea.

Biharamunean, populua, ohi bezala, bildu zen Joakhimen etxerat. Bi zaharrek erakharri zuten Susana. Agertu zen guzien aitzinean begiak nigarretan eta altxatuak zerurat. Etzen marraskarik baizen haren ahaide eta ezagunetan. Bi zahar hek ezarri zituzten bere eskuaz Susanaren buruaren gainean, eta erran izan zuten adulterioan atzeman zutela emazte hura; nahi izan zirela yabetu harekin zen gizon gazte hartaz; ordean hek baino hazkarragoa izanez, eman zitzaioela ihesari. Etxe hartan ziren guziak sinhetsu zuten gauza, etzuten uzte egin ahal ere zitekela, den gutiena, duda-

rik halako bi gizonen erranaren gainean. Susana kondenatua izan zen bizia galtzerat. Entzun zuenean bere sententzia, abiatu zen mintzatzen hunela: Jainko zerukoa, badakizu gauza gordeak diren guzien berri: bada-kizu zer lekhukotasun izan den ene kontra, eta hiltzerat naramatela hobendun izan gabe asmatu duten gaixkiaz.

Jainkoak entzun zuen Susanaren othoitza. Harrikatua izaterat zohala, Daniel gazteak erran zuen, hitz goraz: ez naiz behintzat emazte hunen odolean batere kutsatzen Israelgo umeak, kondenatu duzue Israelgo emazteki bat ezagutu gabe egia. Emazue bigarren yuiamendu bat; ezen zuzen kontra da lehenbizikoa. Populua bihurtu zenean bere lekhurat, Danielek erran zuen: berex-zatzue bi zaharrak elkharganik, eta nik interrogaturen ditut. Hastandu zirenean bata bertzeaganik, Danielek galdetu zioen hetarik bati: ikhus duzunaz geroz emazte hura bekhatutan, erran diezadazu zein lekhutan ikhusi duzu? Zaharrak ihardetsi zuen: hulako lekhutan. Danielek erakharri zuen bertzea, eta egin zioen galde bera. Bigarren zaharrak ihardetsi zuen bertze lekhu batean ikhusi zuela gaixki handi haren egiten. Orduan guziak hasi ziren erraten: bedi Jainkoa benedikatua. Artha daduka haren baitan fidantzia dutenez: ikhusi zutenean bi zahar gaixtagin hek gezurtatuak eta konfundituak bere aithorraz beraz, yazarri zioten berei, eta izan ziren kondenatuak berek ernazteki prestu hura kondenatu zuten heriotze bererat. Susanaren ahaide eta ezagun guziak yarri ziren eskerrak Jainkoari bihurtzen. Ordutik Danielen ospea hedatu zen bazterretarat.

Elizako aitek ederretsi dute, zuzen den bezala, Susanaren fermutasun saindua. Emazte Jainkotiar hunen etsenplua aurkhitzen dut dela zaharrentzat ahalkagarria bezain emaztekiekintzat ohoragarria. Zer herstura Susanarentzat! edo behar du egin gaixkia, edo behar du etsitu bere biziaz. Aithor agun badela halako ordutan berthute funtsesko baten behar guzia. Susanak gehiago prezatzen du Jainkoarenganako leihaltasuna, ezen ez behe huntako ontasunak eta bere bizia bera. Bazakien denbora gutitako gabela mundu huntan: ez dugula urtherik, egunik ez eta orenik gure eskuko. Nahiago izan zuen utzi bere burua tormenta guzietarat, eta seguratu bizitze dohatsu bat iraunen duena eternitate guzian.



## CXXVII. KAPITULUA

### Hirur gizon gazte labean. Nabukodonosor abere billakatua

Nabukodonosorek eragin zuen urrezko idola bat hirur hogoi beso gora zena: bildu zituen bere erresumako handi guziak egitekotzat figura haren dedikazionea: manatu zioten bere azpiko guziei idola haren adorazteaz, zioelarik artik-araziren zituela sutan zen labe baterat haren manua konplituko etzutenak. Kaldeendarrek beltzuri egiten zioten Ananias, Mizaeli era Azarias, zeren erregek altxatu zituen bertzez gorago: nahiz hei yazarri, erran zioten erregeri hirur gizon hek arbuiatzen zituztela haren legeak, etzutela nahi adoratu haren idola. Erregek erakharri zituen berehala bere aitzinerat Ananias, Mizael eta Azarias, eta erran zioten: egia da bada ez duzuela adoratzen nik eragin dudana idola? Hori horrela bada, artik-arazten zaituztet labeko surat. Zein Jainko izanen da orduan ene eskutarik libratuena zaituztena? Hirur gizon gazte hek ihardetsi zioten erregeri: guk adoratzen dugun Jainkoak athera gaitzake errexi labeko kharretarik eta zure eskutarik; ordean ez baleza ere hori egin, yakin ezazu, o! erregea, ez dugula ohoratzen zure Jainkorik eta zure idolarik. Fermurasun saildu hau gaitzitu zitzaion erregeri: idoitatua zadukan bere burua gizon gazte hetaz. Artik-arazi zituen labeko su bizirat. Su hura hain zen handia non erre baitzituen hek harat artiki zituztenak. Gauza miragarria! su hark erre zituen Ananiasen, Mizaelen eta Azarasek lokharriak, eta etzioten berei minik batere egin.

Nabukodonosorek ikhusi zuenean mirakuillu hura, ilki-arazi zituen sutik Ananias, Mizael eta Azarias. Manatu zuen etzela, biziaren penan, adoratu haren erresuma guzian hirur gizon gazte hek adoratzen zuten Jainkoa baizik.

Nabukodonosor Ejiptoaz yabetu zenean, eta etsai guziak garaitu zituenean, ahantzi zitzaion bere burua erresumako nahikara eta atseginen erdian. Orgilleriak hantu zioen bihotza; ordean ala izan baitzen humilia-tua! Egin zuen amets bat ezagut-arazten zena Jainkoak haren kontra ekhartzen zuen yuiamendu garratza. Errege hark etzuen nihor ediren bere erresuman gai zenik emateko amets haren argitasuna. Othoitztu zuen Daniel deklaratzeko zer erran nahi zuen amets hark. Huna nola mintzatu zitzaion profeta: ikhusi duzu, o! erregea, arbola handi bat zeruraino heltzen zena, eta lur guziaren gainerat hedatzen zena: haren zura osoki

zen ederra: bazuen, yasan ahala, fruitu guzietarik: lurreko abereak haren itzalean bazkatzen ziren, eta aireko hegaztinek haren aldasketan egiten zituzten bere ohatzeak. Bada, o! erregea, zu zara ametsetan ikhusi duzun arbola hura bera. Zure handitasuna heltzen da zeruraino, eta hedatzen da lur guziaren gainerat. Ikhusi duzu yautsten zerutik izpiritu bat erran duena: pika eta artik zazue arbola hau: ez ordean athera lur barnetik hunen ondoa ez eta hunen erroak. Bizi bedi abereen baltsan, zazpi urthe bethez. Hitz horiek, ene Jauna eta ene erregea, ematen dute erakutsterat Jainkoak zure kontra ekharri duen, eta efetutan emanen den sententzia. Bai, desterratua izanen zare gizonen baltsatik. Biziko zare basa-abereen artean. Belharra izanen da zure yanaria idiarena bezala, eta zeruko ihintza eroriko da zure gainerat, ikhas dezazun artean Jainkoa dela erresuma guzien yabea, eta, hetaz, berari zaion guzia, egiten duena.

Danielek amets hartaz eman zuen argitasuna agertu zen efetutan. Errege, Babilonen eragin zituen obra miragarrien ederretsten hari zela, izan zen Jainkoaren zigorrada, bet-betan, zaurthua. Izan zen gizonen artetik khendua; egon zen, zazpi urthez, basa-abereen baltsan, gizonaren iduririk batere gabe. Printze dohakabe hark artiki zituen, herstura desolagarri hartan, begiak zerurat. Jainkoak urrikari izan zuen. Bihurtu zioen gizonaren iduria, ezarri zuen leheneko tronuaren gainean, eta egundaino baino ontasun handiagoen erdian.

Elizako aiteen arabera, hirur gizon gazte labe bizian zirenek irakhatsten darokute sailduak ez direla behinere urrikalgarri, ez eta ere tormenta guzien erdian. Jainkoak ez ditu nihoiz utzten bere maiteak, bethi bere artharen azpian daduzka. Haren ohoretan pairatzen dutenen bihotzetan edireten da. Eztitzen eta saristatzen ditu heien oinhaze eta sofrikarri guziak.

Zer bidegabe etzion erakharri Nabukodonosori bere orgilleriak! Zer punimendu lastimagarri etzuen behar izan yasan printze dohakabe hark! Ordean ez ditu hain laster altxatzen begiak zerurat non ardiesten baidu barkhamendua. Erran daite bekhatoreaz ere estatutik apherat eta kaltiarrenerat erortzen dela lege saildua hautsten duenean: ordutik bereganatzen du Jaunaren haserradura, eta merezitzen-tu gaztigurik garratzenak; ordean altxatzen dieneko bihotza bere salbatzaille amultsuari, behar den urrikiarekin, atheratzen da bere estatu ondikoizkorik, bereganatzen du Jainkoaren urrikalmendua, eta sartzen da galdu zituen zeruko zuzen guzietan.



## CXXVIII. KAPITULUA

**Belen idola.**  
**Daniel lehoinen baltsan.**  
 Dan. 14.

Nabukodonosorek utzi zioen, hiltzerakoan khoroa Ebilmedorak bere semeari. Haste-hastetik seinalatu zen printze hunen bihotz ontasuna. Athera zuen presondegitik Jekonias hogoi eta hamar urthe hetan burdinetan zena. Altxatu zuen bere ingurutan zituen errege guzietz gorago, era berekin yan-arazten zion, egun guzietz.

Danielek ere Ebilmedoraken mahainean yaten zuen, etzen bat hura bezain barna sarthurik erregeren bihotzean. Babilonen zuten idola bat munduak adoratzeko zuena, eta guziak hirrigarriki enganarazten zituen. Ofrendatzen zitzaizkon, egun oroz, hamabi zakhu irin hoberenetik, berrogoi zikhiro eta sei yarro handi arnoz betheak. Erregek ere adoratzeko zuten idola hura: bertzelako zuhurtzia zuen Danielek. Profeta hau sobera zen argitua eta fedez animatua ez hobeki arrazoinatzekotzat. Etzuen arbuiorik baizen Jainko faltsoentzat. Bethi egiazko Jainkoari zarrakon.

Erregek galdetu zioen: zergatik ez duzu adoratzeko Belen idola? Profetak ihardetsi zion: ez baidut batere sinhetsterik gizonen eginak diren Jainkotan; bainan bai zerua eta lurra egin dituen Jainkoa baitan. Uzte duzu bada, zioen erregek, Bel ez dela Jainko bizi bat? Ez duzu bada ikhusten nola, egun guzietz, yaten eta edaten duen? Danielek ihardetsi zuen hirri aire batekin: o! erregea, etzaitzela engana, Belek ez du yan egundaino; lurrez da egina. Errege sumindu zen aphezeko kontra; erran zioten hil-araziren zituela baldin Belek ez bazuen yaten; eta yaten balin bazuen, Danielek galduko zuela bere bizia Jainko haren blasfematzaile bezala. Guziak konpuntu ziren gauza horren gainean. Errege sarthu zen tenpluan, erakharri ondoan Belen aitzinerat yanari eta edari ohituak. Danielek, ordu berean, estali zuen hautsez idolarat heltzeko tenplu barneko bidea; eta athera zen handik erregerekin batean. Hertsu zuten tenpluko athea, eta ezarri haren gainean erregeren zigillua.

Idolaren aldarearen azpian zen athe gorde bat, eta handik sartzen ziren, gau guzietz, aphezak hartzekotzat Beli ofrendatzen zitzaizkon yan edariak. Gau hartan ere harat ziren bere emazte eta umeekin, eta iretsi zituzten idolaren aitzinean ziren yateko eta edateko guziak.

Biharamun goizean errege ethorri zen Danielek tenplurat. Aurkhitu zuten athea, berek utzi zuten bezala, eta bere zigilluarekin. Erregek ikhusi zueneko urrundarik etzela deusere Belen aitzinean ezarria zen mahainean, abiatu zen erraten idola hura errespektagarria zela, eta etzela gaixtakeriarik eta tronperiarik aphezetan. Danielek ezin baratu zuen bere hirria othoitztu zuen errege ez sartzeaz barnerat, eta ikhustez lurrean gizon eta emaztekin oinen arrastoak. Printze hark ezagutu zuen enganatzeko zutela. Har-arazi zituen aphezak. Aithortu zuten, bere gaixtakeria: kondemnatuak izan ziren heriotzerat. Ebilmerodakek erran zioen Danielem etzuela gehiago adoraturiko Bel, eta egin zezala idola hartaz nahi zuen guzia. Danielek egin zuen idola hura ehun zathi, eta tenplua bi erdi.

Babilonen bazen bertze Jainko faltso bat, hiri hartakoez adoratzeko zutena. Hura zen dragoin izigarri bat. Erregek nahi izan zuen erakharri Daniel idola haren adoratzeko, zioelarik: aithortu behar duzu hau bederen egiazko Jainko bizi bat dela. Danielek ihardetsi zion: o! errege, zuk hala nahi bazindu, ez nuke ezpataren ez eta makillaren beharrik dragoin horren hiltzekotzat. Erregek erran zioen: egizu nahi duzuna. Orduan Danielek egin zuen ophil bat bezala bikhez, urinez eta illez orhatua. Dragoinak leher egin zuen yan zueneko ophil hartarik.

Babiloniarrek yari ziren suminduran. Erran zioten erregeri, baldin ez bazioten libratzen Daniel eskutarat, hillen zutela bera. Errege izitu zen, eta largatu zioten profeta. Etzuten denborarik galdu: artiki zuten berehala lehoinen baltsarat. Egon zen, sei egunez, heien lekhu berean. Baziren zazpi lehoin goseak zaduzkatenak hobeki iretsteko gizon saildu hura.

Jainkoa orhoitzen zen bere zerbitzariak. Erran zioen, aingeru baten bidez, Habakuk profetari, heltzeaz bere langillentzat zaraman bazkariarekin Babiloniarat, Danielengana. Habakuk profetak ihardetsi zuen etzakie-la non zen ere Babilonia, eta hain guti zakiela Daniel aurkhitzen zen lekhuaren berri. Aingeruak hartu zuen illetarik, eraman zuen, momento batez, Babiloniarat, eta ezarri zuen lehoinak ziren lekhuaren hegian. Habakukek deithu zuen Daniel, erraren zioelarik: Jaunaren zerbitzaria, har ezazu hark berak egortzen darotzun bazkaria. Daniel mintzatu zen hitz hautaz: o! ene Jainkoa, orhoitu zara nitaz, gogoan dauzkatzu maite zaituztenak. Hitz hauk erran eta, emantzen yaten, eta aingeruak eraman zuen Habakuk hartu zuen toki bererat.

Zazpigarren egunean, errege hurbildu zen lehoinen egoitzarat. Hilla zadukan Daniel, auhendatzen ere zuen gizon saildu hura. Ordean ikhusi izan zuen profeta deskantsuki yaria lehoin guzien erdian. Errege harritu zuen guzia; erran zuen gora: Danielen Jainkoa, ala handia baitzare! khen-



arazi zuen berehala profeta lehoinen lekhotik, artik-arazi zituen harat haren etsaiak, eta izan ziren, begia itzul orduko, zathitan emanak eta iretsiak. Erregek erran zituen oraino hitz hauk: lurreko populu guziek adora bezate ikharaekin Danielen Jainkoa. Hura da hanbat mirakuillu egin duena lurraren gainean, eta Daniel athera duena lehoinen artetik.

Danielen saindutasunari, eta zerutik zituen fagore seinalatuei, etzagokoten izatea arbuiatua eta largatua lehoinen errabiarat; ordean zer da gizona urrunduz geroz Jainkoaganik, eta zer ez dezake egin bere itsumenduan? Egjaren argiak denborarekin sunsi-arazten ditu ilhunbe guziak. Bihurtzen zaio berthuteari zor zaion yustizia. Ebilmedorakek ezagutu zituen bere enganioa eta Danielen saindutasuna; ordu beretik, onhetsi eta errespetatu zuen profeta handi hura, yazarri zioten haren etsaiei berei, eta izan ziren lehoinenez iretsiak. Garrazki punituak balire konseillu gaixto emailleak, eta, bere gezurrez, bertzei bidegabe erakhartzen diotenak, hobenik gabeak ez litezke urrikaltzeko, gaztigu guziak eror litezke gaixtaginen beren gainerat; ordean zer gerthatzen ohi da? Ikhusiko dugu bert-hutea beheratua eta kondemnatua berriz gaixtakeria altxatua eta saristatua. Dezagun adora Jaunaren probidentzia zuhurra. Guziak gure oñetan egortzen ditu. Atsekabeak eta kalumniak berak dire zeruko hanbat dohain prezagarri salbamendurat darontsatanak.

## CXXIX. KAPITULUA

### Jonas itsasorat artikia.

### Ninibitarren penitentzia

Jonas zen profeta bat Joas Israelgo erregeren denboran bizi zena, Jainkoak erran zioen: loth zakizko bideari, eta hel zaite Ninibako hiri handirat. Entzun bedi han zure hitza; ezen hango bekhatuak igan dire ene beharritaraino. Jonas eman zitzaion bideari; ordean Niniba utzirik, hedatu zen Joperat. Han ediren zuen untzi bat bela egiteko menean zena Tharsiserat heltzeko. Sarthu zen untzi hartan nahiz ihes egin Jainkoaren presentziari. Jainkoak altxarazi zuen haize xirimola borthitz bat, itsasoa ere handitu zen; molde huntan, untzia hirrisku handitan aurkhitzen zen. Marinelak izituak ziren, eta artiki zituzten itsasorat asko traste eta gauza arintzekotzat untzia.

Jonas lo zatzen untzia zolan. Hurbildu zitzaioen pilotua, eta erran zion: utz ezazu lo hori, altxa zaite, othoitz zazu Jainkoa, agian gutaz orhoituren da, eta begiraturen gaitu heriotzetik. Erran zioten gero elkharri: Egin dezagun zorte yakitekotzat nor den herstura huntan erran-arasten gaituena. Zortea erori zen Jonasen gainerat. Orduan untzikoek galdegin zioten zer ofizio zuen, nongoa zen, eta nondik heldu zen. Jonasek ihardetsi zuen: Hebreudarra naiz, eta zerbitzatzen dut Jainko zerukoa, lurra eta itsasoa egin izan dituen: erran zuen oraino Jainkoaren presentziaren ihes zabillala, zeren etzen goan hark manatu lekhorat. Marinelek galdetu zioten: zer egin behar dugu itsasoko uhinen xeharaztekotzat? Jonasek ihardetsi zioten: etxa nazazue itsasorat, eta ordu beretik, ematu ko da denbora: badakit enegatik horrela handitu dela itsasoa.

Orduko hersturak eta Jonasek egiten ziotzoten othoitz doblatuek erakharri zituzten marinela, bere gogoaren bortxa, artikitzerat untzitik profeta hura. Eztitu zen berehala itsasoa; eta arrain handi batek iretsi zuen Jonas. Atxiki zuen, hirur egunez eta hirur gauez, bere sabelean. Gero eraman zuen leihorrerat, eta utzi zuen ur bazterrean.

Jainkoak erran zioen bigarren aldian Jonasi: zohazi Ninibarat, eta han predika zatzu nik zuri erran gauzak. Jonasek egin zuen Jainkoak manatu zioena. Sarthu zeneko hiri handi hartan, abiatu zen erraten: oraino berrogoi egun, eta Niniba desegina izanen da. Ninibitarrek sinhetsi zuten Jainkoaren hitza. Eman ziren barur egiten. Errege bera yautsi zen bere tronutik, bulhuzi zen errege bati zagozkon berregintzez, estali zen





zakhu batez, eta yarri zen hautsaren gainean. Erregek eman zuen manua gizonak eta aziendek etzutela batere yanen ez eta urik ere edanen barurutu behar zen egunean, eta guziek galdeginen ziotela elkharrekin miseri-kordia Jainkoari. Nork daki, ziotzon, ez duen izanen gutaz urrikalmendu, eta ez darokun barkhatuko? Erregek arrazoin zuen ezartzeaz bere fidantzia Jaunaren miseri-kordian. Hiri hura gal-arazteko ekharria zen sententzia dorphea etzen izan obretan emana. Populua bertze bat egin zen ordu beretik, Jainkoa ere ganbiatu zen haren alderat, eta izan zuen urrikalmentu Ninibako hiriaz.

Ninibitarren etsenpluak irakhatsten daroku zenbat zorigaitz dakharren bekhatuak, eta denbora berean, nolakoa den penitentziaren indarra; hiri handi eta oso batek bereganatu zuen zeruko haserradura saildua, eta funditua izaterat zohan hango populuaren gaixakeriengatik. Ordean populu hura, errege bera aitzinean, sartzen da bere baitan: ezagutzen du bere bekhatua: galdetzen du miseri-kordia bihotz urrikiz zaurthu batekin; eta ordu heretik, ahantzten bezala zaio Jainkoari hiri haren kontra ekharri zuen sententzia lazgarria: ez da orhoitzen bere bihotz ontasunaz baizik, eta barkhatzen-tu gaixki guziak. Zer erreflexione konsolagarri Jainkoagat zinez itzultzen den bekhatorearentzat!

## CXXX. KAPITULUA

**Eleazaren heriotzea.**  
**Ama baten eta haren**  
**zazpi umeen martirioa**  
 2. Machab. 6.

Antioqus yabetu zenean Jerusalem, largatu zen krudelitate guzietarat. Ez zitzaion aski nauti izatea bere populuaren ontasunez eta biziaz beraz. Nahi zuen oraino konzientzien gainean erreginatatu, mundu guziaz bortxatu Jainkoaren legeari ukho egiterat Jainko faltsoen adoratzekotzat. Huntarainokoa agertzen zen ondikoako errege haren errabia, non artikarazi baitzituen murru gainetarik bi ama erdi berriak estekarazi ondoan bi haurrak heien lephotarik, zeren zirkunzisu zituzten legeak manaten ziotenaren arabera. Etzen hurren yudu bat atrebitzen zenik erraterat yudua zela.

Bihotzak laztuak ziren denbora hartan berean, Jainkoak eman zuen, guzien begitarat, animozko etsenplu eder bat iziperak ahalkarazi behar zituen. Nahi izan zuten erakharri Eleazar deitzen zen gizon zahar eta errespektagarri bat, yaterat bere legeak debeketzen zioen gauzetarik; ordean gizon Jainkotiar hark gehiago prezatzen zuen heriotze lorioso bat bizitze laidotsu bat baino. Kondemnatu zuten bizia galtzerat. Haren adiskidek, urrikaldurik, othoiztu zuten onetsteaz ekhar ziozaten sori zitzaizkon yanaritarik, bertzek uzte izan zezatentzat konplitu zuela erregeren manua. Urrun da hartan eman baitzen gizon saildu hura. Huna nola ihardetsi zioten bere adiskide flako eta beldurtiei: nahiago dut galdu bizia ezen ez egin zuek diozuen. Ez dagoko ene adinari gezurrari darontsaten arrifizio txarrez baliatzea. Jainkoari nahi ez dakiola eman diozadan gazteriarri bide rik gutiena sinhetsteke, Eleazar ehun urthetarat dohana, paganokerian erori dela bere bizia begiratzeagatik. Ez, ez ditut aski maite gelditzen zaizkidan egun aphurrak egitekotzat halako gaixki bat, beiraturen naiz laidostatzetik ene adin handia; ez, ez da izanen errana deusere egin dukedala goibel dezakenik ene zahartasunaren ohorea. Nahi diotet presuna gazte zinan leihaltasun zinezko baten etsenplu bat, irakhatsiren diotena bereen bizia bera baino gehiago prezatzen Jainkoaren lege saildua.

Hiltzerakoan, Eleazarek artiki zuen hasgorapen min hat, eta erran zituen hitz hauk: ikhusten duzu, Jainko handia, ene nahirarat, eta zure ohoretan yasaten ditudan penak eta tormenta guziak. Ala atsegin baidu





ene bihotzak hauk guziak zuregatik pairatzeaz! Hunela hil zen gizon saindu hura bizitzekotzat eternitate guzian.

Huna fermutasun saindu baten bertze etsenplu bat ederra bezain ukigarria.

Antiokusek nahi izan zituen erakharri ama bat eta haren zazpi seme yaterat zilhegi etzitzaian haragitarik. Yazarri zioten gizon gaztei, bere amaren begietan, barbaria den handienarekin. Khendu ziotzoten buruko larrua, eta eman zituzten gizonaren iduririk etzuten estatuan. Ezarri zituzten oraino kaldera batzutan, eta supean behar zuten artiki azken hatsa. Tormenta hek guzien erdian, zaspi anaia hek adoratzten zuten humilki bere Jainkoa, eta aithortzen zuten bere bekhatuen arabera zirela punituak. Bihurtzen zioten Jainkoari allegeraki eta fidantzia oso batekin, haren berarenganik zadukaten bizia. Mintzatu zitzaizkon erregeri libertate saindu batekin; erran zioten bekhokirat, egun batez yakinen zuela zer den Jainkoaren nahiari bortxa egin nahi izatea.

Antiokus erregeak nahi izan zuen amoratu, lausenguz, haurride hetarik gazteena. Libratu zuek bere amaren eskutarat agian burasoak erakharriren zuela bere umea erregeri obedientzia egiterat. Ordean nonbait zabillan. Emazte pare gabe hark emazteki guzien eta ama guzien ohorea egiten duenak, hartu zuen bazterrerat bere semea, ez bere bizia begira zezala erratekotzat, bainan mintzatekotzat Jainkoaren handitasunaz, eta gizonen ezdeustasunaz. Ume gazte hura, bere amaganik lekhora, abiatu zen erraten oihuz, etzuela errege obedituko, leihal nahi zela egon Moiseren legearen alderat. Yazarri zioten bertzei baino oraino borthitzkiago.

Ama Jainkotierra etzen baratzen erakhartzetik bere zazpi semeak adoratzerat Jaunaren nahia, eta hartzerat pairakortasun saindu batekin bere pena eta sofrikari guziak: bere haur maite guzien heriotzearen lekhuo aurkhitu zen: berak ere izuri izan zuen, egun hartan berean, bere odola Jainkoaren ohoretan.

Ez ahal da halako eskolarik nola etsenplu ona, halako nausirik nola buraso prestu eta Jainkotierra. Zer bihotz min aipatu dugun amarentzat ikhustez, bere begietan bere semeak tormentetan, sarraskitan! Ordean fede sendo eta bizi batek iraungitzen eta hil-arazten zituen amatasunari datxeizkon sentimendu guziak. Egiazko kontsolazione bat bide zen buraso prestu harentzat ikhustea bere umeak hiltzen Jainkoarenganako leihaltasun guzian, burueuk, arrodek, suak batere kordokatu gabe heien fermutasun miragarria. Ume dohatsu hek Jainko legean altxatzeko amak izan zuen artha handiak, ez bide zituen guti lagundu herstura ikharagarri hartan.

## CXXXI. KAPITULUA

**Tobiak bista galtzen du.**

**Aingeru batek darama.**

**Ardietsten du bista**

Tob. 2. 5. 11.

Tobia saindua yudua zen, Neftaliko tributik atheratzen zen. Iskritura sainduak hartaz erraten daroku haurdanik prestua izan zela. Etzitzen Jainko faltsoak adoratzten, populuak bezala. Ibiltzen zen Jerusalemerat bere sakrifizioak egiazko Jainkoari ofrendatzekotzat. Izan zuen seme bat Jainkoaren beldurrean altxatu zuena. Hori zitzaioen ere buraso baten lehenbiziko eginbidea. Bere prestutasun guziaren erdian, etzen izan guphidetsia. Salmanazar Asiriako erregeak eraman zuen gathibu Ninibarat, eta harekin batean haren emaztea eta Tobia haren ume gaztea ere bai. Gathibutasunak etzuen Tobia Jainkoaren bidetik batere urrundu. Jainkoak saristatu zuen haren leihaltasuna: izan-arazi zioen grazia Salmanazarenganik. Errege hunek utzi zuen Tobia ibiltzerat nahi zuen lekhu guzietarat. Gizon saindu hau lehiatu zen gathibuen kontsolatzerat. Ediren zuen hetarik bat Rajesko hirian, Gabelus deithzen zena, behar handitan. Eman ziotzan gizon hari, prestamuz, hamar talent erregek berari eman ziotzan dirutarik. Tobiak artha guzizko bat zuen hillen ehortzteko: hori zen gauza debekatu bat. Gaitzitu zitzaion erregeri Tobiak hauts zezan haren manua. Nahi izan zuen bulhuzi bere ontasunez, baita hil-arazi ere. Tobia gorde zen bere adiskideen etxetan. Errege hil izan zen handik sei asteren buruko: orduan Tobia agertu zen deuseren beldurrik gabe; eta etzen baratu ehortzitetik, ohi bezala, hillen gorphutzak.

Tobiak othuruntza handi hat ematen zuen aldi batez, erran zitzaioen yudu bat hil zela. Altxatu zen mahainetik gorphutz haren lurpean ematekotzat. Haren adiskide guziek errateko kausitu zuten orduko Tobiaren egiteko moldeaz; ordean erran ahal guziak alferretan ziren, etzuen hillik utzten ehortzi gabe; pareta baten aldean lo zatzala, erori zitzaion begitarat, xori ohatze batetatik, zenbeit likhitskeria bista guzia eraman ziotena. Atsekabe min hunek etzuen asaldatu Tobiaren deskantsua. Iduri zuen, sekulan izatekotz, ordu hartan behar zuela zenbeit kontsolamendu bere emazteaganik; etzuen bizkitartean harenganik ere izan burlarik eta idoyik baizen. Ordean zer pazientzia eder etzuen erakutsten gizon saindu hark gerthakari guzietan!



Tobiak, hil baino lehen, erakharri zuen bereganat Tobia, bere seme gaztea. Eman ziotzan buraso Jainkotiar batek ume bati eman ahal diotzoken abisurik zuhurrenak eta ederrenak. Nola aita hark gauza guziak erregelatu nahi baitzitu ahalik hobekiena, erran zioen semeari bazuela hunen bertze diru Rajeseko hirian Gabelusen baitan, zohakola diru hura galdetzerat. Tobia gazteak hartu zituen bere burasoen abisu laudagarriak, ume on bati dagozkon sumetimendu eta errespektuarekin. Erran zioen aitari: ekharria naiz egiterat zuk manatzen darozkidatzun guziak. Ordean nola harturen naiz diru haren eskuratzekotzat? Gizon hark ez nau ezagutzen, ez nik ere hura; ez dakit, bertze alde, herri hetako bidea. Burasoak ihardetsi zioen: bilha zazu norbait harat, saritan, gidaturen zaituena.

Tobia gaztea etzen hain lasler athera etxetik, non bathu baitzuen gizon gazte ungi egin bat, bideari lothu nahia ziruriena. Etzizaion gogoratzen Tobia gazteari gizon gazte hura aingeru bat zela. Agur egin zioen ondoan, galdegin zion nongoa zen. Bertzeak ihardetsi zuen Israelgo ume-tarik zela. Bazinakike, erran zion Tobiak, Rajeseko bidea? Bai badakit, ihardetsi zuen aingeruak: ibilli naiz alde hetan, eta Gabelus gure anaiaren etxean ostatatzen nintzen. Tobiak erran zioen: zaude, othoi, aphur bat hemen: banoha yakintsun egiterat ene aita zure solasaz. Aita hark othoitza-razi zuen gizon gaztea sartzeaz haren etxean. Sarthu zenean, egin zioen Tobiari bere salutantzia, eta erran zioen: bozkarioa izan bedi bethi zurekin. Tobiak ihardetsi zuen: zer bozkario duke ni bezala ilhunbetan den gizon zeruko argia ikhusten ez duenak? Izan ezazu, erran zioen gizon gazteak, gogoa on, Jainkoak artha daduka zutaz: laster sendaturen zaitu. Tobia zaharrak othoitztu zuen gizon gaztea gidatzeaz haren semea Gabelusenganat, agindu ere zion bere saria.

Tobia gaztea eman zitzaion bideari. Oinen garbitzen han zela Tigreko urean, arrain izigarri bat athera nahi izan zen arribera hartarik haren iretsterat. Abiatu zen berehala oihuz. Aingeruak erran zioen: har ezazu arrain hori hegatsarik, eta erakhar ur hegirat. Hala egin zuen, eta arrain hura hil zen han berean. Aingeruak gomendatu zioen Tobiari aldaratzeaz arrain haren bihotza, haren hera eta haren mina, erraten zioelarik: gauza horien beharra baduzu erremedio sendagarri batzuen egitekotzat. Gazitu zuten arrain haren zathi bat, eta yan izan zuten hartarik bere bidean.

Handik zenbeit egunen buruan, hurbildu zirenean Rajeseko hirirat, Tobiak galdegin zion aingeruari zein etxetan nahi zen ostatatu. Aingeruak ihardetsi zuen: bada hemen gizon bat Ragel deitzen dena, zure tribuko da eta zure ahaidea. Alaba bat badu Sara daritzona. Gizon haren ontasun guziak zuretzat behar dire. Behar zara haren alabarekin ezkondu. Galde

diozozu haren aitari ezkontzan, eta emanen darotzu. Tobiak ihardetsi zuen: entzuna naiz izan dituela zazpi senhar, eta hil direla guziak. Gehiago dena: erran zait etsai gaixtoak hil izan dituela. Gauza bera gertha balakit, nola ume bakharra bainaiz, ene aitak baluke sekulako urrikia. Aingeruak erran zioen Tobiari: ez izan holako beldurrik. Etsai gaixtoak ezin egin diokozete gaixkirik xede onekin ezkontzen diren presuna Jainkotiarrei.

Ragelek begitarte arrai bat egin zioten aingeruari eta Tobia gazteari. Aphain-arazi zuen othuruntza handi hat. Ordean Tobia etzen nahi izan yarri mahainean, non etzioen Ragelek ematen ezkontzan Sara bere alaba bakharra. Aita hari ezkontza hura ona zitzaion bere alabarentzat; ordean ethorkizunak izitzen zuen. Aingeruak erran zioen Jainkoak Tobiarentzat zadukala haren alaba; bertze senharrak hil zirela zeren ez baitziren gai izateko Sara bere emaztetzat. Erakharri zuten Sara, eta egin zen han berean ezkontza.

Tobia onetsia eta arraiki ekharria zen Ragelen etxean; halarik ere, bethi gogoan zadukan bere aitarena; eta aingeruak nahiz harat hel-arazi lehen-bai-lehen, erran zioen ekharriren ziotzala Gabelusen diruak; eta Gabelus bera haren esteietan edirenen zela. Tobiaren burasoen bihotzak zaurthuak ziren damurik minenaz ez ikhustez bere semea. Urtzen hari ziren nigarretan; amak beregainki etzakien non zen; ezin kontsola zitekeien. Oi! ene seme maitea, zioen ama samur hark, damu gaixtorik, egorri zaitugula horren urrun. Zu zintugun gure begien argia, gure zahartasuneko laguntza, gure guzia. Etzinen behar gureganik hastandu. Denborak ditu ilkia zarela etxetik, eta etzara oraino ageri. Ama hark etzuen nihon sosegurik, bidez bide zabillan nahiz ikhusi bere semea nonbaitik ethortzen. Azkenean ikhusi zuen urrundarik bere ume maitea. Tobia gaztea, sarthu zeneko bere etxean, eman zen Jainkoa adoratzeko aingeruaren abisuaren arabera. Egin zioen bere aitari salutantzia, eta gantzutu ziotzan begiak hartu zuen arrainaren minaz. Buraso prestu hark ardietsi zuen ordu berean begietako bista. Sara, Tobia gaztearen emaztea ethorri zen, handik zazpi egunen buruan, bere senharraganat. Tobia zaharrak entzun zituen gizon gazte haren laudorioak, eta haren semeak harenganik izan zituen laguntza eta fagore guziak, nahi izan zuen saristatu haren karitate, emanik Sarak ekharri zituen ontasun guzien erdia. Orduan aingeruak erran zioten beharritat: benedikaz zuzue zeruko Jainkoa gizon guzien aitzinean; ezen miserikordia egin darotzue. Munduko atsekabe eta gaitzetarik iragan behar zinen; ordean egorri nau Jainkoak zure sendatzerat, eta libratzerat Sara zure semearen emaztea etsai gaixtoaren menetik. Ezen Rafael aingerua naiz. Horrekin batean, suntsitu zen heien begietarik.



Tobia eta haren etxeko guziak eman ziren ahuspez lurrean, eta benedikatu zuten Jainkoa. Tobia aita egon zen lau urthez itsutua; bazituen, hil zenean, ehun urthe iraganak. Utzi zuen seme bat bera bezain prestua.

## CXXXII. KAPITULUA

**Holofernek beretu nahi ditu  
bazer guziak.  
Judithen othoitzza eta antzea.  
Holofernek galtzen du bizia**

Nabukodonosorek eman zion bere gogoari bere azpiko behar zituela lurraren gainean ziren populu guziak. Holoferne, errege haren aitzindaria, yarri zen ehun eta hogoi milla gizonen buruan: bazituen, bertze alde, hamabi milla gizon zaldizko. Ikharan zaduzkan bazter guziak, desegiten zituen hiriak, eta lurrerat artikitzen idolak nahiz haren erregea izan zadin bakharra Jainkotzat adoratua.

Yuduak ikharari emanak ziren ikhuseaz Holoferne hurbiltzen heien erresumarat. Beldur ziren Jerusalemerentzat, eta Jaunaren tenpluarentzat. Egin zituzten bere egin ahalak begiratzekotzat bere buruak eta bere herriak. Altxatu zituzten bere bihotzak zerurat. Othoitztu zuten Israelgo Jainkoa arren begira zetzan etsaietarik. Eliazim aphez-handia, herriz herri zabillan animatzen israeldarrak, eta erakhartzen guziak Jainkoaren alderako leihaltasunerat.

Holoferne miretsia izan zen entzun zuenean israeldarrek buru egin gogo ziotela haren armadari. Galdegin ziotien berekin zituen moabitarren eta amonitarren printzei, zer ziren bada israeldarrak, bertzek bezala ez egitekotzat. Akior, amonitarren aitzindariak, ihardetsi zioen Holoferneri, israeldarrak azpaldion Jainkoaren laguntzaz fagoratuak zirela, bethi dohatsu eta garaitiar izan zirela Jainkoa bere alde zutenean. Hala-hala, garaitzen zirela Jainkoaganik urruntzen ziren ordu beretik.

Holofernek eta haren bertze aitzindariak gaitzetsi zuten Akioren solasa, eta erran zioten: eman zaite, zu ere israeldarren baltsan, eta ikhusearen duzu lurra baduenez Nabukodonosorez landan, bertze nausirik, eta badenez Jainkorik errege handi hura baizen. Holoferneren soldaduek amarratu zuten Akior haritz bati; ordean israeldarrek libratu zuten berehala handik, eta eraman zuten Bethuliako hirirat.

Holoferne nahi izan zen Bethuliaz yabetu. Ezarri zuen hersturarik handienean, etzuen utzten ur ihintz bat ere hiri hartan sartzerat. Populua izitua zen; beldur zen bizia gal; erortzerat zohan asiriarren eskutarat, Oziasek ez balu hartarik gibelatu. Erakhartzen zituen guziak fidantzia izaterat Jaunaren miserikordietan, eta aphur bat igurikitzerat. Erraten zioten:



baldin ez badugu borts egunen buruko nihongo laguntzarik, eginen dugu galdetzen duzuen, eroriko gare etsaieen eskularat.

Oziasen hitzak hedatu ziren Judithen beharritarat. Judith zen alhargun aberats bat, ederra, eta bere emazteki sehiakin etxe barnean bizi zena. Barurtzen zen urtheko egun guzietan, lekhat larunbatetan. Estimatu zen hiri guzian, zeren Jainkoaren beldurrean bizi zen: nihork etzuen haren baitan edireten erratekorik xumeena. Erakharri zituen bere aitzinerat Ozias eta hiriko zaharrak, eta erran zioten: nondik heldu da Oziasen laudatu baidu hiria eror zadin asiriendarren eskularat, ez bazinduten laguntzarik borts egunik barnean? Zer zarete horrela tentatzeko Jainkoa? Zuei dagotzue bada ephe bat ematea Jaunaren miseriakordiarri, eta ezleyitza hulako egun laguntzarentzat? Egizue gaixki hortaz beraz penitentzia, eta galde zazue nigarretan barkhamendua.

Oziasen eta haren lagunek erran zioten Judithi: badakigu emazteki, saildu eta Jainkoaren beldurti bat zarela: gomendatzen gara zure othoitz onetarat. Judithen ikhusi zuenean bakharrik zela, emantzen othoitzetan, ahuspez, lurrean; altxatu zenean yauntzi zituen bere soinekorik ederrenak, eta athera zen Bethuliatik bereganatzen zituela mundu guziaren begiak eta admirazionea. Hiritik ilki bezain laster, hartua izan zen Holoferneren soldaduez. Judithen erran zioten, mintzatu nahia zela, buruz buru, heien aitzindariarekin. Eramana izan zen Holophernerenganat. Egin zion aitzindari hari bere salutantzia, ahuspez yarririk: erran zioen utzi zituela israeldar bere herritarrak, zeren tarritatu zuten Jainkoa bere bekhaturez, eta Jainkoak egortzen zuela hari erraterat laster yabetuko zela Jerusalemek eta alde hetako bazter guzietan.

Holoferne lilluratua aurkhitzen zen Judithen edertasunaz eta solasaz. Manatu zuen emateaz emazteki miragarri hari bere mahaineko yanaritarik. Judithen etzuen nahi izan yan ekharri zitzaizkon gauzetarik; othoitztu zuen Holoferne ez gaixki hartzeaz baldin yaten bazuen berekin zituen yanaritarik. Holofernek erran zioen horren ganean: eskasturen zaizkitzunean yateko gauzak, nola egin beharko dugu? Judithen ihardetsi zioen: Jauna, zure zerbitzariak yanen dituen baino lehen berekin ekharri dituen yatekoak, Jainkoak konplituko du, ene eskuz, hartu dudana xedea.

Handik lau egunen buruko, Holofernek eman izan zuen othuruntza handi bat, zeinetan Judith aurkhitzen baitzen. Emazte Jainkotiar hark etzuen deusere yan bere sehiak aphaindu zituen gauzetarik baizen. Holofernek edan zuen horditzerainokoan, mahainetik lekhora, athera zen mundua, eta Judith bakhar-bakharra edireten zen Holoferne hordiarekin. Manatu zioen bere sehiari egoteaz, kanpoko aldetik, gelako athearen aitzin-

ean, eta han zelatatzeaz. Arte hartan Judith bera ohearen oinetan zagoen nigarretan, zioelarik: Israelgo Jainko Jauna, borthitz nazazu, eta lagun nazazu obratzen egin ahal nezakeiela uzte izan dudana gauza. Hitz hauk erran ondoan, hartu zuen Holoferneren sabrea, itze batetarik, athera zuen maginatik, altxatu zituen begiak zerurat, lothu zitzaion aitzindari supher hari illetarik, eta ebaki zioen burua bi sabre kolpez. Erran zioen bere sehiari emateaz buru hura bere zakhuan.

Judith eta bere sehia ilki ziren, ohi bezala, kanpatik, othoitz egiteko itxuran, eta hedatu ziren Bethuliako athetarat. Alhargun sailduak egin zioten oihu soldaduei: idek-atzue atheak; ezen gurekin da Jainkoa, eta seinalatu du egun bere botherea Israelen. Hiriko athetan ziren soldaduek ezagutu zuteneko Judithen boza, deithu zituzten hiriko zaharrak. Berria hedatu zen berehala guzietarat, eta mundu oste bat hurbildu zen Judithen ingurutarat. Judith eman zen lekhu gora batean, eta ixildu zenean mundua, hasi zen erraten: lauda zazue Jainko Jauna: ez ditu abandonatu haren baitan fidantzia zutenak. Hil izan du, gau huntan ene eskuz, bere popularen etsaia. Erakutsi zioten Holoferneren burua. Mundu guziak adoratatu zuen Jainkoaren pribidentzia, eta eman ziotzon milla benedikzione Judith prestuari.

Erakharri zuten Akior, eta Judith mintzatu zitzaion hitz hautaz: bihurtu diozu lekhukotasuna Israelgo Jainkoari. Haren botherearen obra da nik burua ebakitzea gaixtagin guzien aitzindariari. Zuri erakutstekotzat egia diodala, huna Israelgo Jainko arbuiatzen zuen, eta zu hil-arazi nahi zintuenaren burua. Akior eman zen Judithen oinetan, eta bethe zuen benedikzionez alhargun miragarri hura. Gehiago egin zuen: huntaraino ederretsi zuen Jainkoaren bothere miragarria bere popularen alderat, non ukho eginik idolatriari yari baitzen Jainkoa adoratzen.



## CXXXIII. KAPITULUA

**Estheren humiltasuna.**

**Mardokeen ohorea.**

**Amanen heriotzea**

Esth. 1. 6. 7. 8.

Asuerus Persako erregeren denboran, aurkhitzen zen Susako hirian yudu bat Mardokee zaritzona. Harat eramana izan zen Jerusalemetik, Nabukodonosoren manuz, Jekonias Judako erregerekin batean. Yudu hark zuen ilhoba bat, bere anaiaren alaba, Esther deithzen zena. Haurdanik galdu zituen bere burasoak, eta Mardokeek altxatu izan zuen bere umea bezala.

Esther zen emazteki eder bat. Asuerusek utzi zuenean Basthi erregina behin-bethikotzat, nahi izan zuen bat berezi bere emaztetzat erresumako emazteki eder guzien artean. Hetanik zen Esther. Guziak agertu ziren, aldizka, Asuerusen aitzinean. Emanak ziren berregintzarik handie-nean hobeki seinalaraztekotzat bere edertasuna. Bazen manua hei emateko galdetzen zituzten edergaillu guziak.

Estheren aldia ethorri zenean agertzeko erregeren begietan, etzuen galdegin aphaindurarik, hartu zuen eman zitzaiona. Izan zen erregeren gelarat eramana. Printze hark ikhusi zueneko, maitatu zuen bertze guzien gainetik; ezarri zioen buruaren gainean khoroa, eta ezagutu zuen erreginatzat, Basthiren orde, ezkondu zen beraz Estherekin, eta eman zioten esteietako othuruntza eder bat bere gortheko handi guziei.

Estherek etzioen nihori salatu yudua zela. Yarraiki zitzaion hortan Mardokeen gomendioari. Osaba hura khexu zen nahiz yakin zer izanen zen Estherez. Hargatik ere zabillan, egun guzietz, erregeren palazioaren ingurutan. Hala zabillala, ezagutu zuen palazioko bi aitzindariak erregeren biziari nahi ziotela. Berehala egin zuen Esther egiteko hartaz yakintsun, eta Estherek errege, erran ere bazioen nor zen abisu haren emaillea. Ibilhi ziren argiketean. Akusatuek ezin gerizatu zuten bere gaixkia, eta izan ziren heriotzerat kondemnatuak. Gauza hauk guziak iskribatuak izan ziren, erregeren manuz, erresumari zatxeizkon paperetan.

Denboratsu hartan, Asuerusek eman izan zioen bothere handi bat Aman deithzen zen, eta Agag-ren ethorkitik heldu zen bati. Yar-arazi zuen bere aldean, bertze handi guziena baino gorago zen tronu batean. Palazioaren athean ziren erregeren zerbitzari guziek behar zuten eman

belhaun bat lurrean Amanen aitzinean, eta hura adoratu. Hala zen erregeren manua. Mardokee gerthatu zen bakharra, Aman adoratu nahi izan etzuen. Gauza hori gaitzitu zitzaien erregeren zerbitzariari, egin ere ziotzoten bere errenkurak. Orduan Mardokeek erran zioten yudua zela, eta gerorat ere orobat eginen zuela: berri hura hedatu zen Amanen beharritarat. Aman yarri zen suminduran Mardokeen kontra. Egin zuen yuramentu gal-araziren zuela, eta harekin batean Asuerusen erresuman ziren yudu guziak. Hortakotzat erran zioen erregeri: badire zure erresumako probintzia guzietan, bere gisako gizon batzu zure lege eta zeremonien arabera bizi ez direnak, arbuatzen ere dituztenak zure manuak. Badakizu hulako atrebentzia batek ondore gaixtoak dakharzkeiela. Mana zazu, othoi, hek guzien hil-arazteaz. Erregek erran zioen Amani nahi zuen guziaren egiteko eskua.

Manu ondikozko haren berria hedatu zen Susako hirirat eta erresumako bazter guzietarat. Manu hark zakharken, hulako egunez, erresuma hartan ziren yudu guziek galduren zutela bizia, eta heien ontasunez yabturen zirela nahi zutenak.

Manu hark damustatu zituen yudu guziak. Mardokeek hautsi zituen bere soinekoak, eta agertu zen palazioko plazan zakhu batez estalia, seinalatzen zuela, bere oihi minez, bihotzean zuen atsekabe hiragarria.

Estherek entzun zituen Mardokeen berriak: egorri zioen mandataria bat, nahiz yakin zerk halakatzen zuen. Mardokeek gaztiatu zioen nolako manua ardietsi zuen Amanek, eta behar zioela galdegin erregen grazia bere popularen fagoretan. Esther etzen lan gabe. Etzakien nola harturen zen: legeak debekatzan zuen sartzea, biziaren penan, erregeren gelan hartaz beraz galdegina izan gabe: hori bera adi-arazi zion bere osabari, zioelarik oraino: nola agertuko naiz erregeren aitzinean, badu hogoi eta hamar egun baino gehiago ez duela egin ene galderik?

Mardokeek gaztiatu zion Estheri mandataria beraz: ez duzu zeren iguriki zu izanen zarela yuduen arrear bakharra bizia begiratuko duzuna, erregeren palazioan zarelakotzat. Ez balin bazara herstura huntan mintzatzen, Jainkoak idekiren diote yuduei bertze biderik ez izatekotzat galduak; eta zu eta zure aitaren ethorkitik heldu direnak, izanen zarete bizia galduko duzuenak. Nork daki etzaren izan tronurat altxatua gu behar ordutan laguntzekotzat?

Estherek gaztiatu zion Mardokeeri: zohazte, bil zaitezte yudu guziak Susako hirian: barur zaitezte, hirur egunez eta hirur gauetz, eta egizue othoitz enetzat. Ni ere barurtuko naiz ene neskatxeekin. Gero hurbilduko natzaio erregeri. Hil behar banaiz ere, hartarat nago.





Mardokeer egin zuen Estherek gaztiatu zuen bezala. Altxatu zuen bihotza Jainkoaganat, eta erran zion: Jauna, Jauna, errege guziz bothere-tsu; guziak zure eskutan dire: gauza guzien kreatzaillea eta yabea zara: ez da nihor zure nahiari bortxa egin ahal diozokenik. Badakizu ez dudala nahi izan adoratu Aman supherra. Ez nindabillan ez orgilleriaz, ez eta arbuioz. Bozik emanen nintzen haren oinen azpian Israelen onetan; ordean beldur nintzen bihur gizon bati ohore bat bakharrik zuri zor zaitzuna. Othoi, o! zu Abrahamen Jainkoa, urrikal bekizu zure populua: ikhusten duzu etsaiek hil nahi gaituztela.

Esther, bere aldetik, erran zitzaion khartsuki othoitziari; ikhuxirik bere populua herostura, utzi zituen berregintzak; urrin-onen orde, estali zuen bere burua hautsez eta zaurthu barurez bere gorphutza. Zenbait egun iragan zituenean othoitz fidantziak betheak zirenetan, eta penitentzia dorphen egiten, khendu zituen doluko soinekoak eta erran zen berregintza guzietan. Altxatu ondoan berriz ere bihotza Jainkoari, sarthu zen Asuerusen gelan. Tronua inguratzen zuten gauza eder eta distiosek lilluraturik, edo hobeki errateko, erregeren begietan ezagun zen haserradurak eror-arazi zuten Esther flakezan. Jainkoak, momento hartan, ganbiatu zuen erregeren bihotza, berak altxatu zuen lurretik eta lagundu atheratzen flakeza hartarik, erranen zioela: zer duzu, Esther? ez izan beldurrik: etzare hillen. Ene manua ez da zuretzat emana. Esther abiatu zen altxatzen bere flakezatik, eta erran zioen erregeri Jauna, zu ikhustean, iduritu zait aingeru bat ikhusten nuela. Inguratzen zaituen distiadurak lastu eta asalatu du ene barne guzia. Hitz hauk erratean, Esther erori zen berriz ere flakezan. Bere ezagutzarat ethorri zenean, erregek erran zion: Esther, zer da zuri atsegin egitekorik? Galdetzen badarotazu ene erresumaren erdia ere, emanen darotzut. Jauna, ihardetsi zioen Estherek, othoitzten zaitut ethortzeaz, egun berean, zuretzat aphain-arazi dudana othuruntzarat, Aman ere han aurkhi-arazteaz. Ordu berean erregek manatu zion Amani egiteaz erreginak nahi zuena. Errege eta Aman aurkhitu ziren othuruntza hartan. Yan zutenean, erregek yakin nahi izan zuen zer galdetzen zuen Estherek harenganik. Erreginak ihardetsi zioen: errekeritzen zaitut, Jauna, ethortzeaz bihar ere hunat Amanekin, eta erranen darotzut zer nahi dudana.

Aman bihurtu zen etxerat guzia boztua izan zuen ohoreaz. Palaziotik lekhora bathu zuen Mardokee athean yarria, eta etzitzaion altxatu salutantzia egiteko. Horrek etzuen gutitu Amanen sumindura yudu haren alderat. Etxean sarthu zenean, bil-arazi zituen bere adiskideak. Egin zioten hainitz espantu bere aberatstasunez, erregek harentzat zuen amodio-

az, eta guziz, erreginaren mahainean yateko zuen fagore bereziaz. Hauk guzien erdian, zioen, ene barneak ez du izanen deskantsurik Mardokee yudua palazioko athean ibilliko deino. Horren gainean, bere emazteak eta adiskideek erran zioten: mana ezazu urkhabe gora bat: eta galde diozozu, bihar goizean, erregeri onets dezan urkharaz dezazun Mardokee. Amanek laudatu zuen abisu hura, eta eragin zuen urkhabe bat berrogoi eta hamar beso gora zena.

Erregek iragan zuen gau hura lorik egin gabe, eta irakhur-arazten haren erresumari zatxeizkon paperak. Entzun zuenean nola nahi izan zioten haren biziari, eta Mardokeeri esker, izan zirela atzemanak eta punituak bizia eraman nahi ziotenak, galdetu zuen: zer ohore eta sari ezagutu zaizko Mardokeeri halako zerbitzu baten alderat? Han ziren aitzindariak ihardetsi zuten etzuela izan saririk. Erregek galdegin zuen bazenez nihor haren gelaren hurbillean. Aman han aurkhitzen zen doi doia, ethorria galdetzekotzat erregeri Mardokeen urkharazteko laudamendua. Erregek yakin zuenean Aman ingurutan zela, sar-arazi zuen bere gelarat, eta erran zion: zer egin behar luke errege batek altxatzekotzat bere azpiko bat ohore den handienetarat? Amanek, uztez hartaz mintzo zitzaioen errege, ihardetsi zioen: erregek ohoratu nahi duenak yauntzi behar ditu errege baten soinekoak, izan behar da jgana erregeren zaldiaren gainean, gortheko lehenbizikoak atxiki behar ditu eskutan zaldi haren bridak, ibilhi behar da hiri guzian erran den moldean, eta egin behar da karrika guzietan oiho: hunela izanen da ohoratua erregek ohoratu nahiko duena. Amanen solas huntarik lekhora, erregek erran zioen berari: zohazi, orai berean, eta egin diotzatzu Mardokee yuduari, palazioaren athe aitzinean denari, erranik heldu zaren gauza horiek guziak. Beira ordean eskasik egin deuseretan.

Amanek yauntzi zioen beraz Mardokeeri errege bati dagokon soinekoa, igan-arazi zuen erregeren zaldiaren gainerat. Eman zen bera haren aitzinean eskutan zaduzkala zaldi haren bridak, eta erraren zuen, oihuz, karrika guzietan: huna nola den ohoratua erregek ohoratu nahi duena. Zeremonia, edo yusta hartarik lekhora, Mardokee bihurtu zen palazioko atherat, eta Aman, guzia ahalkatua bere etxerat. Aman mintzatu zitzaio ten bere damu minaz bere emazteari eta bere adiskidei. Guziek erran zioten baldin Mardokee yuduen kastatik heldu bada, nahi edo ez, amor eman behar diozu eta eroriko zara haren azpirat.

Hunela izan zen Mardokee humila altxatua ohore handitarat, Aman supherra beheratua izan zen denboran.





Asuerus bazkaldu izan zen egun hartan ere erreginaren mahainean, eta harat erakharri zuen Aman. Nahi izan zuen egundaino bezala, yakin Estherenganik zer zen bada harenganik nahi zuen gauza: hitz eman zion ardietsiren zuela galdeginen zuena, galdeturik ere bere erresumaren erdia. Orduan Esther mintzatu zitzaion erregeri hitz hautaz: utz diezaguzu, othoi, bizia niri eta ene populuari: hori da nik zuri galdetzeko dudan grazia guzia eta bakharra. Etsai batek yazarri nahi daroku zure izenaren itzalean, eta gal-arazi nahi gaitu zureganik, gezurrez, ardietsi duen bothere handiaren itxuran. Nor da bada, galdetu zuen erregek, etsai hura? Hura da, Jauna, ihardetsi zuen Estherek, ikhusten duzun Aman hori bera. Orduan errege sunindu zen Amanen kontra, eta athera zen aphur bat handik.

Amanek Jailer ezagutu zuen erregek etzioela utziko bizirik. Artikio zuen bere burua Estheren oinhetarat. Othoitztu zuen izan-arazteaz grazia. Arte hartan sarthu zen Asuerus. Ikhusi zuenean Aman Estheren oinhetan, abiatu zen erraten: zer! Amanek azkenaz goiti, bortxa egin nahi dio erreginari ene begien aitzinean, eta ene etxe bihotzean? Orduan berean erran zioten bazela urkhabe bat berrogoi eta hamar beso gora zena Amanek Mardokeentzat eragina. Erregek ihardetsi zuen: urkha bezate berehala Aman urkhabe hartan berean. Hala egin zen.

Egun hartan herean Mardokee agertu zen erregeren aitzinerat, Estherek erranik bere osaba zuela. Erregek bereganatu zuen Aman; eman zion erresuma, eta eman zioen Mardokeeri, zeina izan baitzen ordu bereatik Asuerusen erresumako bigarren gizona. Ikhusi izan zuten Mardokee erregeren palaziotik lekhora berregintza handienean, eta urrezko khoroa bat buruan. Hiri guzia yarri zen bozkarioan. Yuduei iduritzen zitzairen iguzki berri bat altxatzen zela heien argitzeko eta laguntzeko. Lehenbiziko manuaren orde, agertu zen bigarren bat zeinaren bidez hil-arazi behar baitziren yuduen etsai guziak eta Amanen umeak, yuduak hilarazi gogo zituzten egun hartan berean. Molde huntan yuduen izialdura eta bihotz mina izan ziren itzuliak allegrantzietarat.

## CXXXIV. KAPITULUA

**Job dituen guziez gabetua.**

**Haren pazientzia.**

**Haren adiskideak**

Job. 1.

Husko herrian zen gizon bat Job deitzen zena. Etzen nihor hura bezain aberatsik bazter hek guzietan. Bere ontasun guzien erdian, etzen batere supherra, aitzitik humiltasuna bera zen. Maite zuen Jainkoa. Urrikari zituen beharretan zirenak, eta laguntzen zituen artha handirekin. Bazituen zazpi ume batasunean heldu zirenak. Yaten zuten aldizka, bataak bertzearen etxean: hitz batez, elkharrez zakusaten.

Gauza guziak Jobi bere gogara zohazkon denboran, Jainkoak nahi izan zuen bulhuzi gizon saindu hura zituen guziez. Haren semeak eta alabak haurride zaharrenaren etxean othuruntzatzen hari zirela, hedatu zen gizon bat Jobganat, eta erran zion: Arabiarrak yautsi dire, bet-betan, gure gainerat, eraman-tuzte zure idiak eta astoak bere bazka lekhutarik, eta hil dituzte zure sheiak. Ni naiz bakharra itzuri naizena berri hau zuri ekhartzeko.

Gizon hura etzen hain laster ixildu, non agertu baitzen bertze bat erran zioena Jobi: irutzuria erori da zure ardien eta heien zaintzaileen gainerat. Guziak herrauts egin izan dire. Bakharra naiz itzuri naizena zuri berri hau emateko.

Bigarren hau hunela mintzo zela, horra non heldu den hirugarren bat erraten dioena Jobi: Kaldeendarrek eraman-tuzte zure kameluak, eta hil zure soldatan zintuenak. Bakharra naiz itzuri naizena berri hau zuri ekhartzeko.

Hirugarren hau ixiltzearekin batean, agertzen da laugarren gizon bat erraten dioena Jobi: zure semeak eta alabak mahainean zirela anaia zaharrenaren etxean, haize borthitz bat altxatu izan da etxea lurrerat artiki duena, eta zure ume guziak izan dire lehertuak. Ni itzuri naiz bakharririk zuri berri hau emateko.

Jobek entzun zituenean berri bihotz arrailagarri hek guziak, eman zen, ahuspez lurtean, adoratu zuen Jainkoa zioelarik: Jainkoak emanak nituen guziak, hark berak eramaten darozkit. Hark nahi duena egin da. Jaunaren izena zan bedi benedikatua.

Jobek izan zuen ordu berean zauri den izigarriena: hedatzen zen burutik oinetarainokoan. Etzana zen ongariaren gainean, eta eltze puska



batekin khentzen zituen zauri hartako zornea eta sortzen abiatuak ziren harrak. Utzia izan zen bere hurbillez eta bere ezagunez; emaztea zuen baxharrik bere aldean: hura ere ez haren laguntzeko eta kontsolatzeko, bainan bai haren tentatzeko eta Jainkoaganik, egin ahalaz, urrun-arazteko. Zer! erraten zion bere emazteak, bethi flako eta izpiritu ttipitako agertuko zare bada? Ez dakizu Jainkoaz arnegatzen eta hiltzen deskantsuan? Jobek ihardetsi zion bere esposari: emazte sentsurik ez duen bat bezala mintzo zara. Hartu ditugu onak Jaunaren eskutik, zergatik ez ditugu harturen gaitzak ere?

Hirur adiskidek yakin zutenean Joben berri, hedatu ziren harenganat haren kontsolatzekotzat. Aurkhitu zuten Job huntaraino desegina non ez baitzirurien lehenekoa. Ikhusgarri hark emanarazi zituen adiskide hek nigarretan; ordean haren kontsolatzerat egin behar bidean damustatu zuten minki, erraten ziotelarik: Jainkoak hain dorpheki yazartzen zioenez geroz, zenbait bekhatu handitan eroria izan behar zela. Iduki zituzten gauza hunen gainean elhe luze Joben prestutasunari etzagozkonak. Gizon saildu hark seguratu zituen bere adiskideak etzela hek uzte zuten gaixkiez batere hobendun. Aithortzen zuen guziarekin bekhatore handi zela, eta bazagokola oraino gehiago pairatzea. Joben aithor humilak etzituen ixilarazi hareri adiskideak, bethi zarontsatzen gizon doloratu eta prestu haren kontra, eta zauritzen zuten egia bere solas hedatuegietan.

Azkenean, Jainkoa mintzatu zitzaion Elifazi, hirur adiskide hetarik hati, eta erran zioen: haserre naiz zure eta zure bi laguneri kontra, zeren etzaretzen egiaz mintzatu Job ene zerbitzaria bezala. Har ezatzue beraz zazpi zezen eta zazpi akher, eta ofrenda dietzadatzue, Job ene zerbitzariak eginen du othoitz zuentzat, eta entzunen dut arraiki haren othoitz ardiets dezazuentzat barkhamendua. Egin izan zuten Jainkoak manatu ziotena, eta Jobek heien fagoretan egin zuen othoitz izan zen entzuna.

Jainkoak saristatu nahi izan zuen Jobek seinalatu zuen pairakortasun ezin erranezkoa. Eman zioen galdu zituen ontasun guzien dolea. Gizon saildu hark izan zituen zazpi seme eta hirur alaba. Ikhusi zituen laugarren belhauneko illobasoak, eta hil zen zahartze dohatsu hat eramanik.

Job prestua, bere oinhaze eta atsekabe guzien erdian, bethi pairakor, ezti eta leihal agertu zen bere Jainkoaren alderat: etzen erori bere emazte flako eta bigarren Eba haren erran lerragarritarat. Hortarik beretik, Jobek, saildu baten arabera, ohore gehiago izan zuen ongariaren gainean, ezen ez Adamek lurereko parabisuko nahikara eta atsegin guzien erdian.

Erran behar da Job miragarriaren pairakortasun etsenpluzkoak ungi kondenmatzen duela gure minberatasuna. Ez deus batek asaldatzen du

gure barneko bakea, eta galtzen-tugu floxki pazientziari datxeizkon fruitu gozo eta salbagarriak. Orhoit gaiten Jesus-Kristoren dizipulu gara. Beraz heltzekotzat zerurat, yasan behar ditugu humilki munduko atseka-beak, eta behar gaizko leihaltasun egjazko batekin yarraiki, gureganako amodioaren gaindiduraz gurutzean hil izan den nausi adoragarriari.



## CXXXV. KAPITULUA

### Matathiasen kharra. Judas Makabeen garaia

Antiokus erregeak hil-arazten zituen Juduak; odola zurrutan zohan Judeako eta inguru hetako hiri guzietan. Matathias aphez-handiak zaurtua zuen bere bihotza Jerusalemaren estatu auhendagarriaz. Hedatu zen Modin hirirat, eta emantzen nigarretan ikhustez bere populua zori-gaitza, Jerusalem eroria etsaieen eskutarat, hiri hartako gauza sakratuak eramanak erresuma arrotzetarat eta gaixtaginen artean partituak. Matathias prestuak nahiagoko zuen galdu bizia, ezen ez ikhusi hauk guziak. Hautsi zituen bere soinekoak. Estali zen zakhu batez, eta urtzen zituen nigarrezko ibaiak. Bere atsekabearen auhendatzen hari zela, Antiokusek egorri zuen Modingo hirirat aitzindari bat erakhartzekotzat hango populua idolei sakrifikatzerat. Aitzindari hark egin zituen munduan egin ahalak nahiz Matathias eskuratu; ordean gizon saildu hunek ihardetsi zioen animorekin: Guziak ekharriak balire ere Antiokusen nahia egiterat, ez diogu obedituren, ez nik, ez eta ene umeek eta ene anaiek. Gure Jainkoa da bakharra adoratuko duguna.

Matathias horrela mintzo zela, agertu zen yudu bat idolei sakrifikatzerat heldu zena. Aphez-handi haren bihotzak gaindi egin zuen damuz. Sustatu zen Jainkoaren alderako kharraz, hil zuen, han berean, yudu idolatre hura eta hura sakrifikatzerat behartu zuen, eta erregek egorria zen aitzindaria. Athera zen gero hiri hartarik oihu egiten zuela: yarraik bekizkit Jainkoarengat leihal direnak: egin zuen ihes menditarat bere bortz umeekin, zeinak baitziren Joanes, Simon, Judas Makabee deithua, Eleazar eta Jonathas. Yudu animotsuenak eta Jainkoaren legeari gehienik emanak yarraiki zitzaizkon Matathiaseri. Egin zen hek guziez armada bat. Zehatu eta khendu zituzten idolatreak, desegin zituzten aldare profanoak eta zir-kunzisu zeremonia hartarik iraganak etziren haurrak. Jainkoak benedikatu zituen heien armak.

Handik laster, Matathias eritu zen. Ikhusi zuenean hurbiltzen zitzaiola azken orena, bere umei erran zioten: urgilleria eta gaixtakeria nausitzen hari dire. Zuen fedea ez bedi kordoka: zaudete bethi leihal Jainkoaren alderat, ez izan gaixtaginaren beldurrik. Haren mundu huntako ohorea khearen pare da: egun altxatzen da, eta bihar lurpean sarthua daite, harren bazka egina. Arma zaitezte, ene haur maiteak, animo saildu

batez, eta guduka zaitezte khartsuki. Simon zuen anaia buru onetakoa da. Baliaturen zaitzue aitatzat, yarraik zakizkote haren erranei: Judas Makabee har beza zuen tropeen aitzindaritasuna: erakhar ezatzue zuengana legea begirutzen dutenak. Matathiasek hitz hauk erran zituenean, benedikatu zituen bere umeak, eta artiki zuen azken hatsa.

Judas Makabee bildu zituen Jainkoaren alderat leihal egon zirenak, eta egin zuen hek guziez sei milla gizonetako armada bat. Haren lehenbiziko lana izan zen Jainkoa othoitztea arren arraiki beha ziozon bere populuari, izan zezan urrikalmendu bere tenpluz eta hiri sailduaz, entzun zezan hobenik gabe hillak izan zirenen odolaren oihua, eta orhoit zadin haren izen sailduari egin zitzaizkon idoeiz. Orduan *Jainkoaren haserradura izan zen itzulia miserikordiarat*. Judas Makabee agertu zen ezin erranezko animoarekin. Ikharan zaduzkan bazter guziak. Aurkhitzen zen Judako hiritan, khentzen zituen hetarik gaixtaginak, xehakatzen zituen aitzinerat heldu zitzaizkon etsaiak, eta haren animoaren ospea hedatzen zen lekhu guzietarat.

Apollonius, Samaria hiriko gobernadorea, athera zitzaion armada handi baten buruan. Judasek laster garaitu zuen. Hil zuen, eta hartu haren ezpata, zeinetaz baliatu baitzen geroztik gudu guzietan.

Seron, Siriako erregeren armadako aitzindaria, nahi izan zen seinalatu Judas garaiturik. Abiatu zen ezin erran bezanbat tropeekin yuduen ondoan, hurbildu ere zen heien erresumarat. Judasek etzuen arren gizon guti baizik, athera zitzaion biderat; ordean haren armada ttipiak ikhusi zituenean etsai hek guziak, izitu zen, eta erran zioen bere buruzagiar: nola guduka gaitezke armada handi eta borthitz baten kontra? Judasek ihardetsi zioten armada xumenak garai dezake handiena, Jainkoarentzat orobat errex da garaia ematea gutiei nola hainitzei. Zerutik heldu da indar guzia. Siriarrak hemen ditugu supherki ethorriak gure hiltzerat, gure emazteekin eta gure umeekin batean, yabetzekotzat ditugun guziez; ordean gu, gudukatzen gara bakharrik gure bizien eta gure legearen begiratzekotzat. Ez izan deuseren beldurrik: nausituen gara gure etsaiez. Hunela mintzatu ondoan, erori zen Siriarren armadaren gainerat, hetarik izan ziren zortzi ehun gizon hillak, eta bertze guziak eman zitzaizkon ihe-sari.

Judasek zaramatzen biktorien berria hedatu zen Antiokusen beharritarat. Printze hunek, bekaxturik, hartu zituen bere tresorak, eta bildu bere erresumako hurren gizon guziak Makabeeri gudu ematekotzat. Ptolemeo, Doriminiren semea, Nikanor eta Gorjias, erran nahi da, Antiokusen gerla gizon famatuenak izan ziren manatuak Judearat heltzeko yuduei



yazartzekotzat. Armada handi hark eman zuen, hastean, izialdura Judas Makabeeri zarraizkon gizon bakharretan. Munduak huntaraino zadukan Antiokusentzat garaitia, non heldu baitziren, alde guzietarik, merkataririk yuduen erosterat, gathibu eginak izan balire bezala. Judasen animoak altzarazi zituen haren yende aphurren bihotzak. Erakharri zituen ezartzerat Jainkoa baitan bere fidantzia guzia. Orhoit-arazi zituen Jainkoak heien arbasoei egin izan ziotzaten laguntza miragarriez, guziz, hil-arazi zitue-nean ehun eta lauetan hogoi eta bortz milla gizon Senakeriben denboran.

Judasen hitzek suslatu zituzten yuduak, eta ordutik ekharriak ziren bere bizien sakrifikatzerat bere legearen eta bere herrien begiratzekotzat. Eman zen gudua: eta Judas Makabee garaitiar gelditu zen. Denborarik batere galdu gabe, aitzindari prestu hunek eskerrak bihurtu ziotzon Jainkoari egin ziotzon fagore seinalatuez.

Garaitia aiphatu ditugunetarik lekhora, Judasen eta haren anaieen lehenbiziko artha izan zen garbitzea eta erreberritzea Jaunaren tenplua. Aurkhitu zuten lekhu saildu hura azpikoaz gora itzulia, aldarea profanatu, atheak erreak, aphezen egoitzak osoki deseginak. Ikhusgarri doloragarri hark zaurthu zituen damurik minenaz haurride heien bihotzak. Estali zituzten bere buruak hautsez, isuri zituzten nigarririk kharatsenak, eman ziren ahuspez lurrean, eta othoiztu zuten Jainkoa begira zetzan erortzetik leheneko gaixki beretarat, eta hei arinkiago yazartzeaz aski esker gabeak balin baziren haren berritan ofentsatzekotzat.

Judasek berezi zituen aphez notharik gabeak, eta Jaunaren legea leihalki begiratuko zutenak. Tenplua izan zen erreberritua, idolatren sakrifizioentzat baliatu zen aldarea lurrerat artikia, eta eragin zuten bertze bat Jainkoari konsekratu zitzaiona lehenbiziko aldarea profanatu zen egun berean. Konsekrazione hura egin izan zen allegrantziatzko kanta, eta musikako soinu eder guzien erdian.

## CXXXVI. KAPITULUA

### Antiokus gaixtoaren heriotzea

1. Mac. 16.

Judas Makabeek bktoria biktoriaen gainean zaraman ordu hartan berean, Antiokusek huts egin zuen bere kolpea. Nahi izan zen yabetu Persako hiri batez, eskuratzekotzat hango tenpluan ziren tresor handiak; ordean hiri hartako populuak harturik armak yazarri zioen errege hari, egorri ere zuen ihes. Antiokusek, bere erresumarat bihurtzen zela, entzun zuen yuduek zehatu zituztela, behin baino gehiagotan, haren armadak, gerotik gerorat, borthititzen eta ikharagarri egiten hari zirela, arriki zutela lurrerat hark eragin zuen idola, eta erreberritu zituztela tenpluko murrak.

Hulako berriek eman-arazi zuten Antiokus suminduran. Yazarri nahi izan zioten yuduei; eman zen bere armada guziaren aitzinean: egin zuen yuramentu etzuela utziko Jerusalemen harririk baizen, eta hil-araziko zituela hiri hartan ziren yudu guziak; ordean lazterregi zohala, erori izan zen, eta haren gorphutz guzia izan zen zaurthua. Printze supher hark itsasoko uhinei ere, iskritura sainduaren arabera, manatu nahi ziotenak, eta bere burua zerua bezain gora zadukanak, ezagutu behar izan zuen Jainkoaren bothere guzizkoa. Ala humiliatua izan baitzen! harra zarion gaixtagin haren gorphutz ustelduari; haren haragiak pusketan zohazen; atheratzen zen haren zauritik urrin bat, berak eta haren armadak ezin yasan zezaketena. Haren oinhazeak eta tormentak borthititzuz zohazen: halarik ere gelditzen zitzaion oraino hatsa.

Jainkoak egorri zioen zauri izigarriak ezagutarazi zion, azkenean, Antiokusi bere orgilleria. Sarthu zen aphur bat bere baitan, aithortu zuen Jainkoa zela guzien nausia, etzagokola gizonari bere burua harekin berdin egitea. Bilarazi zituen bere adiskideak, eta erran zioten: orai orhoitzen naiz Jerusalemen egin izan ditudan gaixki guziez, eta yuduen hil-arazteko eman izan dudan manu kruelez. Ikhusten eta ezagutzen dut ene bekhatuek huntan eman nautela, eta hiltzerat nohala atsekabez eta urrikiz hirtua herri arrotz batean. Ordutik, bertzelakoak ziren errege dohakabe haren sentimenduak, erakutsterat ematen zuen libro nahi zuela utzi funditu gogo zuen hiria: hitz ematen zuen berreginduren zuela tenplu saildua, berak ontasun eta edertasun guziez bulhuzi zuena: zioen oraino, emendaturen zituela Jaunaren etxeko aberatstasunak, besarkatu nahi zuela yuduen erreljionea, eta manatu zuen publikatzeaz lekhu guzietan Jainkoaren bothere guzizkoa. *Ordean gaixtakia hark othoiztzen zuen Jainkoa harenga-*



*nik miserikordiarik iguriki behar etzuenean, eta zerako yuiamendu yustua orduko haren kontra emana zenean.*

Antiokusek ikhuserik bere oinhazeak etzitzaizkola gutitzen, eta etsizeko zuela bere biziak; iskribatu zioten yuduei guthun edo letra bat: hei othoitz humil bat egiteko bezala: huna nola: «Antiokus erregek salutazten-tu bere herritar on yudu guziak, desiratzen diote osasuna eta berek nahi duten guzia: osasuna balin baduzue zuek eta, zuen umeek eskerrak bihurtzen diozkat Jainkoari. Nola hartua bainaiz gaitz handi batez, eta bethi ekharria bainaiz bihotzez, zuen eta ene azpiko guzien alderat, ene erresumako egitekotan dadukat gogo. Ez da errana ez dudala uzte sendaturen naizela: aitzitik barneak ematen darot eritasun huntarik altxatuko naizela; ordean zer nahi gertha, ni hil ondoan, ez izatekotzat asaldurarik ene erresuman, izendatzen dut Antiokus ene semea ene ondoriotzat. Othoitzten zaituztet beraz orhoitzeaz eneganik izan ditutzuen fagoreez, dela agerian, dela munduak yakin gabe, eta leihal izateaz haren alderat ene alderat izan zaretan bezala. Gomendatu diot zuen ezteki eta arraiki ekhartzeaz, eta igurikitzen dut emanen diotzala, behar ordutan populuari maite duelako seinale guziak». Letra hau egin zuenetik laster, eta hamabi urthez erreginaturik, hil izan zen Antiokus aiphatua. Gaixto eta blasfematzaile agertu zen Jainkoaren alderat; hil-arazten zituen barbaria handienarekin leihalkienik zerbitzatzen zutenak berak: etzuen gaixtakeriarik eta sarraskirik baizen gogoan. Hala hala, izan zuen heriotze bat haren bihotz gogortasunari zagokona. Zaurthua izan zen zauri den izigarrienaz, gaitzetsia bere adiskidez eta presuna prestu guziez, abhorritua bere soldaduez, hitz batez, etzen nihortaz maitatua aitzitik guziek arbuiatzen zuten. Hortik ezagun da haren heriotze ondikozkoak damu baino atsegin gehiago egin zuela haren erresuman eta bazter guzietan.

Antiokus gaixtoaren etsenplu ikharagarriak irakhasten daroku ez dela iguriki behar azken egunetaraino Jainkoaz orhoitu gabe, salbamenduko egiteko handiari zinki lothu gabe. Ala bakharrak baidire Jainkoarenganat behar den bezala bihurtzen direnak hiltzerakoan! Ala guti kondatzeko baida orduan erakutsten diren urriki eta sentimendu onen gainean! Hain errex othe da bada bihotz bekhatutan ohitua munduarekin, plazerekin, denbora luzez yosia egon dena bet-betan, bertze bat egin dadin! Utz detzan, arte laburrez, bere yaidura zaharkituak eta gaixtoak berrien eta onen hartzekotzat! ez, ez, ez da hain gauza errex maitatzea berehala bethi arbuiatu eta behinere zerbitzatu ez den nausi adoragarria.

Ala zuhurra baida S. Augustinen hitz hau! Nahi zara ungi hil? Ungi bizi zaite. Heriotze ona bizitze onaren gollardo da.

## CXXXVII. KAPITULUA

**Eleazaren animoa.**

**Judas Makabeen heriotzea**

1. Machab. 9.

Judas Makabeek egundainoko khar bera agertzen zuen bere erreljionearen fagoretan. Jainkoaren laguntza yarraikitzen zitzaion, guzierarat, beregainki orai aiphatuko ditugun bi alditan.

Timothee zaritzon aitzindari bat, hurbildu izan zen armada handi batekin Jerusalem. Makabee eta haren soldaduak eman ziren, ahuspez, aldarearen oinetan, buruak hautsez estaliak: othoitztu zuten Jainkoa emateaz bere laguntza saildua etsaien garaitzekotzat. Bere othoitzta egin zutenean, hartu zituzten armak, eta egin zuten bide etsaietarat. Iguzkia agertzerat, bi armadak hurbilduak ziren elkharganik. Gudua bere borthitzenean zela, agertu ziren, Judasen bi sahetsetan, bortz zamaldun artikitzen zituztenak suak eta irurtzuriak etsaietarat. Erori ziren hetarik hogoi milla gizon hil gogorrek lurrerat. Timotheek ihes egin behar izan zuen; ordean hartua izan zen eta hilla.

Lisiasek ere bildu izan zituen lauetan hogoi milla oinezko gizon, zituen zamaldun guziak, eta ez dakit zenbat elefanta. Nahi izan zioen yazarri bigarren aldikotzat Jerusalemeko hiriarri hango tenpluko aberatstasunen hirrisak zarabillan. Sarthu zen Judean, eta sethiatu zuen Bethsura: hura zen lekhu borthitz bat, Jerusalemetik hurbil zena.

Makabeek eta populu guziak othoitztu zuten nigarretan Jainkoa egortzeaz aingeru bat Israelen begiraterat. Othoitzetik lekhora, Makabeek hartu zituen armak, eta erran zioten bere tropel egin ahalen egiteaz laguntzekotzat bere anaiak. Athera zirenean hiritik fidantziak betheak, ikhusi izan zuten gizon bat zamariz, lantza bat eskuan. Benedikatu zuten Jainkoa, elkhar animatu zuten eta ekharriak ziren gudukatzerat gizonen eta basa-abere guzien kontra. Erori ziren lehoinak bezala etsaien gainerat, hil zituzten hetarik hamabi milla eta sei ehun gizon, eta egorri zituzten bertze guziak ihes. Liliasek ikhusi zuen, ordu hartan, yuduak ezin garai zitezkeiela, Jainkoaren laguntzaren gainean kondatzen zutenean.

Judas Makabeen guduak etziren nihon baratzen.

Antiokus Eupator sarthu zen Judean ehun milla gizon oinezkoekin; bazituen, bertzealde, hogoi milla gizon zamaldun eta hogoi eta hamabi elefanta gudutan ohituak. Judas yarri zen othoitzetan, lehenetan bezala:





errekeritu zuen Jainkoa, nigarra begian, haren populua etzadin eror haren izen saindua profanatzen zuteneen eskularat. Yazarri zioten, gau minean, etsaiei, izan ziren hautarik lau milla hillak, eta bertzeak urrundu ziren, ahal bezala, handik.

Antiokusek ikhusten zuen yuduen animoa eta kharra; ordean bethi igurikitzen zuen garaituak izanen zirela elefanta hek guzien ariaz. Egundaino bezala lothu nahi izan zitzaion bigarren gudu bati. Yo-arazi zuen tronpeta, eta haren armada guzia yarri zen armetan. Elefanta guziak bazuten zurezko dorre bana bizkarrean, eta dorre hetarik bakotxean aurkhitzen ziren hogoi eta hamabi gizon berezienetarik, arma zorrotzez betheak.

Deusek ere etzuen kantitzen Judasen animoa eta Jainkoa baitan zuen fidantzia. Bi armadak lothu zitzaizkon elkhari. Eleazar deithzen zen yudu batek, ikhusirik elefanta bat bertzeak baino handiagoa eta erregeren armez estalia, uzte izan zuen errege bera haren ganean zela, eta nahi izan zuen bere populua libratu bere burua sakrifikaturik. Hurbildu zitzaion ezin erranezko animo batekin elefanta hari, hiltzen zituela, eskuin eta ezker, bere bidean bathzen zituen guziak, emantzen abere handi haren sabelaren azpian, zilhatu eta eror-arazi zuen lurrerat, eta bera izan zen elefantaren erorikoaz lehertua.

Judas eta haren soldaduak seinalatu ziren bere animo miragarriaz: etziren ordu hartan garaitiar gerthatu. Utzi behar izan zuten gudua. Handik laster, yuduek egin zuten bake ohorezko bat etsaiekin. Antiokus bihurtu zen bere erresumarat. Ondoko urthean, Demetrius bere osabak eraman ziotzan khoroa eta bizia.

Demetriusek egorri zuen armada handi bat Judearat. Etsaiak hurbildu ziren Jerusalemerat, eta Judas athera zitzaioten hirur milla gizonekin. Armada ttipi hau izitu zen ikhustez bere aitzinean etsai hek guziak. Gehienak eman zitzaizkon ihesari, eta etziren gelditzen yudutarik zortzi ehun gizon baizik. Iduri zuen Judasen animoak etzuela leheneko kharra, eman zitzaion gogoetari. Halarik ere, erakhartzen zituen bere soldadu bakharrak etsaiei yazartzerat; ordean herabe ziren gudukatzerat, eta erraten zioten bere buruzagiari: ezin ager gaitetzke etsaien begietarat. Gutiegi gara; gure hoberena da gure biziaren begiratzea eta gure anaietarat heltzea, gure armada xumea emendatu arteraino. Judasek ihardetsi zioten: Jainkoak begira gaitzala ihes egitetik. Gure azken orena hurbildua balin bada, eman detzagun animorekin gure biziak gure anaieen fagoretan; ez dezagula gure ohorea goibel ihes laidotsu batez.

Eman zen gudua, eta iraun zuen goizetik arratseraino. Judasen animo pare gabea seinalatu zen egundaino baino gehiago. Hil izan zen

hainitz gizon alde batetik nola bertzetik. Azkenean Judasek ere galdu zuen bizia. Ordu beretik, haren soldadu guziak eman zitzaizkon ihesari. Jonathasek eta Simonek altxatu zuten Judas bere anaiearen gorphutza, eta ezarri zuten bere burasoen hobian.

Israel guziak auhendatu zuen, zenbait egunez Judas bere buruzagia, zioelarik: Zer? hil da bada nihork ezin garai zezakeien, eta Israelgo populua begiratzen zuen gizon miragarri hura!





## CXXXVIII. KAPITULUA

**Jonathas eta Simon aphez-handiak;  
bataren eta bertzearen heriotzea**

1. Mach. 9.

Judas Makabee hil zenean, yuduek hartu zuten bere aitzindaritzat Jonathas haren anaia, eta hura bera ziruriena prestutasunaren eta animoaren partetik. Siriarrek bere erresuman zituzten guduei esker, yuduak bakean bizi ziren. Aitzindari berri hark egiten zituen bere egin ahal guziak ez asaldatzekotzat bere populuaren deskantsua. Erreberritu zuen Erromarekin Judas Makabeek heiekin, hiltzeko aitzinean, egin zuen batasuna: orobat egin zuen bertze nazioeen alderat, eta beregainki lazedemoniarren alderat. Azken aipatu dugun populuari Jonathasek egin zioen guthunean, gaztiatzen zioen orhoitzeaz aspaldion elkharrri ekhartzen zioten amodioaz, eta segurutzen zituen lazedemoniarrak yuduek etzutela bilhartzten heien adiskidetasuna, heien beharra zutelakotzat: etzutela nihongo laguntza beharrik, aski zituztela bere konsolamenduarentzat eskutan zituzten liburu sailduak.

Jonathasek gobernatu zuen bere populua hemezortzi urthez. Ephe hartarat zenean, yabetu ziren hartaz Ptolemaidako hirian Trisonen manuz. Traidore hunek hil-arazi zituen aitzindari Jainkotiar hura eta haren bi umeak. Jonathasez yabetu zirelako berriak damustatu zituen yudu guziak. Simon haren anaia zaharrena eta urthe hainitz zuena, hedatu zen berehala Jerusalemertat. Bil-arazi zituen yuduak, eta nahiz altzarazi heien bihotz eroriak, erran zioten: badakizue nola gudukatu izan garen, eta zer pairatu izan dugun gure legeen eta gure tenplu sailduaren sustengutan, ene anaiek, ene familiak eta nik. Ene haurride guziek galdu izan dute bizia Israelen begiratzekotzat, baxharra gelditzen naiz hek guzierarik; ordean Jainkoari nahi ez dakioela guphidets dezadan ene bizia oraingo hersturan. Ez dut, urrun da, ene aitzinagokoek baino gehiago balio. Solas hunek hedatu zuen animoa yuduen bihotzetarat. Ezagutu zuten aphez-handitzat Simon, Jonathasen orde, eta eman zen egitekoen buruan. Yuduak Simonen denboran izan ziren libratuak Siriako erregeen uztarritik. Aphez-handitasunerat altxatua izan zenetik zortzi urtheen buruan, Ptolomee bere suhiak hil izan ziren traidorekeriaz, othuruntza batean Simon eta hunen hi seme. Ptolomee etzen hartan baratu, nahi izan zuen hil-arazi oraino Simonen bertze seme bat, Joanes Hirkan deithzen zena; ordean

Hirkanek, hil nahi zutelako berria entzun zuenean, har-arazi zituen haren hiltzeko manua zutenak. Handik laster, Hirkan hau bera altxatua izan zen haren aitak zuen aphez-handitasunerat.

HEMEN AKHABATZEN DA MAKABEEN ETA  
TESTAMEN ZAHAR GUZIAREN HISTORIOA